

euskal estatua^{ri} bidea zabaltzen



lurraldea eta sozioekonomia



iparhegoa

IKASKETA
SINDIKALETARAKO
FUNDAZIOA

EUSKAL ESTATUARI BIDEA ZABALTZEN

lurraldea eta sozioekonomia

Ipar Hegoa Fundazioa / Udako Euskal **Unibertsitatea**



Egilea: Ipar Hegoa Fundazioa
Laguntzailea Udako Euskal Unibertsitatea

ISBN: 978-84-8438-423-9

Lege-gordailua: BI-1289-2012

Inprimategia: PRINTHAUS S.L., Bilbo
Azalaren diseinua: Ipar Hegoa Fundazioa
Hizkuntza-zuzenketen arduraduna: Ander Altuna Gabiola

Banatzaileak:

Ipar Hegoa Fundazioa

Alameda Rekalde 62-behea 48010 Bilbo telf. 944706915

Helbide elektronikoa: iparhegoafundazioa@labsindikatua.org

Udako Euskal Unibertsitatea

Erribera 14, 1. D 48005 Bilbo telf. 946790546 Faxe. 944793039

Helbide elektronikoa: argitalpenak@ueu.org / www.ueu.org

Lizentzia honekin, edukiak kopiatu, banatu eta erakutsi zein lan eratorriak egin ahal izango dituzu, ondorengo baldintzak beteaz:

- Edukiaren jatorrizko egilea aipatu behar duzu.
- Edukiaren aldaketarik egiten baduzu, edo lan eratorri bat sortzen baduzu eta hau banatzekotan, honako lizentzia honen baldintza beretan egin beharko duzu.
- Ezin duzu lan hau merkataritza xedetarako erabili.

Aurkibidea

AURKEZPENA, <i>Ipar Hegoa Fundazioa</i>	5
---	---

Euskal Estatua eta lurraldea

SARRERA, <i>Iñaki Antiguiedad Auzmendi</i>	11
1. LURRALDEAREN DIMENTSIOA ESTATUAREN ERAKETAN, <i>Oskar Arantzabal Iraeta</i>	17
2. LURRALDEA ETA EKONOMIA. LURRALDEA, KONTZEPTU POLITIKO GISA ULERTUTA, <i>Jabier Erize De La Rica</i>	33
3. LURRALDEA ALA FUNTZIOA, KOMUNITATEA EDO(TA) ESTATUA?, <i>Josu Larrinaga Arza</i>	49
4. EUSKAL HERRIAN GARAPEN SOZIOEKONOMIKO DEMOKRATIKOA LORT- ZEKO, EGUNGO BOTERE POLITIKOAK LURRALDE-ANTOLAMENDUAREN GAINEKO ERABAKIAK HARTZEKO DITUEN EZINTASUNAK, <i>Alberto Frias Gil</i>	63

Euskal Estatua eta sozioekonomia

SARRERA, <i>Txomin Lorca Alcala</i>	79
1. EUSKAL HERRIA: EUROPAR BATASUNEKO HEGO-MENDEBALDEKO NAZIO ESTANDARRA, <i>Xabier Isasi Balantzategi eta Asier Otxoa de Retana Simon</i>	87
2. EUSKAL ESTATUA ETA SOZIOEKONOMIA, <i>Nekane Jurado Pérez</i>	115

3. EUSKAL ESTATUARI BEGIRA: AHULEZIAK, INDARRAK ETA KRISI EKONOMIKOAREN ONDORIOAK EUSKAL EKONOMIA-EHUNEAN, <i>Antón Borja Alvarez</i>	149
4. EUSKAL EKONOMIA BIDE GURUTZEAN, <i>Ekai Center</i>	173
5. MONDRAGON KOOPERATIBA TALDEA EUSKAL ESTATUAREN SORRERAREN IKUSPEGITIK, <i>Antxon Mendizabal Etxabe</i>	191
6. EUSKAL ESTATUAREN BEHARRA LAN-HARREMANEN ETA GIZARTE-BABESAREN IKUSPEGITIK, <i>Aitor Bengoetxea Alkorta</i>	207
7. (EUSKAL) NAZIOAREN ERAIKUNTZA, LAN-MUNDUTIK ABIATUTA, <i>Francisco Letamendia Belunce</i>	229
8. KLASA-INTERESEN AZTERKETA EUSKAL ESTATUAREN ERAIKUNTZAN, <i>Iñaki Gil de San Vicente Larrañaga</i>	243

AURPEZPENA

Ipar Hegoa Fundazioa

IPAR HEGOA Fundazioaren helburuen artean, Euskal Herriarentzat interesa duten gai politiko eta sozialei buruzko azterketak eta hausnarketak egitea dago, horien inguruko eztabaidak sustatzeaz batera. Ildo horretatik, Euskal Herriaren bideragarritasun politikoaz etengabe hitz egiten den aro honetan, IPAR HEGOA Fundazioak bere ekarpena egin nahi izan dio gaiari. Izan ere, Euskal Herria lurraldez herri txikia dela esaten da; globalizazio-aro honetan zentzurik ez dutela zatiketa-prozesuek; denon arteko elkarlana eta ulermena bilatzen den garai honetan, independentzia aldarrikatzeak bereizketa sortzen duela herritarren artean, eta abar. Argudio egoki eta pisuzkoak erabiliz askotan, asko dira gaur egun estaturik ez sortzeko aipatzen diren faktore eta iritziak. Baina hori jakinda ere, hor ari dira milaka herritar estatua eskatzen. Ez da haiena ere argudio egoki eta pisuzkoa?

Modu batean edo bestean, oraingo nazioarteko testuinguruan, Estatua da erabaki politikoak hartzeko ahalmen osoaren adierazpen nagusia. Horregatik, gaurko Euskal Herrian, oraingo testuinguru politikoan, oso interesgarri eta beharrezkoa iruditu zaigu, Euskal Estatu bat European eraikitzeari begira, onura, aukera, mehatxu eta gabezien inguruko hausnarketa kolektibo bat egitea, hainbat alor jorratuz: politika, alor instituzionala, lurraldea, sozioekonomia, hizkuntza, kultura, identitatea, eta abar.

IPAR HEGOA Fundazioak dauden baldintza guztiak kontuan hartu eta Euskal Estatua bideragarria den jakin nahi izan du. Horretan sakontzeko, gaien adituak diren irakasle eta ikertzaileak batu ditu. Badakigu beste aditu asko ere badagoena, ekarpen ezin interesgarriagoak egin dituztenak askotan. IPAR HEGOA Fundazioaren helburua ez da izan, ordea, aditu guztien ekarpenak jasotzea, edo ordezkaritza orekatua lortzea jakintza-arloa edo herrialdeka. Ez dugu bilatu, bestalde, ikuspegi homogeneorik. Ez da izan hori IPAR HEGOA Fundazioaren asmoa. Aitzitik, egileek askatasunez hitz egin dute, Euskal Estatuaren beharra eta bideragarritasuna azpimarratzeko ideia orokorrari eutsiz, baina hortik aurrera jarrera eta ikuspegi desberdinak egon daitezkeela jakitun.

Horrela egin dugu, lanaren helburua ez delako Euskal Estatuaren konstituzio bat sortzea, edo Euskal Estatuak nolakoa izan beharko lukeen ezartzea. Helburua xumeagoa da, ordea, eta hein berean, erabakigarria: Euskal Estatua bideragarria da? Mereziko luke Euskal Estaturik osatzea? Euskal herritarrek ontzat joko lukete proiektua? Oinarrizko galdera horiei erantzunda, eta erantzuna positiboa izaki, bigarren aldi baterako geratuko lirateke errenkan etorriko liratekeen galderak, oro har, Euskal Estatua zertarako galderari erantzun beharko lioketenak.

IPAR HEGOA Fundazioak zinez uste du azterlan honek interes horri erantzun diezaiokeela eta, diziplina anitzeko ikuspegiz bertan biltzen diren gogoeten bidez, lagungarria izan daitekeela Euskal Herria oraingo nazioarteko testuinguruan bistartzeko eta hor kokatzeko; halaber, konparazioen bidez, lagungarria izan daiteke gaur egun estatuak osatzen dituzten eremuetan Euskal Herriaren posizio absolutu eta erlatiboa ezartzeko munduan.

Gure ustez, azterlan honetan jasotako ekarpen teoriko interesgarriak baliagarriak izango dira Euskal Estatuaren errebindikazioa edukiz hornitzeko, eta lagungarriak, halaber, horrelako apustu bat itxuratzeko beharrezkoa den oinarri material eta ideologikoa lantzeko. Izan ere, IPAR HEGOA Fundazioak uste du hori dela alternatibarik onena Euskal Herrian bizi eta lan egiten dugun pertsona guztiontzat, eta planteatu nahi du Euskal Herriak badituela oinarritzko potentzialtasunak, gaur eta orain, estatu bat Europako estatuen multzoan eraikitzeko.

Hortaz, **EUSKAL ESTATUARI BIDEA ZABALTZEN** izenburupean aurkezten dugun azterlan honen bitartez, IPAR HEGOA Fundazioak ekarpen kualifikatu bat egin nahi dio Euskal Estatuari eraikitzeko beharrari eta horren bideragarritasunari. Hiru liburutan banatu dugu, azterlana, sailkatu dugun hiru gai-arloen arabera: **Herrigintza eta erakundeak, Herritartasuna eta kultura, eta Lurraldea eta sozioekonomia.**

Hirugarrenez dihardu, hain zuzen ere, liburu honek.

LURRALDEAri zuzendutako atalean, Euskal Estatuaren eraikuntzari buruzko hausnarketari heltzerakoan lurraldearen gaia ikuspuntu desberdinetatik aztertze beharra justifikatzen duten arrazoiak argudiatuz hasten da **Iñaki Antiguedad**. Horretarako, lurralde kontzeptua bera ezaugarritzen du lehen eta behin: «Lurraldea ez da kontzeptu geografiko hutsa. Politikoa ere bada, eta soziala, eta ekonomikoa. Estatuaren eraikuntzan oinarri, eta euskarri fisiko dinamikoa. Lurralde barik ez da lurraldetasunik. Lurraldetasunak lurraldea behar du, eta lurraldeak lurra».

I. Antiguedaden iritzian, Euskal Estaturako bidea eta bidaia egin nahi baditugu, bestelako estatua lortzeko apustua izan behar da gurea, bestelako erronka helburu: «munduko iraunkortasuna gure etxekoa bermatuz». Iraunkortasunak hainbat definizio izan arren, berak gustukoa duena hau da: «mugak onartu beharra». Erronka honek aldaketa asko eta askotarikoak eskatzen ditu, ezinbestean, eta gauza asko birpentsatzea ere, «kontzeptuetatik hasita (garapena bera, iraunkortasuna, lurraldearen antolamendu-kudeaketa, muga fisikoak, independentzia, sozialismoa, produkzio-faktorea, ekonomia...) azken urteetan ipar- hegoan, eki-mendean, larrituz joan diren askotariko krisiaren argi berrira. Paradigma berriak sortze aldera aldatu ere».

SOZIOEKONOMIAri zuzendutako atalean **Txomin Lorcak** dioen bezala, politika ekonomikoak herrialde baten sistema ekonomikoaren antolakuntza eta beraren biziraupena definitzen ditu. Horregatik, edozein sistema ekonomikoren antolakuntzak erabakiak hartzeko gaitasuna eskatzen du, sistema hori antolatze; eskatu ere plangintza ekonomikoan modu eraginkorrean eragina izatea ahalbidetzen duten tresna instituzionalak eskuratzea eskatzen du. Proiektu sozioekonomiko autonomo baten bideragarritasunaren adierazpen goren estatu propioaren eraikuntza da.

Ikuspegi horretatik jorratzen dituzte liburu honetako autoreek beren ekarpenak, Euskal Estatuaren eraikuntza sozioekonomiaren ikuspuntutik aztertzean. Halaber, gogoetok oraingo krisiaren testuingurua hartzen dute kontuan beraz, azterlanak kokatu nahi du hemen, europar eraikuntzaren testuinguruan, eta orain, krisi ekonomikoaren testuinguruan, Euskal Herriak estatu propioa izatearen aukera.

Liburu honetan bildutako edukiak ekarpen interesgarri eta beharrezkoak dira agerian uzteko, politika sozioekonomikoaren oinarrietatik, Euskal Herriak dituen aukera errealak bere estatu propioa EBren barnean eraikitzeke. Horrez gain, T. Lorcak dioen bezala, Euskal Estatuaren eraikuntza proiektu integratzaile bezala itxuratzen da, zeren objektiboki interesgarria baita, aukera politiko eta identitarioetatik haratago, Euskal Herrian bizi eta lan egiten duten pertsona guztientzat.

Bukatzeko, IPAR HEGOA Fundazioak bere nahia adierazi nahi du azterlan honi lotuta, hau da, espero du Euskal Estatua eraikitzeke ikuspegiari buruzko ekarpen gehiago eta berriak sortuko dituen bide emankor baten hasiera baino ez izatea. Horrekin batera, zinez eskertu nahi du proiektu honetan parte hartu duten pertsonen erakutsitako interesa, baita bertara dedikatutako denbora eta egindako ekarpenak ere. Eskerrak, beraz, atalen koordinatzaile izan diren **Iñaki Antigüedad** eta **Txomin Lorcarri**, eta egile guztiei.

Euskal Estatua eta sozioekonomia

Txomin Lorca Alcala

Xabier Isasi Balantzategi

Asier Otxoa de Retana Simon

Nekane Jurado Pérez

Antón Borja Alvarez

Ekai Center

Antxon Mendizabal Etxabe

Aitor Bengoetxea Alkorta

Francisco Letamendia Belzunce

Iñaki Gil de San Vicente Larrañaga

Sarrera

Txomin Lorca Alcala, LAB Sindikatuko kidea

Zalantzarik gabe, estatu baten eraikuntzan, eremu ekonomiko eta soziolaboralak funtsezko lekua hartzen du. Horri begira, kontuan hartu behar da ekonomia ezin uler daitekeela ekoizpen kolektiboaren antolakuntzan eratzen diren botere-harremanak ulertu gabe. Halaber, ezinbestekoa da ulertzea zer ondorio dituzten botere-harreman horiek ekoizpenaren eremuan eta eremu horri babesa ematen dion eremu politiko-instituzionalean.

Horrenbestez, zer ekoizten den, nork ekoizten duen eta nola ekoizten den hizpide dugunean, ez dugu ekonomiaz hitz egiten, politika ekonomikoaz baizik. Ekonomia politikatik bereizten saiatzen diren bakarrak ekonomia eta beraren atzean ezkututzen diren interesak berezi nahi dituztenak dira. Horiexek soilik aurkeztu nahi dute ekonomia zientzia objektibo bezala, ekoizpen-bideen jabetzak sortzen dituen gatazketatik kanpo utzita.

Politika ekonomikoak herrialde baten sistema ekonomikoaren antolakuntza definitzen du, eta beraren biziraupena ere bai. Horregatik, edozein sistema ekonomikoren antolakuntzak erabakiak hartzeko gaitasuna eskatzen du, sistema hori antolatzeko; eskatu ere plangintza ekonomikoan modu eraginkorrean eragina izatea ahalbidetzen duten tresna instituzionalak eskuratzea eskatzen du. Proiektu sozioekonomiko autonomo baten bideragarritasunaren adierazpen gorenari estatu propioaren eraikuntza da.

Ikuspegi horretatik jorratzen dute liburu honetako autoreek beren ekarpenak, Euskal Estatuaren eraikuntza sozioekonomiaren ikuspuntutik aztertzean.

Halaber, beren gogoetek oraingo krisiaren testuingurua hartzen dute kontuan; izan ere, krisia kontraesan eta tentsio gero eta handiagoak sortzen ari da gainbalioaren ekoizpenaren eta gainbalio horren jabetze eta kudeaketaren artean, eta, aldi berean, botere politikoaren kontzentrazioaren eta behar sozialaren kudeaketaren artean. Beraz, azterlanak kokatu nahi du hemen, europar eraikuntzaren testuinguruan, eta orain, krisi ekonomikoaren testuinguruan, Euskal Herriak estatu propioa izatearen aukera.

Oraingo krisi ekonomikoaz hitz egitean, bada konpartitutako iritzi orokor bat, alegia, krisi hau ez dela krisi arrunta, muga ekonomikoak zeharkatzen dituelako eta zuzeneko eragina duelako eremu politiko, ekonomiko eta sozialean. Izaera sistemikoa duen krisi bat dugu aurrez aurre, eta, zalantzarik gabe, oraingo garapen-ereduari eutsi dioten zutabeak astintzen ari da.

N. Juradok dioen bezala, krisi hau merkatu deitzen zaion nebulosa batez inguratuta egon da, eta horrek duen asmo bakarra da krisiaren atzean dauden benetako interesen jokoak ezkutatzea; bada, halaber, aitzakia paregabea instituzioek krisiaren kudeaketan duten erantzukizuna saihesteko.

Gaur egun, ez litzateke izango oso zaila berrestea Espainiako estatua ukitzen duen krisiaren neurria dela, hain zuzen ere, euskal ekonomiari bere ondorioak modu dramatiko eta behargabekoan ezartzen ari zaizkiona, hain zuzen ere espainiar politika ekonomikoarekin duen mendetasunagatik; garbi dago, nonbait, gure enpresak, gure ekoizpen- eta gizarte-sarea eta gure instituzioak kaltetuta daudela espainiar ekonomiaren nazioarteko balorazioagatik eta Espainiako eta Frantziako estatuek alor ekonomiko eta soziolaboralean ezartzen dizkiguten erabakiengatik.

Dena dela, ez dugu «porrot egindako» estatuaren deskalifikazio erraza argudio bezala erabili nahi —bere partaide diren herrien identitate nazionalaren ukapenean oinarritzen den «porrot egindako» estatua— Euskal Estatuaren beharra justifikatzeko argudio nagusi bezala. Izan ere, Xabier Isasik dioen bezala, bai krisi ekonomikoarekin eta bai krisi ekonomikorik gabe, Euskal Herria EBko estatua izan liteke arazorik gabe, hots, tamaina bereko beste edozein estatu bezain garatua eta lehiakorra, ekonomikoki. EHri EBko 28. estatua izatea eragozten dioten arrazoiak arrazoi historikoak eta —batez ere— politikoak dira.

Estatuek oraingo nazioarteko testuinguruan duten izaera zaharkitua —gainditutako egitura politiko bezala aurkezten baitira— eta beren estatua European gaur egun izan nahi duten herrien bideragarritasun ekonomikoaren inguruko eztabaida modu interesatuan erabiltzen dira, jaurtigai bezala, zapalduta dauden beste errealitate nazional batzuek estataltasuna lortzea eragotzi nahi duten estatuen aldetik.

Horri dagokionez, Iñaki Gil de San Vicentek hauxe dio: ezkerreko jarreratik, errakuntza estrategikoa da onartzea, ia erresistentzia teorikorik gabe, estatuek beharrezkoak izateari utzi diotela herrientzat, haren ordeztuak ideia kosmopolitak eta «munduko herritarrek» izatearen kontzeptua lehenetsiz, munduko «gobernantza» demokratikoa alternatiba bezala aurkeztuta; izan ere, balizko alternatiba hori botere ekonomiko handien inposizio global bilakatu da. Interesgarria da, orobat, Francisco Letamendiak postfordismoaren azterketatik egiten duen ekarpena; haren esanetan, oraingo egoerak irekitzen du «nation-building» soziala eraikitzeko aukera, herriklaseak, langileak, sindikatuak, gizarte-mugimenduak eta ezkerreko alderdiak baldintza berdinetan bilduko litzukeen aliantza hegemonikoaren emaitza gisa.

EUSKAL ESTATUAREN BIDERAGARRITASUNA, ZENBAKITAN

Europako beste estatu batzuen errealitateari begiratuta, X. Isasik dio EBn badirela 16 estatu, geuk baino lurralde txikiagoa dutenak edo geuk baino biztanle gutxiago dituztenak.

Euskal Herriko per capita BPGa Frantziako, Espainiako edo Italiako estatuen moduko estatuena baino handiagoa da, eta haren BPGa 36. postuan dago Europako 266 eskualdeen artean. Gainera, Europako gainerako eskualde eta estatuekin

alderatuta, tasa hobeak ditugu produktibitatean, prestakuntzan eta gisa berekoetan.

Fluxu ekonomikoei dagokienez, Nekane Juradok datu hauek ematen ditu, beste batzuen artean:

Hego Euskal Herriko balantza komertziala (esportazioa/inportazioak) positiboa da: superabita gero eta handiagoa da, eta 2010. urtean 5.227,8 milioi eurokoa izan zen. Esportazioen bi heren EBra joan ziren.

Espainiako estatuarekin dagoen instituzio arteko fluxu finantzarioari dagokionez, N. Juradoren arabera, esan behar dugu 2004-2009 sasoian 11.700 milioi euro baino gehiago transferitu zitzaizkiola Madrili, kupo likidoaren bitartez; Espainiako estatuak Hego Euskal Herrian egindako inbertsioak, berriz, 3.520 eurokoak izan ziren garai horretan, batez ere bereganatu gabeko eskumenen alorretan (Adif, Bilbo eta Pasaiaiko portuak, AENA, eta abar.).

Gizarte Segurantzari dagokionez, 2000-2009 sasoian 12.438,27 milioi euro garbi transferitu dira Gizarte Segurantzaren Kutxara.

Orain, datu horiei guztiei Espainiako estatuaren zor soberanoaren interesek sortutako kostuak gehitu behar zaizkie, eta PPK eta PSOEk kudeatzen dituzten autonomia-erkidegoek eragindako zorpetzea ere, horrek ondorio negatiboak izango baititu estatuari egiten diogun ekarpenarentzat.

Beste alde batetik, A. Borjak dioenez, 1993 eta 2008 bitartean, euskal kapitalak 51.000 milioi euro inbertitu zituen atzerrian; kanpotik etorri ziren inbertsioak, berriz, 12.000 milioi euro izan ziren. Beraz, N. Juradok dioen bezala, arazoa ez da inbertsio produktiborako kapitala egotea, baizik eta kapital hori esportatu egiten dela, eta hori arriskugarria dela gure ekoizpen-ehunaren garapenerako.

Horrenbestez, Hego Euskal Herriaren arazoa ez litzateke izango atzerriko inbertitzaileak ekartzeko lehiatzea, baizik eta bertoko kapitala berton geratzera animatzea.

DATUETATIK HARATAGO, INDARRAK ETA AHULEZIAK EUSKAL ESTATUAREN ERAIKUNTZAN

Bestalde, jasotako ekarpenak lagungarriak dira Euskal Estatuaren eraikuntzan dauden indarrak eta ahuleziak identifikatzeko. Neu honela laburbiltzera ausartuko nintzateke:

Ahuleziak

Eskumen-eremua eta autonomismoaren estrategia

Hego Euskal Herriarentzat 1978an ezarri zen eskumen-eredua ez zen izan berdinen arteko itun baten emaitza, Nekane Juradok azpimarratzen duen bezala. Oraingo ereduak eskumenak tasatzen ditu eta honela sailkatzen ditu: Espainiako estatuaren eskumen eskusiboak, eskumen konpartituak, eta autonomia-erkidegoen

eskumen eskusiboak —EAE eta Nafarroa, gure kasuan—, estatuaren oinarritzko legeen bidez mugatuak. Beste alde batetik, Ipar Euskal Herriko lurraldeek ez dute inolako eskumen-aitortzarik.

Krisi ekonomikoaren iraupena, estatuaren aldetik oinarritzko legediaz egiten den erabilera eta euskal instituzioen mendetasun-estrategia autonomista gure errealitate ekonomikoa homogeneizatzen ari dira espainiar errealitatearekin; gainera, horrek handitzen du estatuaren kuxari egiten diogun ekarpena, politikoki eta ekonomikoki maniobratzeko dugun tarte handatzen du, eta krisiari irteera demokratiko eta arrazionala ematea eragozten diguten arrazoi nagusiak dira.

Euskal Herriko lurraldearen desegituraketa

Oraingo eskumen-esparruaren gabezien erakusgarri nagusia da ezinezkoa dela, juridikoki eta politikoki, nazio-mailako proiektu politiko eta sozioekonomiko bat egituratzea. Hau da, aukera hori erabat oztopatuta dago. Gure lurraldea bi autonomia-erkidegotan dago zatituta, Espainiako estatuaren aldean, eta Ipar Euskal Herrian ez dago instituzio propiorik; horren eraginez, ezinezkoa zaigu plangintza ekonomikora zuzendutako politikak modu koordinatuan egitea, eta hori ahulezia larria da oraingo unean.

Oraingo krisi ekonomikoaren kudeaketa

Geure baliabideak kudeatzeko eskumenik ez izateak gure ekonomian eta gure gizarte-ereduan dituen ondorioak ugariak dira, A. Borjak dioen bezala, zergen bidez eta Espainiako estatuarentzako transferentzien bidez galtzen den diruaz gain, hots: euskal nekazaritzako elikagaien sektorea gero eta ahulagoa da, ekoizpen industrialak geldirik dago, saltoki txiki asko itxi egin dira, eta murrizketen politikak ekonomia geldiarazten du eta langabezia zein gizarte-bazterketa igoarazten ditu, barneko eskaria murriztuz.

Gizarte-kohesioa

Gai fiskal eta soziolaboralei buruzko espainiar legedia onartzeak eta haren mende egoteak, gobernu autonomikoek bereganatutako politika publikoekin batera, aberastasuna kontzentratzera eramaten du, eta kontzentrazio hori euskal ekonomia deskapitalizatzen ari da, ondasunen banaketa desorekatzen ari da (langabeziaren eta gizarte-bazterketaren igoera) eta gure potentzialtasuna hondatzen ari da ikerkuntzaren eta berrikuntzaren eremuan (gure inbertsioa gisa bereko per capita errenta duten herrialdeetako baino askoz ere txikiagoa da, BPGa erreferentziatzat hartuta), eta horrek guztiak kalte egiten die gure egonkortasunari eta gure garapen ekonomikoari.

N. Juradok zuzen azaltzen duen bezala, Hegoaldeko ekonomiaren oraingo arazoa ez da produktibitatea txikia izatea, zeren Europako batez bestekoa baino askoz ere handiagoa baita; aitzitik, arazoa da produktibitatea enpresariaren mozkinetarantz kontzentratzen dela nabarmenki, soldaten kalterako.

Interlokuzioa eta negoziatzeko ahalmen propioa Europan

Ekai Center-en azterketan aipatzen den bezala, Europako diru-batasuna hausteko arrisku handiak euroaren katearen kate-begi ahulenean jarriko luke Euskal Herria, Espainiako estatuaren eskutik. Erdiguneko eta periferiako herrialdeen arteko dualtasunak handitu egingo lituzkete gure ekonomiaren gabezia estruktural eta instituzionalek; gabezia horiek aldatu egin daitezke, baldin eta gure herriak erabakiak hartzeko ahalmena badu funtsezko alderdietan, hala nola banku-politikan, diru-politikan, zergei buruzko araudian, eta gure gabezia sozial eta instituzionala konpontzeko beharrezkoak diren politiketan.

Europaren baitan, ordezkaritzarako eta erabakitzeko ahalmena izatea funtsezkoa da gure proiektu propioaz erabakitzeko, eta ez alor politiko eta instituzionalean soilik, baizik eta alor sozial eta ekonomikoan ere bai.

Indarrak

Gehiengo sozial eta sindikal proaktiboa

Gure ehun ekonomiko eta soziala zabala da eta gure elkarte-sare sendoa, baditugu nortasun-zeinu propio eta integratzaileak, baita proiektu nazional soberanoa eraiki ahal izateko behar den masa kritikoa ere.

Horrenbestez, baditugu oinarri nahikoak bultzada kolektibo bat sortzeko, izaera endogenoko garapen-eredu bat alor ekonomikoan eraikitzeko, herritarrak, lurraldea eta estatua proiektu ekonomiko bideragarri batean lotuz, A. Borjak eta Ekai Centerek beren txostenetan garatzen duten bezala.

Eskema horren baitan, bai I. Gil de San Vicentek eta bai Letamendiak azpimarratzen dute euskal gehiengo sindikalaren aktibazio estrategikoaren beharra, eta, horri lotuta, prozesuan inplika daitezkeen beste indar sindikal estatal batzuk txertatzeko gaitasuna, estrategia horretatik bultzatuta.

Estaturik gabeko nazio batean, Letamendiak dioten bezala, kontrabotereak ez du zentzurik sindikatu bakar baten tresna bezala, baina sindikala soilik den ekintza batasunak ere ez du zentzurik; autogobernuaren aldeko borroka nazionalak behar dituen aliantzak ezabatu nahi ez badira, behintzat. Zentzugabea bezain alferrikakoa da alderdi-sindikatu zutabea lehengo estiloan berpiztea. Dena dela, baloratzekoa da zutabe hori estilo berri batean moldatzeko aukera.

Mundu kooperatiboa

Elkarteak eratzeko gaitasun horren adibide bat kooperatibetan dugu, A. Mendizabalen ekarpenean ikus daitekeen bezala. Euskal kooperatibak BPGaren % 4,3 eta BPG industrialaren % 10 dira. Bai beren garrantzi ekonomikoagatik eta bai beren elkarte-izaeragatik eta beren historiagatik, kooperatibak oso aktibo garrantzitsua izan daitezke Euskal Estatuaren eraikuntzarako, baldin eta internazionalizazio prozesuak ez badu eragozten printzipio kooperatiboen iraupena

eta kooperatibak sisteman integratzen ez badira, edozein proiektu komunitario eta sozial bazterten duen kontrol teknokratikoa ezarritz.

Gure ekoizpen-ehunaren errealtatea

Ekai Centerrek adierazten duenez, gai izan gara gure industria egokitzeke eta enpresa txiki eta ertainen ehun aktibo eta dinamiko bat garatzeko. Espainiako estatukoa baino kontsumo- eta inbertsio-eredu neurritsuagoa mantendu dugu, gehiegizko zorpetzerik gabe; gure industriaren ahalmena esportazioetan mantendu da, baina berrikuntzaren alorrean badugu gabezia estruktural iraunkor bat.

Zoritxarrez, 30 urtez, gure arduradun politikoak beren burua goraipatzen ibili dira, Espainiako estatuko beste autonomia-erkidego batzuk baino egoera hobean egoteagatik, antzeko per capita errenta duten europar eskualde eta estatuen berrikuntza, gastu sozial eta prestakuntza-mailak erreferentziatzat hartu gabe eta maila horiek bilatu gabe.

Klase-borrokaren esparru autonomia

Gil de San Vicentek dioten bezala, estatu propioari buruzko kontzientziazio nazionala esparru material eta sinboliko, linguistiko eta kultural, politiko eta sozioekonomiko desberdin batean gauzatzen da, hau da, estatu menderatzailearen esparrutik kualitatiboki bereizten den esparru batean. Oinarri horren gainean garatzen da funtsezko kontzeptu ideologiko bat, alegia, «klase-borrokaren esparru autonomia», hori funtsezko pieza baita euskal gizartearen aktiboan, estatu nazionalaren eraikuntzari begira.

Egia da, nonbait, klase-borrokaren esparru autonomoaren kontzeptuaren birtualtasunak lan-harremanen eta gizarte-babesaren esparru propioa gainditzeko duela; dena dela, Aitor Bengoetxeak dioten bezala, hori boterearen oinarritzeko muina da oraingo europar estatuetan. Lan-harremanen eredu funtsezkoa da garapen-eredu bat eraikitzeke eta, eredu horren baitan, aberastasunaren birbanaketarako, sortzen den errentaren inguruko gatazkatik. A. Bengoetxearen esanetan, lan-harremanen eta gizarte-babesaren oraingo arau-esparrua erabaki estatalen mende dago erabat, Euskal Herriko lurraldeentzat, eta, hortaz, ez du kontuan hartzen euskal gizarte- eta ekoizpen-sarearen errealtatea, eta, gainera, kaltegarria da gure garapen sozioekonomikoarentzat. Bereziki esanguratsua da Euskal Herriak gehiengo sindikal bat izatea, lan-harremanen eta gizarte-babesaren esparru propioaren aldeko apustua egiten duena, hots, gure gainean ditugun esparru estataletatik bereizten den esparru propio baten aldeko apustua egiten duena. Bada, hori zaindu eta bultzatu beharreko aktibo bat da.

Bukatzeko, eta konklusio gisa, uste dut liburu honetan bildutako edukiak ekarpen interesgarri eta beharrezkoak direla agerian uzteko, politika sozioekonomikoaren oinarrietatik, bere estatu propioa EBren barnean eraikitzeke Euskal Herriak dituen aukera errealeak; agerian uzten dute, halaber, Euskal Herriak europar eraikuntzan

parte har dezakeela, bere interes propioen ikuspuntutik, Espainiako eta Frantziako estatuen gaur egungo borondaterik ezak sortzen dituen oztopoak gaindituz. Horrez gain, Euskal Estatuaren eraikuntza proiektu integratzaile bezala itxuratzen da, zeren objektiboki interesgarria baita, aukera politiko eta identitarioetatik haratago, Euskal Herrian bizi eta lan egiten duten pertsona guztientzat.

1. Euskal Herria: Europar Batasuneko hego-mendebaldeko nazio estandarra

*Xabier Isasi Balantzategi, UPV/EHUko irakaslea
Asier Otxoa de Retana Simon, GAINDEGIAko kidea*

Euskal Herria, Europako hego-mendebaldeko nazioa, Espainiako eta Frantziako estatuetak 7 probintzian banatutako 685 udalerriz osatuta dago. Iberiar penintsularen eta Europako gainerako lurraldeen arteko bi pasabide naturaletako batean dago kokatuta, eta horrek baldintzatu du, beste faktore batzuekin batera, lurraldearen garapen ekonomiko eta soziala. Haren magnitude makroekonomiko nagusien bitartez ikusita, Euskal Herria Europar Batasuneko NUTS2 —*Nomenclature des Unités Territoriales Statistiques*— garatuenekin pareka daiteke, gutxienez. Hiru milioi biztanlerekin eta ia hogeita bat mila kilometro karraturekin, Euskal Herria Europar Batasuneko estatu bat izan liteke, inolako arazorik gabe, ekonomikoki garatua eta neurri bereko beste edozein estatu bezain lehiakorra. Arrazoi historikoak eta —batez ere— politikoak dira Euskal Herria Europar Batasuneko 28. estatua izatea eragozten dutenak. Euskal Herriak lortuko balu Espainia eta Frantziaren nahi zentralista eta unionistak gainditzea, ez luke inolako zailtasunik izango ekonomikoki orekatutako eta sozialki garatutako estatu bat izateko.

Euskal Herria: a standard nation in the southwest of the European Community

Euskal Herria, or the Basque Country, is a southwestern nation comprising 685 municipal units in seven provinces situated within the Spanish and French states. The fact that it is located on one of two natural routes linking the Iberian Peninsula to the rest of Europe is one factor that has influenced this territory's economic and social development. In general terms of macro-economic magnitude, Euskal Herria is at least comparable to the most highly developed of the European Union's level NUTS2 (*Nomenclature des Unités Territoriales Statistiques*). With three million inhabitants and nearly twenty-one thousand square kilometres, Euskal Herria could easily be a state of the European Union, economically developed and as competitive as other similar-sized member states. It is being held back from becoming the 28th state of the European Union by historical and, above all, political reasons. If Euskal Herria could overcome the centralist aspirations of Spain and France, it would have no trouble becoming an economically balanced, socially advanced state.

SARRERA

Estatua, batez ere, kontzeptu politikoa da. Estatua da gizartearen bizimodua arautzeko eta arauak indarrez inposatzeko erakunde soziala. Estatua da, azkenik, lurralde jakinean nazioaren izatea arautzen duen botere-erakundea; erakunde hori, beste aldetik, nazioarteko komunitatean onartutako erakundea da. Burujabetasuna, lurraldea eta autoritatea dira edozein estaturen ezaugarri behinenak. Erlijioa, hizkuntza eta kultura nazio-izaerako ezaugarri bereizgarriak izan badaitezke ere, ez dira, halabeharrez, estatua eratzeke ezinbesteko baldintzak. Munduan badira izan estatu konfesionalak —erlijio bakarrekoak—, badira estatu laikoak —erlijioetatik aparte— eta badira erlijio anitzeko estatuak; munduan badira estatu bakan batzuk, gutxi, hizkuntza bakarrekoak, eta badira estatuak, gehienak, hizkuntza askotakoak. Gaur egun, esan genezake estatu gehienak kultur eta arraza anitzekoak direla. Kultura, arraza, hizkuntza eta erlijioa ez dira, beraz, estatua izateko edo ez izateko erreferentziatzeko baldintzak.

Euskal Herria, berez, estatu independentea izan zitekeen. Euskal Herriko ezaugarri geografikoak, demografikoak, ekonomikoak eta gainerako ezaugarri sozialak Europar Batasuneko beste edozein estatu edo eskualdetakoen antzekoak dira. Hau da, badira Euskal Herria baino estatu txikiagoak —Monako, Eslovenia, Montenegro, Luxenburgo, Andorra, Malta, Liechtenstein eta San Marino txikiagoak dira—. Badira, orobat, Euskal Herria baino biztanle gutxiagoko estatuak: Groenlandia, Liechtenstein, Faroe uharteak, Luxenburgo, Malta, Zipre, Eslovenia eta Letonia.

Ezaugarri geografikoak, demografikoak, ekonomikoak eta bestelako ezaugarri sozialak ez dira eragozpen Euskal Herria estatua izan ahal izateko. Estatuen *bideragarritasuna* ez da ezaugarri horien arabera zehazten. Estatua izan ala ez izan, gehienbat, arrazoi politikoen, historikoen eta militarren arabera gauzatzen da. Adibidez, *huts egindako estatuak* deritze sozialki, ekonomikoki eta politikoki porrot egin duten estatuei; hala ere, estatua izateari ez diote utzi eta nazioartean gainerako estatuei onartzen zaizkien eskumen eta betebeharrak bertsuak aitortzen zaizkie.

Estatuaren eraketa ez da arazo legala. Nazioarteko komunitateak ez du lege jakinik estatuak eratzeke edo desegiteke; estatuak eurak izaten dira euren osotasuna eta estatu-izaera aldarrikatzen eta arautzen dutenak. Edozein estaturen ezaugarri behinenak honako hauek dira:

- Nazioartean ezagutua eta onartua izatea, gainerako estatuen onarpena edukitzea.
- Autoritatea erakundetzeko ahalmena izatea; armada, polizia, hezkuntza-sistema eta justizia-sistema antolatzeke ahalmena.
- Gizartea antolatzeke eta gizarte-zerbitzuak sortzeke eta kudeatzeko ahalmena; zerga-sistema, ogasuna, osasun-zerbitzua, gizarte-azturak kudeatzeko zerbitzuak, eta abar.
- Berariazko identitate kolektiboa eraikitzeke ahalmena; ikurrak, ereserkia, hizkuntza eta identifikazio-ezaugarri bereizgarriak.

Ezaugarri edo ahalmen horiek izanda ere, horrek ez du esan nahi, besterik gabe, estatua izan daitekeenik. Egon daitezke lurralde-eremu batzuk ezaugarri horiek dauzkatenak eta arrazoi batzuegatik edo besteengatik estatuak ez direnak.

Edonola ere, herri bat, nazio bat edo lurralde bat estatua ez izateko arrazoi nagusia, ia kasu guztietan, beste estatu baten inposizioa izan ohi da. Hori da, adibidez, Euskal Herriari gertatzen zaiona: Frantziako eta Espainiako estatuak inposatzen diotela euren zati izatea. Frantziako eta Espainiako estatuak arautu dute Euskal Herriko lurraldeak, Iparraldea eta Hegoaldea, eurenak direla; estatuen lurralde-antolamendua diseinatu dute, autonomia-mailaren bat gorabehera, estatu bakarrak izango balira bezala eta estatuaren batasuna, esplizituki —Espainia— edo inplizituki —Frantzia—, estatuaren arau gorentzat ezarri dute.

Estatuaren bideragarritasun sozialaz edo estatuaren bideragarritasun ekonomikoaz hitz egitea, aingeruen sexuei buruz hitz egitea bezala da. Benetako auzia ez da aingeruek sexurik duten ala ez, benetako auzia da aingeruak eurak existitzen diren ala ez. Existitzen diren estatuak, noizbait eta nolabait sortuak dira eta, behin sortu direnez, estatua izateari kosta ahala kosta eutsi egingo diote; existitzen diren estatuentzat estatu-izaera biziraupenaren sorburua da beti. Tautologia antzeko zerbeit da. Munduan, Nazio Batuen Erakundean, 193 estatu ezagutzen dira, badira beste 10 estatu NBEkoak ez direnak baina *de facto* estatutzat hartzen direnak Montevideoko Konbentzioaren arabera (1933) —Abjasia, Nagorno Karabaj, Iparraldeko Zipreko Errepublika Turkiarra, Kosovo, Hegoaldeko Osetia, Palestina, Saharako Errepublika Arabiarra, Somalilandia, Taiwan eta Transnistria—. Kontua da 203 estatu horien artean, aniztasuna erabatekoa dela, ez daukatela ezaugarri komun multzorik estatua, oro har, ezaugarritzen duenik.

Estatu-izaera lortu ez duten nazioek, berriz, biziraun nahi badute estatu-izaera bilatuko dute nazioarteko onarpen egonkorrena delako. Euskal Herria estatu gisa eratzeak ez du bermatzen bizimodu hoberik edo okerragorik izatea, estatuak ez du esan nahi sistema sozial orekatuagoa edo klase-diferentzia handiagoak izango direnik, estatua izateak gauza bakarra bermatzen du, Euskal Herria existitzen dela eta nazioartean onartua dela. Estatuak, gaur gaurkoz, nazioen biziraupena bermatzen duten erakunde bakarrak dira. Era berean, paradoxikoki, estatuak dira nazioen desagertzearen erantzule nagusiak.

Mikel Buesa Blancok, Madrilgo Unibertsitateko Ekonomia Aplikatuko katedradunak, kalkulatu du Euskal Autonomia Erkidegoaren independentziaren kostua zenbatekoa izan daitekeen kasurik okerreanean. Hau da, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa, hirurak bat, estatu independente gisa eratuko balira Europar Batasunetik at eta Espainiak gerra-ekonomia ezarriko balie. Ikerketa 2008. urteko krisia baino lehenago argitaratua da (2004). Ekonomia-irakasleak kalkulatu zuen hiru herrialdeen independentzia autarkikoak ekoizpen-jardueren ia % 20 gal lezakeela; langabezia-tasa % 19-29 tartera iritsi litekeela; EAEko herritarrek zergetan % 9 gehiago ordaindu behako luketela eta, azkenik, langileen soldatetatik kotizazio sozialak % 3tik % 7,6 handiagoak izango liratekeela.

M. Buesaren azterlanak azaltzen digu independentziaren kosturik handiena zein izan litekeen. Eskertzekoa da egindako lana. Irakasleak berak argitzen digu independentziak horren kostu handirik ez izateko giltzarria zein den: «... asegurar la continuidad del marco institucional en el seno de la Unión Europea se convierte en el factor crucial .../... para que la independencia .../... no derive en un declive de los niveles de desarrollo y de bienestar de los vascos».

Ikertzailearen EAEren independentziaren aurreikuspen apokaliptikoa ez da horren txarra sufritzen ari garen krisiak ekarri dizkigun kalteei begiratzen badiegu. Espainiako batasun hautsiez in santua sutsu defendatzen dutenek gerra-ekonomia aldarrikatzen diete independentzia-zaleei. Hala ere, 2008an hasitako krisi ekonomikoak zorrotz erakutsi du Euskal Autonomia Erkidegoak, eta Nafarroako Foru Komunitateak garesti ordaintzen dutela Espainiaren mendekotasuna. M. Buesak amestutako EAEren independentziaren deskalabru ekonomikora eta sozialera hurbiltzen ari gara eta hori independentzia tanto ñimiñorik izan gabe.

Edozelan ere, ikertzailearekin bat gatoz: Europar Batasunaren barruan estatu gisa antolatutik, Euskal Herriak izan lezake orain duen garapen-maila eta ongizate-maila edo, agian, hobea. Euskal Herria diogu, ez EAE.

Mikel Buesaren txostenak, azkenik, agerian uzten du Euskal Herriaren independentzia, estatu burujabea izatea, arazo politikoa dela eta ez arazo ekonomikoa. Auzia da Espainiako eta Frantziako estatuak onar ote dezaketen Euskal Herriaren erabakitze eskubidea, eta prest ote dauden herriaren erabakia errespetatzeko. Hori da auzia, ez besterik.

Hortik aurrera, azterketa eta analisi ekonomikoak eta sozialak egitea ondo dago errealitatea hobeto ezagutzeko. Alabaina, eztabaida honetan, azterketa horrek balio dezake independentzia aldarrikatzeko, abagune ekonomikoa eta soziala aldekoa delako, eta, neurri berean, independentzia ukatzeko balio dezake hurrengo une jakinean abagune ekonomikoa eta sozial berria aurkakoa delako.

Ekonomia eta gizartearen garapenari dagokionez, estatua izateak dakar ahalmen gehiago eta handiagoa. Estatua ez izateak, berriz, mendekotasuna dakar, txarrerako, gure ustez, baina mendekotasuna.

Gaur gaurkoz, Euskal Herria estatu gisa antolatzea, Europar Batasunaren barruan, onuragarria da herritarrentzat, enpresentzat, ekonomiarentzat eta gizartearentzat. Aztertu ditugun parametro eta datuen arabera, Euskal Herria dago Europar Batasuneko eskualde garatuenetako pare, zerbait beherago azken urteotan. Horren arabera, beraz, duda izpirik gabe, Euskal Herria Europar Batasuneko estatu homologagarria izan daiteke.

1. EUSKAL HERRIAREN DESKRIBAPEN GEOESTRATEGIKOA ETA MAKROEKONOMIAKO ADIERAZLE NAGUSIAK EUROPAR BATASUNAREN EREMUAN

Euskal Herria Europar Batasuneko hego-mendebaldeko nazioa da. Haren mugak dira: iparraldean Kantauri itsasoa, Landak eta Biarno; hegoaldean, Errioxa eta

Zaragoza; ekialdean, Biarno, Huesca eta Zaragoza, eta mendebaldean Kantabria, Burgos eta Errioxa. Gutxi gorabehera 20.947,2 km²-ko lurraldea da.

Euskal Herriaren definizio xume horretatik errealitatera, ordea, ñabardura eta diferentzia batzuk badaude. Definizio horrek, jakina, balio du, baina ez da nahikoa. Definizioko Euskal Herria erreala bihur dadin askoz gehiago landu behar ditugu lurralde horien gainean dakizkigunak eta, batez ere, ikasi ez dakizkigunak. Gure nazioa, gutxi gorabehera, 20.947,2 km²-ko lurraldea da.

Euskal Herria, lurraldearen antolamenduaren ikuspegitik, osatu gabeko puzzle nahasia da. Biziko bada, Euskal Herriak behar du berariazko lurralde-antolamendua. Euskal Herriaren oinarritzko mapa eta lurraldeen banaketa bat behar dugu. GAINDEGIAK (Euskal Herriko ekonomia eta gizartearen garapenerako behategia) bere proiektua abian ipintzeko eta eragiketa estatistikoak egin ahal izateko mapa bat eta Euskal Herriko lurraldeen banaketa bat hautatu behar izan du. Hautapen horretan irizpide historikoak, politikoak, administratiboak, soziologikoak eta linguistikoak erabili ditu. Metodologiaren ikuspegitik, irizpide garrantzitsuena Euskal Herri osoan lurralde banaketako unitate komuna eta homologagarria aurkitzea izan da. Unitate hori udalerria da. Udalerrietatik abiatuz, eskualdeek, herrialdeek eta nazioak osatzen dute GAINDEGIAK darabilen Euskal Herriko lurraldeen banaketa.

Herrialdeak	Eskualdeak	Udalerriak
Araba	7	53
Bizkaia	7	113
Gipuzkoa	7	88
Lapurdi	6	42
Nafarroa Beherea	5	74
Nafarroa Garaia	7	272
Zuberoa	3	43
		685

1. taula. Euskal Herriko lurralde-banaketa, herrialde, eskualde eta udalerrietan.

Lurralde-banaketa horretan Euskal Herri osoa dago. Oso oinarritzko banaketa da, bai, baina balio du Euskal Herriko mapa datuez hornitzeko. Biztanleak lurraldean, biztanleriaren bilakaera, jaiotzak eta heriotzak, biztanleriaren adin-egitura, migrazio-mugimenduak, sektore ekonomikoak, etxebizitza, eta beste hamaika datu ipini daitezke mapa horren gainean Euskal Herria zertan den jakiteko. Mapa eta banaketa hori da, hain zuzen ere, datuak erakusteko erabiltzen duguna.

1.1. Euskal Herriaren oinarritzko ezaugarri soziodemografikoak

Euskal Herria Europako nazio txiki —3 milioi biztanle doi-doi—, antzinako eta zaharkitutako herria da. Lurraldez txikia —20.924,9 km²—, populazio-dentsitatez handia —148 biztanle km²-ko— eta biztanleria lurraldearen gainean modu desorekatuan banaturik dago —biztanleriaren erdia baino gehiago 25.000 biztanle-tik gorako udalerrietan pilatzen da—.

Demografiari dagokionez, Euskal Herria herri zaharra eta gero eta gehiago zahartzen ari den herria da. Euskal Herria Europako eskualdeen artean zaharkitu-enetako bat da; 65 urtetik gorako biztanle zaharrenen haztapen-neurria, hala ere, Europako batez bestekoaren antzekoa da.

Biztanleria adin-talde nagusien arabera (%), herrialdeka. Euskal Herria, 2011			
	0-14	15-64	65 urte eta gehiago
Araba	13,8	68,5	17,7
Gipuzkoa	14,3	66,3	19,4
Nafarroa Garaia	15,4	66,9	17,6
Bizkaia	12,9	67,0	20,1
Lapurdi	15,1	64,2	20,7
Nafarroa Beherea	16,8	62,0	21,2
Zuberoa	14,0	61,3	24,7
Euskal Herria	14,0	66,7	19,3

Oharra: Iparraldeko datuak 2008 urteari dagozkio.

Iturriak: INE eta INSEE.

2. taula. Euskal Herriko adin-tarteen banaketa herrialdeka(Gaindegia).

Gaur egun hamar biztanletik hiru Euskal Herritik kanpo jaioak dira. Euskal Herria, gehienbat, kaletarrez edo hiritarrez —hirietan bizi direnez— osaturiko nazioa da; biztanleria gehiena —% 54— 25.000 biztanletik gorako udalerrietan bizi da-eta. Udalerri txikien —1.000 biztanle edo gutxiagokoak— haztapen-neurria gero eta txikiagoa da.

Biztanleria UD tamainaren arabera. Euskal Herria, 2011.		
UD_tamaina	GORDINAK	%
1-1.000 biztanle	143.325,0	4,6
1.001-5.000 biztanle	394.548	12,68
5.001-10.000 biztanle	317.904	10,22
10.001-25.000 biztanle	573.130	18,42
25.001-50.000 biztanle	464.974	14,94
50.001 eta + biztanle	1.217.535	39,13
Orotara	3.111.416	100,0

Iturria: INE eta INSEE

(Population Légale).

3. taula. Biztanleak udalerrien tamainaren arabera (Gaindegia).

Bizi-baldintzak eta ongizatea

Euskal Herria, oro har, Europako bizi-baldintzen batez bestekotik gorakoa da; ongizate-maila, batez beste, nahikoa dela jo dezakegu. Euskal Herriko biztanleria hezkuntza-maila altukoa da. Emakumeen hezkuntza-maila, goi-mailako tituludunen proportzioa esan nahi dugu, nabarmen emendatu da azken urteetan.

Emakume landunen artean, kasurako, erdiak baino gehiagok —% 51—, goi-mailako ikasketak egingo dauzka; gizonezkoen artean, oster, portzentaje hori ez da erdira iristen —% 43—. Emakumeen egoera orokorraren hobekuntzak ondo islatzen du Euskal Herriaren garapena nolakoa izan den azken urteetan. Edozelan ere, azken urteetan sufritzen ari garen krisiak gogor jo du, langabezia-tasak gora egin du, bereziki gazteenen artean.

Herritarren —biztanle aktiboen— batez besteko errenta nahiko handia bada ere, ez da uniformeki banatzen herrialdeetan ezta pertsonen artean ere.

Errenta erabilgarria/biztanle aktiboko (€-tan)								
	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008
EAE	27.297	28.344	29.485	30.969	32.778	34.527	36.795	39.051
Araba	27.026	28.063	29.193	30.662	32.453	34.185	36.431	38.664
Gipuzkoa	27.495	28.549	29.699	31.193	33.016	34.778	37.062	39.334
Bizkaia	27.250	28.295	29.434	30.915	32.721	34.467	36.732	38.983
Nafarroa	27.856	28.991	30.040	31.441	32.022	33.180	35.436	36.935
Iparraldea	33.848	34.803	35.186	36.326	37.552	39.528	41.584	42.989
Euskal Herria	27.977	29.035	30.087	31.525	33.038	34.682	36.924	38.944

Iturria: Eurostat, Eustat, INSEE.

Ezin da berriztu uda hasiera arte (+-).

4. taula. Errenta-mailak herrialdeka (Gaindegia).

Euskal Herriko biztanle aktiboen errentak hazkunde nabarmena izan du azken hamar urteetan —batez bestez % 5,6—. Hazkunde-tasa horren gainetik mugitu dira Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa. Iparraldea izan da hazkunde-tasarik txikiena erakutsi duena baina, hala ere, herrialde horietan gertatzen da errenta-mailarik handiena. Nafarroa Garaia kasuan, azkenik, hazkunde-tasa batez bestekoaren azpitik mugitu da azken hamar urteotan.

Euskal Herrian, herri aberatsetan gertatzen den moduan, familia-etxebizitzaren okupazio maila % 80 ingurukoa da. Alabaina, gainerako etxebizitzetatik, bosten bat hutsik dago edo bigarren mailako etxebizitzak dira.

Osasun-zerbitzuei dagokienez, Euskal Herrian 100.000 biztanleko 420 osagile, 972 erizain eta 444 ospitaleko ohe dauzkagu. Ez dira datu txarrak.

Dena ez da ona. Euskal Herrian (2009) pobrezian edo egoera horretan erortzeko arriskuan 246.854 pertsona zeuden —lurraldeko aberastasunaren medianatik

behera bizi direnak—. Gizarte-babesaren gastua, ongizatearen beste parametro bat, ez da oso handia, bereziki Euskal Herriko hegoaldean. Internet maiz erabiltzen du Euskal Herriko biztanleriaren % 55ek baino gehiagok; halere, 2010. urtean erabileraren hazkunde bizia nabarmen apaldu zen.

Oro har, esan genezake Euskal Herria Europako herri aberatsen antzekotxo dela aztertu ditugun zenbaki eta parametro horien argitan, behintzat.

1.2. Euskal Herria Europar Batasuneko ingurunean

Europa politiko sozialaren eraketa lehia eta tentsio biziko prozesua izan da eta, aurrerantzean, hala izango dela itxaron daiteke. Estatuaren mendeko eskualdeek, Euskal Herria barne, kokan ikusten dituzte euren garapen-ildoak. Alabaina, estatuak, beren buruen defentsan, eskualde indartsuenen eraginpean daude. Europako eskualdeen barneko kohesioak eta elkarren arteko loturek estatuaren indarra ahuldu egiten dute.

1989an Atlantiko aldeko 31 eskualde Arku Atlantikoko Batzordera bildu ziren, besteak beste, Akitania, Nafarroa Garaia eta Euskal Autonomia Erkidegoa. Batzorde horretan eskualde horien garapenerako lehentasunak zehaztu ziren. Batzorde horretan jarritako helburuen artean arkuko eskualdeak indartzea eta haien garapena sustatzea agertzen dira.

Honela zehazten zuten:

Kontinente mailan zentro anitzeko egitura europarra sustatu behar da. Xedea, bada, indar demografiko eta ekonomiko nahikoa duten hiribilduak balioestea da. Horrela, hiribildu horiek, elkarren eraginean, munduko eta Europako botereguneetan indarra izango dute, eta, bide beretik, eragin (Europako) bazterreko eremu zabaletan.


Zentro anitzeko funtzionaltasunak hiribildu europarren arteko osagarritasuna bilatzen du, betiere, lurraldeen arteko orekan oinarriturik. Zentro anitzeko funtzionaltasuna, bada, oso kontzeptu erabilgarria izan daiteke hainbat eskalatan, jarduerak eta funtzioak ahalik eta hoberen integratzeko¹¹.

1999an Postdamen Europako Lurraldeen Antolakuntzarako ministroen bilkuratik abiatu zen *Lurralde europarreko zentro anitzeko eta garapen orekatua eraikitze azterketa*; txosten horretan, hain zuzen ere, zehazten da periferiako hiribildu-sistema zer den. Gutxienik, 500.000 biztanle biltzen dituen lurraldea, non hiri edo herri batean 150.000 biztanletik gorakoa den, garraibidez elkarri loturik 130 km-ren distantzia-ingurunean; hiribilduaren sistemak, gutxienik, 1.000.000 biztanle inguru bildu beharko lituzke.

11. Kontinente mailan zentro anitzeko egitura europarra sustatu behar da. Xedea, bada, indar demografiko eta ekonomiko nahikoa duten hiribilduak balioestea da. Horrela, hiribildu horiek, elkarren eraginean, mundu eta Europako botere guneetan indarra ahal izango dute, eta, bide beretik, eragin (Europako) bazterreko eremu zabaletan.

Zentro anitzeko funtzionaltasunak hiribildu europarren arteko osagarritasuna bilatzen du, beti ere, lurraldeen arteko orekan oinarriturik. Zentro anitzeko funtzionaltasuna, bada, oso kontzeptu erabilgarria izan daiteke hainbat eskaletan, hobeto integratu nahi diren funtzio eta jardueren arabera.


Euskal Herriaren ezaugarriak bete-betean sartzen dira emandako definizio horretan. Are gehiago, gure kokapen geoestrategikoa, kasu honetan, bederen, abantaila dugu. Hiru milioi biztanle inguru, 20.947 km², 148,6 biztanle kilometro koadroko, Europako garraio-gune estrategikoan kokaturik, hori da, besteak beste, Euskal Herria. Egia esan, Euskal Herria hori baino askoz gehiago da; kohesio soziokultural handiko biztanle-bilgunea da, berariazko hizkuntza eta kultura duena, nortasun berezkoa duena, alegia. Eta hori, frogatuta dagoenez, ekonomia eta gizarte-garapenerako faktore eragingarria da.



1. irudia. Europako metropoliak. Euskal Herria Atlantikoko arkuko segmentua.

Euskal Herria, bada, Europar Batasuneko periferiako hiribildu-sistema bat da. Sistema gisa agertzeak berekin dakar hainbat abantaila Europar Batasunean txertatzeko eta, aldi berean, berezko izaerari eusteko. Lehen aipatu txostenak lau alderdi nagusi aipatzen ditu:

- Sistemen lehiakortasuna.
- Hiribildu-sistemen arteko kooperazio eta elkarlotura (*connectivité*), airetik eta trenbideetatik, batez ere.
- Hiribildu-sistemen arteko harreman funtzionalak, berezitasunak, oinarritzko sinergiak periferiatik zentroarekiko eraginkortasuna areagotzeko.
- Hiribildu-sistemen arteko artikulazioak bidea ematen du Europako, eta munduko, gune ekonomiko garrantzitsuenetan integratzeko eta, ondorioz, munduko dinamika ekonomikoei jarraitzeko.



2. irudia. Europar Batasuneko NUTS2 —Nomenclature des Unités Territoriales Statistiques— (http://ec.europa.eu/regional_policy/atlas2007/index_es.htm).

Euskal Herriak Europar Batasuneko periferiako hiribildu-sistema bat izan behar du. Esan dugunez, Euskal Herriak ezaugarriak eta baldintzak baditu horrela izateko, lortu ez badugu ere. Izan ere, oraindik ez dakigu ekonomia eta gizarteko Euskal Herria zertan den, hizkuntza, kultura eta interes asko partitzen baditugu ere, elkarri bizkarra emanda bizi gara.

Europar Batasuneko eraketa-prozesua estatuen interesen araberakoa bada ere, aukera berriak izango dira eskualdeek ekonomia- eta gizarte-alorreko ekimenak gauzatu ahal izateko. Europar Batasunak aukera berriak ekarriko dizkio Euskal Herriari. Aukera berriak baldin eta Euskal Herriak nazio gisa jarduteko gaitasuna erakusten badu. Izan ere, jakina denez, Euskal Herriak ez baitu estatu-izaerako antolakuntzarik eragin ahal izateko.

Kokatu dugu Euskal Herria Europako mapan eta azaldu dugu Europar Batasunaren lurralde-antolamendu eredua, ekonomiari dagokionez. Azterketa xume honen ondorio nagusia da Euskal Herria *de facto* izan daitekeela ekonomia

eta gizartearen garapenerako berariazko eskualdea, gutxienik, NUTS2 mailako unitate horietako bat, horretarako bete beharreko ezaugarriak dituelako. Arrazoibide horretatik aurrera jarraituz, Gaindegiak bildutako datuak erakutsiko ditugu.

1.2.1. Barne-produktu gordina (BPG) biztanleko

Euskal Herriaren aberastasun-maila neurtzeko modu estandarra da barne-produktu gordina, eztabaidagarria bada ere. Euskal Herriari dagokionez, krisia nozitzen hasi aurretik (2008) biztanleko errenta Europar Batasuneko batez bestekotik gorakoa zen. Badakigu jakin azken urteotan puntu batzuetako galera gertatu dela. Edozelan ere, Euskal Herriaren aberastasun-maila biztanleko Europako eskualde aberatsenaren perako izan daiteke.

6.-EUSKAL HERRIA NAZIOARTEAN

2.-Dimentsio ekonomikoa: BPG biztanleko

137. Europako hainbat erregioartean EHk du BPG haundiena biztanleko

	1999-2004 *	2005	2006	2007	2008	2008
Euskal Herria	5,7	6,0	6,6	7,2	0,5	32.881
Baden-Württemberg	2,8	3,2	6,6	5,5	-0,6	32.400
Zeeland	5,2	3,1	4,6	11,3	0,7	30.800
Katalunia	5,0	3,4	7,7	5,1	-1,3	30.300
Scotland	5,6	3,6	5,0	2,2	0,0	28.000
Rhône-Alpes	3,2	3,7	4,8	3,8	-1,5	26.800
European Union (27 countries)	4,4	3,7	5,3	5,5	0,4	25.100
Bretagne	4,1	4,8	3,6	3,1	-0,9	23.300
Poitou-Charentes	3,8	3,5	2,4	5,2	-1,8	22.000
Région wallonne	3,8	2,6	3,6	3,0	1,4	21.000
Brandenburg	3,8	4,5	5,4	4,6	0,5	20.500
Mecklenburg-Vorpommern	3,5	5,2	3,5	6,9	1,0	20.400

Iturria: EUROSTAT, INSEE, NEI eta Eustat.

*Uste tartean horietan urteko batez besteko hazkunde.

² BPG EAPn Barne Produktu Gordina Eustatiko Aholkariaren Parekatua.



172

5. taula. Euskal Herriko barne-produktu gordina (Europako eskualdeak).

Kontuan hartu behar ditugu BPGaren neurriak dituen gabeziak; adierazle hori ez baita bizi-mailaren kalitatea neurtzeko egokia. Halere, balio du, gutxi gorabehera, tokian tokiko aberastasun materialaren maila zenbatekoa den jakiteko.

BPG adierazlearen itzalean, ezkutaturik, geratzen dira biztanleen errenten arteko diferentziak. Gaur egun, Euskal Herrian, gainerako herri aurreratuenen antzera, pobrezia multzo esanguratsuak baitaude. Badira izan 12.000 - 16.000 €/urteko, edo gutxiago, irabazten duten asko eta beste bakan batzuk, berriz, 50.000 edo 60.000 €/urteko edo gehiago irabazten dutenak.

Finantza-krisiak eta krisi ekonomikoak gogor jo du ekonomiako sektore guztietan. Euskal Herriko produkzio industrialak, adibidez, latz sufritzen du Espainiako krisia; krisiak ekarritako geldialdiari aurre egiteko, Espainiako merkatua hustu ondoren, ezinbestekoa da esportazioak areagotzea. Espainiarekiko mendekotasunak, kasu honetan, krisia areagotzen du.

BPG Erosteke Ahalmen Parekatuan, hazkundera eta biztanleko. Euskal Herria eta nazioartea, 2002-2009.

	BPG EAPn hazkundera				Biztanleko €
	2002/2006	2007	2008	2009	2009
Norvegia	7,4	4,5	7,1	-13,0	41.200
Irlanda	7,6	9,1	-8,1	-9,5	30.000
Euskal Herria	6,1	7,3	-0,3	-5,8	29.977
Baden-Württemberg	3,6	6,1	-0,6	-8,9	29.500
Katalunia	6,5	7,6	-0,8	-5,8	28.200
Islandia	3,6	5,8	5,0	-10,4	27.700
Alemania	3,6	5,6	0,4	-6,6	27.200
Finlandia	3,8	9,3	1,9	-9,2	26.900
Rhône-Alpeak	3,4	6,1	-0,3	-4,9	25.500
Frantzia	3,0	5,8	-0,2	-4,3	25.400
Eskozia	4,5	2,7	-2,1	-5,4	25.200
Italia	1,8	5,9	1,0	-5,8	24.400
Espainia	6,7	7,6	0,6	-5,8	24.200
Europar Batasuna (27)	4,1	6,0	0,6	-5,7	23.500
Bretaña	3,8	1,2	0,0	-4,9	21.200
Poitou-Charentes	3,2	2,2	-0,2	-4,3	20.300
Region wallonne	3,2	3,8	2,4	-3,8	20.200
Brandenburgo	3,8	4,8	0,9	-3,9	20.000
Itä-Suomi	3,7	8,8	1,9	-11,2	20.000
Mecklenburg-Vorpommern	3,2	6,3	1,3	-4,8	19.800

Iturria: EUROSTAT, EUSTAT, INE eta INSEE.

6. taula. BPG; Erosteke Ahalmen Parekatua.
1.2.2. Balio erantsi gordina (BEG) biztanleko

Balio erantsi gordina (BEG) makroekonomia-magnitudeak neurtzen du arlo ekonomiko jakinean ekoizleek sortutako aberastasun-maila. Adierazle horrek barne-biltzen ditu ekoizpen-prozesuan ondasunei eta zerbitzuei gehitzen zaizkien balioak. Barne-produktu gordina (BPG) makroekonomia-magnitudeari oso loturik dago.

Balio erantsi gordina (BEG) makroekonomia-magnitudearen arabera (2009), Euskal Herriko egoera, oro har, oso ona dela esan dezakegu. BPG adierazleen kasuan gertatu moduan, gogorarazi behar dugu, BEG makroekonomia-magnitude honek ez duela herritarren bizitzaren kalitate-maila neurtzen.

Edozelan ere, makroekonomia-magnitude hauek balio dute, erlatiboki, Euskal Herria kokatzeko Europako eskualde eta estatuen hurrenkeran. Euskal Herriko ekonomia-sektoreen haztaper-neurriak, oro har, Europar Batasuneko eskualde aberatsenen antzekoak dira: nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza eta arrantza sektoreen presentzia urria, industria eta eraikuntza sektoreen pisu esanguratsua (% 25 inguru) eta zerbitzuen sektorearen nagusitasuna.

6.-EUSKAL HERRIA NAZIOARTEAN

2.-Dimentsio ekonomikoa: BEG biztanleko

138. Euskal Herria biztanleko BEG handia dutenen artean, Frantzia edo Erresuma Batuenaren gainetik

Balio Erantsi Gordinaren hazkunde eta BEG biztanleko. Europa, 1999-2009.						
	1999-2004 *	2005	2006	2007	2008	2009
Norway	7.7	16.6	9.6	4.2	-	53.626 ⁺
Sweden	3.8	1.6	6.3	5.5	-2.1	31.823
Austria	3.2	3.8	5.3	5.5	3.8	30.839
Baden-Württemberg	1.7	0.4	5.5	4.2	2.1	30.469
Zeeland	5.9	1.9	3.8	10.4	3.3	29.252
Euskal Herria	10.3	6.7	7.1	7.0	5.1	28.451
Rhône-Alpes	3.5	2.6	4.6	3.6	2.2	27.479
France	3.6	3.1	3.5	4.5	2.5	27.349
United Kingdom	4.8	2.9	5.7	4.7	-11.6	26.590
Katalunia	6.6	4.6	5.5	5.4	2.7	25.633
Scotland	4.9	3.6	6.5	5.7	-11.3	25.214
Bretagne	4.4	3.6	3.4	2.6	2.8	23.834
Italy	4.5	1.6	2.6	3.7	-	23.387 ⁺
Poitou-Charentes	4.1	2.0	3.0	4.3	1.6	22.472
Spain	7.1	5.8	6.0	6.0	3.5	21.995
Région wallonne	3.8	3.8	4.7	3.9	4.2	21.066
Brandenburg	2.4	2.0	4.4	3.3	3.2	19.237
Mecklenburg-Vorpommern	2.3	1.8	3.2	5.4	3.6	19.067


Burua: Eurostat eta INSEE.

*Urte tarte horietan urteko batzuek besteko hazkundeak.

** 2007ko datuak dira.

173

7. taula. Euskal Herriko balio erantsi gordina (Europako eskualdeak).



1. grafikoa. Balio erantsi gordinaren banaketa eskualdeen arabera.

BEG landuneko. Euskal Herria eta NUTS 2, 2009		
		BEG LANDUNEKO (€)
1	Latvija	155.645
2	Région de Bruxelles-Capitale / Brussels Hoofdstedelijk Gewest	142.923
3	Inner London	138.913
4	Ile de France	96.235
5	Hamburg	85.365
6	Bremen	83.986
7	Southern and Eastern	81.981
8	Wien	81.542
9	Hovedstaden	79.780
10	Åland	79.154
11	Groningen	78.663
12	Prov. Antwerpen	76.390
13	Stockholm	75.287
14	Korsika	73.947
15	Darmstadt	73.318
16	Oberbayern	70.297
17	Prov. Brabant Wallon	69.986
18	Provincia Autonoma Bolzano/Bozen (NUTS 2006)	68.645
19	Prov. Vlaams-Brabant	68.149
20	Lazio (NUTS 2006)	67.087
21	Utrecht	67.079
22	Düsseldorf	67.069
23	Lombardia	66.745
24	Etelä-Suomi (NUTS 2006)	66.480
25	Salzburg	65.962
26	Valle d'Aosta/Vallée d'Aoste	65.888
27	Noord-Holland	65.438
28	Syddanmark	63.958
29	Rhône-Alpeak	63.926
30	Midtjylland	63.710
31	Nordjylland	63.550
32	Provence-Alpes-Côte d'Azur	63.084
33	Vorarlberg	62.558
34	Provincia Autonoma Trento (NUTS 2006)	62.414
35	Emilia-Romagna (NUTS 2006)	62.330
36	Euskal Herria	61.838
37	Friuli-Venezia Giulia (NUTS 2006)	61.693
38	Prov. West-Vlaanderen	61.556
39	Liguria	61.059
40	Karlsruhe	60.998
41	Veneto (NUTS 2006)	60.997
42	Austria	60.891
43	Tirol	60.708
44	Comunidad de Madrid	60.239
45	Zuid-Holland	59.630
46	Languedoc-Roussillon	59.616
47	Toscana (NUTS 2006)	59.324
48	Stuttgart	59.320
49	Guadeloupe (FR)	59.220
50	Mittelfranken	59.201
51	Oberösterreich	58.994
52	Nord-Pas-de-Calais	58.977
53	Noord-Brabant	58.885

54	Melillako Hiri Autonomoa (ES)	58.481
55	Piemonte	58.273
56	Attiki	58.051
57	Aquitaine	58.027
58	Réunion (FR)	57.555
59	Köln	57.406
60	Alsace	57.122
61	Zeeland	56.975
62	Berkshire, Buckinghamshire and Oxfordshire	56.950
63	Prov. Oost-Vlaanderen	56.774
64	Pays de la Loire	56.747
65	Länsi-Suomi	56.670
66	Normandia Garaia	56.621
67	Midi-Pyrénées	56.520
68	Hannover	56.472
69	Katalunia	56.347
70	Kassel	56.171
71	Notio Aigaio	56.081
72	Prov. Liège	56.043
73	Saarland	56.020
74	Mellersta Norrland	55.734
75	Martinique (FR)	55.502
76	Marche (NUTS 2006)	55.329
77	Pohjois-Suomi (NUTS 2006)	55.137
78	Border, Midland and Western	55.077
79	Champagne-Ardenne	54.982
80	Bourgogne	54.888
81	Arnsberg	54.373
82	Oberpfalz	54.155
83	Tübingen	53.822
84	Braunschweig	53.718
85	Schwaben	53.651
86	Detmold	53.620
87	Limburg (NL)	53.577
88	Aragoi	53.549
89	Kärnten	53.520
90	Centre (FR)	53.481
91	Molise	53.478
92	Bretagne	53.443
93	Steiermark	53.380
94	Västsverige	53.365
95	Campania	53.321
96	Prov. Hainaut	53.132
97	Guyane (FR)	53.111
98	Unterfranken	52.980
99	Lorraine	52.867
100	Berlin	52.787
101	Ceutako Hiri Autonomoa (ES)	52.758
102	Errioxa	52.656
103	Oberfranken	52.615
104	Övre Norrland	52.530
105	Poitou-Charentes	52.350
106	Itä-Suomi (NUTS 2006)	52.268
107	Prov. Limburg (BE)	52.063
108	Overijssel	51.874
109	Franche-Comté	51.860

110	Auvergne	51.805
111	Sizilia	51.761
112	Sjælland	51.742
113	Umbria (NUTS 2006)	51.699
114	Niederbayern	51.534
115	Gelderland	51.310
116	Gießen	51.301
117	Abruzzo	51.281
118	Prov. Namur	51.094
119	Calabria	51.073
120	Basilicata	51.042
121	Picardie	50.980
122	Norra Mellansverige	50.740
123	Niederösterreich	50.531
124	Baleiar Uharteak	50.488
125	Gaztela eta Leon	50.080
126	Puglia	49.996
127	Friesland (NL)	49.982
128	Rheinhessen-Pfalz	49.880
129	Sydsverige	49.849
130	Weser-Ems	49.783
131	Sardegna	49.674
132	Basse-Normandie	49.616
133	Asturiasko Printzerria	49.525
134	Östra Mellansverige	49.502
135	Schleswig-Holstein	49.470
136	Freiburg	49.215
137	Münster	49.145
138	Praha	48.863
139	Surrey, East and West Sussex	48.751
140	Småland med öarna	48.643
141	Bedfordshire and Hertfordshire	48.557
142	Limousin	48.557
143	Bratislavský kraj	48.277
144	Kantabria	47.912
145	Drenthe	47.862
146	Cheshire (NUTS 2006)	47.774
147	West Midlands	47.767
148	Eastern Scotland	47.349
149	Gloucestershire, Wiltshire and Bristol/Bath area	47.261
150	South Western Scotland	47.241
151	Prov. Luxembourg (BE)	47.220
152	Kanariak (ES)	47.048
153	Koblenz	46.686
154	Valentziako Erkidegoa	46.489
155	Hampshire and Isle of Wight	45.601
156	Andaluzia	45.429
157	Galizia	45.238
158	Dytiki Makedonia	45.183
159	Murtziako Eskualdea	44.717
160	Greater Manchester	44.198
161	Leicestershire, Rutland and Northamptonshire	44.125
162	Leipzig (NUTS 2006)	44.106
163	Sτέρα Ellada	44.061
164	Gaztela-Mantxa	43.974
165	Dresden	43.845

166	East Wales	43.752
167	Lisboa	43.185
168	Trier	42.939
169	West Yorkshire	42.934
170	Outer London	42.620
171	Flevoland	42.422
172	Burgenland (AT)	42.139
173	East Anglia	41.672
174	Sachsen-Anhalt	41.655
175	Dorset and Somerset	41.601
176	Brandenburg - Südwest (NUTS 2006)	41.387
177	Extremadura	41.361
178	Chemnitz (NUTS 2006)	41.304
179	Voreio Aigaio	41.021
180	Mecklenburg-Vorpommern	40.667
181	South Yorkshire	40.660
182	Northern Ireland (UK)	40.575
183	Lüneburg	40.569
184	Derbyshire and Nottinghamshire	40.477
185	Northumberland and Tyne and Wear	40.475
186	Thüringen	39.835
187	Kypros	39.720
188	Kriti	39.572
189	Kent	39.448
190	North Yorkshire	39.366
191	Essex	39.147
192	Ionia Nisia	38.897
193	Herefordshire, Worcestershire and Warwickshire	38.805
194	Devon	38.649
195	Kentriki Makedonia	38.621
196	Região Autónoma da Madeira (PT)	38.211
197	Merseyside (NUTS 2006)	38.091
198	Lancashire	37.678
199	East Yorkshire and Northern Lincolnshire	37.556
200	Zahodna Slovenija	37.325
201	Cumbria	37.242
202	Tees Valley and Durham	37.037
203	Brandenburg - Nordost (NUTS 2006)	36.861
204	Anatoliki Makedonia, Thraki	35.452
205	Thessalia	35.014
206	Shropshire and Staffordshire	34.892
207	Peloponnisos	34.774
208	Lincolnshire	34.036
209	West Wales and The Valleys	33.803
210	Dytiki Ellada	33.618
211	Ipeiros	32.969
212	Algarve	31.952
213	Cornwall and Isles of Scilly	31.635
214	Malta	30.996
215	Közép-Magyarország	30.679
216	Alentejo	28.973
217	Região Autónoma dos Açores (PT)	28.712
218	Sjeverozapadna Hrvatska	26.557
219	Vzhodna Slovenija	26.069
220	Jadranska Hrvatska	25.535
221	Bucuresti - Ilfov	25.323

222	Mazowieckie	24.344
223	Jihovýchod	23.825
224	Norte	23.754
225	Strední Čechy	22.427
226	Moravskoslezsko	22.411
227	Severozápad	22.182
228	Centro (PT)	22.052
229	Západné Slovensko	21.775
230	Jihozápad	21.772
231	Severovýchod	21.554
232	Strední Morava	21.418
233	Stredné Slovensko	20.427
234	Wielkopolskie	20.172
235	Eesti	20.052
236	Pomorskie	19.846
237	Dolnoslaskie	19.824
238	Slaskie	19.393
239	Sredisnja i Istocna (Panonska) Hrvatska	18.198
240	Zachodniopomorskie	18.003
241	Východné Slovensko	17.952
242	Nyugat-Dunántúl	17.546
243	Poranesna jugoslovenska Republika Makedonija	16.968
244	Lietuva	16.935
245	Közép-Dunántúl	16.219
246	Opolskie	15.808
247	Malopolskie	15.759
248	Lubuskie	15.323
249	Észak-Alföld	15.314
250	Kujawsko-Pomorskie	15.282
251	Dél-Dunántúl	14.950
252	Észak-Magyarország	14.442
253	Dél-Alföld	14.183
254	Warminsko-Mazurskie	13.529
255	Lódzkie	13.168
256	Podlaskie	12.801
257	Vest	12.799
258	Swietokrzyskie	12.235
259	Centru	12.146
260	Podkarpackie	11.729
261	Nord-Vest	11.153
262	Lubelskie	10.683
263	Sud-Est	9.769
264	Sud - Muntenia	9.593
265	Sud-Vest Oltenia	8.233
266	Nord-Est	6.919

Iturria: EUROSTAT, INE eta INSEE.

8. taula. Balio erantsi gordina landuneko (NUTS 2).

1.2.3. Enplegua

Aurreko ataletan, BPG eta BEG makroekonomia-magnitudeen neurriak azaldu ditugu Euskal Herriaren egoera eta posizioa adierazteko. Hori eta azaldu dugun Euskal Herriko sektore ekonomikoen banaketa nahikoa da esan ahal izateko Euskal Herria Europar Batasuneko nazio garatuaren parekoa dela. Halere, Euskal Herriko egoera bere osotasunean ulertzeko behar-beharrezkoa da izaera sozialeko beste adierazleak aintzat hartzea. Gaindegiak (Asier Otxoa de Retana) bildutako datuak baliatu ditugu adierazle batzuk hemen azaltzeko.

Kataluniaren antzera, Euskal Herria da Europako hegoaldeko nazioen artean enplegu-tasarik hoberenetako lurralde bat, Europar Batasuneko batez bestekoaren pareko edo zerbait beherago. Mende hasierako urteetan (2000-2005) Euskal Herriko enpleguak izan zuen hazkunde esanguratsua eta garrantzitsua Europako bestelako eskualdeekin konparaturik.

Krisiaren eraginez, 2009. urtean, enpleguaren hazkunde negatiboa iritsi da Euskal Herrira eta, tamalez, azken datuen arabera hazkunde negatibo horrek ez du etenik izan azken urteotan.

Enpleguaren hazkundera eta enplegu-tasa. Euskal Herria eta Europar Batasuna, 2002-2010.						
	2002-2006 *	2007	2008	2009	2010	2010
Islandia	-0,5	0,6	-1,8	-6,3	-0,1	78,2
Zeelanda	1,0	0,3	0,7	2,3	-3,0	74,7
Baden-Württemberg	0,5	2,8	1,8	-0,9	-0,5	74,0
Brandenburgo	1,5	4,4	3,2	1,4	1,1	73,0
Suedia	-0,2	1,5	0,1	-2,8	0,7	72,7
Alemania	0,6	2,8	1,9	0,3	0,3	71,1
Mecklenburg-Vorpommern	1,3	3,0	4,6	1,5	1,6	70,6
Eskozia	0,5	1,7	-0,8	-2,5	-2,1	69,4
Finlandia	0,4	1,4	1,1	-3,4	-0,9	68,1
Poitou-Charentes	-0,1	0,9	2,8	-1,7	-0,5	65,2
Bretaña	0,6	-0,6	1,4	0,9	-3,0	64,5
Euskal Herria_Eustat	2,0	1,8	-0,1	-4,0	-0,2	64,2
Europar Batasuna (27)	1,9	-6,2	0,8	-1,8	-0,8	64,1
Euskal Herria_INE	2,1	1,0	-0,4	-5,7	0,5	63,8
Frantzia	0,3	1,3	0,8	-1,1	-0,3	63,5
Itä-Suomi	1,1	-1,0	2,4	-3,1	2,4	63,3
Espainia	2,3	1,2	-2,0	-7,0	-2,0	58,6
Région wallonne	0,3	1,6	0,4	-1,7	0,9	56,7

* Urte-epe horretako urteko batez besteko hazkundera.

Iturria: Eurostat, EUSTAT, INE eta INSEE.

Oharra: 16 eta 64 urte bitarteko biztanleria kontuan hartu da.

9. taula. Enplegua Euskal Herrian eta Europar Batasunean (Gaindegi).

Enplegu-tasaren antzera, Euskal Herriko jarduera-tasa —% 71,8, 2009an—, Europar Batasuneko (27) batez bestekotik apur bat gorago zegoen. Jarduera-tasa adierazle honen arabera, Europako biztanleria aktiboaren errealitate oso desberdinak antzeman daitezke eskualde batetik bestera.

Gazteenen artean, 15 eta 24 urte, berriz, Euskal Herriak dauka enplegu-tasarik txikienetakoa —% 27,1, 2009an—, Europar Batasuneko (27) batez bestekoaren azpitik oso nabarmen. Tarteko adin-multzoetan, 25-34, 35-44, Euskal Herriko enplegu-tasa Europar Batasuneko tasaren antzekoa da (% 75,9 eta % 80,7). Azkenik, edadekoen artean, 45-54, 55-64, Europar Batasuneko enplegu-tasak (% 77,5 eta % 46,0) handiagoak dira Euskal Herrian 2009. urtean neurtutakoak baino.

1.2.4. Langabezia

Euskal Herriko langabezia-tasa, oro har, 1,9 puntu handiagoa zen Europar Batasuneko baino 2009. urtean. Azken urteotan, beste aldetik, langabezia-tasa bizkorrago hazi da Euskal Herrian Europan baino, diferentzia, beraz, handitzen ari da.

Langabeziaren bilakaera. Euskal Herria eta Europar Batasuna, 2008-2010.					
	Langabetuen bilakaera			Langabe kop.	Langabezi tasa
	2008	2009	2010	2010	2010
Espainia	41,3	60,2	11,6	4.632.400	20,1
Mecklenburg-Vorpommern	-16,4	-6,1	-11,8	110.300	12,4
Région wallonne	-3,6	11,8	4,3	170.700	11,4
Euskal Herria	11,2	61,7	-1,1	163.188	11,0
Itä-Suomi	-11,2	11,4	-4,5	8.400	10,1
Brandenburg	-17,4	-1,5	-13	136.100	10,0
Frantzia	-6,1	23	3	2.831.400	9,7
Europar Batasuna	-1,1	27,8	7,7	23.080.800	9,6
Finlandia	-0,4	23,7	-2,3	67.800	8,4
Suedia	2,4	34,3	1,8	417.200	8,4
Eskozia	-1,7	48,6	18,8	219.000	8,2
Poitou-Charentes	9,1	18,3	-8,1	62.300	8,1
Islandia	35	139	5,4	13.600	7,6
Bretaña	-16,7	7,2	21,1	99.200	7,2
Alemania	-12,8	2,7	-8,7	2.945.500	7,1
Baden-Württemberg	-13,7	20,9	-6,3	268.300	4,8
Zeelanda	32,5	-22,6	26,8	5.200	2,7

Iturria: Eurostat eta INSEE.

10. taula. Langabezia-tasa Euskal Herrian eta Europan (Gaindegia).

Langabezia-tasaren hazkundeak ez du etenik izan azken urteotan eta, itxura denez, lanpostu-galera etetea kostako da. Lehen aipatu dugunez, gazteenen artean gertatzen da enplegu-tasarik txikiena, ondorioz, logikoki gazteenen artean, 15 eta 24 urte bitartekoen artean, gertatzen da langabezia-tasarik handiena (% 30,3) Azken urteetan izan da langabezia-tasaren hazkunde bizia, 2009. urtean, kasurako, Euskal Herriko langabezia-tasak Europar Batasuneko tasaren halako bi jaso zuen.

Gazteak eta emakumeak, hurrenkera horretan, izaten dira krisiak zigortuenak. Euskal Herrian ere, 15 urtetik gorako emakumeen artean langabezia-tasa biztanleria osoan baino zertxobait handiagoa da. Helduen artean, gizonezkoen artean, batez ere, langabezia-tasa apalagoa da.

1.2.5. Hezkuntza-maila

Euskal Herria da unibertsitate-mailako tituludunen proportziorik handieneko herria Europar Batasunean (27)

Biztanleriaren formazio-maila (25-64) (%). Euskal Herria eta Europar Batasuna, 2010.			
	2. hezkuntza maila baino >	2. hezkuntza maila baino <	Goi-mailako hezkuntza maila
Euskal Herria	33,8	24,5	41,7
Finlandia	17,0	44,8	38,1
Eskozia	22,5	40,1	37,3
Norvegia	19,1	44,0	36,9
Danimarka	23,5	42,3	34,2
Suedia	18,4	47,4	34,2
Région wallonne	32,8	34,6	32,7
Islandia	33,5	34,0	32,5
Itä-Suomi	18,2	49,9	31,9
Espainia	47,4	22,0	30,7
Brandenburgo	6,3	63,4	30,3
Baden-Württemberg	15,5	55,4	29,1
Frantzia	29,2	41,8	29,0
Rhône-Alpes	27,9	43,4	28,6
Bretaña	23,2	48,8	28,0
Alemania	14,2	59,2	26,6
Zeelanda	29,9	43,7	26,4
Europar Batasuna (27)	27,3	46,8	25,9
Poitou-Charentes	29,3	48,0	22,7

Iturria: Eurostat, INE eta INSEE.

11. taula. Hezkuntza-maila Euskal Herrian eta Europan (Gaindegia).

Emakumezkoen formazio-maila (25-64) (%). Euskal Herria eta Europar Batasuna, 2010.			
	2. hezkuntza maila baino >	2. hezkuntza maila baino <	Goi-mailako hezkuntza maila
Finlandia	14,8	41,3	44,0
Euskal Herria	33,9	24,0	42,1
Norvegia	19,5	39,5	41,0
Itä-Suomi	15,4	44,5	40,2
Eskozia	25,9	34,5	39,6
Suedia	18,5	42,1	39,4
Islandia	33,9	28,2	37,8
Danimarka	24,9	37,9	37,1
Région wallonne	32,3	32,8	34,9
Espainia	46,3	21,7	32,0
Brandenburgo	6,3	62,0	31,7
Frantzia	30,4	38,9	30,7
Bretaña	25,1	44,3	30,6
Rhône-Alpes	29,1	41,2	29,7
Zeelanda	31,9	39,9	28,2
Poitou-Charentes	30,4	42,0	27,5
Europar Batasuna (27)	28,3	45,1	26,7
Alemania	16,7	59,9	23,4
Baden-Württemberg	18,8	58,2	23,0

Iturria: Eurostat, INE eta INSEE.

11. taula. Jarraipena.

Euskal Herriko gizartean izan diren aldaketak alderdiren batean nabarmenak izan badira, herritarren hezkuntza-mailan izan da. Oraindik zenbait desoreka antzeman badaitezke ere, hezkuntza-mailan izan den hazkundea oso nabarmena izan da. Azpimarragarria da emakumeen artean gertatu den hazkundea; dauzkagun datuen arabera, sexuen artean, Euskal Herriko hezkuntza-maila Europako orekatuenetakoa da.

Datu garrantzitsua da; emakumeen egoerak adierazten baitu ondoen herriaren garapen-maila nolakoa den. Nolakoa esatean, esan nahi dugu emakumearen egoera zenbat eta hobea izan, orduan eta altuagoa dela herri osoaren bizi-kalitatearen maila. Emakumeen egoera makurra denean, herri osoaren egoera txarra izan ohi da.

1.2.6. Gizarte-babesa eta pobrezia-arriskua

Pobreziaren edo bazterketaren arriskuan dagoen biztanleria, ehunekotan neurtzen den adierazlea da. Pobrezia-arriskuan, gabezia material larrian edota lan-intentsitate urriko familien etxeetan bizi diren edo dauden pertsonak sartzen dira. Modu bat baino gehiago dago pobrezia-arriskua neurtzeko, lan honetan EUROSTAT, EUSTAT, INE eta INSEE erakunde estatistikoek erabilitako datuak harmonizatu ditugu.

Herriaren ongizatearen egoera adierazteko beste modu bat da kalkulatzeko barne-produktu gordinaren zenbat, zein portzentaje, gastatzen den gizarte-babesean. Gizarte-babesa da, laburbilduta, osasuna, gaixotasuna, ezintasuna, zahartzaroa, etxebizitza eta, oro har, duintasunez bizi ahal izateko behar diren alorretan erakunde publikoek eta pribatuek ematen duten laguntza.

Gizarte-babesaren gastua (BPG %), hazkundera eta %. Euskal Herria eta Europar Batasuna, 2001-2008.									
	Hazkundera								BPG %
	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2008
Frantzia	0,12	0,85	0,57	0,33	0,14	-0,65	-0,25	0,38	31,01
Danimarka	0,36	0,47	1,19	-0,17	-0,48	-1,00	-0,48	0,88	29,64
Suedia	0,56	0,83	0,97	-0,66	-0,43	-0,77	-1,15	0,30	29,52
Herbehereak	0,11	1,08	0,69	0,08	-0,48	0,95	-0,50	0,18	28,48
Austria	0,30	0,38	0,45	-0,33	-0,37	-0,48	-0,47	0,65	28,42
Belgika	0,87	0,35	0,73	0,02	-0,08	-0,26	-0,28	1,36	28,14
Alemania	0,07	0,65	0,42	-0,65	-0,06	-1,12	-1,11	0,18	27,97
Italia	0,24	0,36	0,50	0,18	0,39	0,26	0,09	1,08	27,81
Europar Batasuna (27)	-	-	-	-	-	-0,45	-0,90	0,97	26,70
Erresuma Batua	0,42	-1,13	0,03	0,14	0,38	-0,24	-2,75	3,01	26,28
Grezia	0,82	-0,31	-0,52	0,15	1,23	-0,13	0,09	1,47	26,27
Finlandia	-0,07	0,69	0,91	0,05	0,04	-0,28	-1,06	0,80	26,16
Norvegia	1,04	0,53	1,25	-1,33	-2,04	-1,24	0,28	-0,39	22,49
Espainia	-0,30	0,33	0,26	0,05	0,24	-0,06	0,16	1,44	22,12
Irlanda	0,95	2,31	0,63	0,22	0,06	0,30	0,51	3,28	22,04
Islandia	0,20	1,82	1,73	-0,35	-0,95	-0,45	0,20	0,55	21,97
Euskal Herria	0,21	0,23	0,21	0,00	-0,19	-0,36	0,18	1,28	21,42
Estonia	-0,86	-0,34	-0,12	0,46	-0,44	-0,43	-0,02	2,76	14,87

Iturria: Eurostat, NEI, EUSTAT eta INSEE.

12. taula. Gizarte-babesaren gastua, BPGren ehunekoa (Gaindegia).

Ikusten denez, Euskal Herriaren kasua ez da Europako onenetakoa. Europar Batasuneko (27) batez bestekotik ia 7 puntu azpitik dago. Frantziako adierazletik oso urrun eta Espainiakoaren azpitik dago Euskal Herriko adierazlea. Gizarte-babesaren alorrean Iparralde eta Hegoalde artean diferentzia oso esanguratsuak daude. Eremu honetan gertatzen da diferentziarik nabarmenetako bat mugaz alde bateko eta besteko gizartearen artean. Iparraldeko biztanle askok hautematen du Frantziako sistemak babes handiagoa eskaintzen duela Espainiakoak baino. Arrazoia dauka.

Europako estatistika-sistema gehienetan, Euskal Herrikoetan ere, —EUSTAT, INE eta INSEE—, bazterketaren arriskuan dauden pertsonak edo familiak kontsideratzen dira, besteak beste, gabezia material larrietan bizi direnak. Gabezia material larriak, batzuk aipatzearren, dira: etxebizitzaren alokairua ordaintzeko adina ez izatea, etxea berotzeko baliabiderik ez izatea edota eguneroko elikaduran proteinak erregulartasunez ez izatea.

6.-EUSKAL HERRIA NAZIOARTEAN

1.-Dimentsio sozio-demografikoa: pobrezia arriskua

□ 133. Pobrezia arriskua txikia da Europar Batasuneko metodologiaren baitan

Pobrezian murgiltzeko arriskuaren hazkundea eta pertsona kopurua (%). Europa, 2005-2009.						
	2005	2006	2007	2008	2009	2009
Spain	-1,0	1,0	-1,0	-0,5	-0,5	19,5
Italy	-1,0	3,7	1,5	-6,0	-1,6	18,4
United Kingdom		0,0	-0,5	-1,1	-7,5	17,3
European Union (27 countries)		0,6	1,2	-1,8	-0,6	16,3
Germany		2,5	21,6	0,0	2,0	15,5
Ireland	-5,7	-6,1	-7,0	-9,9	-2,6	15,1
Switzerland					-6,8	15,1
Belgium	3,5	-0,7	3,4	-3,3	-0,7	14,6
Finland	6,4	7,7	3,2	4,6	1,5	13,8
Sweden	-15,9	29,5	-14,6	16,2	9,0	13,3
Denmark	8,3	-0,8	0,0	0,9	11,0	13,1
France	-3,7	1,5	-0,8	-3,1	1,6	12,9
Norway	5,6	-0,9	9,7	-8,1	2,6	11,7
Netherlands		-9,3	5,2	2,9	5,7	11,1
Iceland	-3,0	-1,0	5,2	0,0	1,0	10,2
Euskal Herria	-15,9	2,9	5,8	-29,7	24,6	9,3

Iturria: Eurostat, INE eta INSEE.

13. taula. Pobrezia-arriskua Euskal Herrian Europar Batasuneko ingurunean (Gaindegia).

Pobrezia-arriskua Euskal Herrian, oro har, txikia dela jo dezakegu. Kasu honetan, gure ustez, Euskal Herriaren tamainak, bakarrik 3 milioi biztanle izateak laguntzen du. Edozelan ere, azken urteetako krisiaren eraginez, pobrezia-multzo berriak agertzen ari dira Euskal Herriko herritarren artean, etorkin eta emakumeen artean bereziki.

Pobrezian erortzeko arriskua. Euskal Herria eta Europar Batasuna, 2005-2010.							
	Hazkundera						Tasa
	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2010
Txekiar errepublika	-	-0,5	-0,3	-0,6	-0,4	0,4	9
Islandia	-0,3	-0,1	0,5	0	0,1	-0,4	9,8
Herbehereak	-	-1	0,5	0,3	0,6	-0,8	10,3
Euskal Herria	-1,9	0,3	0,6	-3,2	1,9	1,6	10,9
Norvegia	0,6	0,9	-0,4	-0,5	0,3	-0,5	11,2
Eslovakia	-	-1,7	-1	0,3	0,1	1	12
Austria	-0,5	0,3	-0,6	0,4	-0,4	0,1	12,1
Hungaria	-	2,4	-3,6	0,1	0	-0,1	12,3
Eslovenia	-	-0,6	-0,1	0,8	-1	1,4	12,7
Suedia	-1,8	2,8	-1,8	1,7	1,1	-0,4	12,9
Finlandia	0,7	0,9	0,4	0,6	0,2	-0,7	13,1
Danimarka	0,9	-0,1	0	0,1	1,3	0,2	13,3
Frantzia	-0,5	0,2	-0,1	-0,4	0,2	0,6	13,5
Luxenburgo	1	0,4	-0,6	-0,1	1,5	-0,4	14,5
Belgika	0,5	-0,1	0,5	-0,5	-0,1	0	14,6
Suitza	-	-	-	-	-1,1	-0,1	15
Malta	-	0,1	0,8	0,2	0,3	0,2	15,5
Alemania	-	0,3	2,7	0	0,3	0,1	15,6
Estonia	-1,9	0	1,1	0,1	0,2	-3,9	15,8
Irlanda	-1,2	-1,2	-1,3	-1,7	-0,5	1,1	16,1
Europar Batasuna (15)	-1,3	0,2	0,1	0,2	-0,1	0,1	16,2
Europar Batasuna (27)	-	0,1	0	-0,1	-0,1	0,1	16,4
Zipre	-	-0,5	-0,1	0,7	0	0,8	17
Erresuma Batua	-	0	-0,4	0,1	-1,4	-0,2	17,1
Polonia	-	-1,4	-1,8	-0,4	0,2	0,5	17,6
Portugal	-1	-0,9	-0,4	0,4	-0,6	0	17,9
Italia	-0,2	0,7	0,3	-1,2	-0,3	-0,2	18,2
Grezia	-0,3	0,9	-0,2	-0,2	-0,4	0,4	20,1
Lituania	-	-0,5	-0,9	0,9	0,6	-0,4	20,2
Kroazia	0	-1	1	-0,7	0,6	2,6	20,5
Bulgaria	-1	4,4	3,6	-0,6	0,4	-1,1	20,7
Espania	-0,2	0,2	-0,2	-0,1	-0,1	1,2	20,7
Errumania	-	-	-	-1,4	-1	-1,3	21,1
Letonia	-	3,9	-1,9	4,4	0,1	-4,4	21,3

14. taula. Pobrezia-arriskua Europar Batasunean (Gaindegia).

2. EKONOMIA ETA GIZARTEAREN GARAPENAREN ADIERAZLEAK: NAZIOAREN KOHESIO-ADIERAZLEAK

Ekonomiaren eta gizartearen garapenaren adierazleak edo sozioekonomiako adierazleak informazio baliotsua eta erabilgarria dira, dudarik gabe, gizartearen egoera zein den jakiteko. Estatuetakoa adierazleak direnean, estatuen ordena edo hurrenkera nolakoa den ezagutzeko balio dezakete eta, era berean, estatu bakoitzaren ekonomia eta politika sozialak nolakoak diren erakusten digute adierazleek.

Ekonomiaren eta gizartearen garapenaren adierazleak agerrarazi ditzakete, beste aldetik, estatuaren barreneko lurraldeen arteko diferentziak eta, bide beretik, agerian utzi estatu bakoitzaren lurraldearen antolamendu-irizpideak nolakoak diren

Estatuak gabeko nazioen kasuan, Euskal Herriaren kasuan ere, ekonomiaren eta gizartearen garapenaren adierazleak ezagutzea oso da garrantzitsua lurralde desberdinen arteko kohesioa zenbatekoa den jakin nahi badugu. Hau da, lurraldeen arteko diferentziak zenbat eta handiagoak izan, nazioaren kohesio-maila orduan eta txikiagoa izan daitekeela pentsa dezakegu. Iparraldeko gazteek badakite, kasu baterako, Hegoaldean gizarte-babes maila txikiagoa izango dutela eta, ondorioz, oso gutxi izango dira Hegoaldeko lan-merkatura joko dutenak. Nazio barruko izaera bateko edo besteko muga administratiboek sorraraz ditzakete ekonomiaren eta gizartearen garapen-maila desberdinak.

Europar Batasuneko estaturik gabeko nazioek baliabide batzuk aurki ditzakete Europar eta estatuetakoa administrazioetan euren ekonomiaren eta gizartearen garapen-mailak hobetzeko eta harmonizatzeko. Halere, ez dute inoiz ere izango estatuek adina eskumen eta baliabide. Estatuetikiko mendekotasunak eta nazioko lurraldearen zatiketa administratiboak ahultzen du nazioaren kohesioa.

BIBLIOGRAFIA

Bauman, Z. (1997): "Is There a Postmodern Sociology?", in S. Seidman (arg.), *The Postmodern Turn. New Perspectives on Social Theory*, Cambridge University Press, New York, 187-204.

———, (1997): "Espíritus de estado. Génesis y estructura del campo burocrático", in P. Bourdieu (arg.), *Razones prácticas. Sobre la teoría de la acción*, Anagrama, Bartzelona, 91-125.

Guinjoan, M. eta Cuadras Morató, X. (2011): *Sense Espanya Balanç econòmic de la independència*, Raval Edicions SLU, Pòrtic Bartzelona.

Otxoa de Retana, A.: *Euskal Herriko zifrak 2011*, GANDIEGIA, Andoain.
HARIA aldizkaria, 30. zk., 2012 Nabarralde.

(www.)arcat.org/ Atlantikoko Arkuko Hirien Bilgunea

(www.)arcatlantique.org/ Atlantikoko Arkuko Batzordea

(www.)ces.eu.int Europako Ekonomia eta Gizarteko Batzordea

(www.)cesvasco.es Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

(www.)datutalaia.net Euskal Herriko Datuen Talaia

(www.)eurocitie-basque.org/ Euskal Euro Hiria
(www.)eurocities.org/ Euro Hiriak
(www.)eurometrex.org M E T R E X Eskualde eta hiri europarren sarea
(www.)gaindegia.org Euskal Herriko Ekonomia eta Gizartearen Garapenerako Behatokia
(www.)interreg3c.net/ INTERREG III Batasuneko Ekimen Komunitarioaren Programa
(www.)lurraldea.net Hautetsien Kontseilua eta (Ipar) Euskal Herriko Garapen Kontseilua
(www.)cesr-aquitaine.fr Akitaniako Ekonomia eta Gizarteko Kontseilua

2. Euskal Estatua eta sozioekonomia

Nekane Jurado Pérez, Ekonomia eta Zientzia Enpresetan, Aktuaritza eta Finantza Zientzietan eta Psikologia Klinikoko lizentziatua, Ikerlari soziala

Globalizazioaren teoriak eta haren esku ikusezinek —merkatuek— murriztu egiten dute politikaren garrantzia, baita haren espazioa ere: gobernuak nazioarteko indar ekonomikoek preso hartutako erakundeak balira bezala agertzen dira, zeren indar horiek konfiguratu baitute estatu bakoitzaren barnean posible denaren esparrua. Bestelako Euskal Herri bat eraiki daiteke, «merkatu»en diseinu horretatik kanpo.

Independentzia ekonomikoa ahalbidetzen digun apustu estrategikoa garatzeko, orain pairatzen duguna baino bidezkoagoa eta solidarioagoa den eredu berri bat martxan jartzeko, gure abiapuntua da gure proiektuaren bideragarritasun sozioekonomikoa Euskal Herriaren ezaugarrien ondorio dela: haren dimentsio txikia, egoera geografiko ona, eta giza baliabideen eta baliabide ekonomiko eta finantzarioen nahikotasuna. Hori guztia aztertuta dago lan honetan, Espainiako estatuarekin dauden fluxu ekonomiko nagusiekin batera.

Some thoughts about economics for nation building

Globalization theory and its invisible arm —the markets— limit the relevance of politics and its area of influence: governments are seen as captives of international economic forces, since these forces configure the space which determines what it is possible for each state to do. A different kind of Euskal Herria could be constructed outside that which has been designed by “the markets”.

Our initial premise, in developing a strategic approach to attaining economic independence so that a new model may be implemented that is fairer and more humane than the one to which we are currently subjected, is that the socioeconomic feasibility of our project ensues from the characteristics of the Basque Country: small size, an excellent geographical location, and the sufficiency of its human, economic and financial resources. This chapter examines all these issues as well as looking at the principal economic flows between Euskal Herria and Spain.

1. FLUXU EKONOMIKOEN ADIERAZLE NAGUSIAK

1.1. Merkataritzaren eta kapitalaren fluxuak

Merkatuak errealitate ekonomiko bat ote dira, edo kontzeptu geldiarazleak?¹²

Gaur egungo kontzeptu indartsuena, bai politikan eta bai ekonomian, *merkatuak* kontzeptua da, azken hogeitaz urteotan nagusitu den *globalizazio ekonomikoa* kontzeptuari gailenduz. Kontzeptu horri berebiziko autoritatea egozten zaio, hainbestearaino non berari leporatzen baitzaio nazioek garrantzia galdu izana beren etorkizunaren konfigurazioan. *Merkatuei* osoko eskubidea ematen zaie jarraibide politiko eta ekonomikoak gobernuari ezartzeko, bai gobernu nazionalari eta bai eskualdeetakoari. Era horretan, inoiz baino gehiago murriztu dira gobernu horiek —itxuraz— hautatu ditzaketen aukerak.

Horrenbestez, *globalizazioaren teoriak* eta haren esku ikusezinek, *merkatuek*, politikaren garrantzia murrizten dute, baita beraren espazio propioa ere: gobernuak nazioarteko indar ekonomikoek preso hartuta dituzten instituzioak balira bezala agertzen dira, zeren indar horiek konfiguratzeko baitute *posible den* esparrua estatu bakoitzaren barruan. Ezin kuestiona daitekeen eta fede-dogma bihurtu den diskurtso hori (botereen bereizkuntzarik gabe) da politika publiko guztien egoeraren diagnosa egiten duena, bera da terapia eta tratamendu-dosiak ezartzen dituen, babes sozial eta laboral guztia desegiteko fase honetan. Ebakuntza-gelako terapiak, lege mailatik haratago eraman eta konstituzio-agintearen bidez sakralizatu nahi direnak.

Hala, Euskal Herrian, globalizazioari emandako erantzun politiko bakarra izan da lanaren, zergen eta babes sozialaren alorreko kostuak etengabe jaitea, lehiakortasuna hobetzeko xedez —politikariek diotenez—, merkatuen eskariari erantzuteko. Aipatutako lanean aipatzen zen (1. oharra) noraino ziren gezurrezkoak *globalizazioaren teoriaren* esanak, nahiz eta, Legearen Taula berriak balira bezala, sakralizatu egin diren. Gogora dezagun Hagland J. ospetsuak 1995ean idatzitakoa:

...interesak ezartzen dituzten finantza-merkatuak eta banku zentralak dira 20 urte bete dituen gerra honetako jeneralak; teoriak, inflazioa kontrolatzeko beharrezkoa dela esaten da, justifikazio gisa, baina praxian egiten dena da gobernuak botererik gabe utzi eta demokrazia pobretu. Zergak igotzeko ausardiarik gabe, eta bonu eta segurtasunen merkatuak ez izutzeko, beldur horrek finantzarien aurrean makurtu ditu politikariak, aurrekontuaren eta politika fiskalen gerran¹³.

Globalizazioaz eta haren merkatuez kontzeptu global bezala hitz egiten da (zilegi bekit erredundantzia), nabarmenki bereizten diren hiru errealitate barne hartzen baditu ere: merkataritzaren globalizazioa, kapital produktiboaren globalizazioa, eta finantza-kapitalaren globalizazioa.

12. Jurado, N. (1999) "Ejes económicos para una construcción nacional", *Formazio Koadernoak*, 26, IPESek argitaratua. Orain dela 12 urte, honen antzeko ariketa bat egin genuen eta, datuak alde batera utzita, eguneratu egin behar direlako, lan horrek erabateko gaurkotasuna du; horregatik, lan horretan garatutako ideiak hartu ditut abiapuntutzat.

13. Hagland, J., *Washington Post*, 1995eko abenduaren 10a.

a. Merkataritzaren globalizazioa Hego Euskal Herrian

Hego Euskal Herriak (HEH) joera komertzial historikoa izan du Ekonomia Lankidetzat eta Garapenerako Antolakundeko (ELGA) herrialdeekin, batez ere Europar Batasunekoekin, baina, horrez gain, badirudi finkatuta dituela fluxu komertzial horiek, matrize multinazionalaren eta beraren HEHko filialen arteko harreman komertzialek duten pisuari esker (Mercedes-benz, Volkswagen, eta abar).

Eskura dauden datu publikoei dagokienez, azpimarratu behar dugu ez dutela jasotzen HEHren eta Espainiako estatuaren arteko merkataritzaren bolumena; horregatik, ezin egin daiteke HEHren merkataritzaren azterketa osoa haren lurralde-eremutik kanpo.

	2006			2008			2010		
	A-B-G	Nafarroa	HEH	A-B-G	Nafarroa	HEH	A-B-G	Nafarroa	HEH
Esportazioak, guztira	16.647,40	5.495,70	22.143,10	20.279,40	6.378,90	26.658,30	17.545,90	7.407,30	24.953,20
ELGA	13.939,90	4.810,10	18.750,00	16.044,20	5.158,10	21.202,30	12.902,30	6.128,90	19.031,20
Europar Batasuna	11.653,60	4.184,00	15.837,60	13.541,50	4.272,70	17.814,20	10.837,50	5.803,90	16.641,40
Frantzia	3.068,90	1.241,60	4.310,50	3.524,70	1.210,80	4.735,50	3.020,40	1.343,30	4.363,70
ELGAtik kanpoko herrialdeak	2.707,50	685,60	3.393,10	4.235,20	1.220,80	5.456,00	4.643,60	1.278,40	5.922,00
Inportazioak, guztira	17.478,10	5.250,60	22.728,70	20.118,00	4.908,60	25.026,60	15.257,20	4.468,20	19.725,40
ELGA	10.056,60	4.489,90	14.546,50	11.016,60	3.913,25	14.929,85	8.788,50	3.664,90	12.453,40
Europar Batasuna	8.878,00	4.390,70	13.268,70	9.747,40	3.762,00	13.509,40	7.394,40	3.622,80	11.017,20
Frantzia	1.779,00	624,5	2.403,50	1.989,00	506,3	2.495,30	1.560,90	542,1	2.103,00
ELGAtik kanpoko herrialdeak	7.421,50	760,70	8.182,20	9.101,40	995,35	10.096,75	6.468,70	803,30	7.272,00
Saldo Komertziala	-830,70	245,10	-585,60	161,40	1.470,30	1.631,70	2.288,70	2.939,10	5.227,80

Iturria: EUSTAT, Kanpo Merkataritzaren Estatistikak oinarritzat hartuta. Aduanen Erregistroak. Nafarroako Gobernuak. Kanpo Merkataritzaren Estatistikak.

1. koadroa. Hego Euskal Herriko kanpo-merkataritza (2006-2010). Milioi eurotan neurtuta.

Ikus daitekeenez, HEHko balantza komertziala (esportazioak-inportazioak) aldekoa da, superabita gero eta handiagoa baita; 2010ean, 5.227,8 milioi eurokoa izan zen.

Serie historikoak adierazten duenez, kanpo-merkataritza 2008an iritsi zen bere puntu gorenera, hau da, krisia hasi zen urtean; harrezkero, berriz, inportazioak esportazioak baino askoz ere astiroago bizkortzen dira, barne-eskariaren ahultasun iraunkorraren eraginez; horren arrazoia dira gastu publikoaren murrizketa handia, soldata-masa globalaren jaitsiera eta barne-inbertsioaren beherakada, baina ez kapital propiorik ez dagoelako (hurrengo atalean aztertuko dugu), baizik eta euskal kapitala atzerrian inbertitzen ari delako, bere lurralde ekonomiko propioari bizkarra emanez.

2010. urtean, esportazioen bi herenak (% 66,69) EBra joan ziren¹⁴, eta Frantziako estatua izan zen lehenengo bazkide komertziala, eremu geografiko honetan egindako salmenta guztien % 26,2 bereganatu baitzituen. Inportazioei dagokienez, % 55,85 EBrekin egin ziren, eta kasu honetan ere Frantzia izan zen HEHren hornitzaile nagusia (EBn egindako erosketen % 19).

b. Kapital produktiboaren globalizazioa

Atzerriko inbertsioak HEHn dituen fluxuak aztertzerakoan, ikus daiteke Euskal Herriak ez duela kapital-arazorik. Aitzitik, Araban, Bizkian eta Gipuzkoan **inbertsioa «modu masiboan ateratzen da kanpora», barneko inbertsio produktiboa geldiarazita uztearen truke**. Iteera masiboa diogu, zeren kapital-iteera horren pisu kualitatiboa beste edozein adierazle ekonomiko baino handiagoa baita. Hala, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioaren 2008 eta 2009ko erregistroen arabera, hiru herrialde horien inbertsioa Espainiako estatuaren atzerriko inbertsioaren % 11 baino gehiago zen, hots, Espainiako estatuak atzerrian inbertitzen zuenaren % 11 baino gehiago.

	2008			2009			2010		
	A-B-G	Nafarroa	HEH	A-B-G	Nafarroa	HEH	A-B-G	Nafarroa	HEH
Atzerriko inbertsioa HEHn	429,4	123,9	553,3	770,3	27,8	798,1	252,2	109,4	361,6
HEHk atzerrian inbertitutakoa	5.341,60	72	5413,6	2.507,40	34,2	2541,6	2.111,20	5,3	2116,5
Kapital Saldoa	-4.912,20	51,90	-4.860,30	-1.737,10	-6,40	-1.743,50	-1.859,00	104,10	-1.754,90

Iturria: Kanpo Inbertsioen IG. Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioa.

Inbertsio gordina. ETVEak barne sartuta (Entidades de Tenencia de Valores Extranjeros).

2. koadroa. Hego Euskal Herriaren kanpo-inbertsioa (2008-2010). Milioi eurotan

Beraz, HEHren arazoa ez litzateke izango atzerriko inbertitzaileak eskuratzeko lehiatzea, baizik eta bertoko kapitala berton geratzera animatzea.

c. Finantza-kapitalaren globalizazioa

Kapital honek «merkatu»-en nukleo nagusia osatzen du. Ez da esan behar, aski ezaguna baita, finantza-kapitalaren ezegonkortasuna eta botere ekonomikoa direla arazo ekonomiko eta sozialen errudunak, nahiz eta erru hori merkataritzaren eta kapital produktiboaren globalizazioari egotzi nahi izan zaion, modu okerrean.

Orain dela 12 urte, 1999an argitaratutako lanean (ikusi 1. oharra), inork ere aipatu nahi ez zuena adierazi genuen:

Finantza-ezegonkortasun handia eta espekulazioaren aldeko apustua dira inbertsio produktiboa murrizten ari direnak; horren eraginez, ekonomia erreala gutxiago hazten da, eta horrek defizit publikoa igoarazten du. Prozesu hori

14. Nafarroak EBrekin duen integrazio komertziala Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarena baino handiagoa da; hala, 2010. urtean, Nafarroatik EBra egin ziren esportazioak % 78,35 izan ziren, eta inportazioak % 81.

neoliberalismoaren indar ideologikoak hedatzen duenaren kontrakoa da; izan ere, honek defizit publikoari leporatzen dio ekonomiaren motelaldia, beraren ondorioztat hartu beharrean.

Kapital hau opakua da estatistika eta erregistroentzat, batez ere paradisu fiskaletan babesten denean. Dena dela, HEHko datu eta adierazle batzuk ikusita (BGAE eta pentsio-funtsetan dauden gordailuak BPGaren % 30etik gorakoak dira, zerga-iruzurra BPGaren % 15etik gorakoa da urtean, EBko errentaren kontzentrazio handiena, eta abar), garbi geratzen da euskal eskuetan dagoen finantza-kapital espekulatiboa bere eremu geografikoko herrialdeen batez bestekoa baino askoz ere handiagoa dela.

1.2. Fluxu ekonomiko instituzionalizatuak

Aurreko atalean esan dugu ez gurea Iparraldeari buruzko daturik, Euskal Herriaren osotasuna aztertzeko (gabezia etengabea fluxu instituzionalizatueta); bada, atal honetan ere azterketa HEHri buruzkoa da soilik, Kontzertu eta Hitzarmen Ekonomikoaren espezifikotasunagatik, zeren horrek behartzen baitu Madrili kupo bat ordaintzera urtean, Madrilek HEHri ematen diona alde batera utzita. HEHk Espainiako estatuarekin duen mendetasuna aztertzeko modurik garbiena bi lurralde horien arteko fluxu ekonomiko garbiak aztertzea da.

Espainiako estatuarekin dauden fluxu instituzionalizatuak aztertzeko, kontuan hartu behar dugu HEHk zenbait bidetatik ordaintzen duena (kupoa, enpresariak eta langileek Gizarte Segurantzari egiten dizkioten ekarpenak, hitzartu gabeko zerga eta sarrerak, loteriaren eta estatuaren apustuen bidez biltzen dena, defizit publikoaren bidezko finantzaketa, eta abar) eta haren aldetik jasotzen duena (INSSren eta Enplegu Institutu Publikoaren bidez prestazioak kobratzen dituzten pentsiodun eta langabeentzako ordainketak; loterien eta estatuaren apustuen sariengatik egiten diren ordainketak; estatuak HEHn egiten dituen inbertsio errealak eta gastuak, transferitu gabe egoteagatik estatuaren titulartasuna duten eskumenetan; Europako laguntza-funtsak, eta abar).

Kalkulu horren konplexutasunaren ondorioz, ez dago fluxu horiek guztiak barne hartzen dituen azterlanik. 2003ko kalkuluen arabera, HEHren urteko fluxu garbia 3.600 milioi euro ziren, gutxi gorabehera¹⁵.

Datu batzuk:

a. Kupoa

Nafarroak, Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak Espainiako estatuarekin dituzten harreman fiskal eta finantzarioak Kontzertu eta Hitzarmen Ekonomikoan determinatzen dira, hurrenez hurren. Iparraldea, berriz, frantziar zuzenbide fiskalaren mende dago erabat.

15. Gizarte Segurantzaren eta INEMen Araba, Bizkai eta Gipuzkoako fluxuak soilik aztertuta, txosten ekonomiko batek adierazi zuen 1998. eta 2003. urteen bitartean 3.482,7 milioi euro garbi transferitu zirela Madriler. (Jurado, N. (2004): "El sometimiento de Hego Euskal Herria a Madrid", Red Vasca Rojak sarean argitaratua).

Epe laburrera, **kupoa mehatxu handienetako bat da** euskal administrazio publikoen finantza-iraupenerako, duen ezaugarri batengatik, hots, **aldebateko arriskua izateagatik Hego Euskal Herriarentzat**.

Espainiako estatuak ez du partaidetzarik foru-aldundiek eta Nafarroak eskuratzen duten diru-bilketan, eta, ildo beretik, ez du bere gain hartzen gai transferituen gastu publikoen ordainketa. HEHk, berriz, kupoa bidez, transferitu gabe dauden karga orokor estatale eusten laguntzen du¹⁶, % 7,84 ordainduz (% 6,24 Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa, elkarrekin, eta % 1,6 Nafarroa).

Horrenbestez, kupoa aldagai exogenoen mende dago, hau da, transferitu gabe dauden eta —hortaz— **bereganatuta ez dauden eskumenetan (CNA)** estatuak egiten dituen gastuen mende dago, HEHn egindako diru-bilketa eta bere gastu propioak inola ere kontuan hartu gabe. Ezaugarri horren ondorioz, ziklo ekonomikotik ondorioztatzen diren emaitzak Hego Euskal Herriari soilik dagozkio (diru-bilketa handiagoa edo txikiagoa izanik, eta gastu publikoa handiagoa edo txikiagoa izanik).

Kupo gordina, kalkulatzeko zailtasunagatik, bost urteko garai bakoitzaren hasierako urtean determinatzen da —urte hori oinarritzat hartzen da—, eta ondorengo urteetan behin-behineko kupo likido bat determinatzen da. Gero, doikuntzak likidatzen direnean, kupo likido hori aldatu egiten da.

Geroago egiten diren doikuntzak, estatuaren defizit edo superabit publikoa eta estatuak berak biltzen dituen sarrerak kontuan hartuta (aduanak, loteriak, jasotako diru-laguntzak...), dira kupo izenez ezagutzen dena sortzen dutenak; aurrekontuaren dokumentuek kupo likido bezala jasotzen dute, kupo gordinaren kuantifikazioa inola ere aipatu gabe. 2010ean, aurrekontuen arabera, HEHk 1.783,68 milioi € transferituko dizkio Madrili, behin-behineko kupo likido bezala (1.241,98 EAEn eta 541,7 Nafarroan).

Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Mistoak Araba, Bizkai eta Gipuzkoako kupoa zehazteko Metodologia onartu zuen 2007ko uztailaren 30ean, Madrilén, 2007-2011 bosturtekorako, 2007. urtea bosturtekoaren oinarriko urtetzat hartuta. Determinatutako kupo gordina 5.350,96 milioi euro¹⁷ izan ziren, eta urte horretan

16. Estatuaren Aurrekontu Orokorretan, esan daiteke transferitu gabeko eskumena gastuaren % 60 baino gehiago direla. Eta, hain zuzen ere, CNAei dagozkien gastuak (beregantut gabeko eskumenei dagozkien gastuak) dira gastuen batez bestekoa baino askoz ere gehiago hazten ari direnak. Zor publikoaren kostua, bankaren erreskatea, NATOrentzako ekarpenen igoera —finantza aldetik eta baliabide pertsonalen aldetik—, azpiegiturak, langabeziaren ordainketak, erretiro aurreratuen kostua eta gisa berekoak CNA dira, eta horienagatik ordaindu beharko dugu % 7,84 behin betiko kupoa birkalkulatzen denean (konturako ordainketak edo aurrekontu-urte bakoitzeko kupo likido behin-behineko kupo baten estimazioaren gainean egiten dira). Eta ordaintzeko konpromiso handiago hori bat dator hitzartutako diru-bilketa fiskalaren jaitsiera drastikoarekin, honezkero % 25 jaitsi baita. Beraz, **kupoa mekanismotik beretik ondorioztatzen den finantza-arazoa agerian uzten ari da administrazio autonomikoei benetan datorkien porrota. Horren lehenengo ondorioak euskal udalak pairatzen ari dira jadanik**, zeren haiek baitira azkenak diru-bilketaren banaketan. Krisi-egoeran etengabe hazten den hipoteka baten antzekoa da. Familiak ikusten du bere sarrerak murriztu egin direla, baina hipoteka ordaindu behar du lehentasunez, bere oinarritzko beharrak ezin ase baditzake ere.

17. Estatuak transferitu gabeko eskumenetan gastatzen duenaren % 6,24ri dagokio. Data horretan, 85.752,62 milioi €-an baloratu zen zenbateko hori. Nafarroak transferitu gabeko eskumenei % 1,6 ordaintzen du Hitzarmen Ekonomikoaren bidez.

sartu beharreko kupo likidua 1.563,23 milioi euro izango ziren. Nafarroakoak, berriz, 1.372,04 eta 596 milioi € izango ziren, hurrenez hurren.

Estatuaren Aurrekontu Orokorrei begira, esan daiteke transferitu gabeko eskumenak gastuaren % 50 baino gehiago direla. Eta, hain zuzen ere, CNAen gastuak dira gastuen batez bestekoa baino askoz ere gehiago hazten ari direnak. Oraingo krisi-egoeran, estatua CNAen gastua handitzen ari da bereziki. Bankaren erreskatearen kostua, zor publikoa, NATOrentzako ekarpenen igoera —finantza aldetik eta baliabide pertsonalen aldetik—, azpiegiturak, enpleguari udal-obretan laguntzeko plana, INEMen ordainketak, erretiro aurreratuen kostua, eta abar, horiek guztiak CNA dira. Horregatik, zenbateko horretatik % 7,84 ordaindu beharko dugu behin betiko kupoa birkalkulatzen denean (konturako ordainketak behin-behineko kupoaren estimazioaren arabera egiten dira). Eta ordaintzeko konpromiso handiago hori bat dator hitzartutako diru-bilketa fiskalaren jaitsiera drastikoarekin, honezkero % 25 jaitsi baita. Beraz, kupoaren mekanismotik beretik ondorioztatzen den finantza-arazoak agerian utziko du administrazio autonomikoen porrota. Horren lehenengo ondorioak euskal udalak¹⁸ pairatzen ari dira jadanik, zeren haiek baitira azkenak diru-bilketaren banaketan. Krisi-egoeran etengabe hazten den hipoteka baten antzekoa da. Familiak ikusten du bere sarrerak murriztu egin direla, baina hipoteka ordaindu behar du lehentasunez, bere oinarrizko beharrak ezin ase baditzake ere.

		2004	2005	2006	2007	2008	2009
Espainiako estatuen inbertsioak	A-B-G	328,81	374,73	411,36	477,69	520,17	565,47
	Nafarroa	143,37	79,15	116,58	140,51	152,8	209,09
	HEH	472,18	453,88	527,94	618,2	672,97	774,56
Kupo likidua	A-B-G		1.339,60	1452,75	1.572,77	1.565,23	1.556,41
	Nafarroa		464,20	487,70	580,99	596,00	532,00
	HEH	1.555,00	1.803,80	1.940,45	2.153,76	2.161,23	2.088,41

Iturria: Lurralde Administrazioaren eta Administrazio Publikoaren Ministerioa. EAE eta Nafarroako Aurrekontu Orokorrak.

3. koadroa. Kupo likidoaren ekarpena eta Espainiako estatuak HEHn inbertitzen duena. Milioi €-tan neurtuta.

2004-2009 aldian, 11.700 milioi € baino gehiago transferitu zaizkio Madrili kupo likidoaren bidez; Espainiako estatuak HEHn egindako inbertsioak, berriz, 3.520 milioi € izan ziren sasoi berean.

Kupoak alor praktikoan islatzen du Espainiako estatuarekin ditugun finantza-harremanen mendetasun-egoera, baina ez da mendetasun-lotura bakarra; izan ere, Gizarte Segurantzaren kutxa bakarra beste elementu garrantzitsu bat da Madrilerako

18. Hau da, foru-aldundiek zergak biltzen dituzte, eta aurrena kupoa ordaintzen da. EAEn, gainerako % 70 Eusko Jaurlaritzara pasatzen da, eta aldundiek beren gastua eta udalena ordaindu behar dute gainerako % 30arekin. Nafarroan, kupoa ordaindu ondoren, Nafarroako Gobernuak bere aurrekontuen gastuak ordaintzen ditu eta gainerakoa udalei banatzen die.

zuzendutako diru-transferentzia garbien alorrean. Azken batean, Hitzarmen, Kontzertu, Foru Hobekuntza eta Estatutuak dakarten mendetasun egoera islatuta geratzen da HEHren eta Madrilen arteko fluxu ekonomikoen azterketan.

b. Espainiako estatuaren inbertsioak

Zuzeneko inbertsioak

Estatuakinbertitzendutransferitugabekoeskumeneneremuan.Azpiparratzekoa da nola, 2009. urtean, **Madrilgo Gobernuak HEHn egindako zuzeneko inbertsioa** Espainiako estatuan gastu-eremu berberetan **guztira inbertitutakoaren % 2,98** zela; bada, ehuneko hori ez dator bat, inola ere ez, euskal BPGaren pisuarekin, ezta haren biztanleriaren pisuarekin edo beste edozein adierazle orokorrekin ere, HEHk egindako ekarpena % 7,84 izen zela kontuan hartuta.

Aipatzekoa da gastu hori, neurri handi batean, gizarteak kuestionatzen dituen azpiegiturretara zuzentzen dela. ADIFek (AHTren obrak), estatuaren portuek (Bilbo eta Pasaia), AENAK eta SETTSAk inbertsio guztien % 65 kontzentratu zuten 2009an.

	2008			2009		
	A-B-G	Nafarroa	HEH	A-B-G	Nafarroa	HEH
S P Administratiboa	95,6	28,52	124,12	77,14	33,72	110,86
Enpresa eta Fundazioen S P	424,57	124,28	548,85	488,33	175,37	663,70
GUZTIRA	520,17	152,8	672,97	565,47	209,09	774,56

Iturria: Lurralde Administrazioaren eta Administrazio Publikoaren Ministerioa. 2011ko otsaila.

4. koadroa. Espainiako estatuak HEHn egindako inbertsioak, 2008-2009. Milioi €-tan.

Europar funtsak

Espainiako estatuak EBri egiten dio ekarpen osotik, HEHk % 7,84 jartzen du, baina 2007-2013 sasoirako EBk eskualdeentzat banatuko dituen laguntzen artean, HEHri 763,11 milioi € soilik asignatu zaizkio, hau da, eskualdeetara joango diren laguntza osoen artean, Espainiako estatuari sasoi horretarako asignatutako funtsen osoko zenbatekoaren % 1,91 baino ez.

	A-B-G	Nafarroa	HEH
EGEF (FEDER), guztira	271,34	57,65	328,99
EGIF (FSE), guztira	152,4	34,1	186,5
LGENF (FEADER)	78,14	112,3	190,44
EAF (FEP)	56,38	0,8	57,18
GUZTIRA	558,26	204,85	763,11

Iturria: Lurralde Administrazioaren eta Administrazio Publikoaren Ministerioa. 2011ko otsaila.

5. koadroa. EBko inbertsioen laburpena, 2007-2013. Milioi €-tan.

c. Gizarte Segurantza

Gizarte Segurantzaren fluxuak konplexuak dira. Hemen, zenbatekorik handie-neko mugimendua jasotzen dugu (fluxuaren % 95 baino gehiago jasotzen du), hau da, Gizarte Segurantzaren kotizazio propioak, honako hauek barne sartuta: GSren laneko istripuen lanbide-gaixotasunen primak, langabeziagatik, lanbide-heziketagatik eta Soldata Bermatzeko Funtsagatik (FOGASA) kotizatzen dena, pentsioen eta langabeziaren prestazioak, FOGASAtik jasotakoak eta birmoldaketa-prozesuetatik ondorioztatzen direnak (erretiro aurreratuak).

		2000	2002	2004	2006	2008	2009	2010*
GSren diru-bilketa	A-B-G	4.106,31	4.608,75	5.166,65	5.744,72	6.447,71	6.495,11	6.514,40
Langabezia, LH eta FOGASA diru-bilketa	A-B-G	800,73	898,71	1.007,51	1.120,22	1.257,31	1.266,55	1.270,65
	Nafarroa**	1.263,73	1.348,10	1.693,06	1.942,86	2.223,92	1.996,25	
DIRU-BILKETA, GUZTIRA	HEH	6.170,77	6.855,56	7.867,22	8.807,80	9.928,94	9.757,91	7.785,05
GSren prestazioak	A-B-G	3.499,44	3.951,09	4592,22	5327,93	6132,83	6.398,82	6.792,94
Enpresak birmoldatzeko prozesuak	A-B-G	8,06	5,79	6,67	10,51	11,14	10,33	6,51
Langabezia-prestazioak	A-B-G	419,07	465,68	542,51	598,63	692,46	1.188,79	1.224,69
FOGASA	A-B-G	15,37	11,93	25,97	20,08	39,92	89,25	108,02
	Nafarroa**	913,33	1.060,09	1.232,58	1.482,27	1.788,92	2.052,64	6,51
PRESTAZIOAK, GUZTIRA	HEH	4.855,27	5.494,58	6.399,95	7.439,42	8.665,27	9.739,83	8.138,67
FLUXU GARBIA	HEH	1.315,50	1.360,98	1.467,27	1.368,38	1.263,67	18,08	-353,62

Iturria: Gobernuaren EAEko Ordezkaritza. Eta Lan eta Immigrazio Ministerioaren Lan eta Gizarte Gaietako Estatistiken Urtekaria (urte batzuk).

* Behin-behineko datuak. A-B-G soilik hartzen ditu barne; beraz, fluxu garbia hiru lurralde horiena da bakarrik.

**Nafarroako diru-bilketa eta prestazioen barnean hauxe sartzen da: GSren kuotak eta prestazioak, Langabezia, Lanbide Heziketa eta FOGASA.

6. koadroa. Gizarte Segurantzaren fluxu nagusiak. Milioi €-tan.

Gizarte Segurantzaren fluxu garbiak (guztira bildutakoa ken prestazioen osoko zenbatekoa) Madrilen aldeko saldo positiboa izan du historikoki¹⁹; hala, **2000-2009 sasoian, 12.438,27 milioi € garbi transferitu dira Gizarte Segurantzaren Kutxa Bakarrera**. Aipatu behar da, dena dela, 2010. urtea fluxu negatibokoa izan dela (behin-behineko datuak) krisiaren ondorioz, kuoten bidez diru gutxiago bildu delako

19. Laurogeiko hamarkadan, Gizarte Segurantzaren lurralde-saldo horren finantza-ondorioa izan zen Araba, Bizkai eta Gipuzkoatik ia 2.700 milioi euro irten zirela (garai hartako 447.000 milioi pezeta). 1992. eta 1997. urteen bitartean, aldiz, 1993ko krisiaren eraginez —HEHn are larriagoa izan zen, industriaren birmoldaketaren bigarren faseagatik—, Gizarte Segurantzaren finantza-saldoa negatiboa izan zen Araba, Bizkai eta Gipuzkoan, eta 1998tik aurrera positiboa izan zen berriz ere (1998 eta 1999an, Gizarte Segurantzaren bidetik 455 eta 509 milioi € garbi transferitu ziren Madrilera).

eta langabezia-tasak etengabe igo direlako. Nafarroaren kasuan, GSrekiko fluxu negatiboa (–56,4 milioi €) 2009. urtean gertatu da aurreneko aldiz, bere historia osoan, eta 2010ean negatiboa izan da berriro HEH osoan.

GSrekiko fluxuak negatiboak izateak ez du esan nahi, inplizituki, Espainiako estatua Euskal Herria finantzatzan ari denik kontzeptu honetan. Fluxu negatiboa espainiar Gizarte Segurantzaren kontabilitate-funtzionamenduaren berezko esanahiari lotuta dago; izan ere, balantze negatiboa izan du (prestazioetan ordaindutakoa kotizazioengatik bildutako zenbatekoa baino handiagoa izan da) espainiar lurralde osoan eta Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtzarekin konpentsatu behar izan da. Lan-merkatuaren oraingo egoerak bere horretan iraunez gero, Gizarte Segurantzaren funtzionamenduak norabide horretatik jarraituko du sakonago.

Prestazioen eta kotizazioen arteko diferentzia negatiboa azaltzen duten gertaera edo faktore nagusiak hauexek dira:

- Pentsiodunen kopurua nabarmenki igo da, krisiaren eraginez: erretiro aurreratuen bidetik, Gizarte Segurantzaren funtsetik jasotzen dute beren pentsioa. Era horretan, kostua transferitzen da langileek GSren kutxan metatutako aurrezpen-funtsera, enpresariak edo industriak ordaindu beharrean, «enpresariaren irabazi-tasak mantentzera zuzendutako lan-doikuntzen» kostu bezala.
- Pentsio berrien batez besteko kostuak gora egin du, suntsitzen ari dena kalitatezko enplegua delako: enplegu horrek kotizazio-aldi luzeak egin ditu, eta beraren oinarrian egon diren kotizazioak oraingo zabor-kontratuenak baino handiagoak dira.

Prestazioak bi gertaera horiengatik izan duten igoeraren aurrean, kotizazioa hondoratzen ari da beste bi bidetatik:

- Gizarte Segurantzaren kotizatzaileen kopurua jaitsi egin da, enpleguaren suntsipen masiboaren ondorioz.
- Hilean ordaintzen diren kuotak jaitsi egin dira, zeren soldatek behera egin baitute errealtatean, bai langile finkoei ezarritako jaitsiera errealengatik (adibidez: funtzionarioen kolektibo osoa) bai kontratu berriei soldata txikiagoak eskaintzen zaizkielako.

Joera horren aurrean, Gizarte Segurantzaren aurrezkiak (*hucha* deritzana) murrizten hasi dira. HEHko saldo negatiboaren sustraian aipatutako diferentzia aurrezki horietatik hartu izana dago. Interesgarria da konturatzeari Espainiako estatuak aurrezkien zati handiago bat hartu behar izan duela bere saldoa konpentsatzeko, berea ere negatiboa baita; eta Espainiako estatuak hartzen duen proportzioa HEHk hartzen duena baino handiagoa den neurrian, hor dirau HEHk Madrili egiten dion ekarpen garbiak, zeren HEHko diruaz bete zen *hucharen* zati bat uzten baitio²⁰.

20. Saiatuko gara paragrafo hau argitzen, kontzeptuaren zailtasunagatik. Demagun HEHk % 10eko ekarpena egin diola Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtzari (*hucha* edo aurrezkiak). Une jakin batean, fluxu negatiboak daudelako (prestazioen kobrantzak kotizazioen ordainketak baino handiagoak dira), HEHk *hucha* horretan dagoenaren % 6 hartzen badu, eta estatuak % 94, ikus daiteke fluxu negatiboaren egoeran ere HEHk Madril finantzatu duela, zeren ahalbidetu baitio berak sortutako baino baliabide gehiago erabiltzea.

2. EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAK EKONOMIAN ETA GIZARTEAN DUEN PISUA

2.1. HEHko sektore publikoaren konfigurazioa

Sektore publikoak lurralde-eremu honetan aritzen diren agente publikoak biltzen ditu. Administrazioaren eta eskumenen banaketagatik, hauexek jarduten dute:

Sektore publiko estatala (Administrazio Orokorra eta erakunde autonomoak). Sektore honek garatzen ditu HEHri transferitu ez zaizkion eskumenak; gizarte-kohesioan duten eraginagatik, bereziki azpimarratu behar dira Gizarte Segurantzaren eta INEMen eskumenak, baina transferitu gabe dauden eskumenen zerrenda ere oso handia da, eta, izatez, Estatuaren Aurrekontu Orokorren gastuen erdia baino gehiago transferitu gabeko eskumenetan egiten da.

Halaber, sektore hau Europar Batasuneko lurralde-politiken garapenaren arduradun nagusia da.

Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua (Administrazio Orokorra eta erakunde autonomoak): gastuaren politikaren bidez, Madrildik transferitutako eskumen gehienak kudeatzen dituzte. Haien kudeaketa eskumenen legediaren testuinguruaren baitan sartzen da, eta horko esparru-lege guztiak Madrildik datoz (Madrilen legegintza-ahalmen goren horretatik ulertu behar dira ustez eskumen autonomikoetan sartzen diren alorren inguruko gatazka etengabeak).

Foru-aldundiak, Araba, Bizkai eta Gipuzkoakoak. Lurralde Historikoen Legea eskumenei buruzko esparru-lege bat da, foru-aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren artekoa. Lege horrek eta beraren ondorengo garapenek gero eta eduki erreal gehiago kendu diete foru-aldundiei, eta, hala, azkenean eskumen txikiak —hala deitzen zaie— soilik geratu dira haien eskuetan, gehienbat izaera sozialekoak. Lege horren azpian dagoen arazoa da Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien arteko benetako eskumen-banaketa (finantzaketaren bide efektibotik)²¹. Eskubide historikoengatik, ogasun propioaren kudeaketa foru-aldundiei soilik dagokie; errealitatean, baina, ahalmen hori Eusko Jaurlaritzaren tutoretzapean dago, edo, are gehiago, berak zuzentzen du praxian.

Udalak. Instituzio hauek, aurreko puntuan aipatutako finantza-mugak izateaz gain (zeren diru-sarreraren iturri nagusia foru-aldundien transferentziak baitira), estatuaren bidez ere daude mugatuta, Toki Ogasunen Legearen bitartez. Hori esparru-lege bat da, estatuak arautzen duena eta beraren eskumenekoa dena. Udalek duten muga ez da ogasunaren alorrekoa soilik, baizik eta arauen alorrekoa ere bai. Udalak, bestalde, elkartu egin daitezke, izaera ekonomiko edo sozialeko helburu batzuetarako, eskualdez gaindiko erakundeak eratuz (mankomunitateak, eta abar)²².

21. Gaur egun ezaguna denez, Garaikoetxearen agintaldian EAJren barnean egon ziren desadostasun handienetako bat banaketa hori izan zen, eta Ardanzak sinatu zuen lehenengo legea 1985eko Lurralde Historikoen Legea izan zen.

22. Instituzio-sare horri **Kontzejuak** gehitu behar zaizkio Araban. Ogasun propioa duten instituzio historikoak dira, gaur egun udalerrietan integratzen ari direnak gero eta neurri handiagoan, beren izaera galduz, eta horiekin desager daiteke, behin betiko, lurraldea, gizartea eta ekonomia antolatzeko forma bat (komunalak, auzolana, batzarren bidezko gobernua...). Erdi Aroaz geroztik bizirik iraun duten instituzio hauek XIX. mendean ezabatu ziren gainerako lurraldeetan.

Kolektibo instituzional horietako bakoitzak bere historia eta bere ibilbide propioak ditu, eta horien artean harremanak eratu dira, batzuetan —gutxitan— borondatez hitzartuak, eta beste batzuetan —gehienetan— mendetasun eta basailutza historiko bezala.

Hori da erreferentziazko lege-esparrua, Espainiako Konstituzioaren esparruaren barruan. Berak arautzen du, alde batetik, eskumenen maila gorena, bai gastuena eta bai diru-sarrerena, eta inplikaturako Administrazioen arteko arauzko egituraketaren maila ere; eta, bestetik, «Euskal Sektore Publikoa»ren beraren konfigurazioa, zeinaren mugak behin eta berriz azalerratu diren azken urteotan.

Kontsiderazio horiek egin ondoren, saiatuko gara aztertzen zer presentzia duten Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako Administrazio Autonomikoek HEHko ekonomian eta gizartean.

2.2. Euskal Sektore Publikoaren zifra handiak: diru-bilketaren jaitsiera

2009an, Euskal Sektore Publikoak (ESP) okupatzen zituen langileak HEHko pertsona okupatuaren % 12 ziren, eta, aurrekontuaren arabera, BPGaren % 17 kudeatuko du 2012an. 2007az geroztik, haren aurrekontuak % 7,4 jaitsi dira BPGaren aldean, eta horrek erakusten du, modu ezin gordinagoan, krisiaren izenean gastu publikoan egin den murritzeta handia.

Krisiaren testuinguruan gehien nabarmentzen dena da zergen bidez biltzen den zenbatekoaren jaitsiera ikaragarria, jarduera ekonomikoaren jaitsiera baino askoz ere handiagoa baita. Hala, 2008-2012 sasoian, HEHko diru-bilketa fiskala % 14,46 jaitsi da, prezio korranteetan (inflazioaren erosioa kontuan hartuta —prezio konstanteak— benetako jaitsiera % 21,51 izan da); BPGa, berriz, % 1,45 jaitsi zen prezio korranteetan (% 8,5 prezio konstanteetan).

Zerga-bilketaren jaitsiera hori xehetasun handiagoz aztertuz gero, oso konklusio larria ateratzen dugu: krisia erabili da zerga-iruzurra handitzeko.

Iruzurraren hazkundeak zuzeneko korrelazioa du Hego Euskal Herriko presio fiskalaren hondoratzearekin (presio hori zerga-bilketaren eta BPGaren arteko zatiketaren emaitza —zatidura— bezala ulertuta), zeren eta, aurrekontuko datuen arabera, presio fiskala BPGaren % 17,88an baitago, eta kontuan hartu behar da 2007an % 20,6an zegoela.

Krisialdian, BPGa % 1,45 jaitsi da HEHn, eta zerga-bilketa, presio fiskal berdina mantenduz gero, proportzio berean jaitsi beharko zen, baina gertatu dena da zerga-bilketa % 14,46 jaitsi **del**a. Horrek adierazten duena da 2007an guztira sortutako aberastasunaren % 20,6 biltzen zela, eta 2012an aberastasun horrek % 17,8 soilik ordainduko duela, batez beste, BEZak eta hidrokarburo, tabako, elektrizitate eta beste elementu batzuen gaineko zergek izandako igoera gorabehera.

Gero eta handiagoa da zergetatik ihes egiten duen BPG zatia, paradisu fiskalen bidez edo zerga-iruzurra handitzearen bidez. Alde horretatik, Ogasun Publikoko

katedradun Ignacio Zubirik argitaratutako txosten baten arabera, EAEko zerga-iruzurra 10.000 milioi eurotik gorakoa izango zen 2010ean.

Erantzukizun Sozial Korporatiboaren Behatokiaren 2010eko txostenaren arabera, IBEX-35eko enpresen % 69k baditu negozioak paradisu fiskaletan; horien artean, Iberdrola, Iberdrola Renovables eta BBVA euskal enpresak nabarmentzen dira, hain zuzen ere (adibidez, banku horrek 12.628 milioi €-ko gordailuak zituen Kaiman uharteetan).


ZIFRAK MILIOI €-TAN	NAFARROA	NAFARROA	Aldaketa %	EAE	EAE	Aldaketa %	HEH	HEH	Aldaketa %
	2008	2012	2008-12	2008	2012	2008-12	2008	2012	2008-12
ZUZENENKO ZERGAK	1.791,24	1.434,62	-19,91	6.794,79	5.746,03	-15,43	8.586,03	7.180,65	-16,37
PFEZ	1.112,00	1.118,31	0,57	4.402,08	4.448,09	1,05	5.514,08	5.566,40	0,95
SOZietateen gainerako zerga	567,07	236,79	-58,24	2.024,73	1.139,72	-43,71	2.591,80	1.376,51	-46,89
Ez-egoiliarren errentaren gainerako zerga	9,31	9,08	-2,47	119,7	76,75	-35,88	129,01	85,83	-33,47
Ondorengotza eta dohaintzen gainerako zerga	37,01	40,43	9,23	80,75	81,27	0,64	117,77	121,7	3,34
Ondarearen gainerako zerga	65,85	30	-54,44	167,52	0,2	-99,88	233,37	30,2	-87,06
ZEHARKAKO ZERGAK	1.540,76	1.763,84	14,48	6.167,40	5.160,51	-16,33	7.708,15	6.924,35	-10,17
BEZ, kudeaketa propioa	931,22	1.076,67	15,62	3.861,23	3.387,48	-12,27	4.792,45	4.464,15	-6,85
Hidrokarburoak	235,02	271,91	15,7	1.084,00	1.039,80	-4,08	1.319,02	1.311,71	-0,55
Ondare-eskualdatzeak	84,45	42,95	-49,14	409,74	109,7	-73,23	494,19	152,65	-69,11
Egintza juridiko dokumentatuak	57,92	19,98	-65,51	139,71	59,37	-57,51	197,64	79,35	-59,85
Aseguruen primak	21,9	20,37	-6,99	81,68	79,72	-2,39	103,58	100,09	-3,37
Garraioak	22,64	6,96	-69,25	80,78	24,58	-69,57	103,42	31,54	-69,5
Tabako laboreak	148,72	135,58	-8,84	355,37	341	-4,04	504,09	476,58	-5,46
Elektrizitatea	20,73	23,81	14,89	76,6	94,9	23,89	97,33	118,71	21,97
Beste zeharkako zerga batzuk	18,16	61,8	240,23	68,29	23,95	-64,93	86,46	85,75	-0,82
TASAK ETA BESTE SARRERA BATZUK	14,75	104		122,22	114,39		136,97	218,39	
BEZ doikuntza	302,29	103,81		1.279,15	1.206,50		1.581,44	1.310,31	
Zerga berezien doikuntza				(-81,19)	(-110,72)				
ZERGA HITZARTUAK, GUZTIRA	3.649,04	3.221,90	-11,71	14.282,36	12.116,71	-15,16	17.931,40	15.338,61	-14,46
BPG	19.106,97	18.850,56	-1,34	67.924,49	66.918,96	-1,48	87.031,46	85.769,52	-1,45
Presio fiskala	19,09	17,09		21,02	18,1		20,60	17,88	

Iturria: neuk prestatuta, Nafarroako eta EAEko 2008. eta 2012. urteetako Aurrekontu Orokorretan oinarrituta.

7. koadroa. Zerga-bilketaren eta presio fiskalaren bilakaera, 2008-2012 (milioi €-tan).

2.3. Zorpetze masiboaz baliatzea: «hipoteka soziala»

2011. urtearen amaieran, Nafarroako 1.839,1 milioi €-ko zor publikoa metatuko du (BPGaren % 9,8). Zor publiko bizia hirukoiztu egin da krisian zehar, zeren 2007ko amaieran 628,4 milioi €-koa baitzen (BPGaren % 8,1). Zor pribatua 23.920 milioi €-koa zen 2010eko amaieran (ez dugu daturik 2011rako). Nafarroako zor publiko eta pribatua —biak batuta— BPGaren % 137 baino handiagoa da.



Iturria: Ekonomia eta Ogasun Saila.

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Administrazio Orokorrean ere (ez da sartzen ez foru-administrazioa ez tokiko administrazioa²³), zor publikoa izugarri igo da azken lau urteotan; hala, aurrekontuen arabera, **2011. urtearen amaieran zor bizia 5.394,62 milioi €-koa zen, eta zorpetze garbia 1.207,8 milioi €-tik igoko da 2012rako. Beraz, zorraren osoko zenbatekoa 6.432,93 milioi € dira.** Aurrekontuaren estimazioen arabera, 2012ko finantza-karga 401,32 milioi € izango dira; zenbateko horretatik, 169,48 milioi € printzipala itzultzeraz bideratuko dira, eta 231,84 milioi inguru interesak ordaintzera.

	2007ko abendua	2011ko abendua
Nafarroa	628,4	1.839,10
EAE	642,0	5.394,62
Hego Euskal Herria	1.270,4	7.233,72

Iturria: EAEko eta Nafarroako Aurrekontu Orokorrak. EUSTAT.

8. koadroa. Gobernu autonomikoen zor publikoa (milioi €-tan).

2.4. Babes sozialaren alorreko gastua²⁴

Bere etapa demokratikoaren hasieran, Hego Euskal Herriak Europako gastu publiko sozial txikiena zuen, berrogei urtez iraun zuen diktaduraren ondorioz, zeren

23. Eskura dagoen azken datua (2011ko urria) Euskal Ogasunen 2009ko Urteko Txostenean ageri da. Haren arabera, **Araba, Bizkai eta Gipuzkoako foru-zorra 724,967 milioi € ziren 2008ko amaieran, eta haien udalerriena 644,472 milioi €, 2007ko amaieran.** Dena dela, baliteke datu horiek hiru aldiz handiagoak izatea honezkero.

24. Babes soziala honela definitzen du Babes Sozialari buruzko Estatistika Integratuen Europar Sistemak: arrisku eta behar batzuk egoteagatik gizabanakoentzat sortzen diren kargen estaldurak eragindako gastuen multzoa. Gastu horrek hirugarren baten esku-hartzea eskatzen du, dela agente publiko bat dela agente pribatu bat edo irabazi-asmorik gabeko agente pribatu bat (betiere izaera kolektiboarekin egindako gastuak badira; horregatik, ez dira kontabilizatzeko norberaren kabuz kontsumitutako produktuei dagozkien gastu pribatuak), horren truke aldi bereko kontrapartida baliokiderik egon gabe onuradunaren aldetik.

garai horren ezaugarri nagusiak errepresio itzela eta gizartearekiko sentikortasunik eza izan baitziren. Diktadorea hil zen urtean, 1975ean, Espainiaren gastu publiko soziala (EHK ez zuen oinarrizko eskumenik) BPGaren % 14 zen, Mendebaldeko Europakoa baino askoz ere txikiagoa, honek BPGaren % 22 bideratzen baitzuen alor horretara. Laurogeiko hamarkadan eta laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran, gastu publiko soziala nabarmenki igo zen, zerbitzu publikoen deszentralizazioaren eta garapenaren eraginez —kasu askotan, horien maila oso txikia zen iraganean—. Garapen hori 1993an iritsi zen puntu gorenera, babes sozialera zuzendutako gastua (hor sartzen dira pentsioak eta beste transferentzia batzuk, baita beste zerbitzu publiko batzuk ere, hala nola osasuna eta familiei laguntzeko zerbitzuak —haur-eskolak, etxeko laguntza adineko pertsonen eta ezgaitasunak dituzten pertsonen, adinekoen egoitzak eta beste zerbitzu batzuk—, etxebizitza babestua eta bazterketa sozialaren prebentziorako zerbitzuak) BPGaren % 24 izatera iritsi baitzen. Hori da EBko batez bestekotik (BPGaren % 28,8) hurbilen egon den ehunekoa.

Maastrichteko Itunetik aurrera, HEHko babes sozialaren gastua askoz ere arinago jaitsi da EBko batez bestekoa baino; hala, 1993-2007 garaian, HEHko gastu soziala BPGaren % 24tik % 18,8ra pasatu da A-B-Gn eta % 16,7ra Nafarroan; EBn, berriz, gastua BPGaren % 28,8tik % 26,2ra pasatu zen garai berean.

	EB-27ren batez bestekoa	Araba-B-G	Nafarroa	Iparraldea	Espainia
BABES SOZIALAREN ALORREKO GASTUA BPGaren %	26,2	18,8	16,7	33,62	21,0

Iturria: INE, EUSTAT, Nafarroako Gobernua. Iparralderako: INSEE, Gaindegiak eskainia.

9. koadroa. Babes sozialaren alorreko gastua Euskal Herrian (2007. urtea).

Hegoaldeko eta Iparraldeko gastu sozialen arteko aldea oso handia da; izan ere, Hegoaldean ez da % 18ra iristen, eta Iparraldekoa % 33tik gorakoa da, eta hori da, hain zuzen ere, haren mehatxu nagusietako bat, lan honen amaieran jorratuko dugun bezala.

3. ORAINGO ESKUMEN-ESPARRUAREN ETA EREDU INSTITUZIONALAREN AHULEZIAK ETA INDARRAK

3.1. Oraingo esparru juridikoaren mugak alor ekonomikoan

Oraingo esparru juridiko-politikoak mugatu egiten du Euskal Herriaren ahalmen ekonomikoa. Espainiako Konstituzioak eraikitako eredu autonomikoan ez dago aukerarik eredu estatalarekin bat ez datorren politika ekonomiko eta sozial propiorik garatzeko, eta are gutxiago Frantziako estatu unitario puruarekin. Garbi dago zein den ezarritako eredua: autonomia-erkidegoen estatu unitarioa, nolabaiteko deszentralizazio politikoarekin Hegoaldearentzat (soberania estataletik ondozioztatzen den arautze-ahalmenaren zati bat), eta estatu unitario purua Iparraldearentzat, deszentralizazio administratiboko zantzu batzuekin.

Krisi- eta aldaketa-garaian ekonomiak pairatzen duen desegituraketa gero eta handiagoa estatuen zentralismoaren ondorioa da; Euskal Herriko egitura ekonomikoa gero eta ahulagoa, mendekoagoa eta sakabanatuagoa da, eta desberdintasun sozialak areagotu egin dira.

Espainiako eta Frantziako estatuak dira aurrekontu-politikaren jabe bakarrak. Halaber, bi Estatuak erabakitzen dute, neurri batean, atzerriko inbertsioen eta europar funtsen banaketaz. Horrelako zerbait gertatzen da kanpo-merkataritzaren sektore garrantzitsuan, eta horrek badu eragina euskal ekonomian, zeren oso jarduera mardula garatzen baitu sektore horretan. Hego Euskal Herrian, gainera, ez da inolako aurrerapenik egin Gizarte Segurantzaren, enpleguari buruzko politikan eta/edo Finantzen Institutuan. Bi Estatuak kontrolatzen dituzte Euskal Herriaren etorkizunarentzat funtsezkoak diren azpiegiturak: ontziolak, portuak, aireportuak, trenbideak, posta...

1978ko Espainiako Konstituzioak garbi uzten du nori dagokion garrantzi ekonomikoa duten erabakiak hartzea. Konstituzioa onartu eta gero izandako gertaerek eta Konstituzio Auzitegiaren epaiek —argi eta garbi Estatuaren aldekoak— erakusten dutenez, administrazio autonomikoei harreman hierarkizatuak eta mendetasunezkoak ezartzen dizkien estatu-eredu bat dugu aurrean.

Espainiako Konstituzioaren 2. artikulua espainiar nazioaren batasun zatiezina aldarrikatzen du. Eskumen nagusiak, jabetza barne sartuta, interes orokorraren mende daude. Ipar Euskal Herriari dagokionez, Frantziako Konstituzioaren 1. artikulua dio Frantziako Errepublika zatiezina dela, eta 3. artikulua dio soberania nazionala herriari dagokiola (frantziar herriari). Horrenbestez, aurrekontuaren eta ekonomiaren alorreko eskumenak Frantziako estatuaren eskuetan daude, inolako murrizketarik gabe.

Edozein herriren soberania ekonomikoa jarraian azalduko ditugun funtseko zutabeetan oinarritzen da; soberania hori bermatzeko modu bakarra zutabe horien guztien gaineko kontrol osoa izatea da.

a. Lurraldea antolatzeko ahalmen osoa

Lurraldearen eta haren azpiegituren gainean eraikitzen den azpiegitura ekonomikoa funtsezkoa da herritarren bizi-maila determinatzeko. Beraz, azpiegitura ekonomiko horren lehenengo muga lurraldea bera da, eta, bigarrena, lurralde horren oinarritzko azpiegiturei buruzko erabakiak hartzeko ahalmena da: garraioa, ingurumena, energia, eta abar.

EHko **lurraldea zatituta dago** bi estaturen artean, hots, Espainiako eta Frantziako estatuen artean, eta lehenengoaren barnean lau autonomia-erkidegoren artean (EAE, Nafarroa, Gaztela-Leon eta Kantabria); bada, zatiketa horren eraginez, EHk ezin gauzatu dezake Nazioaren ikuspuntutik sortzen zaizkion beharren arabeko politika ekonomikoa. Era horretan, bere izaera periferikoa indartzen da, Espainiako eta Frantziako estatuen aldean, estu lotuta baitago izaera konstituzionaleko zentralismoari.

Espainiako estatuaren eskumen eskusiboen artean, ezein autonomia-erkidegotara transferitu ez direnen artean, izaera estrategikoko azpiegiturak daude; lurraldeari dagokionez, azpiegitura horiek hauexek dira: errepide nazionalak (N-1, eta maila hori egotzi ahal zaien beste batzuk), autobideak, bide zabaleko trenbideak (RENFE, AHT), aireportuak (Loiu, Foronda, Hondarribia eta Noain) eta portu handiak (Pasaia, Bilbo).

b. Ekonomia antolatzeko ahalmena

Aukeran dauden eredu ekonomikoak askotarikoak dira. Kontrol estatala dutenen artean, *continuum* batean mugitzen dira, muturretan honako hauek izanik: batean, Kapitalismo Neoliberalak, merkatuen eta babes sozialaren muturrerainoko desarautzearekin; eta, bestean, Estatuko Sozialismoa, merkatuak guztiz araututa dituen eta bertan esku-hartze osoa duena. Beste alde batetik, goi-botereak ezarritako egitura-harremanetik kanpo dauden ereduak izango genituzke, hala nola Anarkismo Libertarioa edo Komuna.

Eredu horietako bat aukeratzea soberania ekonomikoaren atributua da. Esku-hartze publikoaren erduei helduz, hau da, azken 50 urteotan Europar modu batean edo bestean garatu diren erduei helduz, hauexek aipa ditzakegu:

- **Merkatuko ekonomia eta subsidiariotasun-printzipioa.** Estatuak ez du zuzenean esku hartzen enpresen plangintza ekonomikoan, baina bai zeharka, lanari eta zergei buruzko legediaren bidez, eta abar. Horrez gain, azpiegitura egokiak eskaintzen dizkie beren jardueraren garapenerako. Ekoizpen-bideen jabetza pribatua da, posible bezala, baina ekoizpenaren kostuen zati bat sozializatzen da (azpiegiturak, ingurumena, babes soziala, eta abar). Merkatuak erabateko lehentasuna du sektore publikoaren gainean; izan ere, sektore publikoak bakarrik betetzen du merkatuaren irismenetik kanpo dagoena baina berarentzat beharrezkoa dena (subsidiariotasun-printzipioa). Ekonomia kapitalista deritza horri.
- **Zuzendaritza zentralako ekonomia.** Bai ekoizpen-prozesuaren garapena eta bai kontsumoarena estatuak ezarritako plan ekonomiko baten emaitza da. Ekoizpen-bideen jabetza publikoa da, eta merkatua bazterrean uzten da, baliabideak alferriki galtzen dituela kontsideratzen delako. SESBen garatu zenaren moduko ekonomia sozialista deitzen zaio horri.
- **Ekonomia mistoa.** Aurreko bi ereduen nahasketa bat da, bi ereduen elementuak uztartzen dituen: alde batetik, ekimen pribatua eta merkatua, eta bestetik sektore publikoaren eta enpresa estataletako ekoizpen-bide publikoen plangintza, batez ere ekoizpenaren funtsezko sektoreetan (energia, finantzak, osasungintza, hezkuntza, garraioa, etxebizitza). Sektore publikoak pisu handiagoa duenean, ekonomiak izaera sozializatzailea izango du (hori gertatu zen 60ko hamarkadan, ongizate-estatuak bere garapen handiena izan zuenean); sektore pribatua nagusi denean, berriz, izaera kapitalista gailenduko da (oraingo neoliberalismoa).

Venezuela Sozialismo Bolivartarra garatzen ari da; haren ardatza eredu mistoa da, baina jabetza publikoaren presentzia sendoarekin sektore estrategikoetan.

- **Ekonomia soziala.** Izen hau duen sisteman, ekoizpen-bideen jabeak langileak dira, eta hauek erabateko askatasunez arautu ditzakete, eta kontsumoa librea da. Ekonomia sozialaren adierazle garbiena herrialde nordikoetan aurkitzen dugu.

Euskal diskurtso ofizialean, eredu kooperatibistaren sinonimotzat hartzen da ekonomia soziala, baina aipatu behar da badirela bi kooperatibismo mota, oso desberdinak direnak; bata, kooperatibismo sozialista, eta bestea kooperatibismo neoliberala.

Azken urteotan, elementu positibo askoren barruan, elementu kezkarri ugari ikusten ari gara Mondragón Corporación Cooperativaren garapenean. Kezkagarria da organo soberanoak eta gobernu-organok ahutzeko joera, jarrera teknokraten mesederako. Gainera, euskal gizartearekin duen konpromisoa lausotzeko arriskua finkatu da. Ikus daiteke, halaber, ez dela azterketarik egiten internazionalizazioaren ondorio sozialez eta Euskal Herriko lurralde-egituraketan jokatzeko duen rolaz. Horiez gain, badira ahaztu behar ez diren beste elementu batzuk: ideologizazio eta prestakuntza kooperatiboa gero eta ahulagoa da; hirugarrenen kontura kontratatutako langileen kopurua hazi egin da, eta enpresa ez-kooperatiboek erabiltzen dituzten tresnekin esplotatu eta prekarizatzen dituzte; barneko organoetako parte-hartzea jaitsi egin da; eta MCC nolabait urrundu da Euskal Herriko indar aktiboetatik.

- **Sozialismo identitarioa.** Bere asmoa da politika ekonomikoa bere aplikazio-eremura egokitzea, garapen endogenoa bereziki azpimarratuz, hau da, lurraldea, giza baliabideak eta baliabide natural eta kulturalak oinarritzat hartuz, horien arteko sinergiak bultzatuz, ahalik eta modu integratuenean eta harmoniatuenean, parte-hartze sozial aktiboaren bidez adostuta, alderdi soziala lehenetsiz (ondasunen banaketa hobetzea, babes soziala, soldatiko eta soldatarik gabeko lana berrantolatzea eta banatzea). Ekoizpen-bideak bai jabetza publikokoak eta bai pribatukoak izango dira, eta merkatua ongizate kolektibora egokituko da. Plangintza publikoa loteslea izango da sektore publiko «sendo, eraginkor eta zintzoa» rentzat, eta orientabide-izaerakoa sektore pribatuarentzat. Subsidiarotasun-printzipioa alderantziz jartzen da: sektore publikoaren lehentasuna sektore pribatuaren gainean. Ekonomia sozialaren sustapena eta autogestioaren bultzada.

Bai Espainiako estatuak eta bai frantziarrak eskumen eskusiboak dituzte beren lurraldearen Ordenamendu Ekonomikoan. **Euskal Herriak ez du inolako eskumenik ordena ekonomiko egokiena aukeratzeko.** Bi Estaturen konstituzioek merkatua eta jabetza pribatua kontsagratzen dituzte, eta, ikusi dugunez, eredu neoliberalaren interesen aldeko legeak egiten dituzte.

c. Sektore publikoaren plangintza eta ekonomian duen zuzeneko esku-hartzea

Sektore publikoak, Plangintza Ekonomikoaren eta bere esku-hartzearen graduen bitartez, dagokion eredu ekonomikoa determinatzen du. Alor ekonomikoan, erabakigarria da «noren alde» egiten den esku-hartze hori (gutxiengo pribilegiatuak

edo herri-gehiengoak). Euskal Herriari dagokionez, horretarako behar dituen eskumenak ere falta zaizkio.

Espainiako Konstituzioaren 149.13. artikuluan, argietagarbiesatenda Plangintza Ekonomikoa Estatuaren eskumen eskusiboa dela. VII. Tituluaren baitan (Ekonomia eta Ogasuna), 131.1. artikulua Estatuaren esku uzten du jarduera ekonomikoaren plangintza orokorra. EAEko Estatutuan eta Nafarroako Foru Hobekuntzan, eskumen hori 10.25. eta 56.1.a. artikuluetan jasotzen da, hurrenez hurren. Bi xedapenak arau konstituzionalaren mende daude; EAEren kasuan, «ekonomiaren ordenamendu orokorra»ren mende, eta Foru Hobekuntzan «jarduera ekonomikoaren oinarrien eta ordenamendua»ren mende. Bi kasuetan, ordenamendua Estatuaren esku dago. 138.2. artikulua adierazten duenez, ezin autonomia estatutuk ezin du pribilegio sozial edo ekonomikorik eman. 139.1. artikulua dio espainiar guztiek eskubide berak dituztela estatuko lurralde guztietan. 139.2. artikulua pertsona eta ondasunen zirkulazio librea bermatzen du, Espainiako estatu osoan. 149.10. artikulua dio Estatuak eskumen eskusiboa izango duela aduanen, muga-zergeren erregimenaren eta kanpo-merkataritzaren alorretan.

Frantziako estatu unitarioaren ezaugarriek modu are gordinagoan aplikatzen dute mendetasun hori, alegia, modu zurrunagoan jartzen dituzte Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa frantziar plangintza ekonomikoaren mende.

d. Soberania fiskala²⁵

Soberania fiskalak ahalbidetzen du baliabide ekonomikoak lortzeko bidea planifikatzea, baita haien ekarpen-iturria ere. Nafarroak —alde batetik— eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoak —beste batetik— Espainiako estatuarekin dituzten harreman fiskal eta finantzarioak Kontzertu eta Hitzarmen Ekonomikoaren bidez determinatzen dira, hurrenez hurren. Iparralde frantziar zuzenbide fiskalaren bidez arautzen da osorik.

HEHk Espainiako estatuarekin nahitaez izan behar dituen harreman finantzario eta fiskaletatik ondorioztatzen diren konklusioak hiru puntu hauetan laburbil daitezke:

- EAJk kontrakoa esaten badu ere, ez da **Sistema Itundua**, hau da, bi ente soberanoren artean adostua. Foru-erregimena aldatuz joan zen, XIX. mendean pairatutako porrot militarren ondorioz, hau da, prozesu hau indarrez gertatutako soberania-galera batean emaitza da; bertan, espainiar armadak zuzeneko esku-hartzea izan zuen, Hego Euskal Herria espainiar ordenamenduan integratzeko.

Oraingo ordenamendua Espainiako Konstituzioak ezarria da, eta bertan ez dira kontuan hartzen Euskal Herriaren eskubideak; ildo beretik, Konstituzioaren garapenean argi eta garbi geratu da (foruei buruz egiten duen aipamenean) zein den asmoa, alegia, foraltasunaren irudia gordetzea, baina lotura estuekin, edukia ez dadin asko aldendu espainiar ordenamendutik. Egoera

25. HEHko sistema fiskala eta Kontzertuak eta Hitzarmenak duten irismena xehetasunez aztertzeko, mendetasun ekonomikoari dagokionez, eredu fiskala eta legegilea ez ezik, kupoaren bidezko ekarpen ekonomikoa ere barne sartuta, gomendagarria da Nekane Juradok 2004an egindako azterlana: "El sometimiento económico de HEH a Madrid", Euskal Sare Gorriak sarean argitaratua.

honek ez du inolako zerikusirik bi ente soberanoren arteko itun batekin, eta, hortaz, ez du zentzurik lege itunduez hitz egitea.

- **Arau eta zergen gaineko eskumena.** Ezaugarri honen arabera, sistemaren defendatzaileek hauxe diote: Lurralde Historikoetako instituzio eskudunek, *eta baita Estatuak ere*, zergen alorreko ahalmen arautzailea dute, beren zerga-erregimen propioa garatuz eta konfiguraturaz.

Baieztapen horren aurrean, esan behar da sistema fiskal bat, edo zerga-erregimen bat, printzipio eta helburu batzuekin koherentea den zerga multzo bat dela, hau da, politika ekonomikoarekin, aurrekontuekin eta errenten birbanaketarekin zerikusia duten printzipio eta helburuekin koherentea den zerga multzo bat; beraz, zergen edozein metaketak ez du, berez, zerga-sistema bat osatzen. Azken batean, sistema fiskal bat ezartzerakoan, bada filosofia sozioekonomiko bat bere oinarrian, eta filosofia horrek, dirua biltzeko xedetik haratago, sistema ordenatzen du alde zurretik ezarritako helburu jakin batzuk lortzeko.

Ikuspegi horretatik begiratuta, Arabak, Bizkaiak, Gipuzkoak eta Nafarroak badituzte hitzartutako zerga batzuk arautzeko eta biltzeko eskumenak, baina zerga horiek ez dute zerga-sistematik osatzen, zeren Kontzertu Ekonomikoaren 3. artikulua eta Hitzarmenaren 2. artikulua espainiar zerga-sistemaren mende jartzera eta sistema hori onartzera behartzen duten printzipio orokor multzo bat jasotzen baitute:

- Elkartasuna errespetatzea, Konstituzioan eta Estatutuan aurreikusitako eran.
- *Estatuaren zerga-egitura orokorra kontuan hartzea.*
- *Estatuarekiko koordinazioa, harmonizazio fiskala eta lankidetzia.*
- Espainiako estatuak sinatutako edo berretsitako nazioarteko Itunak edo beraren atxikimendua dutenak betetzea —hau da, haien mende egotea—.
- Kontzertuaren arauak Zergei buruzko Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera interpretatuko dira.

Printzipio horiez gain, zergei buruzko lege orokorra aplikatuko da, atxikipen-tasa berdina ezarriko dira pertsona fisikoen errentaren gaineko zergen (PFEZ) eta sozietateen gaineko zergen (SZ), estatuaren arau berdina aplikatuko dira bankuen eta moneta-merkatuen eragiketetan, ez da inbertsioak sustatzera zuzendutako neurri fiskal berezirik hartuko —hau da, estatuan daudenetatik bereizten den neurririk—. Gainera, beren arau fiskalak ezartzerakoan, Lurralde Historikoetako instituzioek Espainiako estatuaren Politika Ekonomiko Orokorren printzipioak beteko dituzte, eta abar.

Hitzarmenean eta kontzertuan, merkatu-batasunaren printzipioa bermatu nahi da, eta, hortaz, ezin da zerga-amnistiarik eman, ezin da izaera fiskaleko pribilegiarik egon, eta estatuak ezartzen dituen arau fiskal bereziak edo koiunturalak aplikatuko dira, lehenago ikusi dugun bezala. Halaber, bada ahazten ez den beste gai bat, alegia, presio fiskal global erreala estatuan

dagoenaren antzekoa izango dela. Eta, guztia lotzen amaitzeko, zergakudeaketaren autonomia lankidetzaren printzipioaren arabera egituratuko da, eta, hortaz, informazioa trukatu da eta ikuskaritza-plan bateratuak egongo dira.

Estatuak eskumen eskusibo batzuk gordetzen ditu beretzat, adibidez: hitzartu gabeko zergei buruzkoak, edo Hitzarmen eta Kontzertuaren aplikazioaren goi-ikuskapena.

Azken batean, HEHk ezin du zerga berririk sortu (adibidez: Tobin tasa, kapitalaren mugimenduentzat); estatuaren zerga-sistema onartu behar du —horko zergen erdian baino gehiagotan ez du inolako eskumen arautzailerik—, eta estatuaren politika fiskal orokorraren arabera jardun behar du.

Laburbilduz, «autonomia fiskal zabal» hori estututa edo mugatuta geratzen da Konstituzioaren exijentziengatik, Nafarroako eta EAEko Autonomia Estatutuengatik, eta Hitzarmen eta Kontzertu Ekonomikoaren Legeengatik beragatik, hurrenez hurren. Ahaztu gabe, jakina, bi lege horiek Madrilgo Gorte Nagusietan onartutako legeak direla eta ganbera horri dagokiola aldaketak egiteko eskumena.

- **Kupoaren aldebateko arriskua.** Fluxu ekonomikoez hitz egitean aipatu dugun bezala, kupoa aldagai exogenoen mende dago, hau da, haren irizpidea da zer gastu egiten dituen estatuak transferitu eta —hortaz— bereganatu gabe dauden eskumenetan (CNA), HEHn egindako zerga-bilketa edo haren gastu propioak inola ere kontuan hartu gabe.

Zerga-sistema bat zerga multzo koherente bat da, eta koherentzia hori ematen diona da printzipio eta irizpide konkretu batzuetan oinarrituta egotea eta xede batzuk lortzen saiatzea, diru-bilketaren helburu hutsetatik haratago. Zerga-sistema propio bat eraikuntza nazionalari lotutako irizpide eta helburuetan oinarritu beharko litzateke, eta irizpide eta helburu horiek Euskal Herriko biztanleek erabaki beharko lituzkete.

- **Zerga-politiken koordinazioa:** bi agirietan islatuta geratzen denez, «...hartu beharreko erabakiak hartuko dira estatuak lurralde komunerako ezartzen dituen arau bereziak edo koiunturalak beren lurraldean ere aplikatu daitezten, eta arau horientzat ezarritako indarraldi berbera ezarriko da. Gainera, presio fiskal global erreala ezin izan daiteke estatuko gainerako lekuetakoa baino txikiagoa».

Hedabideetan egiten diren adierazpen triumfalistik gorabehera, EAJk berak Kontzertuaren muga handiak aitortu izan ditu beti; hala, ezin jarrai daiteke Kontzertua soberania fiskalaren adierazle nagusi bezala aurkezten, estatu batekiko mendetasun-sistema baten barruan. Lehendakaritzaren «Arrazoi ekonomikoak esparru instituzional berri baterako» dokumentuan hauxe esaten da:

...Bizkaia eta Gipuzkoak Kontzertua berreskuratu izanak askatasunik gabeko garai batean galdutako instituzio baten itzulera adierazten du, baina ez da, inola ere ez, termino anglosaxoiarretan «itzulketa» deituko geniokeen prozesua. Kontuan hartzen badugu Konstituzioaren Lehenengo Xedapen

Gehigarriak «eskubide historikoak babestu eta errespetatzen dituela», eta beraren Xedapen Indargabetzaileak indarrik gabe utzi zituela foruak ezeztatu zituzten legeak, hau da, 1839ko urriaren 25eko eta 1876ko uztailaren 21eko legeak, «itzulketa» izango litzateke Kontzertua eta autogobernuaren beste esparru batzuk berreskuratzea, horiek Estatutuen testuan erantsiz («Konstituzioaren eta Autonomia Estatutuen esparruan»), hori mugatuta egon gabe Konstituzioaren VIII. Tituluaren eskumen-banaketagatik, zeren eta, bestela, horrek Kontzertu Ekonomikoa bera eragotziko baitzuen.

«Eskubide historikoen konstituzionalizazio» horren inplikazio sakon eta logikoak onartu beharrean, nahi izan dena da beraren irismena ez gainditzea Arabak eta Nafarroak frankismoaren garaian mantendu zuten Institutuzio baten berreskurapena, estatutuaren eskumenak narriatzeko bidea urratuz, foraltasunaren muin ukiezinetik hurbilen daudenak ere barne sartuta, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak kasu askotan erakutsi duen moduan²⁶.

- **Moneta-politika.** Espainiako Konstituzioaren 149.11. artikulua arabe-
ra, eskumen hauek estatuaren eskumen eksklusiboak dira: moneta-
politika, dibisak, dibisen trukeak eta bihurtasuna, kredituak osatzeko
oinarriak, banka eta aseguruak, aurrezki-kutxei dagozkienak barne sartuta.
Estatutuaren 10.26. eta 11.2.a) artikuluetan eta Foru Hobekuntzaren 51.1.e)
eta f) artikuluetan, eskumen horien eskusibotasuna berresten da.

Europar Batasunetik datozen moneta-politikaren eta politika ekonomikoaren eraginez, Espainiako eta Frantziako estatuaren eskuetan zeuden eskumen batzuk Europako Banku Zentralera eta Banku Zentralen Europar Sistemara pasatu dira (Maastrichteko Itunaren 108. artikulua). Gogoratu behar da, dena dela, soberaniaren eskualdatze edo ordezkapen hori guztiz borondatezkoa dela estatuentzat (EBko herrialdeen artetik, 13k soilik dute euroa; adibidez: Britainia Handia ez zaio sistemari atxiki, bere moneta-soberaniari eusteko), eta itun libre baten bidez egiten dela; Euskal Herriak, aldiz, ezin du hori egin, zeren Espainiako eta Frantziako estatuak hitzartzen dutenaren mende baitago.

26. 76/1988 epaiak garbi uzten du oraingo esparruaren irismena. Hala, Konstituzio Auzitegiak dioenez: «Konstituzioa ez da beraren aurreko eta beraren gaineko eskubideak —Konstituzioaren aurreko eta gaineko eskubideak— gordetzen dituzten lurralde-instantzia historikoen arteko itun baten emaitza, baizik eta botere konstituziogilearen arau bat, indar lotesle orokorrean ezartzen dena bere eremu osoan, iraganeko egoera “historikoak” ere barne sartuta. Alde horretatik, jakina, eskubide historikoen eguneraketak badu ondorio bat, alegia, printzipio konstituzionalari kontrajartzen zaizkienak ezabatzen dituela edo aitortzen ez dituela. Izan ere, eskubide historikoek Espainiako Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarritik lortu edo kontserbatuko dituzte beren baliozkotasuna eta indarra, eta ez beren zilegitasun historikotik».

Konstituzio Auzitegiak garbi uzten du ez dela inola ere aitortzen nolabaiteko soberaniaren proiektzio bezala interpreta daitekeen eskubide historikotik. Aurrerago, Konstituzio Auzitegiak foru-erregimenaren irismena definitzen du Espainiako Konstituzioaren esparruan: «...bermatzen dena foru-erregimen baten existentzia da, hots, lurralde-autogobernua duen lurralde historiko bakoitzaren erregimen propio bat; hau da, bermatzen dena bere “foraltasuna” da, baina ez historikoki karakterizatu duten eskubide guztiguztiak. Berme instituzionalak esan nahi duena da foraltasunaren edukiak foru-erregimen tradizional horren irudi bereizgarria iraunarazi behar duela, bai bere antolaketa-ezaugarrietan bai eta bere botere-eremu propioan ere». Beraz, muin bereizgarri hori da segurtatzen dena, eta, horrenbestez, berari aplikatu behar zaio gure uztailaren 28ko 32/1981 epaia (Konstituzio Auzitegiaren epaia); izan ere, bertan esaten zenez, berme instituzionalak ez du segurtatzen eduki konkretu bat edo eskumen-esparru jakin bat, behin betiko ezarria, baizik eta instituzio baten iraupena, kontzientzia sozialak sasoi eta leku bakoitzean berari buruz duen irudiarentzat egokia den moduan —irudi hori identifikatzea ahalbidetzen duen moduan—.

- **Lan-harremanak.** Espainiako Konstituzioaren 149.11. artikulua estatuen eskumen eskusibotzat jotzen du lanari buruzko legedia. Halaber, estatuen eskumen eskusiboak dira Gizarte Segurantzaren erregulazioa, gutxieneko soldata ezartzea, eta langileen oinarritzko eskubideekin zerikusia duen beste edozein gai. Hau da, lanaren eta lanetik ondorioztatzen diren eskubideen alorreko lege eta arau guztiak. Hego Euskal Herriari geratzen zaion eskumen bakarra da estatuen legedia betetzea, transferitu zaizkion zerbitzuen alorrean. Horrenbestez, Lan Harremanen Euskal Esparruaren (LHEE) exijentziaren sorburua da euskal erabakitze-esparruaren errespetua bermatzea alor soziolaboralean.

Alor soziolaboralari buruzko legeak egiteko eskumena ukatzeaz gain, azpimarratu behar da ez dagoela arau propioen bidez gidatutako erakunde administratiborik, EHko dibertsitate ekonomiko, laboral eta sozialari erantzunez eginkizun propioak garatzen dituenik beste eremu hauetan: enplegu-politika aktiboak, lan-bitartekotza, enplegu-politika pasiboak (langa-bezia-prestazioak) eta babes soziala, laneko osasuna, lanbide-heziketa etengabea eta lan-ikuskaritza.

- **Nazioarteko harremanak.** Nazioarteko harremanak Espainiako Konstituzioaren 93.-96. artikuluetan arautzen dira espezifikoki. Lehengo ildo beretik jarraituz, 149.1.3. artikulua dio harreman horiek estatuen eskumen eskusiboa direla. Ez Autonomia Estatutuak ez Foru Hobekuntzak ez dute inolako aipamenik egiten autonomia-erkidegoek nazioarteko harremanetan parte hartzeaz. Aipamen bakarra Autonomia Estatutuaren 20.5. artikuluan agertzen da, alegia: «Aduanei buruzko Akordio eta Hitzarmenak edo lege proiektuak egiterakoan (Gobernu Zentralak egiten dituela ulertu behar da), gaiak garrantzi berezia baldin badu Euskadirentzat, horren berri eman behar zaio Eusko Jaurlaritzari». Foru Hobekuntzan, berriz, aipamen bakarra 58.2. artikuluan ageri da: «Foru Komunitateari dagokio indarrean jartzea, bere lurraldean, Nafarroako eskumenetan sartutako terminoekin zerikusia duten Nazioarteko Itun eta Hitzarmenak».

Ez da beharrezkoa azpimarratzea Europar Batasunean sartu izanak (1986) Hego Euskal Herriarentzat izan duen garrantzia, inolako kontsultarik gabe eta Atxikimendu Itunaren lan-prozesuan parte hartu gabe. Hala, Maastrichteko Itunarekin, Lisboako estrategiaren akordioekin eta Europar Konstituzio Itunarekin errepikatu den prozedurak garbi utzi du nazioarteko ordezkaritza bakarra estatuena dela. Horrek esan nahi du autonomia-erkidegoak beren eskumenen zati bat galtzen ari direla —eta aurretik baziren aski mugatuak—; adibide garbiena nekazaritzarena izan da.

Iparraldea 1958an sartu zen Europar Batasunean, Erromako 1957ko Itunarekin, Frantziako estatua Itun horren kide sortzailea baita.

Laburbilduz, EHk Frantziako eta Espainiako estatuarekin duen mendetasun ekonomikoak (soberania ekonomikorik eza) baditu bere garapen ekonomikoak eta gizarte-eredua nabarmenki baldintzatzen dituzten ondorioak.

Garbi dago, jakina, nahi politikoei erantzuteko eta herri eta nazio bereizi bezala dagozkigun eskubide demokratikoak eta botere ekonomiko eta politikoa eskuratzeko, bestelako bide bat egin behar dugula, orain arte egingdakoaren orde: esparru juridiko-politiko berri bat lortzea, hain zuzen ere. Dena dela, esparru berri hori ez litzateke berez helburu izan beharko, baizik eta gizarte-eredu bidezkoago batera iristeko beharrezkoa dugun tresna.

3.2. Euska estatua eratzeako indarrak

Euskal Herriak baditu baliabideak bere independentziari aurre egiteko

Independentzia ekonomikoa ahalbidetzen digun apustu estrategikoa garatzeko, orain pairatzen duguna baino bidezkoagoa eta solidarioagoa den eredu berri bat abiatzeko, gure abiapuntua da gure proiektuaren bideragarritasun sozioekonomikoak sustrai hauek dituela: Euskal Herriaren dimentsio txikia, bere kokapen geografiko ona, eta bere baliabideen nahikotasuna (giza baliabideak eta baliabide ekonomiko eta finantzarioak).

a. Edozein proiektu abiatzeko, lehenik eta behin, demokraziaren inguruko **adostasuna planteatu** beharko da, bai demokrazia benetan sakontzeko eta bai haren alor politiko eta ekonomikoa sendotzeko.

Zuzenbide konparatuak erakusten du Euskal Herriak bideragarritasun ekonomikoa izan dezakeela: NBEko kide diren estatuen laurdenek —gutxi gorabehera— EHk baino dimentsio txikiagoa dute, eta baliabide gutxiago. 20.9224,9 km²-ko hedadura eta 3.102.884 biztanle izateak dimentsio egokia ematen dio proiektu nazional eta solidario bat garatzeko.

b. Lurraldea eta bertako biztanleak ez dira ekonomiaren esparru bat soilik, baizik eta baliabide ekonomiko bat berez. Alde horretatik, lurraldearen espezifikotasuna da teknologiarik kultura jakin batekin gurutzatzea ahalbidetzen diona, hori da singularitasuna ematen diona, ekarpen kultural propioa abiapuntutzat hartuta. Horrek ahalbidetzen du bere herritarren identifikazio soziala adostutako prozesu ekonomiko batekin, herritar gisa horren partaide sentitzen baitira.

Esparru horretan, Ikerkuntza eta Garapen jarduerak (I+G+b) balio espezifiko hartzen dute; izan ere, goi-mailako titulatuaren proportzio handiagoari lotuta, abantaila garrantzitsuak sortzen dituzte berrikuntzaren garapenerako, kontuan hartuta, gainera, lurralde honen bereizgarri bat bere zentzu ekintzaile handia dela. Kontzeptu horretan gastatzen dena EHko BPGaren % 1,83 da, EB-27ko batez bestekoa eta Frantziako estatuko proportzioa baino apur bat txikiagoa, baina Espainiako estatuko batez bestekoaren gainekoa.

c. 200 km-ko kostalde batekin, baliabide hidriko nahikoekin eta energia naturalak eskuratzeko aukera zabalekin, **EHk berez bideragarria den komunitate ekonomiko natural bat osatzen du.** Esparru sozioekonomiko integratu bat du, zeren bere oraingo atal administratiboek —EAE, Nafarroa eta Iparraldea— elkar osatzen baitute ekonomikoki. Euskal Herrian, per capita BPGa 31.065 € dira (2009).

urtean)²⁷, erosteko ahalmenaren paritatean neurtuta, eta EBkoa 23.600 €.

d. Ahal den baino gutxiago erabiltzen den **giza kapitala**. Euskal Herriko giza kapitala posizio onean dago EBren barruan. Bigarren graduako edo goi-mailako ikasketak dituzten 25 eta 64 urte bitarteko herritarren proportzioa (2007) % 71,33 da (% 24,58k erdi-mailako ikasketak eta % 46,75ek goi-mailakoak); EB-27ko proportzioa, berriz, % 70,77 da (% 47,24k erdi-mailakoak eta % 23,53k goi-mailakoak); hala, goi-mailako ikasketen kasuan, EBko batez bestekoaren bikoitza da EHko proportzioa. Goi-mailako prestakuntza hori nabarmenki kontrastatzen da gazteen langabezia-tasa (% 30,3) eta aldi baterako kontratazioaren tasa (% 57,2) handiekin.

Osoko langabezia-tasa % 13 izanik, eta aldi baterako kontratazioarena % 23, enplegu duinaren banaketa da konpondu beharreko defizit estruktural eta bereizle garrantzitsuena, gutxiegi erabiltzen diren giza baliabideak dinamizatzeari eta mobilizatzeari dagokienez.

Lan egiten duten pertsonen kopuruaren igoera —25 urtetik beherakoak integratuz (adin-talde hori da sorkuntza-ahalmen handiena duena bizi-zikloaren baitan)— eta gure biztanleriaren prestakuntza-maila handia kontuan hartuta, ez da pentsatu behar lanaren banaketak produktibitatea jaitsaraziko duenik, zeren ekonomiari injektatutako «giza kapital ukiezina»ren faktorea «ekonomialari monetaristen» balorapenetik kanpo geratzen ari baita.

e. Zuzeneko eta zeharkako zergen eta karga sozialen bidezko **diru-bilketari dagokionez**, EH Europar Batasuneko batez bestekoaren azpitik dago, bere presio fiskala (zerga-bilketa / BPG proportzioa) 9,3 puntu txikiagoa baita (EB: % 40,5; Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa: % 31,6; eta Nafarroa: % 29,8. 2008ko datuak).

2011ko Aurrekontuen arabera, itundutako zergen bidez 15.802,3 milioi € bilduko ziren (12.501,0 Araba, Bizkaia eta Gipuzkoak, eta 3.301,3 Nafarroan). Hego Euskal Herriko presio fiskala EBko batez bestekoaren antzekoa izango balitz, urtean 5.005 milioi € gehiago bilduko lirateke, eta Iparraldekoaren parekoa izango balitz (% 44,6) 5.512 milioi € gehiago lortuko lirateke zerga-bilketaren bitartez.

Horri gehitzen bazaio, alde batetik, «opor edo gastu fiskalak» erabiltzeagatik bildu gabe geratu den zenbatekoa, hots, 7.892,9 milioi € 2011an (6.306,1 Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, eta 1.586,8 Nafarroan), eta bestetik zerga-iruzurra, 10.000²⁸ milioi eurotik gorakoa —kalkuluen arabera—, hots, bildutakoaren % 63 baino gehiago, konturatuko gara diru gehiago biltzeak ez duela esan nahi, ezinbestean, zergak igo behar direla, baizik eta zerga-iruzurraren aurka borrokatu behar dela eta ekitatea sustatu, «errenta berdinak, zerga berdinak» dioen printzipioa errealitatera eramanez.

27. EHren oraingo arazoa ez da bere per capita errentaren maila, baizik eta haren banaketa desorekatua, aberastasunaren kontzentrazio handiarekin. Horren inguruan, N. Juradok egindako lana kontsulta daiteke: «La Euskal Herria ¿de quién?», IPES (2008).

28. Ignacio Zubiri UPV/EHUko Ogasun Publikoko katedradunak egindako kalkuluen arabera (2010), Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako zerga-iruzurra 10.000 milioi € izan ziren 2009an; beraz, datu horrek ez du Nafarroa kontuan hartzen.

1997an, N. Juradok HEHko zerga-iruzurrari buruzko txosten bat prestatu zuen (I. Zubirik zuzendua), IAK argitaratua; haren arabera, zerga-iruzurra urteko zerga-bilketaren % 70 inguru zen, eta, hortaz, zerga-iruzurrik gabe, gutxieneko zerga-bilketa benetan bildutakoaren % 170era iritsi liteke.

Hitzartutako zergen bidezko diru-bilketa erreala	15.802,3
Bildu gabe utzitako zenbatekoa	17.892,9
Zerga-iruzurra (gutxienekoa)	10.000,0
Opor edo gastu fiskalak	7.892,9
Diru-bilketa potentziala, guztira	33.695,2

Iturria: Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako 2011ko Aurrekontu Orokorrak.

10. koadroa. Hego Euskal Herriko zerga-bilketa erreala eta potentziala. 2011. urtea (milioi eurotan).

f. Eredu sozioekonomiko berri bati aurre egiteko mobilizatu daitezkeen baliabide fiskal mardulez gain, ez ditugu ahaztu behar Euskal Herriak dituen **kapital fisiko** eta **finantza-baliabideak**.

Kapital fisikoa. HEHn, EBn baino kapital finko gehiago erabiltzen da langile bakoitzeko²⁹, batez beste, eta 1960ko hamarkadaren erditik aurrera etengabeko metaketa izan du.

	2000	2001	2002	2003	2004
A-B-G	11,0	11,4	11,9	12,3	13,4
Nafarroa	13,3	14,3	14,9	15,8	16,2
EB-27	9,4	9,5	9,5	9,6	10,0

Iturria: Lurralde Lankidetzeta eta Administrazio Publikoen Ministerioa.

Autonomia-erkidegoetako Profil Ekonomiko Finantzarioa, 2009 (2011ko otsailean argitaratua).

11. koadroa. Kapital finkoaren eraketa gordina, langile bakoitzeko (mila € langile bakoitzeko).

Finantza-erakundeetan (bankuak, aurrezki-kutxak eta kreditu-kooperatibak) dauden gordailu pribatuak 75.000 milioi eurotik gorakoak dira, aseguru-konpainietan eta Inbertsio Kolektiboko erakundeetan dauden funtsak kontatu gabe, horiek ez baitira sartzen lehen aipatutako erakundeen multzoan. BGAEetan (Borondatezko Gizarte Aurreikuspenetako Erakundeak) dauden funtsek BPGaren % 25 gainditu zuten, hau da, gainerakoetan dauden funtsak kontatu gabe. Bestelako eredu ekonomiko batek herri-aurrezpen hori sar lezake bere eraikuntzan, modu produktiboan mobilizatuz —ez modu espekulatiboan—, gizarteak kontrolatutako finantza-erakunde publikoen bitartez.

g. Bukatzeko, fluxu ekonomiko instituzionalizatuen atalean adierazi dugun bezala, izaera publikoko baliabide ekonomikoen alorrean bada partida mardul bat, urtez urte Madrilera transferitzen dena, mendetasun ekonomikoko kontratuaren bidez edo HEHren alokairuaren bidez, hori besterik ez baitira Hitzarmen eta Kontzertu Ekonomikoak. Urtero, Madrilerantz doan fluxu ekonomikoa (sarrerak ken ordainketak) 5.000 milioi eurotik gorakoa da. Zenbaki horiek ikusita, ulertzekoa da zergatik den EH hain garrantzitsua «Espainiaren batasuna» rentzat.

29. "El Stock y los Servicios de Capital en España y su distribución Territorial (1964-2005)" izeneko txostena. Fundación BBVA (2007).

Laburbilduz, Euskal Herriko azpiegitura fisikoak eta haren giza, zerga- eta finantza-baliabide mardulek, behar den bezala bideratuta, Euskal Estatuaren bideragarritasuna bermatzen dute.

3.3. Mehatxu nagusia: kohesio sozialaren ahultasuna

Bihotz indigenako emakume batek zera galdetu zidan: zergatik diozue ekonomialariok nire herria ez dagoela garatuta, nire komunitatean konpartitzen badugu bizitzak egunero oparitzen diguna, eta inork ere ez, ez haurrak ez zaharrak, ez badu ezagutzen ez babesgabetasuna ez arimaren bakardadea? Eta horretaz hausnartzean, konturatu nintzen barne-produktu gordinaz —BPGa— eta kohesio sozialaz hitz egin behar niola.

BPGa adierazle monetario bat da, merkatuan negoziatzen den zeregin guztia islatzen duena. Gizarte garatuaren segurtasuna zenbat eta txikiagoa den, orduan eta gehiago gastatzen du defentsan, barneko babesean, eta horrek BPGa igoarazten du; eta gaixoago dagoen neurrian, elementu farmakologiko gehiago kontsumitzen ditu, eta horrek BPGa igoarazten du. Bizi-kalitatea, zoriona eta BPGa ez dira zertan norabide beretik joan, eta errealitateak erakusten digu gutxitan joaten direla norabide beretik.

1968an, R. Kennedy-k esan zuen BPGa suntsipen-mailaren neurgailu bat izan daitekeela. «Bere kalkuluetan, gure BPGak ekoizpen kutsagarriak hartzen ditu kontuan, baina ez kutsadura atmosferikoa, tabakoaren publizitatea sartzen du barne, eta baita gure errepideetako zaurituak hartzera joaten diren anbulantziak ere (ez errepideen segurtasuna). Gure etxebizitzak babesteko instalatzen ditugun segurtasun-neurrien kostuak erregistratzen ditu, eta etxebizitzetan sartzen direnak entzerratzeko erabiltzen ditugun espetxeak. Basoen suntsipena dakar berekin, horien lekuan urbanizazio kaotikoak jartzeko. Arma nuklearren ekoizpena sartzen du barne, eta, halaber, atsekabe sozialaren manifestazioak zapaltzeko poliziak erabiltzen dituen ibilgailu blindatuak (...)».

Alde horretatik, gogoratu behar dugu Euskal Herrian badirela hainbat faktore, bizi-kalitatea etengabe degradatzera daramatenak, haren BPGaren maila, bizi-itxaropena edo hezkuntza-maila oso altuak izan arren (Giza Garapenaren Indizearen oraingo neurtze-adierazleak).

Garapenari buruzko ikusmolde berri batek aurre egin behar die oraingo hazkunde ekonomikoaren eredu neurrigabeei eta horien ezinbesteko ingurumen-inpaktuei (ekosistemen degradazioa, baliabideen agorpena...) eta ondorio sozialei (langabezia, bazterketa, dualizazioa, gerrak...). Horretarako, ezinbestekoa da «aldaketa bat lortzea oraingo garapen-prozesuetan, eta, batez ere, ekonomiari buruz orain arte dugun kontzeptuan, jardunbide berriak ezarriz nazioartean, eta garapen-eredu berri bat ere ezarriz, Ipar-Hego desberdintasunak gaindituz ekologikoki bideragarria eta sozialki bidezkoa den mundu bat ahalbidetzeko (Rioko Konferentzia, 1991)».

«Giza garapena»ren kontzeptuak zentzu horri erantzuten dio, nolabait, zeren metodo berri batez baliatzen baita garapenaren maila neurtzeko, eta gaitasunen garapena azpimarratzen du, hala nola osasun-egoera hobea eta jakintza-maila; beste alde batetik, baina, funtsezko adierazle batzuk baztertzeko, hala nola ondasunen banaketa, lana lortzea eta lanaren kalitatea, ingurumen-kalitatea, integrazio kulturala, etxebizitza-beharrak asetzea, edo behar psikiko-afektiboak.

Dena dela, giza garapena ez litzateke hor amaituko; izan ere, badira beste hainbat aukera: askatasun politiko, ekonomiko eta soziala, eta sortzaile eta produktiboak izateko aukera, giza eskubideen bermeaz gozatuz.

Giza garapena Euskal Herrian ahalbidetzeko, benetako demokrazian sakondu beharko genuke, eta hortik abiatuta bestelako eredu ekonomiko bat bilatu eta gauzatu, alegia, eskura ditugun giza eta natur baliabide propioen erabilera arrazional eta harmoniatsua lehenesten duen eremu ekonomiko bat, gizarteko kide guztien behar indibidual eta kolektiboak asetzeko, etorkizuneko belaunaldiak beren beharrez arduratzeko izan behar duten gaitasunari kalterik egin gabe.

Gizarte bat benetan iraunkorra izan dadin, iraunkortasun hori bai alor fisikoan (baliabideen erabilera iraunkorra) eta bai alor sozialean (desberdintasun sozialak eta lurraldearen alorrekoak) lortu behar du. Ekitaterik gabe ez dago iraunkortasunik

Benetan iraunkorra den gizarteak garapena lehenesten du hazkundearen gainetik, lehentasuna ematen dio alor kualitatiboari (bizi-kalitatea) alor kuantitatiboaren gainetik (bizi-maila), eta elkartasunari lehiakortasunaren gainetik. Demokrazia ekonomikoa, nahikotasun, justizia eta ekitatean hedatzen bada, balio sozial handiena eta osoena da, nonbait, eta hori ez da neurtzen ez BPGaren bidez ezta haren zuzentzailearen bidez ere —oraingo Giza Garapenaren Indizea—.

Krisia ez da ekonomikoa soilik, baizik eta, horrez gain, krisi ekologikoa, elikadura-soberaniaren, osasunaren, genero-harremanen eta balioen krisia; kapitalismoak garatutako zibilizazio-paradigmaren krisia da, hau da, azken batean, beraren oinarrian duen eredu ideologikoaren krisia.

Krisian dauden balio horien eraginez, Euskal Herria gizarte prekarioa da gaur egun, legeak behartuta. Herritar gehienek bizi-baldintzen prekarizazio orokorra —immigranteak, emakumeak, gazteak eta adineko pertsonak— Sektore Publikoaren esku-hartze aktiboarekin gertatu da, lan-merkatuaren eta babes sozialaren arauak eta babesa desagiten dituzten legeen bitartez. Baina errealitate hori batez besteko estatistikoan atzean ezkutatzen da, kutsu triumfalista emanda, datu horiek ez baitute muturrei buruz eta desberdintasunari buruz hitz egiten; horregatik, ezinbestekoa da Euskal Herriaren adierazle estrukturalak aztertzea, haien atzealdetik.

a. Euskal Herriko lurraldea eta biztanleria: kontzentrazioa areagotuz. 2010ean, Euskal Herriak 3.102.884 biztanle zituen bere 20.947 kilometro karratuetan; beraz, haren dentsitatea 148,2 biztanle/km² da, EBkoa baino handiagoa —116—. Nolanahi ere, datu hori batez besteko bat baino ez da, muturren artean mugitzen baita: Zuberoak, oso populazio gutxiarekin, 18,7 biztanle ditu km² bakoitzeko, eta Bizkaiak, aldiz, 518 biztanle/km². Iparraldeko lurralde guztiak EBko batez

bestekoaren azpitik daude. Izatez, euskal herritarren % 90,8 Hegoaldean bizi da, eta Iparraldean % 9,2 baino ez (% 7,7 Lapurdin, % 1 Nafarroa Beherean eta % 0,5 Zuberoan).


	Azalera	Biztanleak	Dentsitatea
Araba	3.311,0	319.326	96,44
Bizkaia	2.236,8	1.154.099	515,96
Gipuzkoa	1.980,4	707.263	357,13
Nafarroa Garaia	10.390,4	636.924	61,30
Nafarroa Beherea	1.325,0	30.357	22,91
Lapurdin	863,3	239.635	277,58
Zuberoa	818,0	15.280	18,68

Iturria: Hegoaldearena, INE (2010); Iparraldearena, INSEE (2009). Gaindegiak emandako datuak.

12. koadroa. Euskal Herriko biztanleriaren banaketa 2010ean.

Halaber, herrialde bakoitzaren barruan bada **polarizazio handi bat landa-eremuen eta hiriguneen artean**. Lehen sektorearen suntsipen gero eta handiagoa, industriaren birmoldaketa eta euskal hiriburuetak eskualdeetan kontzentratutako zerbitzuak garatzearen aldeko apustua direla medio, Euskal Herri osoko biztanleriaren % 62,6³⁰ eskualde horietan biltzen da (Bilbo Handian eta Vitoria-Gasteizen, herrialde horietako herritarren % 72,8 eta % 77,5 bizi dira, hurrenez hurren).

EUSKAL HERRIKO biztanleriaren banaketa eremu metropolitarretan. Ehunekoak



Iturria: Hegoaldearena, INE (2010); Iparraldearena, INSEE (2009). Gaindegiak emandako datuak.

Lurralde-desorekaz gain, **biztanleriaren zahartzea areagotzen ari da**. Herritarren % 19k 65 urte baino gehiago ditu, eta proportzio hori EBkoa baino 1,5 puntu handiagoa da. Biztanleriaren zahartzea (horrek eragin berezia du Iparraldean, batez ere Zuberoan, % 25,6arekin) garrantzitsua da zenbait faktorerengatik, baina hemen aipatu behar dugu kolektibo hau dela Euskal Hiriaren diseinua gehien

30. 2001eko zentsuan, datu hau % 70 zen; beraz, azken hamarkadan herrietarako itzulera bat egon da, batez ere ingurune metropolitarrak etxebizitzaren prezio garestiaren eraginez.

pairatzen duena, zeren pertsona horiek baitira diseinu horretatik kanpo utzitako herrietan geratzen direnak; horregatik, bazterketa espazial bat jasaten ari da, zerbitzu askotara iristeko biderik gabe geratzearekin lotzen den bazterketa espazial bat, hain zuzen ere.

Lurralde-desoreka handi horrek errealtate bihurtzen du Euskal Hiriaren inposaketa, Euskal Herriaren gainean —Euskal Herria ia utopiko bilakatu baita honezkero—, eta are larriago bilakatzen ari da azpiegitura handien plan berrien eraginez; adibidez: AHT. Hala, Abiadura Handiko Trenak muturrera eramango du lurralde-desoreka, eredu zentralizatuago eta polarizatuago baten aldeko apustua egiten baitu. Agian plan horretan islatzen da, beste inon baino modu garbiagoan, jarduera ekonomikoa alor metropolitarretan gero eta gehiago zentralizatzen zuzendutako inbertsioen kontzentrazio izugarria. Espainiar Gobernuaren Azpiegitura Planak berak (PEIT) dioenez: «Prestazio handiko azpiegiturek nodo bakar batzuetara mugatzen dituzte beren irispideak, eta, hortaz, lurralde dual bat itxuratzen dute (...) abiadura handiaren eraginez, jarduera ekonomikoa nukleo handi bakar batzuetan kontzentratu eta zentralizatu da, potentzia txikiagoko alorrak ahulduz alor nagusien onerako».

AHTk sustatzen duen bizi-estiloak, lurraldea eta baliabide energetikoak arpilatzeaz gain, modu larrian desitxuratzen du tokiko esparrua, harreman-esparrua den aldetik, hurbilekoa gero eta gehiago urrunduz eta urrunekoa gero eta gehiago hurbilduz. Lurraldean errotutako bizimoduak eta kulturak galtzen ari dira; aldi berean, zirkulazioaren espazioa eta «ez-leku» deritzanak ugaltzen ari dira, «lekua»ren kontzeptu antropologikoari kontrajarriz —kontzeptu hori, aldi berean, zentzu-printzipioa da hor bizi direnentzat, eta identitate, harreman eta historiaren lekua ere bai—.

Jaiotza-tasak —oso ahula— puntu bat berreskuratu zuen 2004-2008 sasoiari: 1.000 biztanleko 9,2 haur jaiotzetik 10,2 haur jaiotzera pasatu zen. Igoera hori emigrazioaren jaiotza-ekarpenari esker gertatu zen gehienbat. 2008tik aurrera, aldiz, tasa murrizten hasi zen, krisiaren ondorioz. 14 urtetik beherako pertsonen kolektiboa % 13,8 da, EBko batez bestekoa baino bi puntu gutxiago.

Heriotza-tasa egonkor mantendu da hamarkada osoan, eta 2009an 9,03 zen 1.000 biztanle bakoitzeko. Dena dela, Iparralde eta Hegoaldearen arteko desberdintasunak nabariak dira hemen ere (Nafarroa Beherean, 13,92ra iristen da). Hilkortasun-tasa jaiotza-tasa eta immigrazioa —biak batera— baino handiagoa da Iparraldean, eta, hortaz, hango hiru lurraldeek biztanleria galdu dute urtero, 2000tik 2010era bitartean.

b. Errentaren kontzentrazioa. Krisiaren erdian egonda, berebiziko garrantzia hartzen dute adierazle ekonomikoek, ez hainbeste beren magnitudean baizik eta herritar guztien artean duten banaketan. 2009an, EHko BPGa 31.065 € ziren biztanle bakoitzeko, hau da, EBko batez bestekoa baino % 30 gehiago, gutxi gorabehera. Iparraldearen (23.824 € euro biztanleko urtean) eta Hegoaldearen (30.808 € Nafarroan eta 33.000 € baino gehiago EAEn) arteko aldeak ikusita, pentsa liteke Hegoaldeko herri-klaseek posizio ekonomiko hobea dutela, baina ez lanbide arteko gutxieneko soldata, ez batez besteko pentsioak (12.180 €), ezta gehiengo mileuristaren (gazteak, emakumeak, etorkinak) soldatak

ere ez dira iristen, inola ere, zifra horretara. Errealitatea da aberastasunaren kontzentrazioan (oso kezagarria da honezkero EAEn, batez ere Bizkaian) eta errenta-politiken eta babes sozialaren alorrean dagoen diferentzia handia —soldata eta prestazioak askoz ere handiagoak dira Iparraldean— dela, gaur egun, lan eta/edo bizileku finkoen trukea gehien oztopatzen duen elementua, Iparraldearen eta Hegoaldearen artean. Batez bestekoak ezkututzen du EHko aberastasunaren kontzentrazio handia, EBko edozein herrialdetakoa baino askoz ere handiagoa. Horren ondorioa da 18 eta 44 urte bitarteko gazteen % 34,4%³¹ ezin dela gurasoengandik independizatu, baliabide ekonomikorik ez duelako.

c. 2008an³², Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan (ez dugu Nafarroari buruzko daturik), biztanleriaren % 1,67k aberastasunaren % 44,78 kontrolatzen zuen, eta % 8k 500 €-tik beherako diru-sarrerez atera behar zuen aurrera; gainera, herritarren % 36,33 pobrezia mailaren azpian zegoen (per capita BPGaren % 37,5). 2002 eta 2008 bitartean, errenta handienak % 114,52 hazi dira (% 126,53 Bizkaian, aberastasunaren kontzentrazio handiena duen herrialdea baita); soldata eta pentsioen eroste-ahalmenak, aldiz, balioa galdu du (KPI erreala haien urteko igoerak baino handiagoa izan da).

Bizkaian (hor kontzentratzen da Euskal Herriko biztanleriaren % 50 baino gehiago), 2009an aurkeztutako PFEZaren aitortzearen arabera, 205.570 pertsonak 113.200 €-tik beherako diru-sarrerak deklaratu zituzten³³, eta 90.000 €-tik gorako diru-sarrerak deklaratu zituzten zergadunak 8.708 izan ziren urte horretan³⁴.

Dena dela, aipatu behar da datu horiek izozmendiaren punta baino ez direla, zeren ogasunak kontrolatutako errentetan oinarritzen baitira, hau da, ez dituzte kontuan hartzen urteko zerga-iruzurraren 10.000 milioi euroak, gehienbat «superabertsen» talde horretan kontzentratzen direnak.

Eurostaten³⁵ datuen arabera, kintilen arabeko desberdintasuna 4,8 zen 2008an eurogunean; Frantzia 4,1 zen, eta Espainiako estatuan 5,8. Horrek esan nahi du biztanleen artean gehien irabazten duen % 20k zenbateko horrekin biderkatzen dituela bere diru-sarrerak, gutxien irabazten duen % 20aren aldean. EAEn, kontzentrazioa askoz ere handiagoa da Espainiako estatuan baino.

Errenten kontzentrazioak zuzeneko proportzioa du soldata txikiko politikarekin, prestazio sozial eskasekin eta presio fiskal ahularekin (zerga txikiak eta iruzur-maila handia).

31. Pobrezia eta desberdintasun sozialei buruzko 2008ko txostena, Eusko Jaurlaritzak argitaratua (2009ko martxoa). Datu hau lau urtetik behin eskaintzen da, eta hazkundea izugarria da (1996an, % 8,4; 2000an, % 15,2; eta 2004an, % 21,7).

32. "Euskal Ogasunaren Urteko Txosten Integratua, 2008", 2010eko urrian argitaratua. Hau da eskura dagoen azken datua, zeren 2009ko txostenak —2011n argitaratua— ez baitu azterketa hau jasotzen.

33. Aipatzekoa da 21.000 €-tik behera ez dela derrigorrezkoa aitortpena egitea, kasu konkretu batzuetan izan ezik; beraz, errenta txikiak dituzten pertsonen kopurua zifra horren bikoitza baino handiagoa da (pentsiodun arruntek, alargunek, langabeek, langile prekarioek eta gisa berekoak zenbateko horren azpiko sarrerak dituzte, eta, hortaz, ez daude behartuta aitortpena egitera).

34. Datu hau ere partziala da, zeren errenta-tarte hauek zerga-iruzurraren parte handiena ezkututzen baitute, ingeniariaritz finantzario-fiskal sofistikatu baten bitartez.

35. EUROSTAT. Statistical Yearbook 2011.

Lanbide arteko gutxieneko soldata, erreferentea kolektibo askorentzat eta prestazio sozial askorentzat, 641.40 € ziren hilean 2012an, Hegoaldean, eta 1.398,37 Iparraldean, hots, bikoitza baino handiagoa³⁶.

Lanean dagoen pertsona bakoitzeko **eskura dagoen errenta** ere (zerga eta transferentzia sozialen ostean) handiagoa da Iparraldean, 2008ko datuek islatzen duten moduan, eta krisiaren garaian are gehiago hazi da diferentzia hori, Hegoaldeko soldaten narriaduragatik.

Araba	38.664
Bizkaia	39.334
Gipuzkoa	38.983
Nafarroa	36.935
Iparralde	42.989
Euskal Herria	38.944

Iturria: Eustat, INE, INSEE. Gaindegia emandako datuak.

13. koadroa. Langile bakoitzeko urtean eskura dagoen errenta (2008).

Batez besteko erretiro-pentsioa³⁷ 915,72 € dira Nafarroan eta 1.000,53 € Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, oro har (normalean, pentsio horrekin bi pertsona bizi izaten dira, zeren batez besteko alarguntza-pentsioa 670 € baitira, gutxi gorabehera). Horrek esan nahi du pentsiodun gehienei asko kostatzen zaiela hilaren amaierara iristea. 2007an, EAEn³⁸ eta Nafarroan, **zahartze-funtzio guztietako per capita gastua** (pentsioak, egoitzak, etxeko laguntza, eta abar) 13.585 eta 10.665 € ziren urtean, hurrenez hurren, EBko batez bestekoa baino askoz txikiagoa, bertako gastua 14.607 € baitira. Frantziako estatuaren kasuan, berriz, erosteko ahalmenaren paritatean neurtuta, 18.585 € ziren urtean, EBko batez bestekoa baino 27 puntu gehiago. Desberdintasuna esanguratsua da **gastu sozialaren** atal guztietan. Hala, **osasungintzaren eremuan**, per capita gastua hauxe zen Nafarroan, EAEn eta Frantziako estatuan: 1.894, 1.956 eta 2.349 € urtean, hurrenez hurren.

Lehengo datuekin, **pobrezia-tasek** garrantzia hartzen dute. EUROSTATen metodoaren arabera —pobreziaren maila medianaren % 60 da—, EAEko biztanleen % 15,8 pobrezia-egoeran zegoen 2008an, Nafarroan bezainbeste, eta Iparraldean % 8 baino apur bat txikiagoa zen proportzio hori. Desberdintasun hori gorabehera, zenbakiak ez dute benetako errealitatea islatzen, lehen bezala, zeren pobreziaren atalasea distortsionatuta baitago errentaren kontzentrazioagatik³⁹, eta, beraz,

36. Erosteko ahalmenaren paritatean neurtuta, Hegoaldeko lanbide arteko gutxieneko soldata eurogunekoa baino % 40 txikiagoa da. «Langile pobre»-en estatistiken buruan gaude, hau da, lan-merkatuan egoera aktiboan egonda, pobreziaren atalasea gainditzen ez dutenak beren urteko sarrerekin.

37. Iturria. INSS, 2011ko abendua.

38. Iturria: Babes Sozialaren Kontua. EUSTAT eta Nafarroako Estatistika Institutua. Iparralderako: INSEE.

39. Errentaren kontzentrazioa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta txikiagoa da pobrezia-atalasea, eta, hortaz, pertsona gutxiago daude haren azpian, eta, horrenbestez, pobre gutxiago daudela esaten da. Hala, urtean 7.290 eta 10.800 euro bitartean irabazten dutenak (erosteko ahalmenaren paritatean neurtuta) ez dira pobretzat hartzen Hegoaldean, baina bai Iparraldean. Horregatik, herrialde desberdinetako pobrezia-tasak alderatzen direnean, adierazi behar da non jartzen den pobrezia-atalasea (erosteko ahalmenaren paritatean neurtuta) herrialde horietako bakoitzean (ikus Gaindegia 2010eko urtekaria. Gai horrentzako ekarpen metodologikoa, Nekane Juradok egina).

ezinbestekoa da jakitea non jartzen den pobreziaren atalasea herrialde bakoitzean. Hala, 2008an, erosteko ahalmenaren paritatean neurtuta, Frantziak pobretzat hartzen zituen urtean 10.800 euro baino gutxiago eskuratzen zituzten pertsonak (Iparraldeko pobrezia-atalasea); EAEn, berriz, urtean 7.290 euro irabaztera iristen ez ziren pertsonak hartzen ziren pobretzat (EAEko pobrezia-atalasea CAPV⁴⁰).

Laburbilduz, 2007an (azken datu homogeneousatua), **babes sozialaren gastua hauxe zen, BPGa erreferentziaz hartuta**: Iparraldean: % 33,62; EAEn: % 18,8; eta Nafarroan: % 16,7. Horrek esan nahi du Iparraldeko biztanleak askoz ere babes-tuago daudela, edozein adierazle sozialetan (gutxieneko soldatak, gutxieneko pentsioak, hezkuntza, osasuna, etxebizitza, familia), Hegoaldeko biztanleak baino. Horrek esan nahi du etorkizuneko Euskal Estatuak Frantziako estatuko babes soziala hartuko beharko lukeela oinarritzat, gutxienez; bestela, Iparraldeko biztanleek bizi-kalitatea galduko lukete.

d. Irabazien kontzentrazioa: lan-esplotazioaren tasa handiagoa da Hegoaldean. Ekonomian, enpresak langile bakoitzarengandik eskuratzen duen gainbalioa bere produktibitatearen eta langile horri egoztekoak diren lan-kostu guztien arteko funtzio bat da.

Produktibitatea ekoizpenaren balioa eta enplegua zatitzearen zatiduraren balioa da. Makroekonomiaren alorrean, eta herrialdeen arteko alderaketak egiteko: Produktibitatea = BPG/langile kopurua.

Hegoaldeko produktibitatea (2008) EBko batez bestekoa baino ia % 30 handiagoa zen, beraren lan-kostuak batez besteko horren azpitik egonda. Beraz, kapitalaren irabazi-tasa handiagoa da, edo, bestela esanda, langileen esplotazioa handiagoa da.

Araba	78.111
Bizkaia	74.235
Gipuzkoa	72.035
Nafarroa	67.406
Iparralde	60.346
Euskal Herria	74.219

Iturria: Eustat, INE, INSEE. Gaindegiak emandako datuak.

14. koadroa. Produktibitatea langile bakoitzeko, 2008an (2009, Iparralde eta Nafarroarentzat).

40. EBk ezarritako pobrezia-atalasea per capita errentaren MEDIANaren % 60 da. Adierazle estatistiko hori Lisboako Estrategiak jarri zuen indarrean (2000), aurrekoa ezabatuz —per capita errentaren BATEZ BESTEKOaren % 50—. Lehengo atalaseak oraingoak baino pobrezia-maila handiagoa ematen zuen, eta, hortaz, jende gehiago geratzen zen haren azpitik, hots, pobre gehiago kontabilizatzen ziren. Europako mugimendu sozialaren talde ugari, Elkartzen ere tarteko, pobrezia-atalasea per capita BPGaren % 37,5 dela determinatzen dute; horren arabera, Euskal Herriko pobrezia-atalasea 11.649 € izango lirateke urtean (per capita errentaren 31.065 €-ren % 37,5).

Langile bakoitzeko produktibitatea langile bakoitzaren eskura dagoen osoko errentarekin batera aztertzen badugu, oso deigarria da ikustea nola Iparraldeak, 60.346 €-ko produktibitatearekin, 42.989 €-ko errenta duen langile bakoitzaren eskura⁴¹, eta Arabak, 78.111 €-ko produktibitatearekin, 38.664 €-ko errenta.

Hegoaldeko ekonomiaren oraingo arazoa ez da produktibitate motela, baizik eta produktibitatearen banaketa, zeren oso kontzentratuta baitago enpresari-mozkinen aldean, soldaten kalterako. Soldata txiki horiek kontsumoa murrizten dute, eta arazoa horixe da, hain zuzen ere, eskaria murrizten dela eta kontsumoa jaisten dela, eta horri aurre egiteko neurriak ezin izan daitezke soldatak murriztea eta enplegua suntsitzea, baizik eta produktibitate hori soldaten alde banatzea, eta kontratazio berriak egitea, kontsumo arduratsua sustatzeko.

Kohesioaren adierazleen konklusio gisa —babes sozialekoak edo errenten politikakoak—, Hegoaldeak Iparraldeak baino desoreka handiagoak erakusten ditu; horren ondorioz, Iparraldeko biztanleek ez dute ikusten Hegoaldeko lan-merkatua hurbilpen eta integrazio nazionalerako bide bezala; aitzitik, haien migrazio-mugimenduak frantziar lurraldera zuzentzen dira. Eta, lehen adierazi dugun bezala, etorkizuneko Euskal Estatua berton sortutako aberastasunaren banaketa (produktibitatearen banaketa) lehenesten duen eredu ekonomiko batean oinarritu behar da, eta ekoizpen sozialean zentratutako sektore publikoak askoz ere pisu handiagoa izan behar du (gastu publikoa, BPGa erreferentziazat hartuta), Euskal Herri osoko babes sozioekonomikoa gaur egun dagoen estandar handienarekin homogeneizatzeko —gutxienez—, hots, Iparraldeko estandarrarekin homogeneizatzeko.

41. Esan dugu produktibitatea 2009ko datu bat dela eta errenta 2008koa; horregatik, produktibitate horri errenta handiago bat dagokio benetan, zeren berau hazi baitzen 2008. eta 2009. urteen artean. EAEn, bi datuak urte berberari dagozkio: 2008.

3. Euskal Estatuari begira: ahuleziak, indarrak eta krisi ekonomikoaren ondorioak euskal ekonomia-ehunean

*Antón Borja Alvarez, ingeniari industrial, Ekonomian doktorea,
UPV/EHUko irakaslea*

Jarraian, nekazaritza, industria eta zerbitzuei —batez ere finantza-azpisektoreari— dagozkien zenbait alderdi aztertuko dira, haien ahuleziak eta alde onak kontuan harturik. Espainiako eta Frantziako krisi ekonomikoaren funtsezko ezaugarri batzuk seinalatuz, krisialdiak Euskal Herriko ekonomiari nola eragingo dion aztertuko da. Gaurko eta biharko ekonomia- eta gizarte-mailako erronkei aurre egiteko estrategia bezala, Euskal Estatua aukera ona ote den balioestea da ikerketa honen helburua. Horretaz gainera, datozen urteotarako zenbait hausnarketa eta proposamen eskainiko dira.

Towards a basque state: weaknesses, strengths and the consequences of the economic crisis for the basque economic fabric

This chapter examines the Basque Country's strengths, weaknesses and other aspects in agriculture, industry and services, focusing special attention on the financial sector. Central features of the Spanish and French economic crisis and its impact upon the Basque economy are considered. These subjects are studied here with a view to evaluating the feasibility of a Basque state as a more efficient way of addressing present and future economic and social challenges. Some thoughts and proposals are also presented in anticipation of the foreseeable needs of the next few years.

SARRERA

Jarraian, nekazaritza, industria eta zerbitzuekin zerikusia duten alderdi batzuk aztertzen dira. Espainiako eta Frantziako ekonomiaren krisiaren funtsezko ezaugarri batzuk aipatzen dira, baita krisiak euskal ekonomian dituen ondorioak ere. Azterlana Euskal Estatua sortzeko aukeraren ikuspegitik egin da, hau da, aztertu dugu ea Euskal Estatua sortzea estrategia eraginkorra ote den oraingo erronka ekonomiko eta sozialei aurre egiteko. Halaber, datozen urteotan aurrera egitera zuzendutako hausnarketa-proposamen batzuk ere planteatzen dira.

1. EUSKAL EKONOMIAREN EZAUGARRI ESTRUKTURALAK

1.1. Nekazaritza-sektorea

Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza jardueren pisu ekonomikoa txikia da, bai Bizkai, Gipuzkoa eta Arabarentzat (ez da iristen BPGaren % 3ra) eta bai Nafarroarentzat (ez da % 5era iristen). Edonola ere, komenigarria da esatea nekazaritza-balantza positiboagoa dela Nafarroa eta Iparraldearentzat, EAEntzat baino.

NEKAZARITZA

- ⇒ Pisu ekonomiko txikia Bizkaian eta Gipuzkoan.
- ⇒ Elikagai-balantza desorekatua.
- ⇒ Pisu handiagoa Nafarroan.
- ⇒ Elikagai-balantza nahiko orekatua.
- ⇒ Garrantzi handiagoa Iparraldean.

Iparraldean, nekazaritzak 5.707 enplegu ditu (enplegu guztien % 4,8), eta jarduera zein ekoizpena mantendu egin dira. Nekazaritza-ustategien % 92k ez du soldatako pertsonarik enplegatzen (2006. urtea).

Nekazaritzako elikagaien alorrean, EAEk eta Nafarroak atzerriarekin dituzten balantzek hobera egin dute 2009an (2008. urtearen aldean); izan ere, EAEko defizita % 8,9 murriztu da, eta Nafarroako superabita % 21,7 hazi da.

Enpleguari dagokionez, poliki-poliki jaitsi egin da. Hala, Hego Euskal Herrian, nekazaritzak 31.400 enplegu zituen 2001. urtean, eta 24.100 enplegu 2009an. Ondorengo urteetan, beheranzko joerak jarraitu du.

Ikus ditzagun, jarraian, Hego Euskal Herriko nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza azpisektoreen alderdi batzuk.

Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza. Hego Euskal Herria

(M euro)

Muga-zergen atala	Eremua	Esportazioak		Inportazioak	
		2008	2009	2008	2009
Animalia bizidunak eta animalia-erresumako produktuak	EAE	204,8	204,7	371,9	331,7
	Nafarroa	70,0	64,2	97,5	80,6
	H. Euskal Herria	274,8	268,9	469,4	412,3
Landare-erresumako produktuak, koipeak eta olioak	EAE	87,1	24,4	203,2	165,9
	Nafarroa	144,2	171,5	125,9	120,5
	H. Euskal Herria	231,3	195,9	329,1	286,4
Elikagai-industriako produktuak	EAE	355,8	336,6	319,6	293,1
	Nafarroa	323,6	301,3	174,0	146,6
	H. Euskal Herria	679,4	637,9	493,6	439,7
Nekazaritzako elikagaien sektorea	EAE	647,7	565,7	894,7	790,7
	Nafarroa	537,8	537,0	397,4	347,7
	H. Euskal Herria	1.185,5	1.102,7	1.292,1	1.138,4
Nekazaritzako elikagaien sektoreak inportazio eta esportazioen osoko bolumenean duen partaidetza (%)	EAE	3,3	3,9	4,5	3,9
	Nafarroa	8,4	9,8	8,0	6,4
	H. Euskal Herria	4,5	5,5	5,2	4,8

Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko Kointura eta Estatistika Buletina. Nafarroako Estatistika Institutua, Aduanen Zuzendaritza Nagusiaren datuak erabiliz.

Nekazaritza

Azpisektorearen bilakaera negatiboa izan da, bai EAErentzat bai eta Nafarroarentzat ere, nahiz eta azken horretan jaitsiera apalagoan izan den. Ondorengo irudian ikus daiteke zer-nolako garrantzia duten produktu batzuek ekoizpenaren bolumenean: bi zerealek (garia eta garagarra), alpapak, tomateak eta ardoak. Gari eta ardoaren ekoizpenak behera egin du, eta tomatearenak gora egin du (landatutako azalera txikiagoa izanda).

Nekazaritzako ekoizpen garrantzitsuenak (m t)

PRODUKTUA	2008	2009	% A 09/08	% EAE/Espainia 2009
ZEREALAK				
. Garia	419,8	324,3	-22,7	6,8
. Garagarra	422,2	430,4	1,9	5,8
. Oloa	113,1	100,0	-11,6	11,0
. Artoa	137,7	128,5	-6,7	3,7
BAZKA-LABOREAK				
. Artoa	167,5	160,0	-4,5	4,3
. Alpapa	357,4	370,0	3,5	3,3
BARAZKIAK				
. Aza	6,0	6,0	-3,2	3,0
. Zainzuria	4,8	5,4	12,5	11,1
. Uraza	23,1	23,4	1,3	2,7
. Tomatea	150,3	190,1	26,5	4,1
. Piperra	22,7	25,4	11,9	2,6
. Orburua	13,8	12,9	-6,5	6,5
. Azalorea	79,2	69,0	-12,9	16,0
. Tipula	20,4	17,6	-13,7	1,4
. Leka	9,9	9,6	-3,0	5,1
. Ilarra	7,1	8,3	16,9	10,0
FRUTA-ARBOLAK				
. Sagardo-sagarra	8,5	6,4	-24,7	6,9
. Mahaiko sagarra	17,9	18,1	1,1	3,6
. Madaria	16,5	15,9	-3,6	3,7
. Mertzika	17,9	19,8	10,6	2,5
. Arbendola	1,9	2,0	5,3	0,7
ARDOA ETA MOSTOA (m hL)	1.490,2	1.346,6	-9,6	3,3
PATATA	73,4	90,7	23,6	3,7
AZUKRE-ERREMOLATXA	187,8	193,1	2,8	4,6

(*) Estimazioak

Iturria: Ingurumen eta Landa eta Itsas Ingurune Ministerioaren Hileko Buletina. Nafarroako Nekazaritza Koiunturaren Aldizkaria.

Abeltzaintza

Abeltzaintzaren zentsuak behera egin du azken urteotan. Animalia mota bakoitza modu desberdinean banatzen da EAE eta Nafarroaren artean.

Esnearen ekoizpenari dagokionez, azken urteotan egonkortu egin da, 398 milioi litrora iritsita. Haragiaren ekoizpenak izan duen bilakaera aztertzean, hauxe ikus daiteke: jaitsi egin da behi (28.855 t), ardi (4.568 t), ahuntz eta txerrien (50.123 t) haragiaren ekoizpena, eta igo egin da hegaztiena (89.002 t). Hego Euskal Herrian, 177.746 tona abere hil dira guztira.

Animalien zentsua (urte bakoitzeko abendua)					(unitateak)
Eremua	Urtea	Behi-azienda	Ardi-azienda	Ahuntz-azienda	Txerri-azienda
EAE	2005	168.124	354.445	26.694	31.991
	2006	159.548	354.484	28.987	33.712
	2007	158.255	344.288	28.453	31.836
	2008	155.443	333.090	28.641	32.357
	2009	151.801	333.255	27.270	31.166
Nafarroa	2005	117.316	814.602	10.840	545.863
	2006	121.895	786.298	11.890	557.470
	2007	113.069	744.119	12.180	508.589
	2008	111.919	705.332	11.920	547.542
	2009	107.486	625.238	10.417	547.256
Hego Euskal Herria	2005	285.440	1.169.047	37.534	577.854
	2006	281.443	1.140.782	40.877	591.182
	2007	271.324	1.088.407	40.633	540.425
	2008	267.362	1.038.422	40.561	579.899
	2009	259.287	958.493	39.190	578.422

Iturria: Eusko Jaurlaritz. Nafarroako Gobernua.

Basogintza

EAEEn moztutako zuraren bolumenak izandako bilakaera oso esanguratsua izan da. 2007an, 1.068 milioi m³ moztu dira; horietatik, ia % 90 koniferoei dagokie. 2009an, moztutako zuraren bolumena 411.941m³ izan zen, hau da, 2007an baino % 57 gutxiago. Jaitiera horren faktoreetako bat eraikuntza-sektorearen krisia izan da —zuraren sektorea haren hornitzailea da—, baita berarekin zerikusia duten beste sektore batzuen krisia ere (altzarien sektorea, eta abar).

Nekazaritzako jarduerak: balantzea

Euskal Herriko nekazaritzako jardueren dinamikak erritmo eta alderdi desberdinak ditu EAE, Nafarroa eta Ipar Euskal Herriarentzat. Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzaren industrializazioak nagusi izaten jarraitzen badu ere, baditu bere mugak Mendebaldeko gizarte garatuek exijitzen duten garapen iraunkoragatik. Eta problematika horrek Euskal Herrian ere du eragina. Beste alderdi kezagarri bat nekazaritzaren balantza komertzialaren defizita da, bai Espainiako estatuarekin bai atzerriarekin. Biztanleriak gure elikagaiarentzat exijitzen duen kalitateak «label»-en hedapena sustatzen du, baita nekazaritza ekologikoa ere.

Ezin ditugu ahaztu nekazaritzako produktuen prezioak, zeren baxuak izaten batira beti nekazariarentzat. Halaber, gogoan izan behar dugu nekazari txikien ekoizpenak enpresa multinazionalen mende daudela, gero eta neurri handiagoan. Kontuan hartu behar dira, orobat, sektorearen zahartzea eta bertako bizi-baldintzak.

1.2. Industria-sektorea

1.2.1. Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba

Euskal Herriko motor ekonomikoa jarduera industrial da, kontuan hartuta haren pisua aldatu egiten dela eskualde batetik bestera. Gainera, alde batera utzi behar dugu Iparraldearen espezifikotasuna.

Bizkai, Gipuzkoa eta Arabako jarduera industrial xehetasunez aztertzen badugu, ikus dezakegu haren pisu ekonomikoa aberastasun osoaren % 29,4 eta enpleguaren % 25,5 (257.297) izan zela 2007an. 2010. urtean, berriz, euskal aberastasunaren % 24,4 izan zen, 224.327 lanposturekin. Krisi ekonomikoaren eragina nabaria da azken urteotan.

Sektoreen arabera desagregatuz, hauxe ikus dezakegu: 2009an, *Metalurgia eta gai metalikoak*, *Makineria* eta *Garraio-materiala* sektoreek beren garrantzia mantentzen dute gure ekonomian, bai ekoizpen aldetik bai eta enplegu aldetik ere.

Metalurgia eta gai metalikoen sektorea —jarduera hauek biltzen ditu: siderurgia eta burdinaz besteko metalurgia, galdaketak, eraikuntza metalikoa, forjaketa eta estanpazioa, ingeniaritza mekanikoa eta gai metalikoak— balio erantsi gordinaren % 26,9 da (BEG, aberastasun industrial), enpleguaren % 34,9, inbertsioaren % 21 eta salmenta garbien % 25,6.

Makineria sektorea —hemen sartzen dira makina-erreminta, etxeko tresnak eta bestelako makineria— BEG industrialaren % 9,2 da, enpleguaren % 9,9, inbertsioaren % 8,2 eta salmenta garbien % 7,8.

Garraio-materiala —ibilgailuak eta haien osagaiak, itsas eraikuntza eta beste garraio-material batzuk— BEG industrialaren % 8,7 da, enpleguaren % 8,1, inbertsioaren % 45,7 eta salmenta garbien % 9,6.

Eduki teknologikoari dagokionez, ELGEren (OCDE) sailkapenaren arabera —hori da EUSTATEk erabiltzen duen sailkapena—, **maila teknologiko altuak** produktu hauek hartzen ditu barne: aireontziak eta espazio-ontziak, produktu farmazeutikoak, bulegoko makineria eta ekipo informatikoa, material elektronikoa, ekipo eta tresna mediko-kirurgikoak eta doitasun-ekipo eta -tresnak.

Maila teknologiko ertain-altuan, elementu hauek ditugu: makineria eta ekipo elektrikoa, ibilgailu motordunak, produktu kimikoak —farmazeutikoak izan ezik—, bestelako garraio-materiala, eta makineria eta ekipo mekanikoa; eta **ertain-baxuan** sartzen dira ontziak, kautxuzko produktuak eta materia plastikoak, petrolio finduzko produktuak, burdinazko eta burdinaz besteko produktuak, produktu metalikoak eta produktu mineral ez-metalikoak.

Maila baxuak honako hauek hartzen ditu barne: askotariko manufakturak eta birziklapena, zura, papera eta paperezko produktuak, elikagaiak, edariak eta tabakoak, ehun-produktuak, jantziak, larruzko produktuak eta oinetakoak.

2009. urtean, ondorengo grafikoan ikus daitekeenez —eta EUSTATen datuen arabera—, eduki teknologiko altuko eta altu-ertaineko sektoreek atzera egin dute 2008. urtearen aldean, bai pertsonal aldetik bai eta balio erantsiaren eta salmenten aldetik ere. Esanguratsua da maila teknologiko altuko eta altu-ertaineko jarduerak sortutako aberastasunaren balioa txikiagoa izan dela 2009an 2000. eta 2005. urteetan baino. Eta gauza bera gertatzen da maila teknologiko horietako enpleguarekin.

Hau da, eduki teknologiko altuko eta altu-ertaineko sektoreak dira enplegu gehiago galtzen dutenak eta balio erantsi gutxiago eta negozio-zifra txikiagoa sortzen dutenak.

Euskal industriaren maila teknologikoa (2009)

	Enplegua	BEG (aberastasuna)
Altua	% 3,8	% 3,3
Ertain-altua	% 25,4	% 25,0
Ertain-baxua	% 48,3	% 40,4
Baxua	% 18,6	% 15,2
Sailkatu gabe	% 3,9	% 16,1
GUZTIRA	225337	14.074,8 M euro

EAEko industriaren eduki teknologikoa

	2008	2009	Pisua 2008an	Pisua 2009an	Aldaketa 2008-09
<i>ENPLEGUA (kopurua)</i>					
Guztira	249.230	225.337			-9,6
Maila teknologiko altua eta ertain-altua	71.388	65.825	28,6	29,2	-7,8
Maila teknologiko altua	9.245	8.592	3,7		-7,1
Maila teknologiko ertain-altua	62.143	57.233	24,9		-7,9
Maila teknologiko ertain-baxua eta baxua	168.852	150.677	67,7		-10,8
Maila teknologiko ertain-baxua	123.204	108.867	49,4		-11,6
Maila teknologikoa baxua	45.648	41.810	18,3		-8,4
Sailkatu gabe	8.990	8.835	3,6		-1,7
<i>BEG c.f. (mila euro)</i>					
Guztira	17.658.352	14.074.809			-20,3
Maila teknologiko altua eta ertain-altua	4.771.339	3.976.385	27,0		-16,7
Maila teknologiko altua	565.986	462.130	3,2		-18,3
Maila teknologiko ertain-altua	4.205.353	3.514.255	23,8		-16,4
Maila teknologiko ertain-baxua eta baxua	10.458.145	7.826.355	59,2		-25,2
Maila teknologiko ertain-baxua	8.058.523	5.689.769	45,6		-29,4
Maila teknologiko baxua	2.399.622	2.136.586	13,6		-11,0
Sailkatu gabe	2.428.868	2.272.069	13,8		-6,5
<i>SALMENTAK (mila euro)</i>					
Guztira	65.654.476	49.226.282			-25,0
Maila teknologiko altua eta ertain-altua	17.320.816	13.369.518	26,4	27,2	-22,8
Maila teknologiko altua	1.734.645	1.439.103	2,6	2,9	-17,0
Maila teknologiko ertain-altua	15.586.171	11.930.415	23,7	24,2	-23,5
Maila teknologiko ertain-baxua eta baxua	41.255.235	29.373.668	62,8	59,7	-28,8
Maila teknologiko ertain-baxua	33.261.434	22.195.462	50,7	45,1	-33,3
Maila teknologiko baxua	7.993.801	7.178.206	12,2	14,6	-10,2
Sailkatu gabe	7.078.425	6.483.096	10,8	13,2	-8,4
<i>PRODUKTIBITATEA</i>					
Guztira	nd	-11,8			

Iturria: EUSTAT. Industriari buruzko Estatistika

2009. urteari dagokionez, aipatzekoa da eduki teknologiko altuko eta ertain-altuko sektoreek sortu zuten aberastasuna euskal aberastasun industrialaren % 29 izan zela, eta eduki teknologiko ertain-baxuko eta baxuko jarduerak sortutakoa, aberastasun industrialaren % 55,6.

Baditugu zenbait sektore, hala nola siderometalurgikoa (pisu ekonomiko esanguratsurekin), maila teknologiko ertain-baxuko jardueren eremukoa izateaz gain intentsiboa ere badena energia-kontsumoan. Euskal industriaren % 50ek baino gehiagok energia-kontsumo intentsiboa du, eta horrek beste urrakortasun-faktore bat gehitzen dio gure industriari; urrakortasun hori, gainera, areagotu egiten du petrolioaren prezioaren igozte-joera.

Beste alde batetik, enpresen inbertsioaren dinamika ere kezagarria da. 1993. eta 2008. urteen bitartean, ekonomiaren oparoaldia bete-betean zegoenean, euskal kapitalak 51.000 milioi euro inbertitu zituen kanpoan; Euskal Herrira iritsi ziren inbertsioak, berriz, 12.000 milioi euro izan ziren soilik. Funtsean, euskal kapitalari ez zaio interesatzen euskal lurraldean inbertitzea. 2010 eta 2011ko datuek joera hori berretsi zuten. Beraz, hori beste urrakortasun-faktore bat da. Egia da industria asko internazionalizatuta daudela, eta, hortaz, filialetan inbertitu behar dela; aldi berean, baina, euskal kapitala da enpresak atzerrian sortzen dituenak, han errentagarriagoak direlako.

Lisboako estrategiak planteatzen zuen EBko estatuek BPGaren % 3 bideratuko zutela I+G+b-ra, 2010. urtean.

EAE, 2004an, BPGaren % 1,43 gastatzen zen alor horretan, eta 2010ean BPGaren % 1,85era iritsi zen (sektore industrialaren pisu ekonomikoa % 29,4 izanik), Europar Batasunaren batez bestekoaren antzekoa (% 1,9) baina garatutako ekonomiek —alemanak, frantziarrak edo suediarrek, adibidez— lortutako mailatik urrun.

Beste alde batetik, egokiagoa da Europako eskualde homologoen dinamikarekin alderatzea. Berrikuntzaren alorrean, EAE 55. postuan dago, 203 europar eskualderen artean (2006. urtea).

Halaber, enpresa berritzaileen ehunekoa txikia da EB-27ren batez bestekoaren aldean. Prozesu eta produktuen berrikuntzei espezifikoki dagokienez, INEren arabera, euskal enpresen % 19,8 berritzaileak izan ziren 2007-2009 sasoian. Ehuneko hori nahiko urrun dago Alemania, Irlanda, Austria eta beste herrialde batzuen zifretatik.

Antzeko azterketa egin daiteke patenteen kasuan. Izan ere, Hego Euskal Herriko patenteen indizea —patenteak milioi biztanleko— nahiko urrun dago, oraindik ere, gurearen moduko europar eskualdeek lortutako balioetatik.


Europako Berrikuntza Indizea

Europako Berrikuntza Indizeak (SII, ingelesezko siglak) hauxe neurtzen du: herrialde bakoitzeko ekonomiak berritzatzeko duen gaitasuna eta garatzen dituen berrikuntza-jarduerak.

SIk 25 adierazle erabiltzen ditu zenbait dimentsioren pisua islatzeko, indize konposatu batean. EUSTATEk prestatutako datuen arabera, EAE 13. postuan dago EB osoan. EAEk Europako batez bestekoaren aldean duen atzerapena esanguratsua da, zeren EAE europar eskualde industrializatu bat baita, eta beraren errenta-maila Europako batez bestekoa baino altuagoa da. Gainera, Europako beste eskualde batzuekin alderatuz gero, atzerapena are handiagoa izango litzateke.

Ondorengo urteetan, euskal SSik ahula izaten jarraitu du. 2009ko SSIr dagokionez, ikus dezakegu EAEn balioa 0,51 dela, Irlanda, Belgika, Austria eta Danimarkakoa baino txikiagoa.

EUROPAKO BERRIKUNTZA INDIZEA (SI), EAE eta EB, 27



Iturria: EUSTAT.

Datu estruktural horiez gain, krisi ekonomikoak gure ekoizpen industrialahuldu du 2008az geroztik. Hala, 2009an, EAEko krisi ekonomikoak eragin nabaria izan zuen industrian, zeren BPG industrialah % 9,5 jaitsi baitzen.

Industria Ekoizpenaren Indizeak (IPI) izandako bilakaerari begiratzuz gero, ikus dezakegu adierazle horrek jaitsiera hauek izan zituela: % 25,3, bitarteko ondasunen azpisektorean; % 25,1, ekipo-ondasunen azpisektorean; eta % 12,2 kontsumo-ondasunen azpisektorean.

Beste alde batetik, esportazioek ere jaitsiera nabarmena izan zuten urte horretan: % 28, gutxi gorabehera. Esportazioek nolabaiteko hobekuntza izan badute ere, ekonomiaren motelaldia berretsi egin da 2012an, eta aurreikustekoa da horrela jarraituko duela 2013an ere.

Zenbait analistak (M. Navarro eta beste batzuk, 2008) europar eskualdeetako berrikuntzaren tipologia bat egin dute, 7 berrikuntza-sistema sailkatuz. Autore horien arabera, EAE G3 taldean sartzen da: «Emaiza ekonomiko eta teknologiko ertainak dituzten eskualdeak» (45 eskualde, Italia, Austria, Irlanda eta beste herrialde batzuetakoak); haren erreferentia G4 taldea da: «Eskualde aurreratuak, nolabaiteko espezializazio industrialak dutenak» (33 eskualde, Alemania, Erresuma Batua, Italia, Holanda eta beste herrialde batzuetakoak).

Horrenbestez, G3ko eskualdeei eta EAeri komeni zaie «ezagutza txertatzeko eta sortzeko gaitasuna handitzea» eta, halaber, «berrikuntzaren eskualde-sistema modu harmoniatzuan egituratzea eta bere eragileen arteko harremanen kalitatea eta kantitatea areagotzea». Erreferente gisa, Baden-Württemberg eskualde alemana proposatzen da; berau G4 taldean dago kokatuta eta espezializazio sektoriala EAEkoaren antzekoa du, baina haren garapen teknologikoaren, produktibitatearen eta per capita errentaren maila askoz ere handiagoa da.

Lehenengo azterketak baliagarriak dira Lehiakortasun Planean eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean (PCTI 2010) garatzen diren konbergentzia-estrategiak kuestionatzeko; izan ere, ez da hobekuntza kualitatibo edo kuantitatiborik lortu gure berrikuntza-sistemaren baldintza, baliabide eta pertsonen dagokionez, ezta horrek jardura industrialean duen eraginari dagokionez ere.

Garbi dago, nonbait, azken urteotako esperientziak ez direla asetzeko modukoak. Datu gisa, aipatzekoa da 2011ko azken hiruhilekoan 9.900 enplegu industrial suntsitu zirela EAEn, eta Arabako enpresarien ordezkariak diote, 2012. urteari begira, enpresen % 50ek baino gehiagok 2001ean baino ekoizpen-jardura motelagoa izango dutela eta langile gehiago kaleratuko dituztela.

1.2.2. Nafarroa

Nafarroaren kasuan, aberastasun industrialaren pisua aberastasun osoaren % 31 da, eta enplegu osoaren % 28. 2010ean, Nafarroako industriak 62.760 langile zituen (6.500 lanpostu galdu zituen 2007-2010 sasoiaren) eta 2009an 3.7070 M euroko aberastasuna sortu zuen. Aipatzekoa da Nafarroako enpresen % 90 baino gehiago ETEak direla (enpresa txiki eta ertainak). Badira enpresa ertainak eta handiak (horietako 20k gehienbat atzerriko kapitalaren partaidetza dute eta industriaren enplegu errealearen % 25 biltzen dute). Atzerriko kapitala ehun enpresatan baino gehiagotan sartu da, eta «garraio-materiala» eta «nekazaritzako elikagaiak» adarretan kontzentratzen da batik bat; dena dela, badira atzerriko enpresak beste adar batzuetan ere, hala nola «kautxua eta plastikoa», «metalurgia», «makineria» eta «kimika» adarretan. 2010ean, atzerriko inbertsioa 41,7 milioi euro izan ziren.

Manufaktura-sektore garrantzitsuak hauexek dira: industria metalikoak, elikagaiak eta garraio-materiala. Ugari dira maila teknologiko baxu eta ertainekoak eta eskari maila ertainekoak.

Berrikuntza-politikari dagokionez, 2010. urtean, aipatzekoa da I+G+b-ra zuzendutako baliabideen bolumena Nafarroako BPGaren % 97 izan zela; ehuneko hori

EAEkoaren antzekoa da, baina patenteen indizea (patente kopurua milioi biztanleko) hobe da Nafarroan EAEn baino.

Beste alde batetik, krisi ekonomikoa larriagotu egin da Nafarroan; izan ere, 2011. urtean, enpresen itxierak eta Enplegua Erregulatzeko Espedienteen (EEE) kopuru handiak nabarmenki igoarazi dute bertako langabezia-tasa, EAEkoaren gainetik jartzearaino; hala, Nafarroako langabezia-tasa orokorra % 12 ingurukoa da, eta gazteena % 44ra iritsi da. Datu horiek are okerragoak dira 2012an: langabezia-tasa % 16 da, EAEkoa baino handiagoa —berau % 15 baita—.

1.2.3. Iparraldea

Industriak 12.673 enplegu ditu (Iparraldeko lanpostu guztien % 10,6). Enpresen % 79k 10 soldatako langile baino gutxiago dituzte. 37 enpresak 50 soldatako langile baino gehiago dituzte, eta guztien artean 6.425 soldatako langile dituzte. Horien artetik, 4 enpresak 250 langile baino gehiago dituzte. Eraikuntza-sektoreak 9.624 enplegu ditu (enplegu guztien % 8,1). Eskariak bere horretan iraun du sektore horretan, bai lehenengo etxebizitzentzat eta bai oporretako etxebizitzentzat.

Enpresa industrialen alorrean, bi bloke bereizten dira. Lehenengo blokeak sektore aeronautikoa / metalgintza / ekipo mekanikoen sektoreak biltzen ditu (enplegu industrialaren % 35); beste blokea, berriz, nekazaritzako elikagaien sektoreaz osatuta dago (enpleguen % 21).

Lehenengo blokeari dagokionez, aeronautikaren azpikontratak (horien artean, Dassault da enplegu-bolumen handiena duena Iparraldean, 991 enplegurekin) mantendu egin dira, baina beheranzko joerarekin (2004az geroztik). Azpikontratazio-sektorearen parte handi bat fabrikazio mekanikoaren eta erreminten fabrikazioaren enpresez osatuta dago (% 50). Bada aeronautikaren klusterra, «Aerospace Valley» deritzana, Bordele-Tolosa korridorearen inguruan; bertan parte hartzen dute Dassaultek, beste hamahiru enpresa-taldek eta ETE industrial multzo batek. Elkarren artean, bazkidetza-harremanak eratu dituzte.

Bestalde, Iparraldeko azpisektore honek eskaintzen duen espezializazio mekanikoa ez dagokie teknologia-maila handiko hornitzaile espezializatuei, eta horrek oztopatzen du enpresa horien espezializazio-mailaren hobekuntza, enpresa erabiltzaile handietako teknikariekin dagoen lankidetzan baitan. Horren eraginez, are zailagoa da aldatetara egokitzea eta adar produktiboaren dibertsifikazioa handitzea.

France Telecomen pribatizazioaren kasuan ere, sektoreko hornikuntzan diharduten enpresen urrakortasuna larriagotu egin da —enpresa horietako batzuk tokiko enpresak dira—. Horregatik, esan daiteke berrikuntza eta aldaketa teknologikoa enpresa handietara soilik iritsi dela, bai sektore aeronautikoan eta beraren ondokoetan, eta bai nekazaritzako elikagaien sektorean. Horrez gain, bada berrikuntza azpisektore jakin batzuetan, hala nola defentsa, medikuntza eta informatikan.

Aipatzekoa da, halaber, azken urteotan gora egin duela surfarekin eta kirol-arroparekin zerikusia duten enpresen garapenak. Hala, 2008an, 400 enpresa inguru zeuden alor horretan, 1,2 milioi euroko salmenta globalarekin.

Edonola ere, Iparraldeko jarduera industrialahula da eta arazo nabariak ditu bere etorkizunari aurre egiteko. Ikerkuntza unibertsitatearen erakundeetan edo gisa berekoetan gauzatzen da, edo estatuaren mende dauden ikerkuntza-erakundeetan. Enpresen % 57k 5 soldatiko langile baino gutxiago dituzte, eta oso urrun daude edozein jarduera berritzailetatik. Errealitate hori gorabehera, eta ikerkuntza eta garapenera zuzendutako baliabideen urritasuna gorabehera, 219 pertsonak I+G jardueretan lan egiten dute, askotariko erakundeetan.

1.3. Zerbitzuen sektorea

Zerbitzuen makrosektorearen barnean, komenigarria da bereizkuntza batzuk egitea: alde batetik, merkatuko zerbitzuak (izaera pribatukoak) eta merkatukoak ez diren zerbitzuak (izaera publikokoak), hala nola irakaskuntza publikoa eta osasungintza publikoa, eta abar. Beste alde batetik, azpisektore batzuk ere bereizi behar dira, hala nola: «Banaketa komertziala eta konponketa», «garraioak eta komunikazioak», «finantza-zerbitzuak», «banaketa komertziala», «enpresentzako zerbitzuak» eta «turismoa».

ZERBITZUAK

- ⇒ Barnean sartzen dira zerbitzu publikoak eta pribatuak; merkatukoak direnak eta merkatuz kanpokoak
- ⇒ Hezkuntza, osasungintza
- ⇒ Banaketa komertziala eta konponketa
- ⇒ Garraioak eta komunikazioak
- ⇒ Turismoa
- ⇒ Finantza-sektorea

Garrantzi berezia du euskal finantza-sektoreak, batez ere aurrezki-kutxek. Aipatzekoa da antzinako Caja Navarrak ia 10.000 milioi euroko gordailuak zituela, eta lehengo BBK, KUTXA eta VITAL KUTXAren gordailuen bolumena 34.816 milioi eurora iristen zela (2010). Euskal kutxen gordailuak euskal lurraldean operatzen duten bankuek metatutakoak baino handiagoak ziren.

EAEEn, zerbitzuak aberastasun globalaren % 60,2ra iritsi ziren 2010ean, hau da, 39.608 milioi eurora, eta sektoreak 646.464 enplegu zituen. Pisu ekonomiko handiena duten azpisektoreak hauexek dira: «enpresentzako zerbitzuak» (zerbitzu guztien % 27,2), «merkataritza eta konponketa» (% 17,5), «garraioa eta komunikazioak» (% 10,8), «banku-jarduera eta aseguruak» (% 10,3), «osasungintza eta gizarte-zerbitzuak» (% 8,7) eta «herri-administrazioa» (% 8,1), besteak beste.

Nafarroari dagokionez, zerbitzuen sektorea bertan sortutako aberastasunaren % 56 da, eta enpleguaren % 62,4 biltzen du. Azken urteotan, gora egin dute «enpresentzako zerbitzuak», «zerbitzu publikoak», «merkataritza» eta «ostalaritza» azpisektoreek.

Iparraldeaz denaz bezainbatean, merkataritzak bere indarrari eutsi dio (2007. urtean): 4.582 establezimendu eta 19.368 enplegu (enplegu guztien % 16,2). Halaber, zerbitzuak ere sendo errotuta daude, 15.212 establezimendurekin eta 64.269 enplegurekin (enplegu guztien % 53,8). Atal honetan sartzen dira zerbitzu pertsonalak, enpresentzako zerbitzuak, hezkuntza, osasungintza, gizarte-ekintza, finantzak, herri-administrazioa eta garraioa.

2. ESPAINIAKO ETA FRANTZIAKO EKONOMIAREN KRISIAREN EZAUGARRIAK

Espainiako ekonomiaren kasuan, bai balantza komertzialak (ondasunen esportazioak-inportazioak) bai kontu korronteko balantzak (ondasunez gain, hor sartzen dira zerbitzuak, errentak eta transferentziak ere) urte batzuk zeramatzatzen defizitarekin. Krisiaren eraginez, ekoizpen-jarduera ahuldu egin zen, batez ere inportazioak; horren eraginez, defizit komertziala aurreko urteetan baino txikiagoa izan zen, 50.000 milioi eurora jaitsiz 2010ean.

Eraikuntza-sektorearen krisiak eta espainiar bankuen krisiak zenbait ondorio ekarri zituzten. Alde batetik, Espainiako estatuko langabezia-tasa % 24raino igo zen 2012an; bestetik, zor pribatua (familien zorra eta enpresen zorra biltzen ditu) 2,1 bilioi eurotik gorakoa izan zen 2011n. Halaber, zor publikoa ere haziz joan da, eta 720.000 milioi eurora iritsiko da 2012ko amaieran. Defizit publikoari dagokionez, espainiar BPGaren % 8tik gorakoa izan zen 2011ko amaieran (80.000 milioi euro baino gehiago).

Datu orokor horiek ikusita, esan daiteke espainiar ekonomia ahul dagoela eta kaudimen-arazoak izango dituela etorkizunean. Aipatutakoaz gain, badira kontuan hartu behar diren beste datu batzuk, alegia, sektore publikoaren tamaina txiki samarra dela, PBGaren % 46 baita (Frantzia, berriz, BPGaren % 56, eta Italia edo Ingalaterraren kasuan BPGaren % 51), eta mugaeguneratutako zorra, 2012tik 2015era bitartean ordaindu beharrekoa, batez beste % 3tik jaitsiko ez diren interestasekin. Hala, faktore horiek ez dute erraztuko potentzial ekonomikoaren garapena, eta, hortaz, hobera egiteko aukerak gutxienez 5 urtez atzeratuko dira espainiar ekonomiarentzat.

Frantziako ekonomiaren kasuan, krisiak eragina izan du hor ere, baina espainiar kasuan baino maila apalagoan. 2010-2012 urteetan, langabezia-tasa % 9,9 izan zen, gutxi gorabehera. Barneko merkatua ahul dago eta kanpoko egoera txarra da, balantza komertzialari dagokionez, baina espainiar zifretatik urrun dago. Kontu korronteko balantzari dagokionez, berriz, % 2,5eko defizita izan du 2010ean, barneko eskariaren ahuleziaren eraginez (izan ere, sektore pribatua, familiak eta enpresak zorrak kentzen ari dira). Kredituak lortzeko baldintzak oso murriztaileak dira, bankuetan nagusitu diren zalantzen eraginez, eta enpresen mozkinak behera egin dute, BPGaren % 7,5etik (2010) % 6,7era (2011) pasatuz.

Ekoizpenaren atoniaren adierazle bat da badela nolabaiteko desindustrializazioa (manufakturen enpleguak pisua galdu du azken urteotan, eta balio erantsi gutxiago

eta aberastasun gutxiago sortu ditu 2010-2011). Horren ondorioz, ekoizpen-ahalmena ez da hazi.

3. KRISIAK EUSKAL EHUN SOZIOEKONOMIKOAN DITUEN ONDORIOAK

Europar, frantziar eta espainiar krisiaren oraingo egoera ikusita, garbi dago horrek badituela ondorioak Euskal Herrian. Alde batetik, euskal ekonomiaren alderdi urrakorrak adierazi dira. Horri gehitzen badizkiogu Bruselan, Madrilan, Parisen eta Gasteiz eta Iruñeko gobernu autonomikoetan nagusi den ikuspegi neoliberalaren ondorioak, honela laburbildu ditzakegu euskal ekoizpen-ehunak pairatuko dituen inpaktu negatiboenak:

- Euskal nekazaritza-sektorearen ahultasun etengabea, batez ere EAEn, baina baita Nafarroan eta Iparraldean ere. Europako NP Bren (Nekazaritza Politika Bateratua) jarraibideak ez dira onuragarriak gure nekazaritzaren garapenerako. Arrantza-sektorearen ahulezia.
- Euskal ekoizpen industrialaren geldialdia. Inbertsio pribatu eta publiko ahula euskal ehun industrialean, bai Iparraldean bai eta Hego Euskal Herrian ere. Esportazioa bilatzen da krisitik «irteteko» mekanismo bezala, baina ekoizpen-eredua funtsean aldatu gabe: beraren oinarria maila teknologiko baxuko eta ertain-baxuko ekoizpenak dira, lehiakortasuna prezioen bidetik bultzatzen dutenak (soldatak murriztu nahirik) barneko merkatua garatu gabe, kontsumoaren ahuleziaren eraginez. Sintomatikoa da, alde horretatik, euskal esportazioek 2011n izan duten igoera txikiak «kointziditu» duela EEEn igoerarekin eta soldaten izozketarekin. Esanguratsua da, halaber, euskal enpresariak eta arduradun politikoek argi eta garbi esan dutela enplegu industrialak murriztu egingo dela 2012an (industriaren geldialdiak 2013an jarraituko du).
- Eraikuntza-azpisektorean, Hego Euskal Herrian, geldialdiak etxebizitzaren atalean iraungo du, baina obra publikoaren eskaintzari eusten zaio (AHT...).
- Zerbitzuen sektorean, banaketa komertzialaren azpisektorean, txikizkako saltoki asko itxi dira, eta supermerkatu eta hipermerkatuen kate handiak indartu egin dira. Finantzen azpisektorean, euskal lurraldean operatzen duten bankuak sendotu egin dira, eta euskal kutxek banku bihurtzeko bidea hartu dute, finantza-hazkundera bilatuz.
- Gastu publikoa murrizteko politika aplikatu da, batez ere gizarte-arloetan, bai Eusko Jaurlaritzaren aldetik bai eta Nafarroako Gobernuaren aldetik ere.

Kontuan izan behar dugu oraingo krisiak beste 5-6 urtez iraun dezakeela (lau daramatzagu honezkero), eta, hortaz, gure ekoizpen-ehuna are gehiago ahulduko dela. Per capita errentak behera egingo du, eta gehiago urrunduko gara gurearen moduko europar eskualde industrialetatik.

Planteatutako erronka da gure ekoizpen-eredua aldatuz joatea, desberdintasun sozialak murriztea eta oraingo ongizate-mailari eustea.

Euskal estrategia: soberania ekonomiko eta politikoa

Soberania ekonomiko eta politikoa behar dugu bestelako politika ekonomiko bat eta ekonomia komunitario integratuago bat egituratu ahal izateko. Sektore bakoitzarentzat lehen aipatu ditugun ondorio negatiboez gain, azpimarratzekoa da sare instituzionalak sortzen duen ondorio negatibo estrukturala.

Defizit estrukturalak eskumenen eredian daude txertatuta, halako moldez non plangintza ekonomikoa eragozten baitu, bere zentzu zabalenean, baita politika laboral eta sozialen arauzko egituraketa ere. Horri lotuta, lurralde-zatiketak nabarmenki oztopatzen ditu lurraldearen eta euskal ekonomiaren plangintza integratuaren aukerak, baita Euskal Herriko lurraldeek orokorrean eskain litzaketan sinergia positiboak aprobetxatzeko aukera ere.

Alde horretatik, Espainiako zein Frantziako gobernuek hartutako neurriak oztopoa dira guretzat, gure soberaniaren bidean aurrera egiteko; oztopoa dira, halaber, oraingo egoerari aurre egiteko beharrezkoak diren politiken inguruan erabakitzeak. Horri dagokionez, konstituzioaren erreformen bidez edo oinarritzko legeak aldatzearen bidez oraingo eskumen-esparruan egindako murrizketak esandakoaren froga garbiak dira.

Alor sozioekonomikoan, komenigarria da proposamenak planteatzea, bai garapen ekonomikoaren ereduari dagokionez bai Euskal Estatuaren eraikuntzaren ikuspuntutik epe labur-ertainera hartu beharko liratekeen neurriei dagokienez.

4. GARAPEN-EREDU ENDOGENO ETA IRAUNKORRA. HARTU BEHARREKO NEURRIAK

Garapen endogeno eta iraunkorra

Lurralde baten eta bertako biztanleriaren barne-gaitasunak bultzatu nahi dituen garapen-eredu bat da, ekoizpen- eta kontsumo-ehuna (kate interdependenteak) sortzearen laguntzaz. Haren asmoa da ekoizpen soziala handitzea, desberdintasunak zuzentzea eta iraunkortasun ekologikoa bilatzea.

Garapen endogenoa paraleloa da garapen instituzionalarekin, erabakiak hartzeko gaitasun politikoarekin eta nazioarteko integrazioarekin. Euskal Herriaren kasuan, ekonomia ireki bat denez, oso garrantzitsua da ekoizpen-potentzialtasun eta -gaitasunen garapena, garapen ekonomiko egituratu eta orekatu baten esparruan.

Garapen endogenoaren baitan, herritarren, lurraldearen eta estatuaren arteko lotura dimentsio batzuen bidez itxuratzen da:

- Ekoizpen-dimentsioa, ondasun eta zerbitzuen sorreratik ondorioztatua.
- Berrikuntza- eta hezkuntza-dimentsioa, ezagutzaren sorrerak eta jakintzaren transmisioak berez betetzen duten zereginetik ondorioztatua.
- Gizarte-dimentsioa, gizarteko kideen arteko harremanetatik ondorioztatzen dena.

- Dimentsio instituzionala, gizarteko kideen arteko harreman jakin batzuk sistematizatzeko beharretik ondorioztatua.
- Dimentsio politikoa, soberania erabiltzeari lotua.

Horrenbestez, garapen endogenoak baditu inplikazio ekonomiko, instituzional, kultural, politiko eta sozialak. Ikuspegi horretatik, kontuan hartu behar da herritarrek parte hartu behar dutela komunitatearen zereginetan eta gizarte-eraikuntzan. Alde horretatik, badira garapen endogenoan kontuan hartu eta uztartu behar diren bi beharrizan: parte-hartze soziala eta behetik abiatutako plangintza.

Egoera ekonomikoaren kontrol politikoa lortzeko, izaera instituzionaleko tresna propioak behar ditugu, horren bidez bermatzeko berton hartzen diren erabakiak gure benetako beharrei erantzuten dietela, eta ez beste interes batzuei. Soberania nazionala funtsezko indarra izango litzateke gure ekonomiaren garapenerako, Europako erabakietan ahots propioa izanik, eta gure beharretara gehiago zuzendu eta egokitzen den euskal gizarte-eredu bat eraikitzeke gaitasunarekin.

Ikuspegi horretatik begiraturaz, ikus ditzagun orain Euskal Herriari buruzko kontsiderazio batzuk.

4.1. Nekazaritza-sektorea

Euskal nekazaritza soberanoa garapen iraunkorrean inspiratu behar da, helburu hauek bilatuz:

- Kalitatezko nekazaritza-elikagaiak ekoiztea, herritarren elikadura-hornikuntza bermatzeko behar den kantitatean. Elikagai-balantza hobetzea.
- Ingurumenarekiko orekari eustea eta ingurune naturala kontserbatzea. Lurraldearen kudeaketa egokia.
- Nekazariak eta abeltzainak landa-lurraldean mantentzea, hiriguneetako biztanleek dituzten errenta ekonomiko eta bizi-baldintza berdintsuekin.

Nekazaritzako elikagaien transformaziorako eredu egokiak sustatzea, ekoizleen eskuetan dauden industria txiki eta dibertsifikatuak eta lurralde osoan banatutako zerbitzu-enpresak oinarritzat hartuta, merkaturatze-zirkuitu laburrak sustatuz, ekoizleek ahalik eta balio erantsi gehien gorde dezaten.

Nekazaritza iraunkorreko eredu bat bultzatu behar da, ustiapen familiarreko ereduari eta ustiapen kooperatibo edo elkartuko ereduari lotuta, nekazari txiki eta ertainen aldeko nekazaritza-politikak egituraturaz; politika horiek haien gizarte-eskubideak aitortu behar dituzte eta gainerako herritarren eskubideekin parekatu. Halaber, nekazaritza iraunkorra sustatu ahal izateko, ingurumena eta natura babesten dituzten metodoei buruzko prestakuntza eman behar zaie nekazariei.

Merkatu-askatasunaren printzipioa garapen iraunkorraren printzipioaren men-de egon behar da. Europako Nekazaritza Politika Bateratuak (NPB) koherentea izan behar du elikadura-soberaniaren eta garapen iraunkorraren printzipioekin. Nekazaritzaren alorreko ikerkuntzak eta garapen teknologikoak gizartearen eta

ingurumenaren ikuspuntutik iraunkorrak diren nekazaritza motak bultzatu behar dituzte.

4.2. Industria-sektorea

Euskal Herriko ehun industrialak egituratzea

Industrien arteko «sare» harremanak bultzatzea, ekoizpen-fluxuen koherentzia eta dentsitatea handituz, izaera «kooperatiboagoa» duten ekoizpen-harremanak handitzeaz batera. Eta dinamika horrekin badu zerikusia beste eragile batzuen jardunak, hala nola instituzioenak (udalak, aldundiak, Eusko Jaurlaritzako eta Nafarroako Gobernuako sailak), gizarte-indarrenak (sindikatuak eta patronala) eta beste erakunde batzuenak (unibertsitatea, zentro teknologikoak eta prestakuntza-sistema).

Era horretan, enpresa txiki eta ertain askoren garapena eta modernizazioa bultzatuko lirateke. Adibidez, industria «helduak», hala nola siderometalurgiaren azpisektore batzuk, garapen zientifiko-teknologiko berrietara egokitzen direnak.

Beste alde batetik, badira garapen ekonomiko iraunkorra bermatzen duten jarduera batzuk, hala nola makina-erremintaren sektorea edo matrizegintza edo trokelgintza. Ugari dira azpisektore horien inguruan mugitzen diren enpresak, sortzen duten efektu indusituaren eraginez; nolabaiteko merkatu-kuotarekin, esportazioek parte garrantzitsua dute jarduera horietan, haien enplegu-maila altua da eta fakturazioak ere neurri handikoak dira.

Dena dela, komeni da beste faktore batzuk ere kontuan hartzea:

- Euskal ekoizpen-ehunean nagusi den maila teknologikoa baxua edo ertain-baxua da; horren eraginez, azpisektore horietako enpresak prezioen bidez soilik lehiatzen dira, batez ere soldata txikiko herrialdeetatik datozen ekoizpenekin.
- Euskal industria intentsiboa da energia-kontsumoaren aldetik; euskal ekoizpen industrialaren % 50 —gutxienez— oso intentsiboa da energia-kontsumoaren aldetik.
- Azpisektore jakin batzuek —siderometalurgia, papergintza, zementua, besteak beste— kutsagarri izaten jarraitzen dute, eta hori eragozpen handia da bilatzen dugun garapen-eredurako.

Lehen esandakoa ikusita, ekoizpenaren dibertsifikazioa areagotu behar da, eta horretarako ez da aski manufaktura-azpisektore batzuk birplanteatzea; izan ere, horrez gain manufaktura klasikoetatik kanpoko ekoizpen-jarduera batzuk bultzatu behar dira, bai nanoteknologia, bioteknologia eta gisa bereko azpisektoreetan eta bai «enpresentzako zerbitzu aurreratu»en jardueren familian (ingeniaritzak, aholkularitza-etxeak, eta abar).

Politika industrial aktiboa bultzatzea

Sektore batzuetan, beharrezkoa da ekimen publiko estrategiko bat abiatzea, eta, horri lotuta, esku-hartze estrategiko hori indartzen duten neurri osagarriak ere bai. Kapital publiko eta pribatuak egituratu behar dira, enpresa-estrategia pribatu eta publikoak elkarren artean osatzeko xedez.

Horrek sektore tradizional batzuk ukitzen ditu, hala nola siderometalurgia eta ontzigintza, baina kontuan hartu behar dira eduki teknologiko handiko sektore berriak eta gorantz doazen merkatuak ere bai (aeronautika, biomedikuntza, nanoteknologiak, eta abar). Parte-hartze publiko horrek zenbait forma har ditzake: enpresen akzio gehienen edo zati handi baten jabetza (gutxienez % 30), horren bidez enpresa-estrategia pribatuak baldintzatzeko, epe luzerako garapen industrialak aldeztuz, euskal enpresen internazionalizazio-dinamika kontuan hartuta (Mondragon Korporazioaren kasuan bezala).

Aurrekoagatik guztiagatik, beharrezkoa da enpresa industrialak alor hauetan garatzea: bioindustrian (ingeniaritza genetiko, ikerkuntza biomedikoa), energia berriztagarrietan eta «hiri-ingeniaritzan» (erabilgarritasun publikoko elementuak tratatzeko eta banatzeko ekipamenduak: ura, gasa, elektrizitatea, eskolak eta ospitaleak).

Egitura-funtsa

Ikuspegi horretatik, komenigarria da egitura-funts bat sortzea, bestelako euskal ekiozpen-eredu batera pasatzeko bidean laguntzeko.

Funts hori parte-hartze instituzional, ekonomiko eta sindikaletik kudeatu behar da, gardena izan behar da, ez dio inolako oztoporik jarri behar bere jardueren ebaluazioari, eta politika ekonomikoaren plangintza publiko eta sozialaren plan-teamendutik gidatu behar da.

Funts horren bidez, baliabide publikoak optimizatuko lirateke zenbait arlotan: I+G+b-n, Euskal Herriko inbertsio produktibo publikoa sustatzean, kualifikazio profesionalaren hobekuntzan, lan-merkatutik kanpo geratzen ez direla bermatzean bertara iristeko zailtasun handiagoak dituzten kolektiboak, prestakuntza hobetzean eta langabezia-prestazioan. Funts publiko horrek, beraz, instituzioek gauzatzen dituzten programa ugariak koordinatu beharko lituzke.

Funts horren baliabide ekonomikoak finantzaketa-iturri hauetatik etorriko lirateke:

- Espainiako estatuak gugatik kudeatzen dituen berrikuntza-funtsen kudeaketa propioetik.
- Sustapen ekonomiko, berrikuntza eta enplegura zuzendutako europar funtsen zuzeneko kudeaketatik.
- Enpresarien eta langileen kotizazioetatik: enplegu-politika aktibo eta pasiboen kotizazioak, FOGASA...

- Gaur egun I+G+b-n inbertitzen duten erakundeen ekarpenetatik, alor horretan gaur egun dagoen sakabanaketa optimizatzeko xedez.
- Kutxabanken inplikaziotik: euskal garapen ekonomiko eta sozialari laguntzea, kreditua sozializatzearen bidez; eta gizarte-ekintzaren funtsen zati bat helburu horretarako erabili ahal izatea.
- Partaidetza pribatua kontsideratzetik, parametro jakin batzuen arabera.

Euskal enpresen garapen zientifiko-teknologikoa bultzatu behar da. I+Gra zuzendutako euskal gastua gure BPGaren % 2,3-2,5era hurbildu behar da. Antzeko kontsiderazioak egin behar dira «patenteak/miloi biztanle» adierazlea hobetzeari dagokionez.

Euskal berrikuntza-sistemaren erronkak

Jarduerak abiatu behar dira lau eremutan. Lehenengo eremua euskal administrazioei dagokie: berrikuntzari buruzko diagnosiak egitea, finantzaketa publikoa izango lukeen behatoki iraunkor bat garatuz; baliabide publiko gehiago bideratzea I+G+b-ra, eta banaketa hobetzea ikerkuntzan esku hartzen duten eragileen artean: zentro teknologikoak, unibertsitateak, eta abar.

Bigarren eremua ezagutza hornitzen duten erakundeei dagokiena da. Premiazkoa da zentro teknologikoak berrorientatzea, bai ETE klasikoei laguntzeari begira bai eta bioteknologien alorrean sortzen ari diren enpresen eskakizunei begira ere; kontuan hartu behar da, halaber, *nano* produktuen erabilera azpisektore industrial batzuetan. Elkarlan handiagoa behar da zentro teknologikoen eta unibertsitateen artean, zeren zientziak gero eta garrantzi handiagoa baitu ekoizpen-ehunean.

Hirugarren eremua ezagutzen ustiapen-sistemari dagokiona da, eta elementu hauek hartu behar ditu barne: finantza-laguntza ematea enpresen artean hitzartutako I+G+b proiektuei; aktibo finkoetara zuzendutako inbertsioentzako finantza-laguntza, «haustura teknologikoak» gertatzen direnean, edo trakzio-enpresen bilaketa; teknologiaren alorreko aholkularitza-etxeentzako laguntza, baita alerta teknologikoko edo aurreratze-adimeneko zentroentzako ere, Hego Euskal Herrian (adibidez: ZAINTEK Bizkaian); eta prestakuntza etengabea birplanteatzea, berrikuntza-estrategiaren ikuspuntutik.

Laugarren eremuak interfaze-sistema hartzen du barne: berrikuntza-sisteman esku hartzen duten eragileen arteko loturak sustatzen dituzten jardueri laguntzea, finantzaketaren bidez, INNOBASQUEren kasuan bezala, elkarren artean uztartzen diren jarduerak eta efektu sistemikoak bilatuz.

Aipatutako lau ardatzen gaineko ekintza koordinatua emankorra izan daiteke oraingo dualismo industrial gainditzeko, hau da, alde batetik eduki teknologiko baxu eta ertaineko industria teknologikoak (gehienak ETEak dira) eta bestetik teknologia ertain-altuko eta altuko enpresa handi eta txiki batzuk —eta sektore emergenteak— aurrez aurre jartzen dituen dualismoa gainditzeko.

4.3. Zerbitzuen sektorea eta azpiegiturak

Finantza-sektorea

Kutxabank eta Euskal Herriko beste finantza-erakunde batzuek baliabide gehiago bideratu behar dituzte euskal ekoizpen-ehuna indartzera, batez ere ETEak indartzera. Edonola ere, komenigarria da Kutxen eginkizuna garapen endogenoaren ikuspegitik defendatzea, hau da, euskal aberastasun sozial eta produktiboa sustatzearen ikuspegitik.

Badirudi Euskal Banku Publikoaren sorrera (kutxa-koefizientea kudeatzeko gaitasunarekin) ez dela bideragarria epe laburrera; dena dela, nahiz eta banku horrek ezingo lukeen interes-tasen egitura desberdinik sortu —hau da, merkatuko egituratik bereizten den bestelako egitura bat—, esan behar da bidea izan lezakeela euskal kolektiboa iritzi publikoaren aurrean ordezkatzeko, batez ere inbertitzaileen eta finantza-erakundearen aurrean.

Finantzaketa-iturrien bilaketan, batez ere jarduera eta proiektu berritzaile edo emergenteentzat, Europako Inbertsio Bankuak kredituak ematen dizkie Europako eskualdeetako gobernuak, proiektu jakin batzuetarako (energia berriztagarriak, «ekonomia berdea», eta abar).

Merkataritza

«Azalera handi»en azpisektoreak (merkataritza-zentro handiak) izandako hazkundearen aurrean, komenigarria da gure herri eta hirietako saltoki txikien garrantzia aipatzea, bai biztanleentzat betetzen dituzten beharreatatik bai eta toki mailan sortzen dituzten lanpostu eta aberastasunetatik ere. Beste alderdi batzuez gain, aurrezpen nabaria ahalbidetzen dute ibilgailuen gehiegizko erabilerak sortzen dituen ingurumen- eta gizarte-kostuetan.

Ikuspegi horretatik begiratuta, komenigarria da jarraibide batzuk aipatzea:

- Merkataritza gure herri eta hirietan integratzea.
- Udal-merkatuak sustatzea.
- Partaidetzazko merkataritza-politika bultzatzea.
- Udal edo eskualde mailako aholkularitza-zerbitzu bat sortzea, saltoki berriak ireki nahi dituztenentzat.
- Merkatarien elkarteak bultzatzea —merkatariei elkarteak sortzen laguntzea—.
- Pizgarriak eskaintzea euskal produktuen erosketarako. «Euskal Herrian egina» etiketa sortzea.

Kanpo-merkataritzari dagokionez.

Euskal ekonomia irekia denez, eta bere balantza komertziala positiboa izan ohi denez, komenigarria da hobekuntzarako neurriak egituratzea.

- ETEentzako laguntza publiko eta selektiboa, bai finantza, muga-zerga eta sustapenarekin zerikusia duena —besteak beste—, bai eta merkatuei buruzko informazioa ere.
- Kanpo Merkataritzaren Euskal Institutu bat sortzea.
- Gure enpresen atzerriko banaketa-kanal propioak finkatzea, partzuergoen sorrera areagotuz.

Industriarekin lotutako zerbitzuak bultzatzea.

Zerbitzu informatikoak bultzatu behar dira, bai enpresa handientzat bai ETEentzat; halaber, tamaina egokiko aholkularitza, marketin- eta ingeniari-tza-enpresak ere bultzatu behar dira, Europako eta nazioarteko testuinguruak planteatzen dituen erronkei erantzun ahal izateko.

Azpiegiturak

Bada zuzeneko lotura garapen endogenoaren eta lurraldea nazioarteko eremuarekin konektatzen duten sareen artean; zerikusia du, halaber, erabilitako azpiegitura energetikoen motak ere.

Garraioa eta lurraldearen antolamendua

Hego Euskal Herriko lurraldearen egituraketak errepideen eta trenbidearen garraio konbinatua eskatzen du. AHTren oraingo proiektuak areagotu egingo ditu lurralde-desorekak, gune metropolitano handien alde, eta are gehiago hondatuko du ingurunea. Nabarmentzekoak dira, halaber, tren horren eraikuntzaren kostu handia eta proiektuak epe luzera ekarriko duen zorpetzea; izan ere, krisi hau luzea izango dela kontuan hartuta, zorpetze hori hipoteka iraunkorra izango da euskal aurrekontuentzat, eta, hortaz, oso kaltegarria izango da beste jarduera eta behar sozial batzuentzat.

Azpiegiturak hobetzeko proposamenak betekizun hauek hartu behar ditu kontuan:

- Lurraldearen egituraketa, hiriburuak eta bigarren mailako guneak komunikatuz.
- Oraingo sareak ahalik eta gehien aprobetxatzea.
- Ingurumen-inpaktua murriztea.
- Komunikazio-bide handietarako irisgarritasuna, bai estatu mailan bai Europa mailan.
- Inbertsioen arrazionaltasun ekonomikoa.
- Intermodalitatea bultzatzea.

Energia

Gure eredu energetikoa energia-kontsumo intentsiboan oinarritzen da, batez ere industria eta garraioaren kasuan (merkantzien garraioaren % 3 soilik egiten da trenez).

Energia berriztagarriak bultzatu behar dira (kapital publikoarekin), energia aurreztu behar da eta haren eraginkortasuna handitu, gas eta petrolio-deribatuen kontsumoa ahalik eta gehien murriztuz. Beharrezkoa denean, «fracking» bidez lortutako gasen erabilera gaitzetsi behar da, EAEko arduradunek hori aldeztu eta sostengatu arren; izan ere, prozesu horrek gas eta petrolio-baliabideak gordetzen dituzten lurpeko arbel-geruzen haustura hidraulikoa dakar, kutsadura sortuz (akuiferoen kasuan...). Gainera, hortik espero daitekeen balantze energetikoa oso pobrea da (lortzen den energia ez da beraren erauzketarako behar den energia baino askoz ere handiagoa).

Sektore publikoaren esku-hartzea

Sektore publikoa inplikatu egin behar da, estrategia integral baten bitartez, ekoizpen-eredu berri bat itxuratzen hasteko, alegia, oraingo erronkei erantzuten dien, ekoizpenaren eraginkortasuna hobetzen duen eta langileen lan-baldintzak hobetzen dituen ekoizpen-eredu berri bat itxuratzeko. Ondorengo koadroan, jarduera-eremu esanguratsu batzuk aipatzen ditugu, modu eskematikoan.

Sektore publikoaren esku-hartzea

- ⇒ Estatuaren plangintza ekonomikoa.
 - Banku-jarduera publikoa.
 - Politika industrial estrategikoa.
- ⇒ Soberania fiskala:
 - EAEko Kontzertu Ekonomikoa eta Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoa.
 - Espainiar zerga-sistemaren mendetasuna: presio fiskal efektibo globala, estatuko presioaren adinakoa.
 - Kupoa.
 - Kapitalaren aldeko fiskaltasuna. Nork ordaintzen ditu zergak?
 - Zerga-bilketaren jaitziera.
 - Zorpetzea.

Neurriak denboraz eta ondorio sinergikoez egituratzeak bidea emango digu oraingoa baino orekatuagoa eta bidezkoagoa den garapen-eredu sozial eta produktibo endogeno eta iraunkorrera hurbiltzeko.

Euskal Estatuaren eraikuntzaren ikuspegitik, beharrezkoa da gehiengo handien hegemonia soziala finkatzea, esparru soberano horri bideragarritasuna eta sinesgarritasuna emateko. Ondorengo laburpen-koadroan, lurraldez lurralde zehaztu behar diren jardunbide nagusiak azaltzen dira; adierazten da, halaber, nola mailakatzen diren denbora aldetik, lehentasunak epe labur, ertain eta luzera ezarritzeko.

Soberania ekonomikoaren aldeko borroka

- ⇒ Soberaniaren aldeko hegemonia soziala.
- ⇒ Euskal esparru sozioekonomikoaren eraikuntza.
 - Euskal ekoizpen-ehunaren egituraketa.
 - Fiskalitate progresiboa; zerga-iruzurraren aurka.
 - Lan-harremanen euskal esparrua.
 - Gizarte-babesaren euskal sistema.
- ⇒ Gizarte-prekariatatearen aurkako eta gizarte-eskubideen aldeko borroka.
 - Partaidetzazko aurrekontu publikoak.
 - Enplegua sortzea eta banatzea.
 - Etxebizitzarako eskubidea bermatzea.
 - Ama lurraren defentsa: garapen iraunkorra.

BIBLIOGRAFIA

- Borja, A. (2012): "Economía e independencia en Euskal Heria", *Haria*, **30**, Iruñea.
- , (2008): "Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación 2010. Una visión crítica", in *El País Vasco en sus encrucijadas*, R. Zallo (koor.), Ed. Tarttalo, Donostia, 345-359.
- , (2009): "Claves de la política industrial española y del sistema de innovación", *El Viejo Topo*, 253, 135-145, Bartzelona.
- EGK (CES) (2010): *Txosten sozioekonomikoa*, Euskadiko EGK, Bilbo, 2011.
- Eustat: zenbait urte.
- Gaindegia: zenbait zenbaki.
- Eusko Jaurilaritza (2008): "Transformación productiva y despegue de innovación", <<http://www.ej-gv.es>>.
- Navarro, M. et al. (2008): "Patrones regionales de innovación en la U.E-25: tipología y recomendaciones de políticas", in *Orkestra Working Papers*.

4. Euskal ekonomia bidegurutzean

Ekai Center, politika publikoen azterketa bultzatu eta gai honen inguruko ezagutza zabaltzea xede duen ikerketa-zentroa

Daukagun eredu ekonomikoa agortzeagatik edota finantza-krisiak zein euroguneko krisialdiak sortutako erronkengatik, Euskal Herriko ekonomia testuinguru-aldaketa baten aurrean dagoela ezin da ukatu. Egon, «bidegurutze» baten aurrean gaude; hain zuzen ere, erabaki egokiak hartu ala ez, horretan datza euskal ekonomiak zernolako egoerari aurre egin beharko dion biharko egunean. Aurrekontu-politikei so eta horiek abiapuntutzat harturik, behar-beharrezkoa da finantza-sistemaren sustraitzea bermatzea; moneta-sistemaren erronkei aurre egitea; garapen endogenoaren ereduaren alde apustu berri bat egitea; industria babestea; eta batez ere, bai gure industriaren hornikuntza teknologikoaren mailan bai gure inguruko eraketa instituzionalarenean, jauzi kualitatibo bat egitea.

The basque economy at the crossroads

The Basque economy is moving towards a change of context, as a result of the obsolescence of the present economic model and the challenges ensuing from the financial crisis in the Eurozone. We are at a real crossroads: the future outlook for the Basque economy depends on whether or not the right decisions will be made now. It is crucial that budgetary policies ensure a solid financial system, deal with the challenges posed by the monetary system, strengthen industry, and above all, achieve a qualitative leap both in the technical equipment of industry and the effectiveness of our public institutions.

1. FINANTZA-KRISIA ETA EUROPAR PROIEKTUAREN KRISIA

Finantza-krisi baten une gorena bizi dugu. Hamarkadatan egosi da eta 2007ko uztailan eztanda egin zuen. Halere, hainbat ekonomia- eta politika-arlotan ez ziren egoeraren aurrean benetan erreakzionatzen hasi 2009 arte.

Egiturazko krisia da, ekonomikoa eta politikoa. Haren hedadurak gaintitu egiten du orain arte ezagutu dugun guztia. Aurrera ateratzen ari diren herrialdeen aurrean Europa eta AEBren behin betiko gainbehera gertatzeko arriskua dago, Mendebaldeko gobernuen ezgaitasun politikoa dela-eta.

Mendebaldeko gainbehera hori ez da garapen-prozesuaren baitako neke-prozesu natural baten ondorio, baizik eta beren buruari kalte egin dioten politika publikoen ondorio zuzena; 70eko hamarkadatik aurrera bereziki deigarriak izan diren politika publiko horiek. Beraz, gure ustez, prozesu itzulgarria izan liteke, baldin eta Europa eta AEB gai badira azkar birbideratzeko beren ekonomia-politikak eta, segur aski, beren egitura-politikoak.

Finantza-krisiak 2007an eztanda egin zuen Mendebaldeko zor eutsiezina metatzearen ondorioz. Gure gobernarietako batzuek esan lezakete, ordura arte, ez zirela ohartu gertatzen ari zenaz. Azken hamarkadetan, NPGaren bilakaera-zifrak larriki distorsionatuta zeudela zorra-hazkundearen arabera. Finantza-hedapenak sistematikoki ezkututzen zituela bi prozesu larri, bai desindustrializazio-prozesua, bai produkzio-ahalmenaren jaitsiera eraginkorraren prozesua. Gure merkataritza-politikak —beren buruari kalte egiten zioten politikak— bakarrik ulertzen zirela kudeaketa-politika distorsionatu baten baitan, presio-talde zehatzen interes partikularren aurrean interes europar eta amerikar orokorrak defendatzeko gai ez ziren politikariek.

Mendebaldearen nagusitasun ekonomiko eta politikoaren galeran, euskal egitura ekonomikoari bereziki eragiten dio Europar Batasuneko egoeraren garapenak. Euroa, Europako moneta-unitatea, kolokan dago. Eta, berarekin batera, hamarkadetan zehar gure ekonomia-politiken kokapenaren erreferentzia-oinarria izan dena.

«Europako integrazio-prozesua»-ren testuinguruak kokatu ditu gure herrialdearen estrategia ekonomikoak eta politikoak etengabe, XX. mendearen parte handi batean.

Zehazki:

Gure industriak lan egin du merkatuan sartzeko testuinguruetan, lehenik merkatu komunean, geroago merkatu bakarrean eta, azkenik, moneta-unitatearen eraketan.

Gure politikariak —joera desberdinetakoak— europar politikan integratuz joan dira eta, duda barik, euskal gatazka politikoa moldatzea eragin du horrek, gutxienez ekonomia-gaiei buruz erabakiak hartzeko arloan.

Baina krisi honek, sorreran finantzarioa, jatorriz politikoa eta ondorioetan ekonomikoa, gauza asko aldatuko du, baita euskal politika ekonomikoetan ere.

Garrantzitsua da gure eragile sozial, ekonomiko eta politikoez zuzen ulertzea zer gertatzen ari den. Zentzu horretan, garrantzitsua da ekiditea nork bere buruari iruzur egitea; eta, hain zuzen ere, horixe gertatzen ari zaie Europako joera ideologiko desberdinei, bai ezkertiarrei, bai eskuindarrei.

Mendebaldean ekonomia-aldagai zehatzak, krisiaren aurreko urteetan, garatu diren moduan garatu badira ez da izan, ez kontzeptu-akatsa, ez «ideologia neoliberala»ren edo «globalizazioaren ideologia»ren akatsen ondorio —hainbat ekonomista tradizionalak, sineskor, horrela argudiatzen badu ere—. Beren buruari kalte egiten dioten politika horien atzean talde-interesak egon dira hamarkada hauetan guztietan. Normalean, aipatu interesak ez dira herrialdeen artekoak, interes-talde zehatzenak baizik; Europa eta AEBren interes orokorren aurkakoak dira talde horiek, eta gure politikariak ez dira gauza izan haiei aurre egiteko. Horrek ere azaltzen du ekonomia-politika okerrak zuzentzeko zailtasuna, esaterako, gaurkoa bezalako egoera dramatikoaren aurrean.

Interes partikularren sare horrek etengabe elikatu du, bai errealitatetik gero eta aldentuago dagoen akademia-, ideologia- eta kultura-testuingurua, bai jendarte-, teknologia- eta ekonomia-garapenarekiko talde-konpromisoa. Euskal Herrian ez gara libratu: garatutako jendarteak elikatzen dituen industria-, sorkuntza- eta elkartasun-kulturak pixkanaka galtzea eragin du.

2. EUSKAL EKONOMIAREN JARRERA HARTZEA

Horri buruz galdera honakoa da: posible da hamarkadatan zehar sortutako testuinguru ezkorriari aurre egitea benetako ekonomia, produkzio-garapena eta ehundura sozioekonomikoa defendatzeko, epe ertain-luzera?

Erantzunak baiezkota izan behar du, ñabardurekin. Egungo errealitateak nabarmentzen du posible direla ekonomia-politika desberdinak. Ingurura begiratu besterik ez daukagu.

Mendebaldeko herrialde batzuek —eta hainbat ekonomia-politika— beren burua defendatzen jakin dute, ñabardurak ñabardura. Beren industria defendatu dute. Beren produkzio-gaitasuna defendatu dute. Beren finantza-ehundura defendatu dute kapital espekulatiboaren aurrean. Beste herrialde batzuetako ekonomiek zorra pixkanaka pilatu dute eta hondoratu dira, baina arestian aipatu herrialdeak ez dira sartu dinamika horretan. Europar Batasuneko erdiguneko herrialdeak dira.

Aitzitik, beste ekonomia-egitura batzuek ez dute jakin beren burua defendatzen. Herrialde batzuek beren produkzio-gaitasuna pixkanaka hondoratzen utzi dute, zorrak pilatzeko transparekin beren burua engainatuz. Pixkanaka, finantza-arloko presio-taldeen estrategien menpe utzi dituzte ekonomia-politikak —alderik ez dago balizko ezker-eskuin jarreraren artean—. Are gehiago, utzi egin dute finantza-entitate handiek ezohiko pisua har dezaten euren bizitza politikoaren kontrolean, euren

hedabideetan, euren enpresa handietan eta, pixkanaka, euren finantza-sisteman. Maila desberdinetan, hori guztia gertatu da herrialde anglosaxoietan eta europar herrialde periferikoetan.

Zein unetan gaude? Krisiaren eztandatik lau urtera, egoera samingarria da. Mendebaldeko politika publikoak, salbuespenak salbuespen, ez diote heldu arazoan mamiari; aitzitik, «denbora irabazteko» estrategian korapilatu dira, Europa eta AEBko ekonomien funtsezko arazoak luzatuz, baita okertuz ere.

Testuinguru horretan, zein da Euskal Herriko egoera? Nabarmendu behar da herri honek bere industria eta produkzio-gaitasuna defendatzen jakin duela, oso testuinguru zaillean. Oso zaila, tradiziozko industria handiaren gainbehera dela-eta: gure enpresek etengabe birkokatu behar izan dute, baina arrakasta-maila garrantzitsua lortu dute. Oso zaila, baita ere, azken hamarkadetako testuinguru ideologikoa dela-eta: testuinguru horrek industria eta nekazaritza bertan behera uztera bultzatzen zuen. Hein handi batean, nekazaritzaren aldeko gudua galdu dugu, baina oso ondo defendatu dugu industria. Testuinguru neoliberalaren aurrean —bazirudien zerbitzuek, finantza-estatistikek eta neurritz kanpoko kontsumoak soilik zeukatela oihartzuna bertan— industria- eta ekonomia-politiken kontzeptuak mantentzen jakin izan dugu, beharrezkoa zenean esku hartuz, industria-birmoldaketa eta eta gure industriaren birkokapena lagunduz eta enpresa txiki eta ertainen (ETE) ehundura aktibo eta dinamikoaren garapena suspertuz.

Euskal Herriak kontsumo- eta inbertsio-maila egokia ere mantendu du, mundu anglosaxoiko eta europar inguruko gehiegizko zorra pilatu gabe. Hein handi batean ere, higiezinaren espekulazio edo finantza-espekulazioarekin tronpatzea ekidin du.

Gure industria-gaitasunak gora jarraitzen du esportazioei esker: industria-salmentaren barruan gero eta gehiago dira esportazioak.

Halere, ageriko hainbat egitura-gabezia daukagu: produktuen teknologia-maila eskasean, berritzeko gaitasun urrian, hezkuntza-sisteman, osasungintzan eta, oro har, erakundeen arlo sozioekonomikoan.

Gabezia horiek, hein handi batean, euskal autonomiaren aurreko testuinguru politiko-instituzionaletik jaso ditugu, eta ez dugu egokitzen jakin gure industriaren garapen lehiakorrera.

Hain zuzen, aro frankistaren «desarrollismo» kuantitatiboaren ondorioz. Hura soilik uler daiteke diktadura baten testuinguruan: gure herriak diktaduraren amaiera bizi zuen, luzerako produkzio-garapenari begira, egoera ahulean.

Zaharkitutako industria batean oinarritutako ekoizpena, eskulan merkearen arabera eta inbertsio eskasarekin garatua; gure herriko jarrera-hartze erlatiboa pixka bat eskasagoa zen diktadura aurrekoarekin alderatuta. Gure herria «hazita» zegoen, jakina, baina bere per capita errentari zegokion maila 30eko urteetakoa baino askoz baxuagoa zen, bai Europari zegokionez, bai Estatuaren gainerakoari zegokionez. Egia da, epe horretan dirutza handiak egin zituzten baina, esan bezala, pertsonen ongizatea okertzearen, nekazaritza-arloa ia desagertzearen, eta herrialdeko alde

zabaletan ingurumena okertzearen kontura; Europan ordura arte ezagutu gabeko tamainako krisi kultural, sozial eta politikoaren kontura; Hirugarren Mundukoaren gisako administrazio publikoren kontura, eta batere eraginkorrak ez ziren osasun-eta hezkuntza-horniduren kontura.

Azken hiru hamarkadetan, gure industriak aurre egin dio europar merkaturako zabalpenari eta, ondoren, europar moneta-unitatearen sarrerari, gainera, lehen mailako nazioarteko lehiari aurre eginez. Zoritxarrez, ezin gauza bera esan gure gabezia sozial eta instituzionalei buruz. Diktaduraren ekologia-hondamenak zati batean besterik ezin izan dira konpondu. Gure administrazioa, gure hezkuntza- eta unibertsitate-sistemak Europako azken tokietan daude oraindik.

Zoritxarrez, gure arduradun politikoek ez dute izan adore nahikoa, lehenik eta behin, gure egitura publikoen eta hezkuntza-egituren egoera alderatzeko Europako lehen mailako egiturekin, eta ondorioz jarduteko. 30 urtetan zehar, beren burua goraipatu dute «beste espainiar autonomi erkidego batzuk baino hobeto» kokatzeko. Europa mailan konparazio-azterketak zabaltzen hasi diren unetik agerian geratu da, hain zuzen, minimoen azpitik dagoela gure erakunde publiko, hezkuntza-sistema, unibertsitate eta ekologia-orekaren errespetuari dagokien egoera.

Gure enpresek munduko lehen mailako enpresekin lehiatu besterik ez daukate. Hori bakarrik da posible gure egitura sozialak eta erakundeak gai badira maila baliokidean kokatzeko, baina hori ez da egungo egoera, inondik inora. Nabarmen atzera gaude maila sozialari eta erakundeei dagokienez, eta seguru asko horixe da gure ekoizpen-garapenerako oztoporik garrantzitsuena epe ertain eta luzera —gure gatazka politikoaren konponketa ezari eta herriaren lurralde-egituraketari dagozkion aldarrikapen historikoei gehituta—.

Testuinguru honetan zein da Euskal Herriaren etorkizuna? Hori da, hain zuzen, dokumentu honetan nabarmendu nahi duguna: gaur egun bidegurutzean gaudela. Zergatik bidegurutzean? Testuinguru ekonomikoaren eta ekonomia-politikaren baitan aurreikusten diren aldagaiek zalantzazko etorkizuna eratzen dutelako. Gure herria egoera pixka bat desberdinen aurrean koka daiteke, hainbat alderdiren arabera: lehenik eta behin, gertaeren bilakaeraren arabera. Baina, baita ere, eta hau oso garrantzitsua da, herri gisa kokatu eta gure erabaki politikoak, ekonomikoak eta sozialak garatzeko gai baldin bagara, norabide batean zein bestean.

Euskal ekonomiak bizi duen bidegurutzearen oinarriak, funtsean, ondokoak dira:

- a) Egungo krisi ekonomikoa luzatzeko edota larriagotzeko arrisku handia eta, bereziki, espainiar ekonomia okertzeko arriskuaren ikuspegia.
- b) Europako moneta-unitatea hausteko arrisku handia eta, bereziki, haustura hori Pirinioetan garatzeko arriskua.
- c) Europar Batasuna bi eremu sozioekonomiko desberdinetan banatzeko aukera argia; bi eremuen soslaian eta politiken arteko desberdintasuna gero eta handiagoa izango da: erdiguneko herrialdeena eta herrialde periferikoena.

- d) Europar Batasunaren etorkizunari buruzko zalantzak. Finantza-krisiaren garapenaren arabera, epe laburrean eta azkar, hainbat joera har dezake; jo dezake estatu federal gisa egituratzera edo, kontrara, apustu egin nazio-estatu tradizionalak indartzea oinarri izango duen elkarketaren alde.
- e) Oraindik dirauten egitura-gabezia nabarmenak, industria-eredua defendatzeko euskal estrategia arrakastatsua izan bada ere. Egitura-gabezia horiei buruz erabakiak hartu beharko ditu gure erkidegoak, edo haiei aurre egin edo arriskua onartzen jarraitu: beharrezko bultzadarekin ekin ezean ekonomiaren gainbehera etengabea sartuko gara arriskua onartzen jarraituz gero.
- f) Bereziki, jauzi kualitatiboa egiteko erronkari aurre egiteko beharra:
Gure industriaren teknologia-berrikuntzarako gaitasunean.
Gure erakundeen eraginkortasunean eta gure enpresen jarduera-eremuan.

Krisi egoera asaldagarria eta europar periferiako herrialdeen —gurea barne— bilakaera kezagarria bada ere, bidegurutzean gaude, hain zuzen, ezer ez dagoelako idatzita eta, beraz, epe ertain eta luzera begira, gure etorkizun ekonomikoa erabakiko duten hainbat aukera dauzkagu zabalik.

Azkenik, ikusiko dugunez, bidegurutzearen aurrean kokatzeko aukerak funtsean alda daitezke eskumenen arabera eta, zehazki, gako diren ondoko alderdietan gure herriak erabakitzeko ahalmenik daukan edo ez, horren arabera —funtsean, Espainiako eta Frantziako estatuen eskumena diren horietan—:

- Banku-politika.
- Moneta-politika: euroarekin hautsiz gero, aukeratzeko gaitasunari dagokionez.
- Zerga-araudia: arlo honetan, arauak egiteko «teorian» daukagun gaitasuna ziurtatzeari begira.
- Gure gabezia sozial eta instituzionala konpontzeko beharrezko politikak (araudi eta lan-politika, unibertsitate-politika eta gizarte-segurantzaren politika).

3. AURREKONTU-POLITIKA ZUHURRA

Arrazoi estrategikoak direla medio, bai ekonomikoak bai politikoak, datozen urteotako lehen helburuak izan behar du zorduntzea mugatzea. Hedapen ekonomikoaren urteetan egitura-gabeziak saihestu ditugu. Horrek, orain, erraztu beharko liguke aurrekontuak orekatzea, horretarako batuz, batetik, gastu-mailan nahitaezko doikuntza eta, bestetik, zerga-kargen doikuntza. Gure politika publikoak egiazki autonomoak izan daitezen eta epe laburrera kanpo-baldintzen menpe egon ez daitezen, hain zuen, zorduntzea saihestu beharra dago.

Beharrezkoa da, ildo horretan: baztertzea zaharkitutako eskema ideologikoak; ahaztea topikoak, bai keynesiarrak, bai neoliberalak; zorduntzea arazo guztien konponbidea dela artifiziarki mitifikatu duten ikusmoldeak gainditzea; baita hersturaren mitifikazioa gainditzea ere, edozein arazo ekonomiko konpontzeko errezeta

magiko gisa. Kontziente izan behar dugu, inoiz baino gehiago, baliabide publikoen eskasiaz eta, batez ere, lehentasun argiak ezartzeko beharraz, gastuen esleipenari dagokionez. Nola ez, ezin ahaztu daiteke doikuntzek edo herstura-politikek, ekonomia indartu beharrean, kontrako eragina daukatela maila jakin batetik gora; batez ere, ondokoak ahultzen dituzten unetik: kohesio soziala, egitura sozial eta ekonomikoak, hezkuntza-politikak edo teknologia-hornikuntza.

Garrantzitsua da, nolanahi ere, kontzeptuzko dogmak saihestea eta, nola ez, oso adi egotea datozen hil eta urteek ekar diezaguketenari. Inork ez daki ziur krisia norainokoa izango den edo sarrera publikoak zenbat jaitsi daitezkeen.

Laburbilduz, gure iritziz, euskal aurrekontu-politikaren oinarrizko helburuak, beraz, ondokoak izan beharko lukete:

- a) Zorpetzea saihestu.
- b) Benetako ekonomia babestu.
- c) Kohesio soziala babestu.
- d) Aurreko baldintza horietatik abiatuta, gastu publikoari eutsi/geldiarazi.
- e) Zerga-sarrerak beharrezko neurrian estutu, hain zuzen, aurrekontuak orekatzeko.

Aurrekontu-politikan oso garrantzitsua da, baita ere, bestelako inguru sozioekonomikoetan abiatu dinamiken joerari ez jarraitzea. Esan bezala, «doikuntza» batzuk beharrezkoak edo positiboak dira ekonomiarako baina, maila jakin batetik gora, doikuntza horiek apurtu egiten dute eskaintza eta eskariaren arteko oreka, kohesio soziala edo hornikuntzak, bai sozioekonomikoak, bai hezkuntza-arlokoak, bai berrikuntzen alorrekoak.

Gure ekonomiaren zorra ez zen hainbestekoa Europako herrialde periferikoekin alderatuta. Herrialde horietan arrazoizkoak izan daitezkeen doikuntza sozialak, beraz, euskal jendartean suntsitzaileak izan daitezke.

4. FINANTZA-SISTEMAREN ERROTZEA ZIURTATU

Garapen-eredu endogenoa mantendu nahi duten herrialdeetan, gainera, inguruko ekoizpen-garapenen alde egin beharko du finantza-sistemak: hori izango da herrialdeon oinarrizko zutabeetako bat. Horregatik, benetako ekonomiaren alde egin duten herrialdeek, Europako erdigunekoek, gauza guztien gainetik defendatu dute, banku-jardueraren arloan, inguruan errotutako erakundeen esku mantentzea gehiengo kuota; hala nola kreditu-kooperatibak eta aurrezki-kutxak.

Garapen hori etengabea izan da euskal ekonomian. Zergatik? Euskal banku-sisteman egiturazko pisua eduki dutelako aurrezki-kutxek eta kreditu-kooperatibek.

2011n, aurrezki-kutxek prozesua abiatu zuten bihurtzeko, eta hori, aipatu ildoan, benetan kezagarria da. Prozesu estrategiko oso arriskutsua da gure egitura ekonomikoarentzat, eta gainera, oinarri oso ahulean arrazoituta dago; hori berez da kezagarria.

Nafarroako Aurrezki Kutxaren kontrola galtzea, segur aski, konpenezina da eta nafar jendarteak pixkanaka osatu beharko du berriro. Baina ematen du noraez hori saihestu dela —edo atzeratu— Euskal Autonomia Erkidegoko hiru aurrezki-kutxen bat-egitearen kasuan.

Prozesu horretan elkartu diren hainbat elementu dira kezkarriak, eta ageriko arriskuen aurrean —Nafarroako kasuan errealitate dira—, erne kokatzera behartzen gaituzte: arriskua atzerapauso larriak emateko gure finantza-sistemaren egituraketan, edo are gehiago, sistema horrek lurra jotzeko —baina ez krisiak sortutako arriskuen eraginez, baizik eta gure politikariek, arlo honetan, izan dezaketen arduragabekeriaren ondorioz—.

Politika ekonomikoaren ikuspegitik bultzatu beharreko neurriak, gure iritziz, argiak dira:

- a) Kutxabank-eko akzionisten artean aurrezki-kutxetako akziodunez gain beste inor txertatuko ez dela ziurtatu.
- b) Euskal finantza-sistema blindatu hainbat estrategia ezarriz: zorpetzea erradikalki mugatzea eta inbertsioa bideratzea euskal esparru sozioekonomikora, horrela, gertukoak ez diren inguruneetan aurrezki-kutxek hartu dituzten arriskuak txikituz.
- c) Ziurtatu aurrezki-kutxen konpromisoa ingurunearekin, autonomoekin eta ETE-ekin; eta epe labur zein ertainera, krisia gainditzearekiko. Horretarako, segur aski, nolabaiteko lotura instituzionala ezarri beharko da kutxen eta ETE-en artean.
- d) Estrategia horietan inplikatu euskal politikariak, erakunde arteko itun baten bitartez. Itun horrek aurrezki-kutxen eginkizuna berretsi beharko du, bai gure finantza-sistemaren oinarri gisa, bai gure ehundura sozioekonomikoaren lagungarri, kanpoko garapen-estrategien aurrean —horrelako erakundeetan justifikatzeko zailak lirateke-eta gure ekoizpen-sistemaren oinarriak arriskuan jar litzaketenak—.

Gure finantza-sisteman garrantzitsua da —eta presazkoa— erakundeen arduradunek pentsamoldea aldatzea, funtsean, bi arlori dagokienez: batetik, egun neurritz kanpo baloratzen dira —hobeto esan: «idealizatu»— dimentsio-areagotzearen abantailak finantza-sektorean, eta, bestetik, gutxiegi baloratzen da finantza-jardueraren lotura benetako ekonomiarekin.

Bertako politikariek, beraz, orain gutxi arte beharrezkoa ez zirudien zeregin berria daukate: euskal finantza-sistemari jarraipena egitea, eta beharrezkoa denean esku hartzea, ziurtatzeko bai haren errotzea, bai bat-egitea benetako ekonomiarekin eta euskal ekonomia-sistemiarekin.

Horrek eskatzen du, era berean, aurrezki-kutxek eta kooperatibek gehiengo mantentzea euskal finantza-sisteman, Europa erdiguneko herrialdeen ohiko irizpideen ildoan.

Euskal finantza-sistema osatzen duten erakundeek indartsuak eta kaudimendunak izan behar dute. Eta funtsean, ondokoak behar lituzke:

- a) Kudeaketa egokia: horrek behar ditu teknikoki kaudimendunak diren pertsonak; eta horrek, era berean, eskatzen du banku-exekutiboen konpromisoa ekoizpen-ekonomiarekin.
- b) Une honetan, bereziki saihestu behar dira hainbat arrisku: zorpetzeak eta inbertsioak espekulazio-merkatuan edo inguru ezezagunetan.

Finantza-sistema errotzea berebizikoa da, bai jarduera ekonomikoaren eraginkortasuna ziurtatzeko, bai finantzaren, ekonomiaren eta politikaren autonomiari eusteko. Erakunde horiek elikatzen ditu aurrezteak eta eutsi behar zaio, hain zuzen, aurrezpen hori sortzen duten herrialde edo eskualdeen autonomiari.

Finantza-sistemaren muina errotzea ziurtatuz, era horretan, gure finantzaketaren autonomiari eutsiko diogu, eta ahalbidetuko du:

- ... gure erakundeak kudeatzeko autonomia handiagoa, batez ere udalerrietan,
- ... gure enpresen independentzia handiagoa lurraldetik kanpoko interesen aurrean, nazionalak zein nazioartekoak,
- ... finantza-baliabide gehiago ekoizpenaren garapenerako, berrikuntzarako eta ehundura soziala zein ekonomikoa sortzeko,
- ... espekulazio-proiektuentzako baliabideen mugapena,
- ... gure familien aurrezpena ingurune hurbiletan inbertitzera bideratzea, gure gizarte- eta ekoizpen-ehunduran, ingurune ez-hurbiletan inbertitzeak baino arrisku gutxiago izan ohi du-eta.
- ... gure enpresen, erakundeen eta politikarien independentzia handiagoa finantza-sektore jakin baten aurrean; nolako finantza-sektorea? Hain zuzen, gure egitura sozioekonomikoarekin harremanik gabeko interesak dituen.

5. MONETA-POLITIKA BIDEGURUTZEAN

Europar moneta-sistemaren egungo ezohiko abagunea erabakigarria da euskal ekonomiaren egoera kokatzeko. Euroaren etorkizuna zalantzan dago haren arautzeari eta geografia-eremuari dagokienez. Testuinguru horretan, lehenbailehen, euroaren balizko hausturak euskal ekonomiari ekar diezazkiokeen arrisku edota aukeren aurrean kokatu beharra dagoela ematen du.

Egia esan, moneta-politikaren arloa ia ezezaguna da gure herriko kudeaketa politikoan, ageriko arrazoi historiko eta politikoak direla medio. Arrazoi horiek, hain zuzen, gure eremu ekonomikoaren eskualde-izaeraren ondorio dira, moneta-politikaren eremutik kanpokoak, estatuekin harreman zuzena daukatelako, eta euroaren kasuan, Europar Batasunarekin.

Laburbilduz, euroaren etorkizunaren oinarritzko aukera teorikoak ondorengoak izan daitezke:

- i. Egungo formatua mantentzea.
- ii. Egungo moneta-egituraketa mantentzea, baina gobernaketa ekonomiko indartsuagoarekin.
- iii. Hainbat herrialde irtetea.
- iv. Bi moneta-eremu bereizietan banatzea.
- v. Euroa desagertzea.

Europar moneta-politiken bestelako egituraketa-eredu teorikoak definitzea posible da, moneta bakarrarena baino eraginkorragoak, baina sistema batetik bestera igarotzeko aldiko kostu operatiboak —eta batez ere, politikoak— hain dira altuak, ezen praktikan nekez aplika daitezkeen. Europako politika-arduradunek horrelako agertokiak saihesten dituzte, kosta ahala kosta; beraz, ekonomia- edo politika-hondamen baten aurrean bakarrik egikaritu litezke agertokiok. Baina egia esan, «hondamen» sentipen hori gero eta agerikoagoa da, Greziako kasuan, bederen.

Ezin ahaztu, noski, arriskuon geografia- eta geopolitika-zabalerak kokatzen gaituela funtsean desberdinak diren bi agertokiren aurrean, baldin eta egungo moneta bakarreko sistema zalantzan jartzeko arrazoia balitz periferiako herrialderen baten balizko irteera edo eurogunea bera zalantzan jartzea edo erdiguneko herrialderen batek eurogunea uztea.

Politikaren ikuspegitik agertokiak desberdinak izan badaitezke ere, makro-ekonomiaren ikuspegitik hainbat agertoki bereiz ditzakegu Euskal Herriaren moneta-kokapenerako etorkizunean:

- Euroaren egungo geografia-eremua mantendu.
- Euroan kokatu, baldin eta ekonomia ahulenetako batzuek utziko balute.
- Moneta-eremu berean kokatu ekonomiarik ahulenekin.
- Ekonomiarik indartsuenen eta ahulenen arteko eremuan kokatu.

Hasiera batean, Euroaren barruan egoteak abantaila bat eragin dio euskal ekonomiari: kapitala erabiltzeko aukera altua, ekonomia ahulen moneta-eremu batean genukeena baino handiagoa. Oro har, gure herrialdeak ez du egin aukera horren gehiegizko erabilera. 2007an finantza-krisia hasi arte gure erakunde publikoek ez zeukaten zorrik apenas. Kanpoko finantza jasotzeko aukera izan zuten erraz, eta ondorioz, hainbat inbertsio oker egin zituzten, baina funtsean, kanpoko merkatuetan. Halere, oro har, kapital kopuru nahiko egon da kontsumoa eta inbertsioa bultzatzeko.

Hasiera batean, teorikoki, europar moneta-unitatearen berregituraketa baten aurrean, segur aski, «erdibideko» moneta-eremu batean kokatzea litzateke egokiena gure ekonomiarentzat.

Moneta-eremu ahulago batean kokatzeak —balizko aukera da— ekoizpen-inbertsioetarako kapitalaren eskasia handiagoa eragingo luke, baita hazkundea ahultzea ere, monetaren ezegonkortasun handiagoaren eraginez. Moneta ahulagoa izateak hainbat abantaila erakuts ditzake epe laburrean esportatzeko erraztasun

handiagoari dagokionez, baina baita zailtasun gehiago ere produktu lehiakideak inportatzeko.

Finean, gure herriak azken hamarkadetan garatu aurrekontu- eta zerga-diziplina, aurrezteko egiturazko gaitasuna eta abar aintzat hartuta, gauza argia ematen du hurrengoak: merkataritza-balantzaren hobekuntza errazteko, hain zuzen, moneta ahulagoa edukitzea epe ertainera tentagarria bada ere, gure ekonomiarentzat onuragarriagoa litzateke moneta-eremu indartsuagoan kokatzea.

Hasiera batean, moneta propioa edukitzeak abantaila garrantzitsuak dauzka eskualde- edo nazio-ingurunean. Horietan oinarritzkoena da, nola ez, moneta-politika bere inguruko garapen ekonomikora egokitzeko gaitasuna.

Zentzuzko hainbat arrazoi daude autonomia horri uko egin eta moneta-unitate zabalagoan integratzeko: transakzio-kostuen murrizketatik hasi eta kapitala lortzeko erraztasun handiagora, ekonomia-ingurune indartsu edo egonkorragoan integratuz, edo kontrara, merkataritza-balantza onuragarria mantentzeko erraztasun handiagoa, moneta-eremu ahul batean kokatuz.

Agertoki bakoitza balioesteko garaian, kontuan eduki beharreko gakoetako bat da egungo kontzertu/hitzarmen ekonomikoa. Egia esan, ikuspegi arauemaitetik, kontzertu ekonomikoa onartzen duen benetako autonomia fiskala mugatua da. Aitzitik, baliabide fiskalak kudeatzeko, kontzertu eta hitzarmenek eskatzen duten ardura da estatu independenteen ohiko ezaugarrietako bat, eta ezin ahaztu daiteke, oro har, ekonomia-politiken estrategien azterketan, eta zehazki, moneta-politiken azterketan. Azken kasu horretan, hein handi batean, eragiten du uko egitea «txoke asimetrikoak» deritzenak leuntzeko oinarritzko tresnei, moneta-unitate baten baitan. Ezin daitekeenez eragin aipatu «txoke»-en zerga-doikuntza «automatikoa», moneta-unitate zabalagoaren parte izateak eragiten dituen kalteak nabariagoak dira Euskal Herria bezalako zerga-subiranotasun ingurune batean.

Teorikoki, Euskal Herriak, bere moneta-unitatea edukiko balu:

- a) Moneta-bihurketa kostu handiagoak jasango lituzke.
- b) Hainbat abantaila izango lituzke, batetik, bere ekonomia-garapenari egokitutako moneta-politikaren ondorioz, eta bestetik, europar moneta indartsu eta ahulen artean kokatzearen ondorioz; segur aski, bere egoera ekonomikoa eragiten duen kalteak nabariagoak dira.

Dena den, moneta propioaren bideragarritasuna baldintzatuko du, egoeraren gainetik, monetaren balioaren egonkortasunak eta kontu publikoak zergarik gabe mantentzeak, ekonomia- edo industria-garapenak baino.

Orain arte, euroaren eremuan egonda, moneta indartsu baten ingurunean kokatzearen abantailak eduki ditu Euskal Herriak, baina ondorio kaltegarriak horren zuzenean pairatu gabe, harik eta krisiak eztanda egin zuen arte. Alabaina, krisiak dirauen lau urteotan gertatzen ari dena kontuan hartuta, litekeena da egoera hori amaitzea. Guztiak adierazten du garapen politikoak behartuko gaituela hautatzera, hori ala moneta-ingurune indartsu ala ahul batean kokatzea ezarriko digu.

Euskal Herriaren kasuan, aipatu arrazoiak direla-eta, europar monetaren balizko hausturaren aurrean, beharbada hobe izan liteke berezko monetaren eredia, moneta-ingurune ahul batean kokatu baino; jakina, zerga- eta aurrekontu-arloan, azken hamarkadetakoko seriotasunaren ildoari eusteko gai garen heinean.

6. GARAPEN-EREDU ENDOGENOAREN ALDEKO APUSTUA BERRITU

Une hau giltzarria da ikuspegi estrategikotik, eta herri honetako politika publikoak gidatuko dituen ekonomia-garapenaren eredia argitzeko eskatzen digu:

- a) Ekoizpen-eredu endogenoa mantentzeko apustua egin dezakegu —Nafarroan izan ezik, garapen exogenoaren garrantzia nabarmena izan da bertan, eta etorkizunari begira arriskuak baditu—. Ekoizpen-eredu horri esker aurrera egin dugu azken hamarkadotan, gero eta emankorragoa eta berritzaileagoa den industriarekin eta aski autonomia den finantza-sistemearekin.
- b) Bestela, herrialde periferikoen artean koka gaitzeko, ekoizpen-eredu gero eta ahulagoaren bitartez, eta gero eta mendekoagoak diren finantza-sistemeekin.

Esan bezala, etorkizuna ez dago idatzita. Frantziarekin zer gertatuko den zalantzarekin, Europan, erdiguneko eta periferiako herrialdeen artean kokatuta gaude. Gure gizarte-, lan-, hezkuntza- eta erakunde-sistetak ere, erdi-mailakoak dira. Ematen duen bezala, ereduaren arteko lubakia handituz gero, hautatzeko beharra gero eta larriago gerta liteke. Eta epe oso laburrean.

Izan ere, hil edo urteotan, garrantzi handiko erabakiak hartzen ari gara eta aipatu eredu sozioekonomikoen artean hautatzera garamatzate. Erabakiotako batzuek, gainera, herrialde periferikoentzat aurreikusten den eredu sozioekonomikorantz garamatzatela dirudi: zorrarekiko mendekotasuna, mendeko finantza-sektoreak, gizarte oso klasistak erakunde- eta gizarte-hornikuntza ahulekin, gizarte-diferentzia handiekin eta kohesio eskasarekin.

Beste aukerak, aldiz, apustu sozial, ekonomiko eta politiko argia eskatzen digu, hain zuzen, ondoko ezaugarriak dauzkan herrialde batean kokatzeko etorkizunaren alde: herrialde ireki, solidario, barne-mailako kohesioa, gizarte zibil parte-hartzailea, eta lanerako eta esfortzurako pentsaera dauzkana, aurrera egiteko taldeborondatearekin, ekoizpenerako eta teknologia-berrikuntzarako gaitasunarekin, orekatutako kontu publikoekin, zorrarekiko mendekotasun mugatu eta finantza-sistema aski autonomoekin, eta gizarte- zein erakunde-horniketa aurreratuekin.

Osagarritzeko, ekonomia-garapen endogenoaren aldeko apustua berritzeak eskatzen du, orobat, politika argiak definitzea eta aplikatzea industria-enpresaren dimentsio eta jabetzari dagokionez. Gure garapen-ereduari eusteko daukagun gaitasunari dagokionez, epe ertain eta luzera begira erabakigarriak izan daitezke, bai enpresaren jabetza mota, bai industria-ehundura, gutxi gorabehera, ETE edota enpresa handiek osatuta egotea.

7. INDUSTRIA BLINDATU

Finantza-sistemaren egiturazko arazoak konpontzeko gabeziaren aurrean, krisiak dirau eta ez dago zantzurik epe laburrera konponduko denik esateko. Urteotan, benetako ekonomia (familiak, enpresak eta gobernuak) funtsean ahuldu denez, desoreka berriak jasateko gaitasuna apur bat mugatuta dago 2008arekin alderatuta.

Eskualdeko industria-politikei buruz Europa mailan egiten ari diren azterketak funtsezko aurrerapausoak nozitzen ari dira, oinarrian, sektore-, espezializazio- eta berrikuntza-politiken ikuspegitik.

Hala ere, azken urteotan, euskal industriak aurre egin behar izan dien funtsezko erronkek —eta, seguru asko, aurre egiten jarraitu behar izango du— zerikusi gutxi daukate eskualdeko industria-politikekin eta, batez ere, bi faktoreri eragiten diote:

- Nazioarteko eskaeraren beherakadari.
- Finantza-sistemaren kreditu-jardueraren beherakadari.

Hortaz, euskal industriaren erronka garrantzitsuenei, epe labur eta ertainera, ezin zaie heldu industria-politikaren beraren eremutik; horretan datza oinarritzko politiken ikuspegiaren arazoa. Aitzitik, erronkak haratago doaz eta eragiten diete, bai banku- eta moneta-politikei, bai politika makroekonomikoei, izan eskualde mailakoak, estatu mailakoak zein orokorrak.

Bestalde, euskal erakunde publikoen erabakitzeko gaitasunaren eremutik kanpora geratzen dira —ikusi dugun bezala—, bai banku- eta moneta-politika bere osotasunean, bai eskari orokorrean eragin zuzena edo zeharkakoa daukaten oinarritzko tresnak ere.

Premiazkoa da honakoa definitzea: gure politikariek zer egin dezakete horri dagokionez?

Lehenik, behin eta berriro agerian jarri denez, euskal arduradun publikoek ondokoak egin ditzakete, eskualdeko industria-politikako tresnen bitartez:

- a) Industriaren lehiakortasuna indartu, azken horren jarrera erlatiboa hobetzeko asmoz, eta horrela, merkatu-kuota bestelako geografia-eremuetakoa baino apur bat altuagoa manten dezan, eskari orokorraren beherakadaren edo aurreikus daitezkeen etorkizuneko beherakaden aurrean.
- b) Enpresen barne-finantza indartzea bultzatu, zertarako eta beren erresistentzia-gaitasuna handitzeko, hain zuzen, finantza-sektorearen gelditze edo desoreka berrien aurrean.

Baina gakoa zera da, eskualdeko gobernuak zer gehiago egin ote dezaketen —industria-politikaren eremutik kanpora— aurre egin ahal izateko egiturazko arazoei, hain zuzen, eskaeraren beherakadaren eta kredituaren murrizketa edo hondoratzearen arloetan.

Agerikoa ematen du, ildo horretan, hartu beharreko neurri zehatzek desberdinak izan behar dutela Euskal Herrian, bestelako eskualde-politika eremuetan planteatu daitezkeenekin alderatuta. Ez bakarrik eskualdeen arteko desberdintasunen ondorioz, tamaina, ekonomia-egitura, kanpora begirako zabalpen, aurrezteko gaitasun eta abarri dagokionez. Baita ere, nola ez, eskualdeen arteko oinarritzko desberdintasunak direla-eta, ondokoari dagokionez: eskari orokorrean edo kreditu-merkatuan zein moneta-politikan eragiten duten kudeaketa politikoetako jardueragaitasunari dagokionez.

Euskal politika erregionalek ezer gutxi egin dezakete moneta-politikan konbultsio-arriskuetatik babesteko. Konbultsio horiek baldintza ditzakete, bai euroaren egonkortasunaren bilakaera orokorrak, bai eskualde bakoitzaren kokapenak euroaren balizko zatiketaren aurrean.

Euskal industria-politikek, eskari orokorraren ezegonkortasunerako arriskuen aurrean, industriaren eskariaren azterketa egin behar dute, baina kokapen geografikoaren arabera, hain zuzen, eskualde-politika bat edo beste garatzerako orduan.

Eskaria handitzera zuzendutako zerga- edo gastu-politikek, bereziki, ondokoa baloratu behar dute: Euskal Herrian bertan egindako produktuei zuzendutako kontsumoaren edo inbertsioaren portzentajea.

Hori osagarritzeko, funtsezkoa da desberdintzea kanpo-eskariaren zein portzentaje dagoen kokatuta maila egonkorreko geografia-eremuan eta zeinek daukan arrisku handiagoa eskariaren beherakada pairatzeko. Funtsezkoa da ere, hortik abiatuta, estrategia egokiak diseinatzea, hain zuzen, esportaziorako estrategien birbideratzea bultzatzeko.

Kreditu-merkatuan, kontrakzioen arriskuetatik babesteko aukerak mugatuak badira ere, ezin bazter daitezke Euskal Herrian.

Autofinantzaketa bultzatzeko, dagoeneko, aipatu dugu industria-politikak garatzeko aukera: enpresen kredituekiko mendekotasuna mugatu behar dute hein batean, nahiz eta politika horien eraginkortasuna mugatua izan epe laburrera eta egungo egoeran.

Ohiko politiken barruan, ETE-en finantza-estaldurarako egiturak bultzatu eta indartzeko estrategiei eutsi behar diete euskal erakundeek politika publikoek. Bereziki, elkarri bermea emango dioten elkarteek eta arrisku handiko elkarteek bitartez, beren jardueran jauzi kualitatiboa egitera zuzendutako hausnarketa estrategikoa barneratuz.

Ohiko tresnetatik aparte, kreditu-merkatua kolapsatu edo gelditzeko arriskuaren aurrean, funtsezko abiapuntua da, dudarik gabe, aurrezpenaren eta inbertsioaren arteko harremanaren hausnarketa Euskal Herriko makroekonomian.

Harreman hori urria den eta, galera hori estaltzeko, kanpoko kapitalaren ekarpena behar duten eskualdeetan, eskualde mailako politikak bidera daitezke kapitalaren galera geldiarazi edo murriztera. Hori lor daiteke:

- Batetik, ondokoak mugatuz: balizko inbertsio espekulatiboak, edota kreditu zein zerga bidez finantzatzen diren eta funtsezkoak ez diren inbertsio publikoak.
- Finantza- edo doitze-estrategia alternatiboak definituz, hain zuzen, kreditu edo zerga bidez finantzatzen ari diren inbertsio edo gastu publikoentzat; estrategia horiek gauzatuko dira kreditu-merkatuaren balizko kontrakzioen aurrean.
- Estrategiak definituz zertarako eta, beharrezkoa denean, aurrezki publikoak osagarri dezan aurrezki pribatua; aurrezki publikoa industriara bideratuko litzateke bide desberdinetatik.

Hala ere, Euskal Herrian bezala, inbertsioa finantzatzeko printzipioz aurrezteko gaitasuna nahikoa denean, politika publikoen helburu estrategikoak eremu honetan ondokoa beharko luke: finantza-sektoreak aurrezki horren gehiegizko zatia izoztu edo desbidera dezan ekiditea, industria-enpresen finantza-galera artifizialak eragingo litzukeelako.

Epe ertain eta luzera, politika horiek finka daitezke lurraldeari lotutako finantza-erakundeen jardueraren sustapenean, lurralde arteko kapital-jarioa mugatzen duten neurrian; hala nola kreditu-kooperatibak, aurrezki-kutxak edo tokiko bankuak.

Epe labur eta ertainera, estrategia koherentea izan daiteke politika jakinak garatzea, zertarako eta kreditu-erakundeen handizkako zorren mailan eragiteko. Euskal Herria bezala, aurrezteko maila nahikoa daukaten inguruneetan, estrategia logikoa ematen du lurraldeari lotutako erakundeetan eragiteak, ondokoak mugatzeko: kanpo-zorretarako sarbidea eta lurraldetik kanporako inbertsioak.

Handizkako merkatuan sartzeko egungo zailtasunak areagotuko lirateke kreditu-merkatuaren beste beheakada baten aurrean. Kanpo-kredituarekiko mende-kotasuna gero eta txikiagoa den heinean, eskualde mailako bankuen sektoreak aukera handiagoa izango du, hain zuzen, aurrezki eta inbertsioen arteko kapitalaren jarioari eusteko.

Era berean, euskal lurraldetik kanporako inbertsioak, epe laburrera begirako inbertsio likidoak salbu, eskualde-kapitalaren soberakinen gainean finkatzen badira ere, gure lurraldearentzat oso zaila litzateke horiek berreskuratzea kreditu-merkatua kolapsatuz gero.

Laburbilduz, kreditu-merkatua kolapsatzeko arriskuaren aurrean, Euskal Herria bezalako inguruneetan ematen du posible dela estrategiak garatzea «industria blindatzeko», eta aurrezte-maila nahikoarekin. Berariazko arautegia eska lezake horrek, baina dagoeneko, Euskal Herriak badauka eskumen-gaitasun nahikoa arlo horretan. Halere, pizgarri publikoak emateko estrategiak ere gara litezke, baita informazioa eta harreman publikoak zabaltzeko jarduerak ere, finantza-erakundeen estrategietan eragiteko. Eragin hori zuzena izan daiteke (gizarte-sektore pribatuen edo erakunde publikoen bitartez: kreditu-kooperatibak, aurrezki-kutxak edo tokiko bankuak), edo zeharkakoa, finantza-erakundeekiko irudi- eta harreman- estrategien

bitartez; horrela, erakunde publiko autonomikoekin batera inplikaturako lirateke tokiko erakundeak, merkataritza-ganberak, enpresarien elkarteak, eta abar.

8. TEKNOLOGIA-HORNIKUNTZAREN ARLOAN AURRERAPAUSOA

Azken urteotan, gure herriak industria-ehundura defendatzeko ahalegin garrantzitsuak eta eraginkorrak egin baditu ere, egiturazko gabezia garrantzitsu batzuk dauzkagu oraindik; segur aski, gabezia nabarmenena daukagu teknologia-hornikuntzaren arloan.

Agerikoa ematen du egiturazko arazoak daudela arlo horretan aurrera egiteko eta gure industrian pisu handia daukate, zehazki, «helduak» deritzen sektoreek. Aitzitik, gure iritziz, askoz gehiago egin zitekeen arlo horri dagokionez, batez ere ondokoa kontuan hartuta: neurri handi batean, faktore instituzionalek galarazi dutela erabakitasunez aurrera egitea gure teknologia-mailaren hobekuntza bermatzeko.

Horrek zera esan nahi du: bide horretan aurrera egiteko abiadura baldintzatzen duela, hein handi batean, beharrezko neurri politiko eraginkorrak hartzeak eta ezartzeak.

Horregatik, teknologia-berrikuntzarako gure gaitasunari dagokionez, oinarritzko bi aukera dauzkagula esan dezakegu:

- a) Gure egitura teknologikoak berritu jauzi kualitatiboa egiteko teknologia-berrikuntzarako gure industriak daukan gaitasunari dagokionez. Bereziki, oinarritzko berrikuntza teknologikorako gaitasuna indartzeko apustu egitea, gure zentro teknologikoen esperientzia eta garapen-gaitasunean oinarrituz eta helburu honetarako baliabide publikoak birbideratuz.
- b) Arlo honetan ohikoa den konpromiso ezari eutsi: arazo instituzional larriek oztokatzen dute teknologikoki garatzen hastea; bada, horiek identifikatzeko eta horiei heltzeko ausardia faltak eragiten du, hain zuzen, aipatu konpromiso eza.

Aurrerapen teknologikoarekin konpromisoa daukan industria-politikaren alde egiteak esan nahi du, zehazki, berrikuntza teknologikoaren aldeko itun soziala abiatzea. Innobasque Proiektuaren ahalegina gutxietsi gabe, itun sozial handi hori aurrekontu desberdinetatik abiatu behar dela ulertzen dugu, eta ondokoak izan litezke:

- Azken hamarkadotan Mendebaldean nagusi izan diren kontzeptuzko oinarrietatik eratorritako loturak gainditu, berrikuntza teknologikoa berrikuntza sozialarekin nahastuko duten ahaleginetan galtzea ekidinez. Ez dugu gutxien berrikuntza sozialaren garrantzia —kontzeptu hori EKAI Centerren oinarrian dago—, baina arlo sozialeko berrikuntzekin harremana daukaten politika publikoek jarraitu beharrekiko printzipio eta irizpideek, halaber, teknologia- eta ekoizpen-berrikuntzan jarraitzen direnetatik desberdinak behar dute. Itun sozial handi baten alde egiten dugu, baina ez nolanahikoa: itunak, argi eta garbi, berrikuntza teknologikoan jarri behar du arreta.

- Ikerkuntza aplikatua bultzatzeko abian diren ekimenak defendatu eta elikatu, baina itun sozial handi hori bideratuz lagundutako oinarritzko ikerkuntza bultzatzera.
- Berariazko aurrekontu publikoez hornitu lagundutako oinarritzko ikerkuntza; baina egungoak baino pixka bat garrantzitsuagoak behar dute eta oinarritik berriro bideratu behar dira.

Itun sozial hori aplikatu ahal izateko, beharrezko estrategiak elkarlanean definitu eragile aktiboekin, eta nahitaez, enpresa eta ikerketa-zentroekin.

- Erakundeekiko ohiko loturak gaingitu —funtsean, politika eta unibertsitatea-ren arloei eragiten die— eta lagundutako oinarritzko ikerkuntzarako kudeaketa berriaren alde egin, egitura publiko zein pribatuen bitartez. Baina egitura horiek nahikoa autonomo izan behar dute baliabideak bideratzeko, kasuan kasu, proiektu bakoitza hoberen garatuko duten zentro eta ikerketa-taldeetara. Gure herrialdeko ikerketa-taldeak bultzatzea izango da asmoa, baina informazio- eta ikerketa-zerbitzuak bestelako inguruneetan ere kontratatze gaitasun eta borondatearekin. Diru-hornidura publikoa izango da funtsean baina bideratuta egongo da, hain zuzen, epe luzera begira enpresa-interes zehatza daukaten proiektuei.

5. Mondragon Kooperatiba Taldea Euskal Estatuaren sorreraren ikuspegitik

Antxon Mendizabal Etxabe, Ekonomiako irakasle titularra, UPV/EHUko irakaslea

«Mondragon Kooperatiba Taldea Euskal Estatuaren sorreraren ikuspegitik» izenarekin, Mondragon Korporazioari buruzko ikuspegi global eta estruktural bat aurkezten dugu, milurteko berriaren planteamendu estrategikoak bereziki jorratuz: kudeaketa korporatiboaren bigarren eredua, balio korporatiboak, Mondragon Unibertsitatearen garapena, internazionalizazio-prozesua, Garaia proiektua eta berrikuntza-sistema. Azterketa kualitatiboak Euskal Estatuaren eraikuntzarekin zerikusia duten mugak eta ekarpenak aztertzen ditu, kooperatibismoaren ikuspegitik, ekarpen estrukturalak, ekarpen potentzialak eta jabetzaren sozializazioan eragin berezia dutenak nabarmenduz.

The Mondragon Cooperative Group and the prospect of a basque state

This chapter presents a broad structural overview of the Mondragon Corporation cooperative group, focusing on its strategic approach for the new millennium, which covers the second model of corporative management, corporative values, Mondragon University, internationalization, the Garaia project and the innovation system. This qualitative study, which discusses some good points and limitations in relation to the building of a Basque state from the perspective of the cooperative movement, considers structural features, some potential contributions and the particular consequences of the socialization of property.

SARRERA

Itxura guztien arabera, Euskal Estatuaren sorrera edo komunitate propio bezala ditugun interesentzat egokia den estataltasunaren eraikuntza ez da epe laburrera gauzatuko. Badirudi, beraz, posibilitatea eta beharra bide desberdinetatik doazela kontu honetan. Beharraren ikuspegia guztiz premiazkoa da, oinarritzkoa, hil edo bizikoa gure eguneroko elkarbizitzarako eta biziraupenerako. Posibilitatearen ikuspegiak, berriz, espazio ilunen kontra topo egiten du, eta oztopo nabarmenak aurkitzen ditu bere aurrean.

Nolanahi ere, orientazioa oso garbia da. Espainiako eta Frantziako estatuetatik gure eguneroko bizitzan ezartzen diren demokraziek gure garapena eragozten dute, eta kateez lotzen dute gure askatasuna. Haien iturrien urak ez du balio gure egarria asetzeko. Beraz, gure autoantolakuntza politikoaren bidean soilik egin dezakegu aurrera, gure autogestioaren eta gure autosufizientziaren bidean.

Europar gaude, eta erraz antzeman daiteke oraingo europar eraikuntzaren diseinu monetarista, liberal, neoliberal eta estatistik zailtasun nabariak planteatzen dituela gure Nafar Estatuaren berreskurapen modernorako. Estataltasun propioaren lorpena bideragarriagoa izango da baldin eta Europako herriak eta langile-klaseak Europa demokratiko, sozialista eta antiinperialista eraikitzearen alde borrokatzen badira, hau da, borroka horren testuinguruan. Bere langile-klaseen zerbitzuan jarritako Europa sozialista bat, eta Herrien Europa bat, non kultura eta nazio guztiek garapen-aukera berak dituzten.

Testuinguru horretan kokatuko dugu txosten honetan azaltzen duguna, «ekarpen potentzial orokorrez» eta «euskal kooperatibismoak jabetzaren sozializazioari egin diezaiokeen ekarpenaz» hitz egiten dugunean. Halaber, zentzu berberarekin kontsideratu behar dira «prozesuan detektatutako muga eta anomalia batzuk» deritzan epigrafean jasotako azterketak ere.

1. MONDRAGON TALDEAREN DIMENTSIO KUANTITATIBOA ETA KUALITATIBOA

Mondragon Korporazio Kooperatiboa, 2008ko «Mondragón Humanity at Work» logotipo berriaz izendatua, munduan parekorik ez duen esperientzia bat da, alegia, lanaren kooperatibizazioaren bidezko garapenaren esperientzia bat.

1.1. Prozesuaren berezitasun ekonomikoak

Mugimendu kooperatibo hau beste herrialde batzuetako esperientzia kooperatiboarekin alderatuz gero, ezaugarri berezi batzuk detektatzen ditugu Mondragonen esperientzian:

- Lehenik, kooperatiba hauek sektore industrialean daude finkatuta beren sorreratik, eta beren esperientziaren oinarria eta matrizea ekoizpen-kooperatibak izan dira; beste herrialde batzuetako esperientziak, berriz, kontsumoan (kontsumo-kooperatibak) edo kredituan (kreditu-kooperatibak) soilik finkatu dira, edo sektore horietan garatu dira gehienbat.

- Bigarrenik, beste herrialde batzuetako ekoizpen-kooperatibak teknologikoki atzeratuta dauden sektore eta produktueta daude finkatuta, eta haien ekoizpen-prozesuak, normalean, intentsiboak izaten dira lan aldetik. Hemen, aldiz, Mondragon Taldeko kooperatibak teknologia aurreratuko produktu eta zerbitzuetan daude finkatuta, eta haien ekoizpen-prozesuak, normalean, kapital aldetik izaten dira intentsiboak.
- Hirugarrenik, ekoizpen-kooperatibek finantzaketa-arazo larriak aurkitzen dituzte beren garapenerako, zeren bazkideen finantza-baliabideak ez baitira nahikoak izaten enpresen garapenetik ondorioztatzen diren beharrei erantzuteko; horren eraginez, hirugarrenen finantzaketa bilatu behar izaten dute, eta horrek bankuen mende uzten ditu finantzen ikuspuntutik. Mondragon Taldearen kasuan, aldiz, beren banku kooperatibo propioa (CLP) sortuz eta taldea beraren inguruan egituratuz konpondu dute historikoki arazo larri hori. Hala, Mondragon Taldeak talde industrial bezala funtzionatzea lortu zuen aurrena, eta talde global bezala geroago, enpresa kooperatibo bakoitzaren autonomiari eutsiz.

1.2. Mondragon Korporazioaren oraingo errealitatea (Mondragón Humanity at Work)

1956an Mondragonen (edo Arrasaten) sortua, etxe-tresna elektrikoen lantegi txiki batean hasi zen jardunean; 2010. urtearen amaieran, ia 84.000 langilarekin, Euskal Herriko talde liderra da, espainiar enpresen rankingaren zazpigarrena, eta Europako 150 enpresa handienetako bat, munduko talde kooperatibo handiena izateaz gain. Enpleguaren ia erdia (% 44) Hego Euskal Herriko lau probintzietan dago, % 19 nazioarteko eremuan eta % 37 Espainiako estatuko gainerako lurraldeetan.

Antolaketaren alorrean, hiru gizarte- eta zuzendaritza-organo nagusi ditu:

- Batzar Kooperatiboa: kooperatibak ordezkatzan dituzten 650 batzarkideren bitartez, korporazioaren administrazioa gidatzen duten irizpide estrategikoak ezartzen ditu, bere negozio-atalen plangintza eta koordinazioaren bidez.
- Batzorde Iraunkorra: Batzar Kooperatiboaren aginduz, Batzarrean erabakitako politiken betearazpena bultzatu eta kontrolatzea du helburu.
- Kontseilu Nagusia: atal eta kooperatiben politikak koordinatzen ditu, eta estrategia eta helburu kooperatiboak lantzeaz eta aplikatzeaz arduratzen da.

Hamarkadaren azken urteetan, gainera, aldaketak gertatu dira antolakuntzaren eremuan, zeren ezagutzaren alor berria eratu baita, prestakuntzaren eta berrikuntzaren inguruan. Alor horretan, ikerketa-zentroak, I+G zentroak eta prestakuntza-zentroak biltzen dira; azken horien artean, Mondragon Unibertsitatea nabarmentzen da (8.500 ikasle ditu). Hala, taldeko 256 enpresa eta erakundeak lau alorretan egituratzen dira: hiru alor historikoak (finantzak, industria eta banaketa) eta ezagutzaren alorra.


Horrenbestez, Mondragon Korporazioa oinarritzko lau alorretan egituratzen da:

- Finantzen Alorrak, «Caja Laboral» eta «Lagun Aro» erakundeekin, banku, aseguru eta gizarte-aurreikuspenaren jarduerak biltzen ditu.
- Industriaren alorra —taldearen matrizea—, azpisektore hauekin: kontsumo-ondasunak, ekipo-ondasunak, osagai industrialak, eraikuntza eta enpresa-zerbitzuak.
- Banaketaren alorra, EROSKI Taldearen bidez, Espainiako estatuko banaketa-talde nagusietako bat da: 2600 establezimendu baino gehiago ditu, eta badu sare bat Frantziako estatuko hegoaldean ere. Gainera, nekazaritza, baratzezaintza eta elikadura-zerbitzuen eremuan diharduen ERKOP Enpresa Taldea ere hartzen du barne.
- Ezagutzaren alorra; lehen esan dugunez, prestakuntza-zentroak eta ikerketa-zentroak biltzen ditu.

1.3. Korporazioaren egitura

Mondragon Korporazioa egituratzen duten instituzioen organigrama eta eginkizunak sintetizatzen dituen koadro bat azalduko dugu, modu laburrean.

Mondragon Korporazioaren antolakuntza-egitura



Iturria: MONDRAGON Korporazioa. 2010eko profila.

14. Milurteko berriaren planteamendu estrategikoak

Laurogeita hamarreko hamarkadaren planteamendu estrategikoek garapen esanguratsua izango dute milurteko berrian. Horrez gain, elementu berriak ere agertuko dira. Esanguratsutzat jotzen ditugun batzuk azalduko ditugu, modu laburrean, oraingo «Mondragón Humanity at Work» ikuspegiaren benetako neurria edo irismena ikusi ahal izateko.

1.4.1. Kudeaketa korporatiboaren bigarren eredu

Kudeaketa korporatiboaren lehenengo ereduaren eguneraketak kritika bat plazaratu zuen, alegia, haren oinarria izan zela enpresa transnazionalen ezagutza eta partaidetza-ereduak kooperatibetan aplikatzea. Orientabide berriak, aldiz, partaidetza- eta kudeaketa-eredu endogeno bat garatzeko beharra planteatzen zuen, kultura kooperatiboan finkatuta. Prozesu horren emaitza izan zen partaidetza eta kudeaketarako eredu berri bat lantzea, 2007an, printzipio kooperatiboetan oinarrituta. Eredu berriak hiru helburu nagusi ditu: langileen inplikazioa hobetzea, enpresa filialen kudeaketa-sistema homogeneizatzea, eta enpresa-bikaintasuna lortzea. Hala, asmoa da enpresa bikaina⁴² eraikitzea, beren testuinguru sozialean txertatutako emaitza sozio-enpresarialekin.

1.4.2. Balio korporatiboak

Oro har onartutako balio-karta bat egitea da funtsezko urrats berria. Prozesuaren zutabea da atxikitako kooperatibek beren balio-kartak lantzerakoan eskuratutako esperientzia⁴³. Hala, guztiek barneratutako eta adostutako balio-karta bat ezartzen da, korporazioa orientatzen duen ardatz egituratzaile berria izan dadin aurrerantzean. Mondragon Korporazio Kooperatiboaren balio korporatiboek alderdi hauek bultzatzen dituzte: bezeroaren satisfazioa, pertsonen balioa, produktu eta zerbitzuen optimizazioa, elkarlana, hobekuntza etengabea eta konpromiso soziala. Milurtekoaren lehen hamarkada honen amaieran, enpresaren filosofia lau balio nagusitan sintetizatu zen: elkarlana (jabeak eta protagonistak), partaidetza (kudeaketan konprometitzea), erantzukizun soziala (ondasunen banaketa solidarioa eta ingurunearekiko inplikazioa) eta berrikuntza (etengabe berriztatzea).

1.4.3. Mondragon Unibertsitatearen garapena

Mondragon Unibertsitatearen jatorrian egondako hezkuntza-egitura eraldatu zen, eta hortik zentro hauek sortu ziren: Ingeniaritza Fakultatea, Giza Zientzien eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea, eta Enpresa Zientzien Fakultatea. Halaber, azpimarratzekoa LANKI Lankidetzaren Ikertegiaren sorrera, esperientzia

42. 2008. urtearen amaieran, aitortzak, ziurtagiriak eta enpresa-kalitate eta -bikaintasunarentzako sariak honela laburbil daitezke: Europako EFQM sariaren finalista, Europako Ingurumen Sari bat, 8 urrezko Q, 18 zilarrezko Q, 4 izen-ematea EMASen, 108 ISO 9000 ziurtagiri, 54 ISO 14001 ingurumeneko ziurtagiri, 16 OHSAS ziurtagiri —Prebentzioa eta Laneko Arriskuen Sistemak—, Erantzukizun Sozialarentzako SA 8000 ziurtagiri bat (Urteko Txostena. 2009, 4. orrialdea).

43. Kooperatibaren barneko eztabaida baten ondoren, balioak onartzen dira, besteak beste: lankideenganako konfiantza, bezeroen satisfazioari emandako lehentasuna, helburuen arabera partaidetzazko zuzendaritza, eta abar.

kooperatiboaren Gizarte Zientzien sail bezala funtzionatzen baitu. Milurteko berri honetan, hezkuntzaren berringeniaritza, hezkuntza elebiduna, ikerketa-gaitasuna indartzea⁴⁴ eta Unibertsitate Campusa beste eskualde batzuetarantz garatzea⁴⁵ dira unibertsitate kooperatibo berriaren jarduera-ardatz nagusiak⁴⁶.

1.4.4. *Internazionalizazio-prozesuaren garapena*

Laurogeita hamarreko hamarkadaren bigarren erdian planteatutako internazionalizazio-prozesua errealitate distiratsu bilakatu da. Hala, 2009. urtearen amaieran, Mondragon Korporazio Kooperatiboak 75 ekoizpen-planta eta 9 ordezkari-tza korporatibo zituen 17 herrialde eta 4 kontinentetan banatuta. 45 filial Europar daude, 14 Amerikan, 15 Asian eta 1 Afrikan. Normalean, pentsatzen da deslokalizazioen asmoa ekoizpen-kostu txikiak bilatzea izaten dela; errealitatean, baina, Mondragon Korporazioak 22 ekoizpen-planta ditu garapen-maila handiko herrialde batzuetan, hala nola Estatu Batuak, Alemania, Erresuma Batua, Frantzia eta Italia⁴⁷. Ordezkari-tza korporatiboak, berriz, merkatu eta garapen-zentro handietan kokatzen dira, hala nola Estatu Batuak, Mexiko, Brasil, Txile, India, Errusia, Txina, Taiwan eta Vietnam.

2010. urtearen amaieran, internazionalizazio-prozesuaren bidez kokatutako ekoizpen-plantei 15.930 langile biltzen zituzten, eta talde kooperatibo industrialaren lanpostuen herena kontzentratzen zuten. Enpresa berriak Sozietate Anonimoak dira. Beraz, sozietate-eredua apurtuz, zentro kooperatiboarekin batera periferia kapitalista dinamiko bat garatzen da, gero eta gehiago, besteren konturako langileekin. Egitura sozial horri beste zerbait gehitu behar zaio, alegia, zentro kooperatiboko langileen % 20 inguru besteren konturako langileak direla.

1.4.5. *Garaia proiektua*

Haren helburua da kooperatibak kontzentratzen dituen lurraldearen ekoizpen-egitura indartzea, enpresak, ikerketa-zentroak eta unibertsitatea sare batez lotzearen bitartez. Horrek bermatzen du produktu eta prozesuen berrikuntza, baita enpresa berrien sorrera ere. Funtsean, prozesu hori ezinbestekoa da tamaina ertaineko kooperatiba gehienentzat; izan ere, haien dimentsio txikiak garapen endogenoa oztokatzen du, eta lankidetzarako estrategia partekatuak garatzera behartzen ditu. Ikerkuntzaren alorreko lankidetzaren sare honen asmoa da enpresa unibertsitatearekin eta zentro teknologikoekin egituratzea, «ezagutzen zirkulu» bat sortuz, non ideiek eta pertsonen zirkulatzen baitute. Hala, Garaia proiektua espazioa, azpiegiturak eta pertsonak partekatzen dituen berrikuntza-polioa izatera pasatzen da, eta funtsezko tresna bihurtzen da kooperatiben garapenerako. Izatez, garrantzi handiko eraldaketa-eragile bilakatu da ikerketa epe luzera bultzatzeko, lanpostu kualifikatuen sorrera sustatzeko, enpresa berrien jarraipena egiteko eta ekonomia-ehuna trinkotzeko.

44. Azpimarratu beharko litzateke Mondragon Unibertsitateak 16 batzar antolatu dituela 2008-9 ikasturtean, ezagutzaren zenbait alor jorratzeko.

45. Gaur egun, 4.000 ikasle baino gehiago daude unibertsitate-ikasketak egiten, campus hauetan: Arrasate, Oñati, Eskoriatza, Markina, Goierri, Irun eta Donostia.

46. Altuna, Larraitx: "La Experiencia Cooperativa de Mondragón", 168. orrialdea.

47. Korporazioaren Profila. Mondragon 2010.

1.4.6. *Berrikuntza-sistema*

Logika horren ildotik, MCCk berrikuntzarako egitura bat eraiki du, lau poloren inguruan.

- Mondragon Unibertsitatearen Plan Estrategikoa: 16 erronka estrategikori buruzko ezagutza-taldeak eratu ditu, ikerketa-eredu berri bat diseinatu du, eta zirkulua sendotu du: enpresak, zentro teknologikoak, ikerketa-taldeak eta unibertsitateak.
- Garaia Berrikuntza Poloa: unibertsitatea eta ikerketa-zentroak barne hartzen dituen parke zientifiko bezala eraiki da, «eskualdea» tokiko garapenaren unitate bezala planteatuz.
- Zentro Teknologikoak eta enpresen I+G Sailak; 2009an, hamabi zentro biltzen ziren polo honetan, eta 750 ikertzaile zituen lanean.
- Zientzia eta Teknologia Plan Korporatiboa: proiektu teknologiko berrien garapena hartzen du barne: 22 ildo estrategiko ditu I+Garen alorrean, eta hor lan egiten dute 37 kooperatibak, Taldeko zentro teknologiko guztiek eta Mondragon Unibertsitateak. Alderdi hauekin zerikusia duten gaiak jorratzen ditu: material berriak eta fabrikazio-sistemak, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, energiarako eta iraunkortasunerako teknologiak, osasunerako teknologiak, enpresa-kudeaketarako teknologiak, eta balioei eta partaidetzazko kudeaketari buruzko ikerketa.

2. EUSKAL ESTATUAREN ERAIKUNTZAREKIN ZERIKUSIA DUTEN MUGAK ETA EKARPENAK, KOOPERATIBISMOAREN IKUSPUNTUTIK

2.1. *Prozesuan detektatutako muga eta anomalia batzuk*

Kooperatibak funtzionamendu kapitalistaren mende dagoen gizarte batean integratzen dira. Lehiaren mekanismoen arabera funtzionatzen dute, eta haien helburua enpresa-mozkina bilatzea da. Baldintza horiekin, metaketa kapitalistaren mende egoteak ondorio esanguratsuak izan ditu historikoki, eta baditu oraindik ere⁴⁸:

Gako garrantzitsu bat garapen-eredua da. Mondragonen prozesu kooperatiboa Euskal Herrian nagusi zen garapen kapitalistako ereduaren funtsezko osagaia izan da. Garapen-eredu honen erreferentzia bat Leintz haranean dugu, batez ere kokagune matrizean: Arrasate. Herri horretako garapen-ereduaren ezaugarriak oso agerikoak dira: urbanizazio neurrigabea; hondamen ekologikoa, kutsadura eta biodibertsitatearen galera handia; etxebizitzaren prezioak Donostiakoen parekoak; Eroskiren merkataritza-zentroak saltoki txikiak suntsitu ditu eta herriko bizitasuna moteldu; orain dela gutxi arte, ez zegoen garraio publikorik, ez barnean ezta haranetik kanpoko herriein komunikatzeko ere; nekazaritzako jarduera tradizionalaren

48. Frankismoaren garaian, eta 1959ko egonkortze-neurrietatik abiatuta, helburua lanpostu asko sortzea zen, zeren desarrollismo frankistak horixe exijitzen baitzuen. Eta horrek ez du inolako zerikusirik euskal gizarteak garai hartan zituen beharrekin, bazik eta euskal kapitalaren hedatze-beharrekin. Desarrollismoa muturrera eraman zen, hainbestearino non 2.000 lanordu baino gehiago egiten baitziren urtean, eta eraso larria izan zen bertoko kulturaren aurka; hala, beste neurri batzuen artean, herrietako jaiak ezabatzen saiatu zen.

suntsipena (eta bertako baserri askoren desagerpen fisikoa ere); hiri-ondarearen suntsipena; eta gure historiaurreko ekosistemen hondamen kulturala.

Garapen-ereduaren beste muga garrantzitsu bat korporatibismoa izan da. Horren erakusgarri bat da kooperatibek sortzen dituzten lanpostuak ez direla komunitatearentzat, baizik eta bazkideen seme-alabentzat. Hala, lan kooperatiboa eskualde jakin bateko lan-masaren ehuneko garrantziatsua denean, kooperatiba horietan lan egiteko lehentasuna bazkideen seme-alabei ematen dien printzipio kapitalista eta enpresarialaren aplikazioak diskriminatu egiten ditu kooperatibisten senideak ez diren pertsonak⁴⁹. Eta horrek ondorio nabariak ditu leku jakin batzuetan, hots, lanpostu gehienak edo haien parte esanguratsu bat kooperatibetan kontzentratuta duten lekuetan.

Ilido beretik, gauza bera esan behar da enpresa kooperatiboek komunitatean inbertitu behar dituzten funtsei buruz —kooperatibek zerga gutxiago ordaintzearen truke egin behar dituzten inbertsioak—, alegia, funts horiek talde kooperatiboaren interesen alde inbertitu izan dira beti, beraren baldintza ekonomiko, teknologiko eta sozialen erreprodukzioa bermatzeko. Gainera, ez da diferentzia kualitatiborik antzematen enpresa multinazionalen dinamikaren aldean, zeren horiek ere beren ikastetxe propioetan eta beren garapenera zuzendutako zentro teknologikoetan inbertitzen baitute lehentasunez. Kooperatibek, baina, zerbait gehiago egin beharko lukete. Garbi dago, gainera, funts horien erabilerari buruzko erabakia komunitateko ordezkariekin batera kudeatu beharko litzatekeela.

Logika korporatibista horretan kokatu behar da beren internazionalizazio-prozesua egitean erakutsi duten sentikortasun eskasa, zentro kooperatibo bat eta periferia kapitalista bat sortu baitituzte. Hala, periferia kapitalista Lehen eta Hirugarren Munduko herrialde periferikoetara eramandako ekoizpen-planten garapenean oinarrituta (deslokalizazioen garapenean oinarrituta) erabili da, eta erabilera horrek Mondragon talde korporatiboaren argazki integral bat planteatzen digu, non zentro kooperatiboak bere langileiaren parte bat erabili eta esplotatzen baitu, besteren konturako lan-indar bezala kontratatuta; eta, gainera, langileria mota hori langileen gehiengoa da talde osoan —hots, gehiengoa besteren kontura lan egiten duten pertsonak dira, ez kooperatibistak—.

Alde horretatik, esanguratsua da aldi baterako kontratua duten langileen erabilera, leku askotan enpresaren % 20ra iristen baitira; horri gehitzen badiogu probaldi asko «sine die» luzatzeko politika, garbi geratzen da horrek erreserba-armada baten erabilera planifikatua erakusten duela: kooperatibek langile horiek (erreserba-armadakoak) esplotatu eta erabiltzen dituzte, eta beharrezkoa zaienean kanporatu egiten dituzte, kooperatiben enpresa-eraginkortasunaren izenean.

Enpresa horietako teknoestruturaren nagusitasunaren eraginez⁵⁰, ez dago «konbergentzia»rik herri-mugimenduarekin, eta gabezia horrek murrizten ditu

49. Beste era batera esanda, Eroski Arrasaten jartzen bada, kooperatibakoa ez den masa familiarra lanpostura iristeko bidetik kanpo geratzen da. Bertan jartzen dena Corte Inglés izanez gero, berriz, lanpostua lortzen saiatzeko bidea askoz ere demokratikoagoa da, eta baldintza berdintsuagoetan hartzen ditu barne udalerriko gazte guztiak.

50. Gizarte Kontseiluen eskumen murrizak dira teknokraziaren arma eraginkorrenetako bat, klase pribilegiatu bezala dituen interesak eta lan-indarraren gainera agintea betikotzeko.

komunitate osoaren emantzipaziorako aukera politikoak ere; langile-mugimendua eta herri-mugimendua zatituz eta pertsona indibidualistak sortuz, sistemaren logikan sartuta daudenak eta beren kontsumo-ahalmenaren, oporren eta interes material partikularren alde soilik borrokatzen direnak.

Esan liteke, beraz, kooperatiben ustezko neutraltasuna gezurrezkoa dela, zeren beren barnean dauden ildoen emaitza baita. Emaitza neoliberala, autogestionarioa, antiinperialista edo inperialista izan daiteke, baina inola ere ez neutroa. Kooperatibismoak garapen-proiektu bat eskaini behar dio euskal gizarteari: materiala, demokratikoa, langile- eta herri-mugimenduarekin konprometitua, autogestionarioa eta internazionalista.

Laburbilduz, esan liteke Mondragon taldeko kooperatiben esperientziaren potentzialtasunak oso garrantzitsuak direla eraikuntza nazionalerako, beren elkartze-gaitasunagatik, lurraldean errotuta egoteagatik, garapen sozialerako duten ahalmenagatik eta globalizazioaren erronka ekonomikoei aurre egiteko duen gaitasunagatik. Bestalde, ezin ahaztu daiteke esperientzia horrek oztopoak ere jar diezazkiokeela Euskal Herriaren eraikuntza sozialari (Andoni Esparzak ohartarazi zuen horizontean), zeren eredu korporatibista bat sor baitezake, gizartea sisteman integratuz eta komunitateagatik eta proiektu sozialengatik inola ere interesatzen ez den klase ertain indibidualista eta insolidario bat sortuz.

2.2. Suspertze endogenoaren ildoak

Batzorde Iraunkorrak eta Batzar Kooperatiboaren 2003ko Osoko Bilkurak beren kezka azaldu zuten garai hartan gertatzen ari zen prozesuagatik, hots, «esentzia kooperatibotik urruntzeko prozesuagatik». Bada, kezka hori abiapuntutzat hartuta, horren inguruko eztabaida bat egituratu zen, ia 2.000 pertsonaren parte-hartzearekin —ildo hierarkikotik integratuta—. Eztabaidaren emaitza txosten batean zehaztu zen, hots, *Mondragon taldearen esperientzia kooperatiboaren zentzuari buruzko hausnarketa* izeneko txostenean. 2006an argitaratuta, agiri horrek jasotzen ditu zentzu kooperatiboa biziberritzera zuzendutako suspertze endogenoaren ildo nagusiak. Agiriak hiru jarduera-eremu zehazten ditu:

Lehenengoa hezkuntza kooperatiboari dagokiona da. Hau modu oso garbian dago formulatuta MCCren oinarritzko printzipio bezala: Mondragonen esperientzia kooperatiboak adierazten duenez, aurreko printzipioak txertatzeko funtsezkoa da behar bezainbesteko giza baliabide edo baliabide ekonomiko bideratzea hezkuntzara, alderdi hauek kontuan hartuta:

- Hezkuntza Kooperatiboa: bazkide guztiena, batez ere organo sozialetarako aukeratutako bazkideena.
- Profesionala, batez ere zuzendaritza-organoetarako aukeratutako bazkideena.
- Oro har, gazteriarena, esperientzia hau etorkizunean sendotzeko eta garatzeko gai diren gizon eta emakumeen sorrera bultzatuz.

Bigarren ildo nagusia partaidetza/elkarlana da, eta esperientzia kooperatiboaren bi funtsezko printzipioren garapenean konkretatzen da:

- Lanaren soberania. Hemen kontsideratzen da lana dela izadiaren, gizartearen eta gizakiaren faktore eraldatzaile nagusia, eta, hortaz:
 - Uko egiten zaio soldatako langileak sistematikoki kontratatzeari.
 - Lanari osoko soberania ematen zaio enpresa kooperatiboaren antolaketan.
 - Lana funtsezko hartzekoduntzat hartzen da sortutako aberastasunaren banaketan.
 - Lan egiteko aukerak gizarteko kide guztiei eskaintzeko borondatea adierazten da.
- Kudeaketan parte hartzea: hemen ezartzen denez, kooperatibaren izaera demokratikoa ez da haren sozietate-alderdian agortzen; horrez gain, auto-gestioa gero eta gehiago garatzea eskatzen du, eta, hortaz, bazkideen parte-hartzea enpresa-kudeaketaren alorrean; horrek, berriz, hauxe eskatzen du:
 - Partaidetzarako egokiak diren mekanismo eta bideak garatzea.
 - Gardentasun informatiboa, kooperatibaren kudeaketaren oinarritzko aldagaien bilakaerari dagokionez.
 - Kontsulta- eta negoziazio-metodoak praktikatzea bazkide langileekin eta haien ordezkari sozialekin, haiekin zerikusia duten erabakiak hartzerakoan —erabaki ekonomikoak, antolakuntzakoak eta laboralak—.
 - Bazkideen prestakuntza sozial eta profesionalerako planen aplikazio sistematikoa.
 - Barneko promozioa erabiltzea erantzukizun profesional handieneko postuak betetzeko bide nagusi gisa.

Hirugarren printzipioak «eraldaketa soziala»rekin du zerikusia. Mondragonen esperientzia kooperatiboak eraldaketa sozialaren alorrean duen orientabidea zortzigarren printzipioan dago jasota. Bertan adierazten da eraldaketa solidarioaren aldeko borondatea, beste herrialde batzuekin batera bideratzeko, Euskal Herriaren baitan jardutearen bidez, haren berreraikuntza ekonomiko eta sozialari laguntzen dion hedakuntza-prozesu batean; horrekin batera, euskal gizarte askeago, justuago eta solidarioagoa eraikitzen lagundu nahi du, tresna hauek erabiliz:

- Eskuratutako soberakin garbien zati handiena berriz inbertitzea, proportzio esanguratsu bat izaera komunitarioko funtsetara bideratuz; horren asmoa da lanpostu berriak sortu ahal izatea, erregimen kooperatiboan.
- Garapen komunitarioko ekimenak sostengatzea, Hezkuntza eta Sustapen Kooperatiboko Funtzaren aplikazioaren bitartez.
- Sistema kooperatiboarekin bat datorren Gizarte Segurantzako politika bat, elkartasuna eta erantzukizuna oinarritzat hartuta.
- Izaera ekonomiko eta soziala duten beste euskal instituzio batzuekin kooperatzea, batez ere euskal langile-klaseak sustatzen dituenekin.

- Euskara biziberritzen laguntzea, hizkuntza nazionala den aldetik, eta, oro har, euskal kulturaren elementu bereizgarrien sustapenean aritzea.

Orain arte esan duguna osatzeko, azpimarratu behar da eraldaketa soziala MCCren misioan bertan jasotzen dela: «Aberastasuna gizartean sortzea, enpresa-garapenaren bidez eta enplegua —batez ere enplegu kooperatiboa— sortzearen bidez».

2.3. Euskal kooperatibismoak jabetza sozializatzeko prozesuari egin diezaiokeen ekarpena

Euskal kooperatibismoaren beste erronka handi bat jabetza sozializatzeko prozesuari egin diezaiokeen ekarpena da, jabetza moten egitura berri bat itxuratuz komunitatean, behar sozialak betetzeko xedea gehiago nabarmenduz. Gai hau garrantzitsua izaten da beti, baina garrantzi estrategiko berezia hartzen du helburutzat dugun testuinguruan, alegia, euskal estataltasunaren eraikuntza langile-klaseak gidatutako Europa prosozialista batean. Hemen marxismora jotzen dugu, eta espezifikoki formazio ekonomiko-sozialen aldaketa gradualaren legera⁵¹; haren arabera, jabetza-harremanek haustura-puntuak adierazten dituzte garapen historikoan. Garbi dago, nonbait, gizateriak formazio sozioekonomikoetatik izan duen bilakaera ez zaizkiola zehatz-mehatz egokitu beraren forma partikular guztiei⁵².

Horrek bi dilema planteatzen ditu. Lehenengoa da beharrezkoa dela sozializazioan aurrera egitea egitura sozialaren bitartez, hau da, egitura soziala bera zeharkatuz. Bestela esanda, oraina nola hobetu etorkizuna sortzeko. Planteatzen den bigarren dilema da beharrezkoa dela besteek eredutzat har ditzaketen sozializazio-sistemak garatzea; sistema horiek, gainera, sozializazio handiagoko egitura berri horien bideragarritasuna eta legimitate historikoa bermatu behar dituzte.

Era horretan, eredu kooperatiboak herri-interesekin bat datorren sistema sozializatuago bat eratzeko eginkizuna du, bai nekazaritza-ekonomietan, bai industrializazio-maila txikia edo ertaina duten ekonomietan, bai eta teknologia modernoak xertatuta dituzten ekonomia industrializatueta ere. Azken kasu horrek badu zerikusia Euskal Herriko prozesuarekin, eta, gainera, eredutzat har daiteke gainerako esperientzientzat. Gai hori funtsezkoa da sozialismoa eraikitzen duten herrialdeetan, eta atea irekitzen dio jabetza soziala bistaratzeari; bertan, ahalduntzearekin edo zerbitzu publikoez «sozialki jabetzea» rekin⁵³ batera, enpresa kooperatiboen konfederazioa funtsezko ardatza izan daiteke.

Garbi dago hor dagoela gaiaren gakoa. Jabetza estatalak (estatuaren enpresak) ekoizpen-prozesuetan dituen muga ekonomiko eta sozialak gainditzeko modu bakarra da jabetza sozialaren nozioa sakontzea, bai kontzeptualki bai enpirikoki.

51. Marcelo Yera, L. (2003): "El Quinto Tipo de Propiedad Empresarial en la Transición Socialista", *Marx Ahora*, 16, Kuba.

52. Hala, herri germaniar eta eslaviarrek, Afrikako eta Asiako zerga-sistemen mendeko herriek eta historian zehar izan diren herri nomada ugariak ez dute esklabismoaren garapena zuzenean ezagutu; izan ere, oro har, komunitate primitibo eta/edo tribala izatetik gizarte feudala izatera pasatu dira.

53. Hemen «jabetze sozial» nozioa agertzen da; nozio horrek kontsideratzen ditu bai estatuak ondasun publikoen gainean duen jabetza eta bai langileek ekoizpen-bideez jabetzea.

Azken batean, autogestio-jabetza da hori, alegia: jabetza mota bat, interes sozialak lehenesten dituen eta tokiko interesekin eta interes partikularrekin bateratzen dituen.

Jabetza sozial-komunitarioaren forma hau jabetza publiko eta/edo estatal oso deszentralizatuarekin identifikatuko litzateke; forma horretan, jabetza-eskubideak hainbat protagonista sozialen artean banatuko lirateke. Halaber, jabetza-eskubidea komunitatean existitzen dela aitortzen duen jabetza kooperatiboaren formarekin ere identifikatuko litzateke. Hau da, forma horretan, komunitateak ere erabakitzen du jabetza kooperatiboaren inguruan, kooperatiba horren gaineko jabetza-eskubidea duelako, eta baduelako erabakitzeke eskubidea beraren enpresa-antolaketako sistemen gainean eta gainbalioaren erabileraren gainean (gainbalioa zertarako erabiltzen den, nora doan).

Jabetza sozialaren eta jabetza kooperatiboaren garapenak ekoizpen-indarrak askatuko litzuzke, lehiakorragoa izango litzateke ekonomikoki eta sozialki, eta eredu zein erreferentzia soziala izango litzateke jabetzaren gainerako formentzat.

2.4. Ekarpen estrukturalak

Beharrezkoa da prozesuaren ekarpen estruktural batzuk azpimarratzea, zeren oso esanguratsuak baitira balizko Euskal Estatua finkatzeko prozesuan.

Horri dagokionez, alderdi hauek bereiziko ditugu:

Elkartzeko gaitasuna. Horren adierazlea da Mondragon Taldeak bizitasun nabaria erakutsi duela enpresak elkartzeko prozesuak gauzatzeko (enpresen federazioak, eskualdeko taldeak, talde sektorialak, eta abar) eta zerbitzuak eta estaldura-erakundeak sortzeko, horri esker eskala-ekonomiak eta arrazionalizazio-ekimenak gauzatzeko hainbat alorretan, hala nola: plangintza, kudeaketa, I+G, berrikuntza, espezializazioa, dibertsifikazioa, komertzializazioa, finantzaketa, interes komunaren defentsa, eta abar. Era horretan, ekoizpen-unitate bakoitzak bere kabuz jardutean dituen gaitasun murrizkak gainditzen ditu.

Lurraldetasuna; hemen, horren jatorria da kapital sozialak horrelako enpresa kooperatiboetan duen sakabanaketa izugarria. Izan ere, sakabanaketa horrek nabarmenki ostopatzen du edo erabat eragozten du ekoizpen osoak lurraldez aldatzeko politika (arrazoi ekonomiko eta politikoengatik), kapital pribatuaren ohiko praktika bihurtu den politika hori eragotziz. Enpresa horietako langile-enpresariak —eta horrek barne hartzen ditu, jakina, Mondragon Taldekoak— beren lurraldean errotutako gizon eta emakumeak izan ohi dira, eta beren herrialdea garatzearen eta bertan bizitzearen aldeko militantzia egiten dute sarritan.

Mondragon Taldeaz hitz egiten badugu ere, alderdi sozialaren garapena ekonomia sozial osoaren berezko tresnetatik abiatuta planteatzen da hemen, alegia: bazkide langileen Batzarra dela organo juridiko gorena; demokrazia ordezkatzailerak txertatzen dela enpresen munduan, pertsona bakoitzari boto bat emanez; demokrazia handiagoa dagoela soldataren alorrean; alderdi sozialak kudeaketari buruzko informazioa eta gardentasuna exijitzen dituela; eta enpresa horiek garrantzi

estrategikoa ematen diotela langileen prestakuntzari. Horren ondorioa da elementu demokratikoak txertatzen direla garapen ekonomikoaren egituran.

Kapitalizazio-prozesu historikoa. Ezaguna denez, ekonomia sozialeko enpresen autofinantzaketa ez da aski izaten enpresa-prozesuaren finantzaketa-beharrei erantzuteko. Hala, Europako kooperatiben promozio berrien historiak erakusten duen bezala, sarritan gertatu da enpresa horiek ezin izan dituztela kredituak itzuli, eta, ondorioz, bankuen mende geratu dira gero eta neurri handiagoan. Mondragonen mugimendu kooperatiboak, haatik, «kapitalizazio-prozesu berezi» batez gainditu du zailtasun hori; horren funtsezko oinarriak izan dira ordainsari-austeritatea, sarrerako kuota bat ordaintzeko exijentzia, kooperatiban sartzen den bazkide berriak gutxienez egin behar duen ekarpena, eta, bereziki, enpresa-soberakinen kapitalizazio sistematikoa. Azken mekanismo horrek autofinantzaketa-politika ahalbidetzen du, zeren soberakin horiek kooperatiban inbertitzen baititu berriz, langileen kontsumora zuzendu beharrean⁵⁴.

Finantza-erakunde propio baten sorrera. Adierazi dugun bezala, metaketa propioa ez da aski izaten beharrezkoa den inbertsio-mailara iristeko. Garapen-gradu jakin batera iritsita, enpresa kooperatiboak kredituak behar izaten ditu, eta horrelakoetan nahiko ohikoa izaten da bankuen mende geratzea. Irtenbideen bilaketak finantza-erakunde bat sortzera eraman zuen: Caja Laboral Popular —Euskadiko Kutxa—. Haren asmoa zen komunitatearen aurrezkiak jasotzea, diru hori enplegu kooperatiboan inbertitzeko. Era horretan, inizatiba original bat aurkitzen dugu, zein kooperatiba horien finantza-arazoen neutralizazio erlatiboaren oinarrian dagoen. Inizatiba hori da, halaber, haien hedapen estrategikoaren bihotza.

Estaldura-kooperatiben garapena. Funtsean, 60ko hamarkadan hasitako prozesu bat da, geroago finkatuz joan zena erakunde batzuen sorrerari esker: Caja Laboral Popular, Enpresa Atala («División Empresarial»), Mondragon Eskola Politeknikoa, Ikerlan, eta abar. Estaldura-kooperatiba horiek finantza-sostengua, laguntza teknikoa, aholkularitza eta sustapena bermatzen dituzte, eta, oro har, taldearen kohesio eta funtzionamendu onerako beharrezkoak diren jarduera guztiak.

Kooperatiben arteko elkarlana. Caja Laboral eratzeaz batera, izaera progresiboko elkartze-prozesu baten oinarriak ere jarri ziren; bada, prozesu horrek nahiko bizkor egin zuen aurrera, halako moldez non kooperatibak «Enpresa Talde» bezala egituratu ziren beren funtzionamenduan, kooperatiba indibidual bakoitzaren autonomia gordez. Era horretan, praxira eraman zen kooperatiben arteko elkarlanaren printzipioa. Horrek garrantzi berezia hartuko zuen 70eko hamarkadako krisialdiarekin. Izan ere, garai hartan, kooperatibek aurre egin behar izan zioten lanpostu ugari galtzea eta hainbat enpresa ixtea eragin zuen egoerari, zenbait neurri aplikatuz; horien artean, nabarmentzekoa da Talde Kooperatiboen⁵⁵

54. Mondragon Taldean bada hainbat motatako «Erreserbak» biltzen dituen sistema bat, estatutuek ezarria; bertan arautzen denez, «erretornuen» monetarizazioa baldintza ekonomiko-finantzario jakin batzuk betetzen direnean soilik egin daiteke.

55. Izatez, talde kooperatiboak bazuen esperientzia konkretu bat, 1964az geroztik funtzionatzen zuena, zerbitzu komunak eta kooperatiben arteko xedapenak konpartituz: Ularco Talde Industrial Kooperatiboa, eskualde bateko kooperatiba industrialak biltzen zituen eta erreferentziatzat hartu zena Talde Kooperatiboen konfiguraziorako.

sorrera. Hala, eskualdeko talde berriek kooperatiba industrialen arteko elkarlana instituzionalizatu⁵⁶ zuten, krisiari⁵⁷ aurre egitera zuzendutako erantzun komun eta eraginkorrak hartzeko, beren zailtasun sozialei modu bateratuan heltzeko eta estrategia komunak implementatzeko. Geroago, talde sektorial berriak eratu ziren, sektore industrial berean jarduteko. Kasu horretan, beren sorrera konbergentzia teknologiko eta komertzialeko irizpideetan oinarritu zen.

Finantzaketa-egitura berria. Egitura horrek «Funtzen Sistema» bat sortu zuen, honako hauek bilduz: Emaizten Birbanaketa, Kooperatiben arteko Elkarlanerako Funtz Zentrala, Kooperatiben arteko Hezkuntza eta Sustapen Funtza, Elkartasun Korporatiboaren Funtza, Kooperatiben arteko Elkartasun Funtza, MCC Inbertsioak, MCC Fundazioa, MCC Garapena, Enplegurako Laguntza Funtza, eta abar. Sistema horrek autofinantzaketa-gaitasuna sendotzen du, legegintzako xedapen propioetan oinarritutako finantzaketa-egitura bat itxuratuz.

Kudeaketa-eredu korporatiboa; alor honetan, kultura kooperatiboan oinarritutako partaidetza- eta kudeaketa-sistema endogeno bat garatzeko ahalegina nabarmentzen da. Hala, 2007an, partaidetza- eta kudeaketa-eredu bat landu zen, printzipio kooperatiboetan oinarrituta eta «taldekako lana»ren inguruan egituratua. Eredu horrek hiru helburu nagusi zituen: langileen inplikazioa hobetzea, kudeaketa-sistema homogeneousatzea Taldearen partaidetza zuten filialetan, eta enpresa-bikaintasuna lortzea. Bere dimentsio potentzialenean, atea irekitzen dio jabetza, emaitzak eta erabaki estrategikoak langileen esku uzten dituen eredu bati.

Mondragon Unibertsitatearen garapena. Ingeniaritza-fakultate bat, giza eta hezkuntza-zientzien fakultate bat eta enpresa-zientzien fakultate bat biltzen dituen hezkuntza-egitura bat itxuratzen du, irakaskuntza eta ikerkuntza egokiak eskaintzeko xedez, Talde Kooperatiboaren esperientzia sozio-enpresarialaren erreproduktzioarako beharrezkoak diren koadroak prestatzeko bidea.

Garaia proiektua. Orain dela gutxi sortua, haren helburua da kooperatibak hartzen dituen lurraldearen ekoizpen-egitura sendotzea, enpresak, ikerketa-zentroak eta Unibertsitatea sare moduan elkarrekin lotzearen bitartez. Funtsean, prozesu hori ezinbestekoa da tamaina ertaineko kooperatiba gehienentzat; izan ere, beren dimentsio txikiak garapen endogenoa oztopatzen die, eta, hortaz, lankidetzak estrategia partekatuak garatzera behartzen ditu.

Berrikuntza-sistema. Elementu hauen bidez egituratzen da: Mondragon Unibertsitatearen Plan Estrategikoa, Garaia Berrikuntza Poloa, Zentro Teknologikoak eta Enpresen I+G Atalak, eta Zientzia eta Teknologiaren Plan Korporatiboa. Oro har, asmoa da berrikuntza-estaldura bat konfiguratzeko, Talde Kooperatiboaren egokitzapena bermatzeko etengabeko aurkikuntza teknologikoetatik eta globalizazio-prozesutik ondorioztatzen diren erronken aurrean.

56. 70eko hamarkadaren bigarren zatian eta 80ko hamarkadaren lehenengo urteetan, 14 eskualde-talde inguru eratu ziren haranez haran.

57. Lanik gabe geratu ziren langileen birkokapena eta emaitzen banaketari buruzko xedapen berriak izan ziren haren ekarpen esanguratsuenak.

Mondragon Taldearen egitura multisektoriala eta horrek hezkuntza- eta ikerketa-mundu propio batekin duen lotura tamaina handiko potentzialtasuna da «bestelako garapen baterako», Euskal Herrian.

2.5. Ekarp^{en} potentzialak

Euskal Estatu demokratikoago eta sozialago bat eraikitzeko prozesuan egin litezkeen ekarpenei dagokienez —ekarpen «potentzialak»—, hauxe azpimarratuko genuke:

Hasteko, lortu behar dena da mugimendu kooperatiboa eta ekonomia soziala —oro har— langile-klasearen sustapenerako tresna izatea benetan; era horretan, protagonista bihurtuko litzateke alor ekonomikoan (ekoizpena, banaketa, zerbitzuak eta hezkuntza), langileen protagonismoa finkatuz bai prozesu teknologiko-produktiboetan eta bai enpresen jardunean.

Alde horretatik, Talde Kooperatibo autogestionarioaren langileen proiektua bere alorrak menderatzeko borrokatik haratago doa, zeren gizartearen eta zibilizazioaren diseinura ere iristen baita, eta hori gainerako ekoizpen-unitateekin batera eraikitzen da, elkarri lotuta. Horretarako, beharrezkoa da talde kooperatiboaren enpresak egituratzea herri-mugimenduaren proiektu soziopolitikoan integra daitekeen sare batean.

Lehen planteatutako eredu integratzaile horren baitan, ekonomia kooperatiboa enpresa eta proiektu alternatibo multzo bezala agertzen da, bi borroka uztartu nahi dituen: ekoizpen-unitateen barneko partaidetza eta autogestioaren aldeko borroka, eta gizarte osoaren kudeaketa demokratiko eta parte-hartzailearen aldeko borroka.

Garrantzi handiko ekarpen potentzial bat garapen komunitarioari dagokiona da. Testuinguru honetan, garapen komunitarioaren abiapuntua da sortutako gainbalioaren zati bat garapen horretara bideratzea, industria, hezkuntza, gizarte-laguntza eta ikerketaren alorretan —besteak beste—; oinarriak kontrolatuta, garapen horrek bidea emango luke komunitate konkretuan eragina izateko, hazkunde ekonomikoa, autogestioaren garapena, egitura komunitarioen demokratizazioa eta sustapen material, sozial, politiko eta kulturala bultzatuz.

Beste ekarpen potentzial bat parte-hartzeari dagokiona da. Parte-hartzerik gabe ez dago benetako demokraziarik. Bestela esanda, kontua da jabetza formala jabetza erreal bihurtzen duen dinamika bat sortzea. Horretarako, ezinbestekoa da garrantzi handiko alderdi batzuk jorratzea, hala nola ekoizpen-harreman sozial eta teknikoak, boterearen gardentasuna, agintea eta mendetasuna, jakintza eta erabakia, oinarriaren bidezko kontrola, eta dimentsioa. Koordinada demokratiko eta autogestionario horietatik abiatuta, beste helburu bat da Euskal Herriko komunitateari gure nazioaren jabetza eta kontrola itzultzen dizkion mundu baten alde borrokatzea.

Horrekin batera, badakigu zein den teknologia berrien agerpenaren eta globalizazioaren ondorio bat, alegia, ezagutzaren kudeaketa funtsezko ardatz bihurtzen dela ekoizpen-prozesuen iraupen eta garapenerako. Horri dagokionez, kontua da giza adimen eta esperientzia ekoizpen-prozesuetan inplikatzeko, eta

horretarako berebiziko garrantzia du jabetza-sentimenduak. Nolanahi ere, sozietate anonimoetan ez bezala, enpresa kooperatiboetan harreman berri batean finkatzen da sentimendu hori: bazkide langilea, horixe baita enpresa horien ezaugarria. Hala, Talde Kooperatiboko langile-enpresariak berez eskuratzen dute jabetza-sentimendu hori, eta, hortaz, badute abantaila nabaria alderdi horretan.

Oraingo testuinguruan oso garrantzitsua den beste ekarpen potentzial bat da «bestelako internazionalizazio-prozesu bat» eraikitzea, hots, Mondragon Taldearen izaera kooperatiboarekin hobeto uztartzen den eta gainerako enpresetatik bereizten den internazionalizazio-prozesu bat eraikitzea. Prozesu horrek neutralizatuko lituzke oraingo internazionalizazio-prozesuaren logikak, Lanaren Nazioarteko Erakundeak (OIT) ezarritako betekizun soziolaboralen betearazpena exijituz, hirugarren herrialdeen deskapitalizazio eta finantza-esplotazioen dinamikak kuestionatuz, herrialde horietako langileei beren enpresen jabetzara iristea ahalbidetuz, eta internazionalizazio-prozesuen ezagutzazko banaketa kuestionatuz.

Azken batean, ekonomia kooperatiboaren diferentzialtasunak politika industrialaren alderdi garrantzitsu batzuk mediatizatzeko ahalmena izan dezake. Hala, ekoizpen-jarduera berriak aukeratzeari dagokionez, behar sozialentzat egokiak izan daitezela saia daiteke; teknikaren erabilerari dagokionez, eraginkortasun sozio-produktiboa bermatzeaz gain, pertsonen humanizazioa hobetzen saia daiteke; prestakuntza sustatzearen ikuspuntutik, berriz, eduki integralagoa, elkarreragileagoa eta autogestionarioagoa eman diezaiokie; teknologiarri begira, aukera teknologikoa aktiboagoa, sozialagoa eta berritzaileagoa bultzatzea, sinergia forma berriak garatu ahal izateko berrikuntza sozialen eta berrikuntza teknikoen artean.

Laburbilduz, Euskal Estatua eraikitzeko prozesuari begira, uste dugu Mondragon Taldearen esperientzia kooperatiboak garapen materialerako proiektu bat eskain diezaiokeela euskal gizarteari: aurrerapen teknologikoak euskarritzat hartuta, proiektu hori demokratikoa eta euskalduna izango litzateke, langileen mugimenduarekin eta herri-mugimenduarekin konprometituta egongo litzateke, eta autogestionarioa izango litzateke, baita internazionalista ere.

6. Euskal Estatuaren beharra lan-harremanen eta gizarte-babesaren ikuspegitik

Aitor Bengoetxea Alkorta, Zuzenbidean doktorea, UPV/EHUko irakaslea

Euskal Estatuak, nortasun politikoa duen herri zahar baten gaur egungo eta historiako errebindikazio legitimoa da. Lan-harremanen eta gizarte-babesaren ikuspegitik ere, beharrezkoa dugu. Egungo egoerak, Espainiako eta Frantziako estatuen menpe, ez digu uzten gure kultura eta errealitate sozioekonomikora egokitutako eredu propioa garatzen. Lan honetan, Euskal Estatuaren behar hori azaltzen saiatuko gara.

Lehenik, oraingo argazkia zein den aztertuko dugu: Europar Batasunak, estatu kide diren Frantziako eta Espainiako estatuak, eta Euskal Herriak dituzten eskumen juridikoak eta, eskumen horiek baliatuz, lan-harremanen eta gizarte-babesaren arloan garatzen duten politika.

Ondoren, Euskal Estatu burujabeak arlo horretan bere eredu propioa garatzeko edukiko lituzkeen aukerez arituko gara.

The need for a basque estate in a labour relations and social protection perspective

The Basque state is the legitimate aspiration of an ancient country, both in the modern world and historically. It is also a necessity from the viewpoint of labour relations and social protection. This chapter claims that the present setup, subject to the Spanish and French states, is one that denies to Basques the opportunity to develop their own model responding to their culture and their particular socioeconomic circumstances.

The chapter opens with a snapshot of the current legal powers of the European Union, France and Spain as member states, and the Basque Country, and of the policy of labour relations and social protection that ensues from those powers.

The rest of the chapter discusses options for the development of a specifically Basque model of development that would be available to an independent Basque state.

SARRERA

Ba al dauka zentzurik, XXI. mendean, Euskal Estatu berri bat eraikitzeko planteamenduak? Hainbatek diote globalizazio-garai honetan integrazioa bilatu behar dela, eta estatu berriak sortzea historiaren kontrako norabidea hartzea dela.

Dena den, oso kuriooa da, estatua ideia zaharkitua dela dioten horiek, ez diotela inoiz ukorik egiten beren estatuari. Europar Batasunaren baitan, integrazio politikoa oso eskasa da, eta noizbehinka estatu batzuen nazionalismoa eta tirabirak agertzen dira, batik bat botere politiko, ekonomiko, edota nolabaiteko nostalgia inperiala eta nazio handi izatearen kontzientzia kolektiboa dutenen aldetik (Alemania, Erresuma Batua, Frantzia, Espainia). Espainiako presidenteak hainbatetan errepikatu du, agerraldi publikoetan «nazio handi bat gara», herritarrak adoretzeko mintzaldietan.

Eta Euskal Herriak zer? Milaka urtetan zehar Pirinioetako bi aldeotan garatutako eta belaunaldiz belaunaldi transmititzen den identitate kolektiboaren ondorioz (euskara, kultura, ohiturak, ekonomia, zuzenbidea...), XXI. mendean, nazio-nortasun eta nazio-kontzientzia duen herria izanik, zergatik ez estatu propioa? Nazio orori ez al dagokio estatu bat, lehena azpiegitura (gorputza), eta bigarrena gainegitura (arropa) bailiran?

Espainiako estatutik, sarritan deskalifikatu nahi da Euskal Herriko burujabetasun-nahia egoismo ekonomikoa leporatuz. Estali egiten da arazo politikoa, nortasun politikoa duen herri baten gaur egungo eta historiako errebindikazio legitimoa, eta espainiar batzuen egoismo eta insolidaritate hutsa direla esaten da. Egia da, hainbat adierazle sozioekonomikok, lan honetan zehar aipatuko den moduan, erakusten digutela Hego Euskal Herria Espainiako estatuan aitzindaria dela (pobrezia-tasak, Gini adierazlearen aberastasunaren banaketa, langabezia, etab.). Akusazio horri erantzuteko, esan daiteke burujabetasun-gose hori aldagai ekonomikoen gainetik, eta aurretik, egon dela eta dagoela.

Lan honetan Euskal Estatuaren beharra ikuspegi jakin batetik aztertuko da: lan-harremanen eta gizarte-babesaren ikuspegitik. Erreferentzia Euskal Herri osoa izanik eta osotasun hori beti presente edukita, Ipar Euskal Herriari aipamen gutxi egingo zaizkio, besteak beste gaur egun aztertutako gaietan garapen propio oso eskasa duelako.

Lehenik eta behin, saiatuko gara aztergai dugun objektua definitzen: lan-harremanez eta gizarte-babesaz ari garenean, zehazki zertaz ari garen.

Gero, arlo horretan egungo egoera zein den aztertuko dugu, Europar Batasunak, estatu kide diren Frantziako eta Espainiako estatuak, eta Euskal Herriak dituzten eskumenak eta, eskumen horiek baliatuz, lan-harremanen eta gizarte-babesaren arloan garatzen duten politika.

Ondoren, balizko Euskal Estatuak gizarte-arlo horretan bere eredu propioa garatzeko aukerez arituko gara. Aztertutakoaren konklusioekin amaituko dugu.

1. LAN-HARREMANAK ETA GIZARTE-BABESA

Aldarrikapen gisa, azkenaldian *lan-harremanen eta gizarte-babesaren esparru propioa* aipatzen da. Esparru horren edukia definitu nahian, hiru atal desberdinduko ditugu: enplegu-politika, lan-harremanak eta gizarte-babesa.

1.1. Enplegu-politika

Lan-harremanak eta gizarte-babesa aipatzen direnean, multzo horren barruan enplegu-politikak leku propioa merezi du. Objektua ongi definitzeko, hobe da enplegua eta lan-harremanak desberdintzea. Izan ere, une desberdin gisa uler ditzakegu, enplegua edukitzeak eta enplegua galtzeak, lan-harremanaren hasiera eta amaiera eragiten baitituzte.

Enplegu-politikaren barruan, ohikoa da enplegu-politika aktiboak eta enplegu-politika pasiboak desberdintzea. Funtsean, politika aktiboak dira enplegua sortzera edota mantentzera bideratzen direnak, eta politika pasiboak, berriz, langabezian dauden pertsonak babestera zuzentzen direnak.

Enplegu-politika aktiboak norabide desberdineko neurriek osatzen dituzte. Lan-merkatua izanik haien objektua, neurri batzuk merkatu horretako bi alderdiak harremanetan jartzera zuzentzen dira, kolokazioa izanik helburu. Enplegua eskatzen duen langabetua eta enplegua eskaintzen duen enpresa harremanetan jartzea da gakoa, bitartekaritza-sistemen bitartez, enpresa eta langabetuen soslaiak jasotzen dituzten datu-baseak direla medio.

Enplegu-politikaren beste atal bat langabetuari edo, enplegua mantentzeko helburuz, lanean ari direnei zuzendutakoa da. Funtsean, langabetuari informazioa eta orientazioa eman behar zaio, lan-merkatuaren egoera eta bakoitzaren aukeren inguruan, laneratzeko ibilbide indibidualizatua eratuz. Balioetsi behar da ea lanbide-prestakuntza saioak egitea komeni zaion langileari, haren enplegarritasuna hobetzeko giltzarri gisa (lanerako prestakuntza, langabetuei; etengabeko lanbide-prestakuntza, lanean ari direnei).

Gainera, langilea besteren kontura aritzeko politikaz gain, enplegu-politika aktiboan langilea bere kasa jardutera zuzendutako neurriak daude: autoenplegua. Arlo horren barruan bi atal daude, autoenplegu indibiduala, autonomoek osatua, batetik, eta autoenplegu kolektiboa, gizarte-ekonomiako aukeren bitartez garatzen dena, bestetik: kooperatibak eta lan-sozietateak (lan-sozietate anonimoak eta lan-sozietate mugatuak).

Enplegu-politikaren beste atal bat enpresaburuari zuzendutako neurriek osatzen dute, langileak kontrata ditzaten. Arlo honetan, alde batetik lan-kontratu motak daude; izan ere, legez erabakitzen baita zein diren erabil daitezkeen lan-kontratuak eta haien ezaugarriak (finko edo mugagabeak, aldi baterakoak, denbora osokoak, denbora partzialekoak, etab.). Sarritan, diru-laguntza publikoak ere egoten dira, langile mota jakinak kontratatzeagatik edo lan-kontratu batzuen erabilera sustatzeko (adib. kontratu finkoak). Kontratazio-unean ez, baizik eta enpleguaren amaierako unean kokatuta, enpresaburuari zuzendutako neurrien artean dago kaleratze sistema (kaleratze-librea edo kausala, kalte-ordainen kopurua, etab.).

Enplegu-politika pasiboa, berriz, langabetua babestera zuzendurikoa da. Batez ere, langabetuari errenta bermatzeko prestazio ekonomikoak ematen zaizkio eta, horiekin batera, enplegu-politika aktiboko neurriak (informazioa, orientazioa, lanerako prestakuntza), lehenbailehen lanera bueltatzeko. Izan ere, langabetuaren kontzeptua da lan egin nahi, ahal (gaitasuna), eta enplegurik aurkitzen ez duen pertsonarena. Beraz, enplegu-politika pasiboa eta aktiboa uztartuz, planteamendua da langabetuari prestazio ekonomikoa eman bai, baina ahalik eta azkarren lanera buelta dadila.

1.2. Lan-harremanak

Lan-harremanen kontzeptua argia da, teknikoki. Pertsona batek enpresa batentzat, eta enpresaren lan-aginduen menpe, borondatezko lana egiten duenean soldataren truke, langile horren eta enpresa horren artean lan-harremana dago, eta bien arteko harreman horri lan-zuzenbidea aplikatuko zaio.

Hortaz, lan-harreman indibidualaren esparrua enpresa baten eta langile baten artekoa da, eta haien arteko harremanaren kategoria juridikoa lan-kontratua da. Hortik aurrera, lan-kontratu horren eremuan lan-baldintzak garatzen dira: soldata, lanaldia, ordutegia, oporrak, mugikortasun funtzionala (funtzioz aldatzea), mugikortasun geografikoa (lantokiz aldatzea), kontratuaren geldiera (suspentsioa, langilearen bajak, eszedentziak...), etab.

Beste dimentsio batean, lan-harreman kolektiboak ditugu. Langileek, beren interesak defendatzeko, ordezkari kolektiboak dituzte (sindikatuak, langileen delegatuak, enpresa-komiteak, asanblada). Harreman kolektiboetan, langileen subjektu horiek alderdi bat dira, eta beste aldean enpresaburuak edo enpresaburuaren elkartek daude. Harreman hauen edukia, batez ere, negoziazio kolektiboa, greba eta gatazka kolektiboen inguruan kokatzen da.

1.3. Gizarte-babesa

Gizarte-babesaren esparrua oso zabala da. Oinarritzko sailkapena eginez, hiru maila desberdindu ditzakegu: gizarte-laguntza, Gizarte Segurantza, eta gizarte-babes osagarria.

Gizarte-laguntza oinarritzko maila da, azken sare publikoa, bestelako euskaririk eduki ez eta beharrian ekonomiko larria dutenei laguntzeko. Aurrekontu publikoetako diruarekin finantzatzen da, eta gizarte-bazterketa egoeran edo egoera horretan jausteko arriskua dutenei prestazio ekonomikoak ematea da haren zeregin nagusia.

Gizarte Segurantza, aldiz, ekarpenak egin beharreko derrigorrezko aseguru-sistema publikoa da. Gizarte-babesaren maila hau enpresek eta langileek, legez behartuta, Gizarte Segurantzari ekarpen gisa ordaindu beharreko kotizazioen bitartez finantzatzen da, eta legez aurreikusitako langileen hainbat beharrian ekonomikotako egoerei erantzuten die, prestazio ekonomikoen bitartez (erretiroa, gaixotasuna, ezgaitasuna, amatasuna, istripua, etab.).

Azkenik, gizarte-babes osagarria dugu. Maila hau borondatezkoa da, eta haren esparrua aseguru pribatuak dira⁵⁸: pentsio-plan eta pentsio-funtsak, aseguru kolektiboko kontratuak, eta gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak. Maila hau kontratatzen denean, borondatezkoa izanik, derrigorrezko Gizarte Segurantzaren publikoaren mailari gehitzen zaio, osagarri gisa.

2. EGUNGO EGOERA

Ikus dezagun zein den egungo egoera, Euskal Herrian, lan-harremanei eta gizarte-babesari dagokienez. Horretarako, Europar Batasunan, Espainiako eta Frantziako estatuetan, eta Euskal Herrian, gai horien inguruan dagoen eskumen-banaketa juridikoa eta funtsean bakoitzak egiten duena aztertuko dugu.

Europar Batasunaren helburu nagusia, zalantzarik gabe, ekonomikoa da: Europako merkatu bakarra. Horregatik, Europako zuzenbide nagusia (*hard law*), estatuen botereari gailentzen zaiena, merkatu bakarraren osagaien zirkulazio askea bermatzeaz arduratzen da: langileak eta kapitala (ekoizpen-faktoreak), alde batetik; eta ondasun eta zerbitzuak (ekoiztitakoa), bestetik.

Lan-harremanei eta gizarte-babesari dagozkien gaiak, Europar Batasunean, bigarren mailan daude (*soft law*), eta haien ardura nagusia estatuei dagokie. Eredu horretan, Europar Batasuna subsidiarotasun edo ordezkio izaera duen botere juridikoaren esparruan mugitzen da.

Frantziako estatuaren kasuan, azterketa oso ximplea dela esan genezake. Nabarmena da estatuko botereari dagozkiola enplegu-politika, lan-harremanak, eta gizarte-babesaren araubide juridikoak, Frantziako Konstituzioaren 34. artikulua legeen esku uzten baitu lan-zuzenbidearen eta Gizarte Segurantzaren oinarriak ipintzea, eta Frantziar legeak bakarrik Estatuak eman ditzake.

Ipar Euskal Herriak ez du nortasun juridiko publiko propioa, egun, Biarnorekin batera, Pirinio Atlantikoen Departamendua osatzen baitu, Akitaniako eskualde barruan. Dena den, departamendu eta eskualdeek ez dute eskumenik lan-harremanen eta gizarte-babesaren alorretan, beraz, Ipar Euskal Herriak nekez eduki dezake politika propioa aztertzen ari garen arloan. Horregatik, ondoko lerrootan Hego Euskal Herriko egoeran zentratuko gara.

2.1. Enplegu-politika

Enplegu-politikaren alorrean, enplegurako estrategia koordinatuan datza Europar Batasuneko sistema⁵⁹. Sistema horren gakoa da Europar Batasunak enplegu-politikako irizpide batzuk ematen dituela, estatu kideek, beren enplegu-politika diseinatu eta gauzatzekoan, jarraitu beharrekoak. Irizpide horiek ez dira lotesleak, eta estatu kide batek ez badie jarraitzen, zigor politikoak egon daitezke, ez juridikoak⁶⁰.

58. Borondatezko, osagarri, eta publikoa den maila ez da batere ohikoa, baina egon daiteke.

59. Europar Batasuneko Funtzionamenduko Tratatuaren (EBFT) IX. Titulua.

60. Gaur egun, Europar Batasuneko enplegu-politikaren muina Europa 2020 Estrategian eta estatuen enplegu-politikarako orientazioetan (2010-2014) aurkitu dezakegu. Horiek garatuz, Frantziako eta Espainiako estatuak beren Erreformen Programa Nazionalak egin dituzte.

Europar Batasunak badu enplegu-politikan giltzarri bat, estatu kideei aplikatzeko eskatzen diena: flexiguritatea⁶¹. Flexiguritatearen kontzeptuak, enpresentzat malgutasuna eta langileentzat segurtasuna uztartuz, biok garaile bihurtuko dituen oreka planteatzen du.

Flexiguritateko bi mota nagusi daude: barrukoa eta kanpokoa. Barrukoan, enpresak malgutasuna du lan-baldintzak aldatzeko (soldata, lanaldia, funtzioak, etab.) eta, horren truke, langileak segurtasuna du bere enpleguan (enpleguan egonkortasun-printzipioa; aldi baterako kontratuak bakarrik arrazoituta daudenean, eta kaleratze librerik ez). Sistema hau normaltasunez onartzen du lan-zuzenbide konparatuak.

Kanpoko aldaeran, berriz, enplegua bera malgua da (aldi baterako kontratu libreak eta kaleratze libreak), eta segurtasunik ez dago enpleguan, lan-merkatuan baizik. Segurtasun horrek esan nahi du, nahiz eta enplegua erraz galdu, enplegu-politika aktiboen bitartez (orientazioa, lanerako prestakuntza...) langilea azkar bueltatuko dela lanera, eta bitarte horretan nahiko errenta edukiko dituela, politika pasiboen bitartez (soldataren ordez ematen diren prestazio ekonomikoak).

Kanpoko flexiguritatearen sistema honek berebiziko arrakasta dauka Dani-markan. Baina oso kontuan eduki behar da bertan enplegu-politika aktibo eta pasiboetarako erabiltzen den dirutza, lanaren kultura, sindikatu eta patronalaren arteko konfiantza eta abarrek eragiten duten Danimarkako enplegu-eredu propio eta singularra. Formula hau Europar Batasun osora hedatzea oso arriskutsua da, besteak beste Espainiako estatuan, malgutasun nabarmenaren truke, ez delako bermatzen segurtasunik lan-merkatuan, langabezia-aldi oso luzeak daudelako, politika aktibo eskasak, eta, aldi berean, nahiko errenta bermatzen ez duten langabezia-prestazioak.

Beraz, enplegu-politikan estatuena da ardura juridiko nagusia. Espainiako estatuaren kasuan, Konstituzioak ez du jasotzen, bere horretan, enpleguaren arloko eskumena. Dena den, zeharka bada ere, argi dago Konstituzioak Estatuari esleitzen diola enplegu-politikaren eskumena. Estuati dagokio politika ekonomikoaren helburuak definitzea (Konst. 149.1.13 art.), tartean, enplegu-politika; kontratazioa dela-eta, Estatuarena da lan-legeriaren eskumen eskusiboa (Konst. 149.1.7 art.); eta, enplegu-politika pasiboari dagokionez, langabezia-prestazioak Gizarte Segurantzako sistema barruan kokatuta egonik, Estatuaren eskumen eskusiboa da Gizarte Segurantzaren oinarritzko legeria eta haren araubide ekonomikoa (Konst. 149.1.13 art.).

Hego Euskal Herriko autonomia-erkidegoei, enplegu-politikan, Estatuak erabakitako joko esparruan mugitzea dagokie. Halaxe da enplegu-politika aktiboen arloan, beti estatuko politika ekonomikoaren baitan⁶², eta estatuko lan-legeria

61. Flexiguritateari buruzko dokumentu nagusia, Europako Batzordearen COM (2007) 359 da, ekainaren 27koa. Hortik aurrera, Europar Batasunak sistematikoki insistentzen du flexiguritatearen idean: Europa 2020 Estrategia, estatuen enplegu-politikarako irizpideak (2010-2014), etab.

62. Euskal Autonomia Erkidegoko Estatuaren (EAEE) 10.25 art. eta Nafarroako Foru Komunitateko Estatuaren (NFKE) 56.1.a) art.

egikaritzuz⁶³. Enplegu-politika pasiboen esparru den Gizarte Segurantzaren alorrean, berriz, estatuko oinarrizko legeriaren egikaritzak dagokie autonomia-erkidegoei, araubide ekonomikoko arauak izan ezik⁶⁴.

Espainiako Enplegu Legeak egiten duen eskumen-banaketaren arabera, enplegu-politika aktiboa egikaritzea autonomia-erkidegoei dagokie, Enplegu Zerbitzu Publiko Autonomoen bitartez (Lanbide eta Nafarroako Enplegu Zerbitzua)⁶⁵. Enplegu-politika pasiboei dagokienez, Estatuak beretzat gordetzen ditu, eta estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren (lehen, INEM) esparruan kokatzen dira.

Ikusitako eskumen-banaketaren arabera, Espainiako estatuak bere enplegu-politika propioa garatzen du, Europako irizpideei jarraituz. Une honetan, Enplegurako Espainiar Estrategia deritzana indarrean dago⁶⁶, Europa 2020 Estrategiaren garapen gisa.

Europako langabezia-adierazle okerrera, alde handiz, Espainiako estatuak du, Europar Batasuneko 27 herrialdeak kontuan hartuta. Izan ere, EBko batez bestekoa % 10ekoa da, Espainiako estatuak % 23,2 du, Frantziako estatuak % 9,9, eta Euskal Herriak % 11,38⁶⁷. Azpimarratu behar dugu, Espainiako estatuaren barruan, EAEk eta Nafarroa Garaiak Estatuak bi adierazle baxuenak dituztela⁶⁸.

Langabezia-tasa izugarri hori dela-eta, Espainiako estatua azken aldian esfortzua egiten ari da enplegu-politika aktiboak indartzeko⁶⁹, baina enplegu zerbitzu publikoek gabezi handiak dituzte, eta krisiak eragindako murrizketa ekonomikoek ez dute batere laguntzen zerbitzu horiek profesional onekin eta baliabide material egokiekin hornitzen, kontrakoa baizik.

Enplegu-politika pasiboei dagokienez, hiru langabezia-prestazio maila daude: kontribuzio-mailako langabezia-prestazioa, asistentzia-mailako langabezia-prestazioa, eta laneratzeko errenta aktiboa. Horietaz gain, 2008an hasitako krisi ekonomikoak eragin duen langabezia-uholde hazkorrari aurre egiteko, koiunturako prestazio gehigarriak daude, langabezia luzatzeagatik prestazio guztiak agortu eta inolako errentarik gabe geratzen den jende mordoa babesteko⁷⁰.

Lan-kontratuak egiteko unean, formalki kontratu arrunta iraupen mugagabekoa da, eta iraupen mugatuko kontratuak bakarrik egin daitezke arrazoi justifikatzaile bat dagoenean. Enpleguan egonkortasun-printzipioa langileen lorpen garrantzitsua

63. EAEEn 12.2 art. eta NFKEren 58.1.b) art.

64. EAEEn 18.2 a) art; NFKEren 54. art.

65. Dena den, egikaritzak eskumenaren mugak agerian utziz, etengabeko lanbide-prestakuntzaren alorrean, HOBETUZ fundazioaren bitartez ezin izan zen gauzatu beste eredu bat eraikitzeke egin zen saioa.

66. EAO, 2011-11-19.

67. Datuak 2011koak dira; Eurostat eta Gaindegia (2011ko Txostena).

68. Gero datoz Kantabria (% 15,9), Aragoi (% 16,8), eta Gaztela-Leon (% 17,1). Kontrako muturrean dugu Espainiako hegoaldea: Andaluzia (% 31,2), Kanariar Uharteak (% 30,9), eta Ceutako Hiria (% 29,1). Populazio Aktiboaren Inkesta, EPA, 2011ko azken hiru hilekoa.

69. Helburu zehatz horrekin, 3/2011, Errege Dekretu Legea, otsailaren 18koa.

70. Indarrean dagoen azkena, 2013ko otsailak 15a arte, 23/2012 Errege Dekretu Legea, abuztuak 24koa, langabezia-prestazioak agortu dituzten langabetuek hileroko 400 euro jaso ditzaten, gehienez sei hilabetez.

izan da, Bigarren Mundu Gerra ostean eman dena, eta logika ezin sinpleago batean oinarritua: antonomasiar, edozein enpresa-negozioren iraupen mugagabeari (ez jakina), iraupen berbera (mugagabea) duen lan-kontratua dagokio. Denbora aurrera joan ahala, kausa justifikatzaile bat agertzen bada (enpresako egoerak okerrera egiten du, langileak ez du bere kontratuan adostu duena betetzen, etab.), langilea kaleratua izan daiteke.

Errealitateak esaten digu izugarritzko iruzur-maila dagoela, batez ere obra edo zerbitzuko kontratuen eta lan-pilaketagatiko kontratuen erabilera. Hainbat enpresaburuk nahiago dute aldi baterako kontratazioa, legeari iruzur eginez, kontratuaren iraupena agortzean lan-harremana berez bukatuko delako, kaleratu behar izanik gabe, iruzur horrek dakarren kostu ekonomikoaren murrizketarekin. Aski esanguratsua da esku artean dugun azken datua: kontratu berrien % 92,1 aldi baterako kontratuak dira⁷¹, eta horrek ez dio errealitateari erantzuten, hots, aldi baterako kontratu horiek ez diote erantzun, legeak nahi duen bezala, aldi baterako arrazoi bati, errealitate ekonomikoa aldakorra baita, baina ez hainbeste. EAEn (% 93,7), eta Nafarroako Foru Komunitatean (% 93,3), datuak oso antzekoak dira.

Dena den, azken hilabeteko kontratu berriak aztertu beharrean, Espainiako estatuko lan-merkatu osoa hartzen badugu kontuan, proportzioa oso modu nabarmenean aldatzen da: indarrean dauden kontratu guztietatik, % 25,3 aldi baterakoak dira, beraz, gainerako % 74,7 kontratu finkoak dira. Frantziako estatuan, berriz, aldi baterako kontratuak % 15,2 dira⁷², EAEn, % 20,2, eta Nafarroa Garaian, % 26,2⁷³.

Zer erakusten digu horrek? Bada, lanean denborak aurrera egin ahala, langileek finko izatea lortzen dutela, eta egonkortasunik ez altuena gazteek jasaten dutela, kontratu berriak egitean.

Kaleratzeari dagokionez, azpimarratzeko modukoa da Espainiako estatuko legedian etengabe gertatzen ari den kaleratzearen errazte eta merketzea. Azken kapitulua 2012ko lan-arloko erreformaren legean dugu⁷⁴.

Lehen, kaleratze kolektiboetan, enplegua erregulatzeko espedienteak derrigorrez Lan-arloko Administrazioak baimendu behar zituen. Orain, enpresaburuari legeak eskatzen dion gauza bakarra da langileen ordezkariarekin negoziatzea, krisi-egoerari aurre egiteko hartu beharreko neurriak adosteko asmoz. Negoziazioa adostasunik gabe amaituz gero, enpresaburuak bere kasa erabaki dezake kaleratze kolektiboa gauzatzea, Administrazioaren baimenik gabe. Gainera, 2012ko aldaketaren ondorioz, bidegabeko kaleratzeen kasuan, langileei dagokien kalte-ordaina soldatako 45 egun lanurte bakoitzeko izatetik 33 egunera igaro da.

71. 2012ko irailako datua, (www.sepe.es).

72. 2011ko datuak, bitartean, Europar Batasunako batez bestekoa % 14,1 da. Bakarrik Poloniak du Espainiak baino adierazle okerragoa, % 26,9ko tasarekin (Eurostat).

73. Hego Euskal Herrian, 2011ko datuak, Eustat eta Nafarroako Estatistika Institutua.

74. 3/2012 Legea, uztailaren 6koa.

Hego Euskal Herriko botere publikoen enplegu-politikari dagokionez, Jaurilaritzak, politika aktiboen inguruan, 2011-2014 Euskal Enplegu Estrategia onartu du, Europa 2020 Estrategiaren ildoak garatzeko asmoz. Bitartean, Nafarroa Garaian, enplegu-politika autonomikoaren ildo nagusiak jasotzen dituen Nafarroako Enplegu Plana 2009-2012 adostu zuten Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak, UGTk eta CCOOk.

Lanbidek EAEn eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Nafarroan, enplegu-politika aktiboak garatuz, bitartekaritza, informazioa, orientazioa, lanbide-prestakuntzako ikastaroen eskaintza, diru-laguntzak enpresei kontratatzeagatik, diru-laguntzak langileei autoenplegu ekimenak burutzeagatik, eta abarreko ekimenak gauzatzen dituzte⁷⁵.

EAEn, 1995ean etengabeko lanbide-prestakuntzari buruzko hiru alderdiko itun bat sinatu zen Eusko Jaurilaritza, patronala (CONFEBASK) eta sindikatu nagusien artean (ELA, CCOO, LAB eta UGT), eta akordio horren ondorioz HOBETUZ fundazioa sortu zen, etengabeko lanbide-prestakuntza kudeatzeko. Nafarroan, Prestakuntza, Birziklatze eta Enplegu Institutua da etengabeko lanbide-prestakuntzaz arduratzen dena⁷⁶, Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin elkarlanean. Institutua Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioa (CEN), UGT eta CCOOren arteko akordio baten ondorioz sortu zen 2001ean.

2.2. Lan-harremanak

Zentzu hertsian, lan-harremanei dagokienez, Europar Batasunak estatuen esku uzten du lan-zuzenbidea, eta, estatuen arteko elkarlana eta koordinazioa bultzatzen ditu, *soft law* teknika bigun eta ez-lotesleen bitartez (praktika onen elkartrukea, etab.)⁷⁷. Europar Batasunak espresuki bere burua gai nagusietatik kanpo kokatzen du (soldata, sindikatuak, greba eta ugazaben itxiera).

Printzipio nagusiak bermatzeko arauak daude: batik bat berdintasuna eta diskriminaziorik eza lan-arloan⁷⁸, eta langileen zirkulazio-askatasuna⁷⁹. Hortik aurrera, zuzentarauak, estatuek bete beharreko gutxieneko helburuak ezarri, hainbat arlotan, besteak beste: langileen ordezkarien eskubidea informatuak eta kontsultatuak izateko⁸⁰; lan-denbora⁸¹ eta denbora partzialeko kontratuak⁸²;

75. <www.lanbide.net> eta <www.navarra.es>.

76. Instituto Navarro para la Formación, el Reciclaje y el Empleo (INAFRE).

77. Europar Batasuneko Funtzionamenduko Tratatuko X. Titulua, Gizarte Politikari buruzkoa.

78. 2006/54, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Zuzentaraua, uztailaren 5ekoa, sexuari dagokionez; 2000/43, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Zuzentaraua, ekainaren 29koa, arrazakeriari buruzkoa; 2000/78, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Zuzentaraua, azaroaren 27koa, diskriminazioaren kontrakoa hainbat arrazoiengatik: erlijio edo sinismenengatik; ezgaitasunagatik; adinagatik, eta orientazio sexualagatik.

79. 492/2011, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Erregelamendua, apirilaren 5ekoa.

80. 2009/38, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Zuzentaraua, maiatzaren 6koa.

81. 2003/88, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Zuzentaraua, azaroaren 4koa.

82. 97/81, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Zuzentaraua, abenduaren 15ekoa.

segurtasuna eta osasuna lanean⁸³; langileen babesa kaleratze kolektiboen aurrean⁸⁴ eta enpresen kaudimen-gabeziaren aurrean⁸⁵; edota aldi baterako enpresak⁸⁶.

Hori dela-eta, Hego Euskal Herrian, Espainiako estatuarena da lan-zuzenbidea sortzeko boterea (Konst. 149.1.7 art.), eta EAERI zein Nafarroari soilik estatuko lan-arloko lege eta erregelamenduak egikaritzea dagokie (EAEERen 12.2 art. eta NFKERen 58.1.b) art.).

Beraz, Estatuak definituko ditu lan-harreman indibidualetako lan-baldintzak (soldata, lanaldia, lanbide-kategorien sistema, mugikortasun funtzionala, etab.); eta lan-harreman kolektiboen araubide juridikoa (sindikatuak, negoziazio kolektiboa, greba).

Bitartean, autonomia-erkidegoei Estatuak sortu duen lan-zuzenbidea aplikatu eta betearaztea dagokie: hitzarmen kolektiboak gordailatu eta erregistratzea; grebetan gutxieneko zerbitzuak ezartzea; enplegu erregulazioko espedienteak ebatzea, etab.

Dena den, azpimarratu beharra dago, lan-harreman kolektiboetan, subjektuek duten autonomia kolektibo araugilea. Hego Euskal Herri osoko esparruan (edo Hego Euskal Herri barruko beste edozein lurralde-esparrutan), enpresen ordezkariak eta sindikatuak botere bateratua dute lan-arloko arauak sortzeko: hitzarmen kolektiboak.

Berebiziko indarra duen tresna da hori, izan ere, Europar Batasuneko eta Espainiako estatuko araudiek finkatzen duten gutxienekotik abiatuta, Hego Euskal Herriko patronal eta sindikatuak aukera dute euskal langileen lan-baldintzak zehazteko (soldata, lanaldia, mugikortasun funtzionala, etab.), hitzarmen kolektiboen bitartez.

Horrek garrantzi sozioekonomiko nabarmena du, eta datuek erakusten digute ezen hitzarmen kolektiboei esker, oro har, soldata eta lan-baldintzetan, Hego Euskal Herrian estatu osoko adierazle hoberenak edukitzen ditugula (Gipuzkoako metalgintzako hitzarmen kolektiboa azpimarra genezake).

Horrexegatik, bereziki kezkarriak dira Espainian Langileen Estatutuan egin diren azken aldaketak (Langileen Estatutuko 84. artikulua berria), indibidualizazioa eta zentralizazioa ekarri dituztelako.

Indibidualizazioa, legez enpresako hitzarmenaren lehentasuna inposatzen delako, sektoreko hitzarmenen aurretik, gai nagusietan (soldata, lanaldia, etab.), modu horretan autonomia kolektiboari lehentasuna aukeratzea eragotziz. Horrek enpresa txikietako langileen egoera nabarmen ahulduko du, sektore-esparruko hitzarmenaren aterperik gabe geratu direlako.

83. Azpimarratu genezake 2009/104, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Zuzentaraua, irailaren 16koa, lan-ekipoak erabiltzerakoan gutxieneko segurtasun- eta osasun-neurriak buruzkoa. Dena den, zuzentzarau asko daude segurtasun eta osasunaren arloan, gaiaren arabera.

84. 98/59, Kontseiluaren Zuzentaraua, uztailaren 20koa.

85. 2008/94, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Zuzentaraua, azaroaren 22koa.

86. 2000/104, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Zuzentaraua, azaroaren 19koa.

Zentralizazioa, azken aldaketa baino lehen, sektoreko edozein hitzarmen kolektibo (tradizio luzea duten probintziakoak, batik bat) gailendu egiten zitzaizolako lurralde-esparru zabalagoa zuen beste hitzarmen bati (Estatukoa, adibidez). Orain, aldiz, Estatuko hitzarmen bati gailentzeko, aukera bakarra Autonomia Erkidegoko esparrua duen hitzarmena da.

Hego Euskal Herriko esparru autonomikoetan, lan-harremanen esparruko hainbat erakunde sortu dira. Gatazka kolektiboen esparruan, aipatu behar da esparru autonomikoa duen EAEko Laneko Gatazkak Ebazteko Borondatezko Prozedurei buruzko Lanbide Arteko Akordioa (PRECO). Akordio horren helburua, lan-harremanetan gatazka kolektiboak pizten direnean, haien bakezko konponketa sustatzea da, greba erabili gabe, adiskidetza, bitartekotza eta arbitrajea baliatuz⁸⁷. Nafarroan, 1996.ean, helburu bera duen Nafarroako Lan Auzitegia fundazioa sortu zen⁸⁸.

Laneko segurtasun eta osasunaren arloan, EAEn OSALAN erakunde autonomoa dago⁸⁹. Haren helburu nagusia lan-arloan segurtasuna eta osasuna sustatzea da, dagokion legeriaren aplikazioa zainduz. Nafarroan, helburu berarekin eta Nafarroako Gobernuaren baitan, Lan Osasunako Nafar Institutua dugu⁹⁰.

Halaber, aipatu behar da, EAEk, bere autogobernuaren eskumenaren arabera (EKren 148.1.1 eta EAEEn 10.2 art.), sortu dituen bi erakunde publiko: Lan-harremanen Kontseilua (CRL)⁹¹, eta Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea (CES)⁹². Nafarroan ere Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzorde propioa sortu da (CES)⁹³.

87. Hiru alderdiko ituna da, eta sinatzaileak dira Eusko Jaurilaritza, patronala (CONFEBASK) eta sindikatu nagusiak (ELA, CCOO, LAB eta UGT).

88. Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak (CEN), UGTk eta CCOOk sinatutakoa. Izen osoa Nafarroako Lan Gatazkak Konpontzeko Auzitegia da (www.tlnavarra.es).

89. 7/1993 Legea, abenduaren 21ekoa.

90. 16/2006 Foru Dekretua, apirilaren 10ekoa.

91. Lan-harremanen kontseilua organo parekidea da, EAEko patronalaren ordezkariak (CONFEBASK) eta sindikatuen ordezkariak osatua (eskubidea dute egoteko, ELA, LAB, CCOO, eta UGTk). Organo horrek bi zeregin nagusi ditu: sindikatuen eta patronalaren arteko etengabeko elkarriketarako bilgune izatea, alde batetik, eta bestalde Eusko Legebiltzarraren eta Jaurilaritzaren kontsultarako organoa izatea, arlo soziolaboraleko gaietan (4/2012, Lan-harremanen Kontseiluko Legea, otsailak 23koa).

92. Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea (CES) ordezkariak plurala barnebiltzen duen erakundea da, sindikatu eta patronalaz gain, beste sektore hauetako ordezkariak baitaude: Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberak; Aurrezki Kutxak eta Finantza Erakundeak; Kooperatibak; Lan-sozietate anonimoak; arrantza-erakundeak; nekazaritza-erakundeak; kontsumitzaileen erakundeak eta Gizarte-ekintzaren hirugarren sektoreko erakundeak. Batzorde horren zeregin nagusia Eusko Legebiltzarraren eta Jaurilaritzaren kontsultarako organoa izatea da, arlo sozioekonomikoko gaietan (8/2012 Legea, maiatzak 17koa, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzkoa).

93. EGABko kideak ondoko erakunde eta elkarten ordezkariak dira: Nafarroako Gobernu eta Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioa (7 kide); sindikatuak (UGT, CCOO, ELA eta LAB, 7 kide osotara); Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioa (7 kide); gizarte-ekonomia (kooperatibak eta lan-enpresak); Nafarroako Nekazari eta Abeltzainak (2 kide); talde ekologistak; Nafarroako Unibertsitate Publikoa; Kontsumitzaile eta Erabiltzaileak. EGABren zeregin nagusia Nafarroako Parlamentuaren eta Gobernuaren organo kontsultibo gisa jardutea da, arlo sozioekonomikoko gaietan. Bereiziki, Nafarroako Aurrekontu Orokorren Lege Aurreproiektuari buruz kontsultatua izan behar du.

2.3. *Gizarte-babesa*

Gizarte-babesaren alorrean, gorago aipaturiko hiru atalak desberdin behar dira: gizarte-laguntza, Gizarte Segurantzak, eta gizarte-babes osagarria.

Gizarte-laguntzari dagokionez, Gizarte Segurantzak babesten ez dituen eta beharizan-egoeran daudenei laguntzera zuzendua, Europar Batasunak gaia estatuen esku uzten du, eta soilik laguntzaile gisa agertzen da, estatuen arteko elkarlana eta koordinazioa bultzatuz⁹⁴. Espainiako estatura etorrira, gizarte-laguntza autonomia-erkidegoek beren gain har dezaketen eskumena da (EKren 148.1.20 art.). Hortik abiatuta, eta aukera hori baliatuz, EAEk eta Nafarroa Garaiak gizarte-laguntza eskumen eskusibo gisa bereganatu dute⁹⁵.

Gizarte-laguntzaren mailan, gizarteratze politika propioa garatu dute, Hego Euskal Herrian, Jaurilaritzak eta Nafarroako Gobernuak. EAEn, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko euskal sistema deritzanaren baitan, prestazio desberdinak arautzen dira⁹⁶. Nafarroako Gobernuaren baitan ere, gizarteratzeko hainbat zerbitzu eta prestazio eskaintzen dira⁹⁷.

Dena den, Espainiako estatuko Gizarte Segurantzaren baitan, ekarpenezko mailaz gain, ekarpenezkoa ez den maila dago (batez ere erretiroko eta ezintasun iraunkorreko pentsioak). Haren izaera gizarte-laguntzarena da (ez baitu aseguru-izaera, ez delako kotizatu behar alde zurretik), baina, Gizarte Segurantzaren sistema barruan egonik, Estatuaren eskumena da.

Gizarte Segurantzaren esparruan, Europar Batasunak estatuen arteko koordinazioa bultzatzen du⁹⁸. Gai honetan, kezka nagusia da Gizarte Segurantzak langileen zirkulazio askearentzat oztopo ez izatea, jatorrizko estatuko prestazioak galdu daitezkeelako. Arrisku hori ekiditeko, lorturiko prestazioak bermatuta daude (edonora esportatuko ditu dagokion estatuko Gizarte Segurantzak), eta lortzeko bidean dauden prestazioen kasuan estatu desberdinetan egindako kotizazio-aldiak batu egiten dira, eta gero estatuak proportzionalki ordainduko dute zatika lortu den «nazioarteko» prestazioa.

Espainiako estatuaren kasuan, EKren 149.1.17 artikulua Estatuaren eskumen eskusiboen zerrendan kokatzen du Gizarte Segurantzaren oinarritzko legeria eta araubide ekonomikoa, alde batera utzi gabe haren zerbitzuak autonomia-erkidegoek egikaritzea.

94. EBFTko X. Tituluaren esparruan.

95. EAEEn 10.12 art. eta NFKEn 44. 17 art.

96. 18/2008 Legea, abenduaren 23koa. Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren barruan bi motatako prestazio desberdintzen dira: Gizarteratzeko eta Gizarte-babeserako Oinarritzko Errenta (lanetik eratorritako diru-sarrerarik ez dutenentzat), eta Lan Etekinak Osatzeko Errenta Osagarria (lanetik eratorritako diru-sarrera eskasak dituztenentzat). Bestalde, Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzak daude.

97. 69/2008 Foru Dekretua, ekainaren 17koa. Azpimarra daitezke Oinarritzko Errenta (baztertuak gizarteratzeko errenta); Familian Integratu eta Gizarteratzeko Laguntzak (ostatua eta mantenua gizarte-bazterketako egoera larrian daudenentzat); edota Babesturiko Gizarte Enplegurako Laguntzak (gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen kontratazioa sustatzeko).

98. EBFTko X. Titulua, eta 883/2004, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Erregelamendua, apirilaren 29koa.

Gizarte Segurantzaren arloan, finantza-arazo nagusia populazioaren zahartzea da. Izan ere, Ipar nahiz Hego Euskal Herrian finantza-sistema banaketakoa izanik, urtero kotizazio bitartez jasotzen dena, urte horretako prestazioak ordaintzeko erabiltzen da. Sortzen den arazoa da gero eta erretiratu gehiago daudela beren pentsioak jasotzen, pentsio horiek finantzatzen dituzten langile kotizatzaile gazteagoak gero eta gutxiago diren bitartean. Gainera, langabeziak eta kalitate eskaseko enpleguak kotizazioen diru kopurua murrizten dute. Hori guztia dela-eta, Espainiako estatuak berriki harturiko neurria izan da jubilatzeke adina 65 urtetik 67 urtera igotzea (neurria 2013ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean).

EKren 149.1.17 artikulutik abiatuta, EAEk eta Nafarroak beren gain hartu dituzte lege-garapena eta estatuko oinarritzko legeriaren egikaritza, araubide ekonomikoko arauak izan ezik⁹⁹, eta Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoaren kudeaketa¹⁰⁰. Gai honekin lotuta dago *kutxa bakarraren* auzia, zeinaren arabera Gizarte Segurantzaren diru guztia Estatuaren organo bakar batean egon behar da, kudeaketaz arduratuko dena. Gaur egun, organo hori Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia da (GSDN)¹⁰¹.

Auzi honi buruz, Konstituzio Auzitegiak dio ezin dela ulertu EKren 149.1.17 artikulua Estatuari Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoan bakarrik ahalmen araugilea gordetzea. Auzitegiak dio jokoan dagoela Gizarte Segurantzaren sistemako batasuna, eta batasun hori bermatzeko, kutxa bakarra (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia) ezinbesteko tresna dela. Epai berean, azpimarratzen da Gizarte Segurantzako diruaren titularra Estatua izan behar dela, batasuna bermatzeko. Era horretan, Konstituzioak ekidin nahi izan du autonomia-erkidegoek Gizarte Segurantzako lurralde-politika desberdinak garatzea. Beraz, araubide ekonomikoaren kudeaketa Estatuaren eskumen eksklusiboa da, GSDNren bitartez, Gizarte Segurantzaren ondare bakarra zaintzearen (AKE 124/1989, uztailaren 7koa)¹⁰².

Kudeaketaren arazoa ezin dugu itxitzat jo AKE 124/1989ren bitartez. AKE 124/1989 epaiko boto partikularretan adierazten den moduan, Gizarte Segurantzako sistemaren batasuna bermatuta dago Estatuaren ahalmen araugilearekin, eta kudeaketa autonomikoak ez du ezbaian jartzen batasun hori. Beraz, defenda daiteke, autonomia-erkidegoek, beren estatutuetan hala jasotzen den kasuetan (EAEE eta NFKEren kasuetan bezala), araubide ekonomikoaren kudeaketa egin dezaketela, funtsean, kotizazioen bilketa eta prestazioen ordainketa aitortzea.

EKren 149.1.17 artikuluan esaten denez, Gizarte Segurantzako *zerbitzuen egikaritza* autonomia-erkidegoek beren gain har dezakete. Zerbitzuen egikaritzari buruz, zehazki, ez dute aipamenik egiten EAEEK ezta ere NFKEk.

99. EAEEren 18.2 a) art.; NFKEren 54.art.

100. EAEEren 18.2 b) art.; NFKEren 54.art.

101. *Tesorería General de la Seguridad Social*.

102. Hori guztia dela-eta, Konstituzio Auzitegiak dio Estatuari (GSDNri) dagozkiola ondoko eskumenak: enpresen inskripzioa; langileen afiliazioa; langileen altak eta bajak; kuoten bilketa; kuoten ordainketan epeak luzatzea, ordainketa zatikatzea; eta prestazioen ordainketak agintzea.

Gaur egun, praktikan, autonomia-erkidegoek Gizarte Segurantzaren arloan egikaritzen duten zerbitzu garrantzitsu bakarra erretiroko eta elbarritasuneko ekarpenezkoak ez diren pentsioei dagokiena da: pentsio horien aitorpena eta ordainketa. EAEko kasuan Foru Aldundiek eskaintzen dute zerbitzu hori. Pentsio horiek, ezbairik gabe, Gizarte Segurantzako esparrukoak dira, eta Estatuak dirua transferitzen die NFKri eta Gipuzkoa, Bizkai nahiz Arabako Foru Aldundiei, ordainketak Estatuaren kargura izan daitezen, pentsio horiek Estatuaren eskumena direlako.

Gizarte-babes osagarriaren kasuan, aseguru pribatuen esparruan gaude, hortaz, zerbitzuen prestazio librearen printzipioa dela-eta, Europar Batasunak badu eskumena gai honetan¹⁰³.

Espainiako estatuko kasuan, aseguru pribatuen arloko eskumen banaketan, aseguruak antolatzeko oinarriak Estatuaren eskumen eskusiboan sartzen dira (EKren 149.1.11 art.). Hori dela-eta, Estatuak oinarritzko legeria eman du, gizarte-babeseko hiru formulei aplikagarri zaiena¹⁰⁴. Dena den, gizarte-aurreikuspeneko mutualitateei dagokienez, EAE eta NFK-ko Estatutuek eskumen autonomiko eskusibo gisa jaso dituzte, merkataritza-arloko legeri orokorrarekin ados¹⁰⁵.

Gizarte-aurreikuspeneko mutualitateen inguruan, EAEko esparruan 5/2012 Legea dago, otsailaren 23koa, Borondatzeko Gizarte Aurreikuspeneko Entitateei buruzkoa (EPSV). Lege horrek EAEko mutualitateen araubide juridikoa ezartzen du.

Nabarmena da botere publikoen aldetik garatzen ari den politika, PFEZko zergan desgrabazioen bitartez BGAEn ekarpenak egitea sustatuz, bai Foru Aldundiek, bai Nafarroako Gobernuak, baita Espainiakoak ere.

3. EUSKAL ESTATUA: LAN-HARREMANEN ETA GIZARTE-BABESAREN EREDU PROPIOA GARATZEKO AUKERA

Irudikatu dezagun zazpi herrialdeko Euskal Herri independente eta subiranoa, bere Estatu propioarekin, Europar Batasuneko estatu kide gisa. Gorago ikusi dugun Europar Batasunaren eta estatuen arteko eskumen-banaketa gauzatuko litzateke, EBren eta Euskal Herriaren artean.

3.1. Enplegu-politika

Hortaz, enplegu-politikaren arloan, Europar Batasunak irizpide orokorrak emango lituzke¹⁰⁶, eta Euskal Herriko enplegu-politika irizpide orokor horien barruan garatu beharko litzateke.

103. EBFTko IV. Tituluko 3. kapitulua, eta 2009/138 Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Zuzentaraua, azaroaren 25ekoa.

104. Pentsio-plan eta pentsio-funtsen kasuan, 1/2002 EDL; aseguru kolektiboen kasuan 6/2004 EDL eta 1588/1999 ED; mutualitateentzat, 6/2004 EDL.

105. EAEEn 10.23 art eta NFKEn 44.27 art. Estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko eskumen-banaketa argitu nahian, Konstituzio Auzitegiak esan du mutualitateen antolakuntza eta funtzioei buruzko erregulazioan eskumen eskusiboa dagokiela autonomia-erkidegoei; mutualitateek egiten duten aseguru-jardunari dagokionez, berriz, aseguruei buruz Estatuak ematen duen oinarritzko legeria ezinbestean errespetatu beharko dela (Konstituzio Auzitegiaren Epaia 86/1989).

106. Une honetan, Europa 2020 Estrategia eta estatuen enplegu-politikarako orientazioak (2010-2014).

Azpmarratu behar da EBko irizpideak oso lausoak izaten direla enplegu-politikaren arloan. Adibidez, indarrean dagoen 7. orientazioak dio «gizon eta emakumeen parte-hartzea lan-merkatuan handitu, egiturazko desenplegua murriztu, eta kalitatezko enplegua sustatu». Helburu horiek lortzeko, bide desberdinak erabili daitezke, eta Euskal Herriak enplegu-politikaren eredu propioa garatu lezake.

EBk flexiguritatea sustatzen duenean, Euskal Herriko enplegu-arloko ministroak, bere politika propioa garatuz, sindikatu eta patronalaren arteko akordioa bultzatu lezake (egun gizarte-elkarrizketaren egoera kritikoa alde batera utzita), eta eredu propioa garatu.

Barneko flexiguritatea bultzatu liteke (segurtasuna enpleguan lan-baldintzen malgutasunaren truke). Kanpoko flexiguritatea adostea askoz ere zailagoa da, enplegua ez duelako bermatzen. Dena den, EHko gobernuak, Danimarkaren moduan, enplegu-politika aktibo eraginkorra bideratuko balu (nahiko pertsona eta baliabide material ipiniz), eta segurtasun ekonomikoa eskaintzen duten politika pasiboak, beste jokaleku batean egongo ginateke.

Enplegu-politikaren eredu propioa bestelako zein gairen inguruan? Besteak beste, lan-merkatuko bitartekaritza-sistema garatu (agente publiko eta pribatuak, Interneteko enplegurako atariak); aldi baterako laneko enpresen esparrua eta araubide juridikoa; lan-kontratu motak (aldi baterakoak bakarrik arrazoi justifikatuak daudenean onartu, edo modu lausoan baimendu); lan-kontratuak sustatzeko diru-laguntzak (gero eta kritikatuagoa den sistema, askotan alde aurretik erabakita eta diru-laguntzarik gabe ere egingo liratekeen kontratuak merkatzen dituelako, berez kontratazioa sustatu gabe); kaleratze-sistema (kaleratze librea edo ez, kaleratzeko arrazoiak, kalte-ordainak...); langileentzako informazioa eta orientazioa nola bideratu (agente publiko eta pribatuak, Internet); lanbide-prestakuntzaren eredu propioa (sinergiak bilatu hezkuntza-sistema, enpleguko ministerio, sindikatu, enpresaburuen elkarte, sektore publiko eta sektore pribatuaren artean); autoenplegua bultzatu (autonomoak).

Besteren konturako enplegua eta autonomoena sustatzeaz gain, aipamen berezia merezi du, autoenplegu kolektibo gisa, Euskal Herrian hain garatua dagoen kooperatibismoa garatzeko eredu propiorako aukerak. Horrekin batera, kooperatibismoaren esparru den gizarte-ekonomia deritzana sustatu liteke (kapitalaren zati bat langileena duten lan-sozietate formako enpresak; elkarteak, fundazioak, ezgaitasuna duten pertsonen enpleguko enpresa bereziak; insertziorako enpresak; mutualismoa aseguru kolektiboan alorrean, etab.).

Gainera, langabeziaren arazoaren aurrean, enplegu-politika osagai bat da, ez bakarra. Juan Antonio Sagardoy katedradunak dioen moduan, metafora bat eginez, ekonomia ura izango litzateke, enplegua belaontzia, eta enplegu-zuzenbidea belak. Beraz, oinarria aktibitate ekonomikoan dago, horrek eragiten baitu enplegua, urak belaontziari eusten dion bezalaxe.

Horrexegatik, zuzenbide bera aplikatuz, langabezia-tasak oso desberdinak izan daitezke, azpian dagoen errealitate ekonomikoaren arabera. Espainiako estatuaren barruan, Hego Euskal Herriko batez bestekoa Espainiako estatukoaren ia erdia da

(gorago ikusi dugun moduan, Espainiako estatuan % 22,8; Hego Euskal Herrian % 13,2 (Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Komunitateko tasen batez bestekoa). Gakoa aktibitate ekonomikoan dago, eta zuzenbideak bideratu egiten du enplegua (kontratu motak, kaleratze-sistema, etab.), sustatu baino gehiago.

Zuzenbidearen eragina nabarmenagoa da prekarietate edo aldi baterako kontratuen tasan, kontratu horien araubide juridikoaren arabera. Horregatik, gorago ikusi dugun moduan, ez dago alde oso nabarmenik estatuko batez bestekoaren (% 24,9) eta Hego Euskal Herriko datuen artean (EAEn, % 20,2, eta Nafarroa Garaian, % 26,2). Aldiz, Frantzia tasa % 15ekoa da.

Horrek frogatzen du gai honetan araubide juridikoak eragin handia duela, eta, aldi baterako kontratuen aukera zorrozten duen politika juridikoa garatuz gero, Euskal Herria EBko datuetara hurbildu liteke (% 14).

3.2. Lan-harremanak

Euskal Herriko zazpi lurraldeetan, une honetan, ez dago eskumenik lan-harremanen araubide juridikoa diseinatzeko. Europar Batasunak gai honetan duen eragina oso txikia izanik, funtsean gutxieneko helburuak ezartzen dituzten zenbait zuzentarau, Euskal Herriak Estatu propioa edukiko balu, parez pare irekiko litzaioke aukera lan-harremanen eredu propioa garatzeko.

Lan-harreman indibidualei dagokienez, Euskal Herriko botereen esku leudeke berebiziko garrantzia duten hainbat gai: lanbide arteko gutxieneko soldata zehaztea, gehieneko lanaldia, lana eta bizitza pertsonaleko jardunak uztartzeko sistema, kategoria profesionalak, mugikortasun funtzional eta geografikoa, kontratuen geldiera (suspentsioa), eta abar luze bat, une honetan legez araututa daudenak. Europar Batasunak gai horiek estatuen esku uzten dituzenez, Euskal Herriak legez eredu propioa diseinatu eta garatzeko erabateko aukera edukiko luke.

Lan-harreman kolektiboei dagokienez, une honetan oso kezagarria da gorago aipaturiko zentralizazio-prozesua, eta gainera sindikatu abertzaleen harremanak botere publikoekin ia etenda daude, Jaurilaritzak eta Nafarroako Gobernuak aurrera daramaten politika sozioekonomikoarekin zeharo kritiko agertzen baitira.

EH estatu bihurtuta, ikusi beharko litzateke gobernuak zer-nolako politika sozial eta ekonomikoa daraman, eta horren eraginez, nolako harremanak dituen Euskal Herriko patronalarekin eta sindikatuekin. Aukera guztiak irekita leudeke: agente desberdinekin konfiantza eta elkarlanetik, mesfidantza, enfrentamendu, eta harreman-eteteraino.

Estatu bihurturiko Euskal Herri batean, logikoa litzateke patronalak Euskal Herri osoko lurralde esparruko elkarteak sortzea. Sindikatu abertzaleen kasuan, lan hori aurreratua dute, besteak, egoera berrira egokitu beharko lirateke. Euskal Herriko gobernuak sindikatu eta patronalarekin adostu lezake lan-zuzenbidea, eta horrek egun ia irudikatu ezinezko dinamika eta eredu propio batera eramanez gaitzake.

Lan-harreman kolektiboen esparruan, legez erabaki beharko litzateke zein den negoziatio kolektiboko sistema, hitzarmen kolektiboen esparrua eta eraginkortasuna, gatazka kolektiboak konpontzeko sistemak, greba, ugazaben itxiera, etab.

3.3. Gizarte-babesa

Gizarte-babesaren esparruan, orain arte bezala, komeni da desberdintzea gizarte-laguntza, Gizarte Segurantzaz, eta gizarte-babes osagarria.

Gizarte-laguntza, une honetan, egoera zaila jasaten ari da, gure inguruko estatuak aplikatzen ari diren murrizketa-politikak direla-eta. Arazoa da, gai honetan, egoera ekonomiko estuan dauden pertsonei laguntzeko diru publikoa erabiltzen dela.

Euskal Estatuak gizarte-laguntzako eredu propioa garatu dezake, Europar Batasunak ez dio eragozpenik jarriko, betiere adierazle makroekonomikoetan Europak markatutako mugak ez baditu gainditzen (inflazioa, defizit publikoa). Muga horiek gainditu gabe, aukera oso desberdinak daude, gizarte-laguntzako politika murriztailetik, politika espantsiboa garatu arte.

Azken finean, aurrekontu publikoetan, jakina, sarrera eta irteera globalak doitu behar dira. Politika ekonomikoko erabaki nagusiak daude aurrekontuen atzean, eta esparru horretan erabaki beharko da zenbat diru bideratu gizarte-laguntzara, erabaki politiko gisa, partida guztietako sarrerak eta irteerak aldakorrek direla kontuan hartuta.

Diru kantitate globalaz gain, eredu propioa garatuko luke Euskal Estatuak gizarte-laguntzako sistema diseinatzerakoan: babestutako pertsonak, gehieneko diru-sarrera, errola-denbora, immigranteen betekizunak, gizarte-laguntzen diru kopurua, zenbat denboran ordainduko den, etab.

Gizarte Segurantzaren esparruan, Europar Batasunak edukiko lukeen eragin zuzen bakarra koordinazioarena izango litzateke, hots, prestazio baterako eskubidea lortu ondoren Euskal Herritik kanpora doanari, dagoen lekuan egonda, prestazioa bidaltzea, eta EBko estatu desberdinetan egindako kotizazioak batuta prestazioa lortzen dutenei, Euskal Herrian kotizatutakoaren arabera zatia ordaintzea.

Hortik aurrera, gai delikatuena erretiro-pentsioena litzateke. Populazioaren zahartzea dela-eta (EHn, nabarmen), aurrera begira, kotizatzaile eta pentsiodunen arteko ratioak okerrera egingo duela aurreikus daiteke. Berriro ere, pentsioen sistemaren azterketa globala eginez, diru-sarreraren (kotizazioak) eta irteeren (pentsioak) arteko oreka da gakoa.

Hainbat bide daude oreka hori lortzeko, finantzaketa-iturri desberdinak aztertu, kotizazioak igo, erretiratzeko adina atzeratu... Hautatu beharko luke Euskal Estatuak, kanpo-injerentziarik gabe.

Gure inguruan ez dirudi legezko derrigorrezko pentsio-sistema publikoak pribatizatzeke asmorik dagoenik, Hego Amerikako hainbat herrialdetan gertatu den moduan (Txile, aitzindari gisa). Pentsio-sistema publikoa finantza-erakunde

pribatuen esku uztea, legez derrigortuz kotizazioak bankuen esku uztera, nekez uztartu daiteke «Gizarte Segurantzak» aldarrikatzen duen sistema batekin, kotizazioko diru hori bankuek inbertitu ostean, haren errentagarritasun aldakorrak ezin duelako etorkizuneko pentsioaren segurantzarik eskaini.

Aldiz, Estatua legeak behartzen du ordaintzera legezko kopuru eta baldintzetan, eta hor bai hitz egin daiteke segurantzaz, Estatuaren porrot ekonomikoa oso zaila baita.

Finantza-kontuez gain, Euskal Estatuak erabateko askatasuna edukiko luke erabakitzeke euskal Gizarte Segurantzak zein gertakizun babestuko lituzkeen, eta zein baldintzatan, besteak beste: aldi baterako ezintasuna; ezintasun iraunkorra; amatasuna; aitatasuna; arriskua haurdunaldian; familia-prestazioak seme-alabak edukitzeagatik; etxebizitza-prestazioak (gure inguru hurbilean ematen ez den arren); erretiroa; desentplegua; osasun-asistentzia Gizarte Segurantzak barruan kokatu, ala sistema autonomoa izatea (egun Osakidetza eta Osasunbidearekin gertatzen den moduan).

Gizarte-babes osagarriaren kasuan, Europar Batasuneko zuzenbideak zerbitzuak eskaintzeko askatasuna bermatzen du EBko lurralde osoan. Beraz, EHko gobernuak bermatu beharko luke Euskal Herrian EBko edozein enpresak gizarte-babes osagarriaren esparruko aseguru pribatuak eskaintzeko aukera (erretiro-plan pribatuak, heriotza-aseguruak, etab.).

Hortik aurrera, gizarte-babes osagarria arautzeko unean, formula desberdinak hautatu ahal izango lituzke Euskal Estatuak legeak. Gizarte Segurantzaren derrigorrezko maila publikoaz gain, eransten zaion maila osagarria pribatua izan daiteke, banketxe eta finantza-erakunde pribatuek kudeatuta (Hego Euskal Herriko oraingo sistema), edo sindikatu eta patronalaren artean kudeatuta (Iparraldeko Euskal Herrian aukera hori dago). Gainera, maila osagarria publikoa izan daiteke; administrazio publikoak kudeatuta. Halaber, indibiduala izan daiteke (norberaren borondatez erabakitakoa), edo kolektiboa (hitzarmen kolektibo bitartez sortua, enpresen eta langileen ekarpenekin).

Politika sozioekonomikoaren ikuspegitik, erabaki lezake ere Euskal Estatuak ea sustatzen duen gizarte-babes osagarria desgrabazio fiskalen bitartez, eta zein neurritan; ala nahiago duen ez sustatu, desgrabazio fiskalen bitartez interes publikoaren arabera babestu nahi diren beste gastu batzuk lehenetsiz (seme-alabak edukitzea, etxebizitza, etab.).

4. KONKLUSIOAK

Gaitasun juridiko burujabea

Ikusi dugun moduan, egungo arkitektura juridikoaren arabera, enplegu-politika, lan-harremanak, eta gizarte-babesaren arloetan, protagonismo nagusia estatuena da. Europar Batasuna kementsu agertzen da merkatu bakarra bermatzeko baldintza ekonomikoak ezartzerakoan (langileen, kapitalen, ondasunen, eta zerbitzuen zirkulazio-askatasuna), baina, lan-harremanen eta gizarte-babesaren gaitetan,

estatuen esku uzten du esparru horien definizio juridikoa. Horrexegatik, une honetan Espainiako eta Frantziako estatuek dute giltza, Euskal Herriko gizarte-arloko araudia finkatzeko orduan.

Hortaz, aztertu dugun bezala, Euskal Estatuarenak izango lirateke Espainiako eta Frantziako estatuek dituzten eskumen ugariak, enplegu-politika propioa garatzeko, Europar Batasunetik datozen irizpide lausoei jarraituz: lan-merkatuko bitartekaritza-sistema, lan-kontratu motak, kontrataziorako diru-laguntzak, kaleratze-sistema, langabetuentzako informazioa, orientazioa, lanerako prestakuntza, etab.

Lan-harremanen kasuan ere, Europako zuzentarauek agindutako helburuak betez, erabateko gaitasuna edukiko luke Euskal Estatuak lan-harremanen eredu propioa diseinatu eta garatzeko, gizarte-eragileen parte-hartzearekin (sindikatuak eta patronala, batik bat). Beraz, Euskal Estatuak askatasun osoz erabakiko luke lanbide arteko gutxieneko soldata (orain, Ipar Euskal Herrian 1.425,67 eurokoa da, eta Hego Euskal Herrian erdia baino gutxiago, 641,40 euro). Era berean, lan-baldintza guztien araubide juridikoa erabakiko luke, eredu propioa ezarriz, zuzenbide konparatuko ikaskizunak kontuan hartuz (soldata, lanaldia, mugikortasun funtzionala, etab.).

Lan-harreman kolektiboetan ere eredu propioa izateko aukera genuke, negoziazio kolektiboko sisteman, grebaren araubide juridikoan, ugazaben itxieran, eta gainerako gaietan.

Gizarte-babesaren maila guztietan ere, sistema propioa eraikitzeke aukera irekiko litzateke. Gizarte-laguntza mailan, beharrian-egoera gorrian dauden herritarren gizarte-barneraketan laguntzeko sistema osatzeko aukera, pobrezia (ekonomikoa) eta gizarte-bazterketaren (gabeziak enpleguan, etxebizitzan, hezkuntzan, edota osasunean) aurka borrokatzeko.

Gizarte Segurantzaren esparruan, gizarte-babeserako derrigorrezko aseguru publikoen sistema propioa erabakitzeke aukera, egun, egon badaude hainbat eredu. Definitu beharko litzateke Gizarte Segurantzaren barruan gizarte-ikuspegitik nahiz ekonomikotik garrantzitsuena den erretiro-sistema (adina, kotizazio-betekizunak, pentsioaren zenbatekoa...); eta, horretaz gain, Gizarte Segurantzaren barruan sartu beharreko gertakizunak eta haien araubide juridikoa: lanerako ezintasuna (aldi baterakoa eta iraunkorra), amatasuna, aitatasuna, arriskuak haurdunaldian, langabezia, familia-prestazioak, alargun-pentsioak, etab.).

Gizarte-babes osagarriari dagokionez, borondatezko sistema gehigarrien araubide propioa eratu ahalko litzateke, hainbat aldagairen artean hautatuz: ekarpenak egitea sustatu desgrabazio fiskalen bitartez, ala batere sustapenik ez egin, egungo desgrabazio fiskala ezabatuz, diru-funtsen kudeaketa publiko edo pribatua, ekarpenak egiteko mugak, prestazioen araubidea eta bermeak, etab.

Errealitate juridikoa eta errealitate sozioekonomikoa

Hego Euskal Herrian, azpimarratu behar da, zuzenbidea Espainiako estatu osoko berbera izan arren, adierazle sozioekonomikoak estatuko batez bestekoa baino dezente hobeagoak direla.

Aski esanguratsua da langabezia-tasa. Europar Batasuneko batez bestekoa % 9, Euskal Herrian % 11, Frantziako estatuan % 9, eta Espainiako estatuan, aldiz, % 22, Euskal Herri osokoaren bikoitza. Hego Euskal Herrian, halaber, estatuko pobrezia-tasa txikienak ditugu. Aberastasunaren banaketan, Espainiako estatuko adierazlea nabarmen hobetuz, mundu osoko aberastasunaren banaketa justuena dutenen artean dago Euskal Autonomia Erkidegoa (Gini adierazlearen arabera)¹⁰⁷.

Datu horiek oso garrantzitsuak dira, zuzenbide bera aplikatuz, errealitate sozioekonomiko nahiko desberdina adierazten baitute. Horrek gogoeta egitera eramane behar gaitu. Euskal Herriak baditu bere ezaugarri propioak ekonomiaren egiturari, gizarte-harremanetan, kulturean, langile-mugimenduan... eta, horren ondorioz, estatu osoko espainiar zuzenbidea aplikatu arren, errealitate desberdin bat erakusten digute adierazle sozioekonomikoek.

Errealitate propio horri oraingoaz bestelako zuzenbidea aplikatuko bagenio, Euskal Estatu subiranaren eskutik, bertako ezaugarri sozioekonomikoak askoz hobeto garatuko liratekeela pentsa genezake.

Zuzenbidea sortzearen ikuspegitik, ardura nagusia botere publikoena izanik, bereziki lan-harreman eta gizarte-babesaren gaietan, gizarte-eragileekin sintonia ezinbestekoa da. Gaur egun sindikatu abertzaleen, enpresaburuen elkarteak, eta administrazio publikoen artean elkarrizketa etenda dago. Egoera hori gaindituz, eta elkarrizketa aberastuz beste hainbat gizarte-eragilerekin (mugimendu kooperatiboa eta, oro har, gizarte-ekonomiako ordezkariak, nekazari eta arrantzaleak, kontsumitzaileen elkarteak, etab.), lan-harreman eta gizarte-babesaren eredu propioa eraiki eta garatzeko aukera edukiko genuke, burujabetasun osoz, gure idiosinkrasia eta nahietara egokitua.

Gure ezaugarrien neurritara egindako jantzia behar dugu, zuzenbide propioa: Euskal Estatu.

BIBLIOGRAFIA

- Aparicio Tovar, J. (2011): "Políticas de empleo y Comunidades Autónomas", in Batzuen Artean, *Los nuevos marcos de relaciones laborales en el renovado Estado de las autonomías*, XXI Congreso Nacional de Derecho del Trabajo y de la Seguridad Social, Tirant lo Blanch, Valentzia.
- Bengoetxea Alkorta, A. (2011): *Eskualdea eta lan-harremanak*, Eleria, 21.
- Kaiero Uria, A. (2004): *Organizaciones sindicales y empresariales, negociación colectiva, y marco vasco de relaciones laborales*, Manu Robles-Arangiz Institutua.
- López Cumbre, L. (2011): "Protección Social y Comunidades Autónomas", in Batzuen Artean, *Los nuevos marcos de relaciones laborales en el renovado Estado de las autonomías*, XXI Congreso Nacional de Derecho del Trabajo y de la Seguridad Social, Tirant lo Blanch, Valentzia.

107. Gini adierazleak gizartearen ematen den errentaren banaketa erakusten du, Orik hasita (abertasunaren banaketa proportzionala, denek dute berdina) 100 arte (erabateko desberdintasunak). EAEk 25eko puntuazioa du (Danimarka eta Japonia mailan, 23 eta 25 artean baitaude), eta Espainiako estatuak 31,2. Beste muturrean daude Brasil, Namibia, edo Afrika Erdiko Errepublika, 58 eta 70 arteko puntuakin). EAEko Gizarte Barneratzeko III. Planeari (2011-2015) azpimarratzen dira pobrezia-tasa eta Gini adierazlearen datuak.

- López López, J. (1993): *Marcos autonómicos de relaciones laborales y de protección social*, Marcial Pons.
- Martínez Moreno, C. (2011): "Relaciones laborales y Comunidades Autónomas", in Batzuen Artean, *Los nuevos marcos de relaciones laborales en el renovado Estado de las autonomías*, XXI Congreso Nacional de Derecho del Trabajo y de la Seguridad Social, Tirant lo Blanch, Valentzia.
- Molina Navarrete (2006): "Los nuevos estatutos de autonomía y el reparto constitucional en las «materias» de «empleo», «trabajo» y «protección social»", RTSS-CEF, 283.
- Ojeda Avilés, A. (2003): "Sobre el concepto de asistencia social y el principio de caja única en la distribución de competencias en materia de protección social", *Revista Foro de Seguridad Social*, **8-9**.
- Palomeque López, M.C. (2008): "La dimensión competencial: el posible «reparto de competencias» en el Estado autonómico", in J.L. Monereo Pérez; C. Molina Navarrete eta M.N. Moreno Vida, *La Seguridad Social a la luz de sus reformas pasadas, presentes y futuras*, Comares.
- Palomo Balda, E. (2003): "Descentralización de la protección social en España: pensiones y prestaciones de desempleo", *Revista Foro de Seguridad Social*, **8-9**.
- Rojo Torrecilla, E. (2011): "Los nuevos marcos de relaciones laborales en el renovado Estado de las autonomías", in Batzuen Artean, *Los nuevos marcos de relaciones laborales en el renovado Estado de las autonomías*, XXI Congreso Nacional de Derecho del Trabajo y de la Seguridad Social, Tirant lo Blanch, Valentzia.
- Suárez Corujo, B. (2006): *La Protección social en el Estado de las autonomías*, Iustel.
- Unanue Letamendi, J.M. (2002): *Las relaciones laborales en Euskal Herria*, Manu Robles-Arangiz Institutua.

7. (Euskal) nazioaren eraikuntza, lan-mundutik abiatuta

*Francisco Letamendia Belzunce, Politika Zientzietan irakasle titularra,
UPV/EHUko irakaslea*

Merkatuen logikari lotuta dauden estatuetakoko gizarte-taldeek arteko lotura gisa nazioa eratzeak aukera ukatzen dutenean «merkatu» horiek, nazio soziala eraikitzeak aukera sortzen da estaturik gabeko herrietan.

Euskal Herrian honako hauek dira nazio horretako eragileak: euskal esparruko sindikatuak, nekazari-elkarte alternatiboak eta autogobernuaren eta sozialismoaren alde diharduten gizarte-mugimendu eta indar politikoak, eta guztiak ere, lankidetzak gatazkak taxututako elkarrekintza batzuetan oinarritzen dira.

Eragileok bultzatzen duten eraikuntza ez-sektarioa behetik gora gauzatzen da eskualdeetatik abiatuta, Euskal Herria egituratzen duen bailaren konfederazioko unitate sozioekonomikoetatik, alegia. Estatuaren forma ahalbidetzen da horrela, aliantzak egiteko prest dagoen eta aurreko ereduaz guztiz bestelakoa den estatu porotsua sortzeko.

Building a (basque) nation from the world of work

With the so-called “markets” closing the door on the nation as a nexus between different social groups within states that are subjected to market logic, the possibility arises of constructing a social nation of stateless peoples.

In the Basque Country the actors in this scenario are the Basque trade unions and non-mainstream agrarian organisations, together with social movements and political forces seeking self-government and socialism. The interactions between these forces comprise a mixture of cooperation and conflict in equal measure.

Such construction must be non-sectarian, and be articulated by territories, bottom-up starting at the level of the local district, these being the socioeconomic units of the confederation of valleys that will make up Euskal Herria. This will lead the way towards a form of state of a more porous type, open to different alliances, and quite distinct from the older model.

1. **KAPITALISMO POSTFORDISTA, ESTATUA ETA NAZIOA**

1930eko hamarkadan zehar eta 1940ko hamarkadaren hasieran, ongizate-estatu keynesiarraren bidez mundua urratu zuen superproduktzio-krisia leuntzeko asmoz garatu zen kapitalismo fordistak, II. Mundu Gerraren osteko hiru hamarkadetan. Nola, ordea? Langileen eta, oro har, herritar guztien erosteko ahalmena handituz, ondasun eta zerbitzuen eskari publiko handia sortuz eta hiruko ituna sustatuz patronaleko, Estatuako eta sindikatuetaiko goi-karguen artean, azken horiek moderaziora behartuta. Estatu mota zentralizatua, erreformista eta kontsumista sortu zen horrela. Estatu horretan estatutik gabeko nazioak ez ziren aintzat hartzen, eta, izatekotan, kapitalaren eta lan-munduaren arteko interes-batasun gisa ulertutako nolabaiteko «nazio» estatualista bat zegoen.

Sistema hori krisian sartu zen 1970eko hamarkadan: merkatuak globalak izaten hasi eta ekonomia mundializatu egin zen, eta erregimen postfordista hedatu zen orduan. Erregimen hori txalotzen duen diskurtsoak kalitate-zirkuluetako langile auto-eratu eta kreatiboak goraipatzen dituen arren, errealitatea oso bestelakoa da: lan-indarraren dualizazio ikaragarria gertatu baitzen. Lan-munduaren piramidean elite txiki bat kokatu zen gailurrean: langile egonkor balioaniztun, gizonezko, bertako eta klase ertainekoak, alegia. Elite hori kolektibo prekarioez —emakumeak, gazteak eta EBz kanpoko langileak Europar Batasunaren kasuan— osatutako oinarri handiaren gainean bermatzen zen. Sindikatuak sobera zeuden, eta langileen elitearen agentzia bihurtuz gero bakarrik onartzen ziren

Ongizate-estatu keynesiarrak atzera egin zuen, enpresen ondoan lerratuz, produktibitatea handitzen lagundu eta bikaintasun-txokoak lortzearen mundu-merkatuan. Testuinguru horretan kokatzen dira gaur egun estatuak kudeatzen dituzten alderdi politiko guztiak, bai eskuinekoak, bai ustez ezkerrekoak direnak.

Ongizatearen krisi horrek nazio zapalduak aukeratxo bat eskaini liezaiekeen ondorio bat izan zuen zeharka, ordea. Kapitalismoa arautzen zuen eragile nagusia izateari utzi zion estatuak, bere eskumenak gero eta gehiago baitzeuden beste batzuen esku, bai goitik (Europar Batasuna, neoliberalismo globala arautzen duten erakundeak...), bai behetik. Erregioek gero eta pisu handiagoa eskuratzen ari baziren arauketa-eragile gisa, zergatik ez estatutik gabeko nazioak? Kapitalismo postfordistak beren estatua sortzeko bide bat zabaldu zien nahi gabe nazio horiei. Aurrekoaz oso bestelako estatu-eredua beharko luke estatu berriak, porotsua eta beste eskaletako mugimendu aurrerakoiekin itunak eratzeke prest dagoena, baina estatua, azken batean.

Nolanahi ere, 2007/2008tik aurrera askoz harrapariagoa bihurtu da postfordismoa, finantza-kapitalak manufaktura-kapitalismoaren gainean hartutako nagusitasun erabatekoaren ondorioz. Banku-*trustek* estu-estu hartuta dauzkate estatuak, herritarren kalterako, eta horrek ez-beharrezkoak egiten ditu parlamentuak eta gobernuak, *demokrazia* hitza bera iruzur bihurtzeraino.

Kapitalak estatuen defizita eragin du, diru-laguntzak eta eskulan merkea exijitu baitizkie, baina estatuotan zergarik ordaindu gabe, estatu horien pobretzea eta zorpetzea eraginez horrela. Europan, PIGSen (Portugal, Irlanda, Grezia eta Espainia)

zorra ikaragarri handitu da urteotan, eta dirutza itzela eskuratzeko aukera eman die horrek «merkatuak» eufemismoaz ezagutzen diren finantza-*trustei*. Gubernuen kaudimen ekonomikoaz zalantza dutenean, arrisku-prima handiak kobratzen dizkiete; horrek zama jasanezina eragiten die, estatuaren porrota edota EBk diru publikoarekin erreskatatu behar izatea eragiteraino. Egungo estatuburu gehien-gehienak bihurtu diren txotxongilo tristeek ezarritako doikuntza eta murrizketek erabat murriztu dute herritarren erosteko ahalmena eta, neurri horiekin arazoa konpondu edo murriztu beharrean, neurrigabe areagotu dute superproduktzioaren krisia.

Kapitalismo postfordistaren fase honek paroxismora eraman du nazio-estatuaren *nazio* osagaia. Postfordismoak kapitalaren eta lanaren arteko lotura ahuldu besterik ez du egin hasiera-hasieratik, fordismoaren garaiko lan-indar trinkoa zena beste ezaugarri batzuez hornitzearen ondorioz: era askotako lan-molde prekarioak hedatu dira eta naziotik etengabe banatutako eta bereizitako kaltetuen masa bat zabaldu da.

Nazioa ahulduz doa mota desberdinetako estatu postfordistetan. Estatu neoliberalak, globalizazio neoliberalaren mundu-mailako sareko nodoak, gaindi eginda sentitzen dira kudeatu ez, baizik eta errepresioaren bidez kontrolatu nahi dituzten gatazka sozialen aurrean. Sozialdemokratak izandako estatuetan erakunde eta enpresen arteko lankidetzen mikrokontzertazio baten su-festan urtu da kontzertazioa, eta lan antolatua kontzertazio horretatik kanpo gelditu da behin eta berriro.

Ez batzuetan ez besteetan ez dago nazio sozialik, klase desberdinen arteko lotura ulertzen badugu halakotzat, eta, beraz, «bi nazio» daude: aberatsen nazioa eta pobreena. Bestearekiko aurkakotasuna bihurtzen da herritarrak kausa nazional komun baten inguruan biltzeko gai den osagai bakarra: estatuak etorkinen aurkakoak, gutxiengoaren aurkakoak, islamisten aurkakoak, terroristen aurkakoak... bihurtzen ari dira logika horri jarraiki.

Mendebaldeko alderdien familia handien zilegitasunak bizi duen krisiak irekitako tartean eskuin muturreko alderdi xenofoboak eta alderdi ekologistak indartzen ari dira; baina baita estaturik gabeko herrietako alderdi erregionalista eta nazionalistak ere.

2. AUKERA BERRIAK ESTATURIK GABEKO NAZIOENTZAT

Postfordismoak, berezkoa duen estatu-nazioaren higaduraren bidez, aukera berriak eskaintzen al dizkie estaturik gabeko nazioei estatu-forma eskuratzeko? Hasiera batean bai, nahiz eta bereizketak egin behar diren ezker-eskuin ardatzean kokatutako nazio-eraikuntzako prozesuen artean.

Merkatuko «nation-building» dugu mutur batean, beraien beharrei erantzuten dieten lurralde-mailako erakunde eta merkatu globalek iristeko asmoz, tokian tokiko talde ekonomikoen artean adostutako bat-etortzeari jarraiki sortua. Nazio postfordista ekonomia globaleko erabakiguneen mundu-mailako sareko nodo bat da, eta horrek aukera ematen dio estatuaren zaindaritzatik libratzeko. Esparru

publiko eta pribatuaren arteko lankidetzaz ez litzateke lan antolatura hedatuko, eta, era berean, ez litzateke estatu-forma eskuratzeko aukera zehaztuko ere.

Eredu honen ahuldadeak agerikoak dira. Mundu-mailako itunak adosten dituzten eragileak neoliberalak izan ohi dira, eta, horren ondorioz, nazio-eraikuntza makaldu eta autogobernua ahuldu egiten da. Gobernuak multinazionalen atzetik ibiltzen dira beren lurraldean finkatu daitezen, baina, beren interesek hala eskatuz gero, multinazional horiek deslokalizatu egiten dira. Bai multinazionalak bai finantza-gune eta erakunde neoliberal globalak asaldura politikoetatik babesten saiatzen dira, eta, hala, Atlantikoko zonan bederen, nahiago dute «egiazki existitzen diren» nazio-estatuak beren horretan jarraitzea.

«Nation-building» edo nazio-eraikuntza soziala delakoan oinarritutako ezkerreko eredia dugu beste muturrean. Aliantza hegemoniko batek sortuko luke mutur hori, eta herritarrak, langileak, sindikatuak, gizarte-mugimendu alternatiboak, hedabide kritikoak eta ezkerreko alderdiak bilduko lituzke, ideia aurrerakoi eta askatzaileen inguruan, lanaren egonkortasunik eza eta bazterketa ezabatzeke helburuz. Eredu horretan, eragile ekonomiko eta sozialen arteko bat-etortzeak oinarrian adosten dira, behetik gora, nazioarteko taldeen eta enpresa handien gaineko kontrol zorrotzarekin, eta politika berariaz antiliberal bat garatuz.

3. NAZIO SOZIALAREN LURRALDEA POSTFORDISMOAN

Erregimen kapitalista bakoitzak geografia zehatz bat dauka; erregimen batetik besterako trantsizioan suntsiketa kreatiboa eta espazioaren berreraikuntza gertatzen dira. Hori nabarmen ikusten da erregimen fordistatik postfordistarako trantsizioan. Dakigunez, enpresen desintegrazio bertikala eta industria-barruti askotarikoak sortzea ekarri zuen batetik besterako aldaketa horrek.

Industria fordistak Ipar Amerikako eta Europako mendebaldeko zona jakin batzuetan (euskal itsasertzeko lurraldeetan, esate baterako) pilatu ziren, urbanizazio azkar-azkarra eraginez. «Lanaren nazioarteko banaketa»ren ondorioz, Hirugarren Munduko eta, bereziki, Asiako hego-ekialdeko zenbait herrialdek ere du fordistaren higadura ekarriko zuen garapen neotayloristako programak garatu zituzten 1960ko hamarkadaren amaieratik aurrera. Mendebaldean, Asiako herrialdeen lehia berriak deslokalizazioak eta fabriken itxiera eragin zituen, jarduera tradizionaletan (erauzketa, ontzigintza, burdingintza) espezializatutako industria-inguruetan bereziki. Garai bateko industria-erregioak desagiten hasi ziren: fordismoaren krisiarena da haien geografia.

Aldi berean, industria-mundua birterritorializatzeko prozesua gertatu zen. Zenbaitek mundu-mailako krisiaren irtenbidetzat hartu zuten industria-barruti «malgu»en paradigma. Lankidetzaz eta gatazka-erlazioen bidez lotutako enpresa txiki eta ertainez osatutako komunitateek eratzen omen zituzten barruti horiek, haien esanetan. Eta hala gertatu da zenbait kasutan XX. mendearen azken laurdenean; izan ere, teknologia, azpiegitura eta jarduera ekonomiko «malguak» zituzten AEBko eta Europako zenbait erregioak iraganeko industria-guneen lekua hartu

baitzuten. Antzinakoez guztiz bestelakoak diren ekoizpen-zentro berriak sortu dira horrela: diseinu-zama handiko altzarigintza eta jantzigintza artisauak, doitasunezko metalgintza, makina-erremintak Hirugarren Italian eta Alemaniako hegoaldean, Orange County eta Silicon Valley-ren moduko goi-teknologiako esparruak AEBko hiri handien inguruan...

Zenbait egilek prozesu horiek hartu zituzten oinarritzat erregio-mailako garapen-ereduak garatzeko: erregio-mailako lankidetzaren helburua izango litzateke merkatuan beren kasa eskuratu ezin dituzten «inputak» eskaintzea enpresei, hala nola eskulan trebatua, finantzaketa merkea, merkatuari buruzko informazioa...; enpresek bakarka ordaindu ezin dituzten kostuak (I+Gri, marketinari eta inbertsioei lotutako gastuak) denen artean banatzeko.

Korrante horri jarraiki, espezializazio malguak erregio-mailako autonomia eraikitze beharra azpimarratzen du, industriaren, lan antolatua eta erregio-mailako erakunde publikoen arteko lankidetzaren sustatzeko xedez. Manufakturetara mugatzen ez den erregio-mailako politika bultzatzen da, osasunera, hezkuntzara, enplegu-politika egokietara... ere hedatuz politika hori.

Egungo mundua erregio-mailako ekonomien mosaiko globala da ikuspegi honen arabera. «Erregio» hitza «nazio» hitzarekin ordezkatu eta lurraldean eta lanean oinarritutako nazio-eraikuntza prozesua proiektatu al daiteke, postfordismoaren ezaugarri «bertutetsu» batzuk erabiliz estatu-egitura eskuratzearren?

Erantzuna ezezko biribila da, postfordismoak birterritorializazioa eta deslokalizazioa uztartzen dituelako. Komunikazio-teknologiek eta ordenagailuek ekonomia lurraldeari lotuta egotetik askatu dute. Hala, teoriarik, enpresa birtual batek Himalaiatik jardun lezake, informatizazioari esker. Telefono-linea gutxi batzuk, pare bat PC sare lokal bat eratuz, eta komunikatzeko behar diren modemak. Horratz, beharko lukeen kapital-ekipamendu guztia!

Gainera, zerbitzuok eskaintzen eta kontsumitzen dituzten eragileek nodoak eratzen dituzte, hardware-stock zabala edukitzea zentro globalen esku bakarrik dagoen komunikazio-sare handiago baten baitan. Aglomerazio-ekonomiak lortu nahian, goi-mailako kudeaketarekin eta zuzendaritza zentralarekin erlazionatutako zerbitzu administratibo eta estrategiko asko pilatu egiten dira, eta halakoetan beharrezkoa izaten da aurrez aurreko jarduna. Harreman horien garrantzia eta azken garapen eta gertakizunen berri egoteko beharra dela-eta, hirigune global gutxi batzuetan pilatzen dira zerbitzu horiek guztiak: Frankfurten, Londresen, Tokion, Parisen, New Yorken, Shanghain, Sao Paulon...

4. ESKUALDEAREN GARRANTZIA

Nolanahi ere, agerikoa denez, eskualdeak garrantzi handia hartu du postfordismoan, bai esparru ekonomikoan, bai sindikalean. Tokian tokiko negoziozko kolektiboari, lurralde jakin batzuetako industria-birmoldatzeen ondorioen aurkako borrokei edota gizarte-mugimendu ekologista, feminista eta altermundialistarekiko aliantza lokalei dagokienez garbi ikusi denez, ekintza sindikalerako esparru pribilegiatua bihurtu da

eskualdea, herriaren eta erregio-mailakoaren arteko bitarteko maila osatzen duen neurrian.

Eurostatek 1992az geroztik zabaldutako *enplegu-zona* kontzeptua berezko ekonomia- eta industria-antolakuntza duen espazio/lurralde zehatz bat izendatzeko erabiltzen du. Enplegu- eta jarduera-tasak, emakumeen presentzia lan-merkatuan, laneko prekarietatea, industria-alorreko enpleguaren pisua... aldatu egiten dira enplegu-zona batetik bestera, eta horrek kontzeptu neutro bihurtzen ditu.

EAEEn dagoen enplegu-zonen kopurua aldakorra da: 15-20 bitartean dago, eskualdeen banaketa egiten duen erakunde publikoaren arabera. Padrales-ek inork ukatzen ez dituen hiru enplegu-zonaren ezaugarriak aztertu zituen 2005ean: Bilboko itsasadarraren ezkeraldea, Deba Garaia (Bergara-Arrasate) eta Arabako Lautada (Gasteiz). Ezkeraldea, EAE osoko industriaren, finantzen eta enpleguaren motorra izan eta gero, inoizko enplegarritasun-tasarik txarrena dauka egun, industria-sektore tradizionalak (burdingintzak, ekipo-ondasunek, ontzigintzak) izandako krisiaren ondorioz. Arabako Lautadako enplegu- eta jarduera-tasek izandako hobekuntzari esker, Euskal Herriko garapenaren poloetako bat bihurtu da eskualde hori. Deba Garaiak, bestalde, oso ezaugarri bereziak ditu kooperatiben fenomenoaren eta industria-arloko enpleguen pisu izugarriaren ondorioz.

Hiru eskualde horiek adibidetzat hartuta, EAEk berak ere (areago, Euskal Herria osorik hartzen badugu) erregioen mosaiko baten tankerako egitura nazionala duela ondorioztatzen dugu.

5. EUSKAL NAZIO SOZIALEKO ERAGILEAK (1): SINDIKATUAK

Euskal nazio-erakuntza lanetik eta lurraldetik abiatuta bultzatzen duten eragile nagusien deskribapena egiteko garaian, sindikatuetatik abiatu behar dugu:

5.1. Hego Euskal Herria

Hego Euskal Herrian, frankismoak berdin-berdin zapaldu zituen ELA (Eusko Langileen Alkartasuna) eta Alderdi Sozialistarekin elkar hartutako UGT (Unión General de Trabajadores). ELAk kristau-munduarekiko eta EAJk ordezkaturako nazionalismo historikoarekiko askapena osatu zuen 1960-1975 bitartean. Ezker Abertzalearen barruan LAB (Langile Abertzaleen Batzordeak) sindikatua sortu zen 1975ean, frankismo amaiera aldeko langile-mugimendu kontsejistaren giroan. Euskal langileen batzorde asanbleario batzuk eratzea zen sindikatuaren hasierako helburua, Alderdi Komunistatik gertu zeuden CCORi erantzuteko.

Trantsizioaren bezperatan, beraz, lau sindikatu zeuden Hego Euskal Herrian. Euskal esparruko sindikatuak ezetz esan zieten, arrazoi desberdinak tarteko, bai Moncloako Itunekin hasitako hitzarmen sozialen politikari, bai 1979-1980 urteetan landutako Langileen Estatutuak bultzatzen zuen negozioazio kolektibo zentralizaturako egiturari.

Industria-birmoldatzeek txikituta utzi zituzten Hego Euskal Herriko burdingintza, ontzigintza eta ekipo-ondasunen industria. Horrek langabezia izugarria eragin

zuen eta Bilboko itsasadarreko eta beste zona batzuetako industriaren gainbehera erabatekoa ekarri zuen. Euskal esparruko eta espainiar esparruko sindikatuek izandako jokamolde desberdinak zeharo aldarazi zuen indar-oreka, langileen ordezkarien hauteskundeetan garbi ikusi zenez. 1995ean hauek izan ziren emaitzak: ELA, % 40,0; LAB, % 15,5; CCOO, % 17,5, eta UGT, % 15,9.

EAEko ordezkari abertzaleen batura 1980ko % 55etik % 57ra igo zen 1995ean; eta ordezkari ez abertzaleena 1980ko % 36,8tik % 34,4ra jaitsi zen 1995ean. Eredu horri gorabehera handirik gabe eutsi zaio gaurko egunera arte, 2009ko hauteskunde sindikalen emaitzetan ikusten denez: ELA, % 40,2; LAB, % 16,7; CCOO, % 20,2; UGT, % 13,1.

Nafarroan, alderantzizkoa da indar-oreka edo indar-korrelazioa. 1995ean hauek izan ziren emaitzak: ELA, % 20,7; LAB, % 11,3; CCOO, % 20,5; UGT, % 31,9. 2009an, berriz: ELA, % 21,37; LAB, % 12,33; CCOO, % 25,00; UGT, % 30,9. Hemen ere 1995ekoaren antzekoa da bi blokeetako ordezkarien batura: ordezkari abertzaleen batura, % 33,70; ordezkari ez abertzaleena, % 55,89.

1988ko greban hasi eta 1993ra arte luzatu zen hiruko sindikalismoaren fasea (ELA, UGT, CCOO) amaitutakoan, itun fordistaren eta «aldean autonomia»ren estrategiatik «kontra-boterea»ren strategiara aldaketa gertatu zen. Nazio-ikuspegitik abiatuta, botere sindikalaren eta botere sozialaren arteko bat-egitea zegoen kontra-botere horren oinarrian, eta LABekiko ekintza-batasuna eta autogobernuaren aldeko borroka biltzen zituen estrategia berriak. 1993-1999 bitartean luzatu zen estrategia hori. 1995eko udaberrian, Euskal Herriaren autodeterminazio-eskubidea aldarrikatu zuten ELAk eta LABek Aberri Egunerako elkarrekin sinatutako manifestu batean, nazio-eraikuntza eta eraikuntza soziala uztartuz, horrela.

ELAk eta LABek aktiboki jardun zuten Lizarra-Garaziko Adierazpenean (1998). ETaren su-etena etorri zen adierazpen horren atzetik, baina 1999 amaieran su-etena etetearekin batera ahuldu egin zen sindikatu abertzaleen arteko ekintza-batasuna, eta egunera arte dirauten hausturak eta berreraikuntzak eragin zituen horrek.

Aldi berean, 1995etik aurrera UGT-CCOO bloke estatalista sendotu zen, gehiengo sindikalaren aurka. Gatazka gaiztotu egin zen hainbat arrazoiengatik. 1992an Espainiako estatuan adostutako Etengabeko Prestakuntzarako Hitzarmen Nazionalak UGT eta CCOOren eta CEOE patronalaren esku utzi zituen dirutza handiak haien barne-finantzaketarako desbideratuko ote ziren errezeloa zuten sindikatu abertzaleek. 1995ean EAEko lau sindikatuek eta Confedebaskek sinatutako Etengabeko Prestakuntzarako Euskal Hitzarmenak ez zuen arazo hura konpondu. ELAk eta LABek Espainia mailako hitzarmenari emandako ezezkoa aitzakia gisa erabili zuten Nafarroan, sindikatuoi erakundeekin batera jardutea galarazteko.

PP 1997an Gobernura iristearekin batera, areago zentralizatu ziren lan-harremanak. CCOOk eta UGTk baiezkua eman zioten 2000an PPK eta PSOEk adostutako Askatasunen aldeko eta Terrorismoaren kontrako Hitzarmenari. Hitzarmen hark ETaren indarkeriarekiko konplizitatearen itzala hedatzen zuen euskal abertzaletasun osora.

Euskal sindikatu abertzaleen eta euskal gobernuen arteko bat-etortzea hutsaren parekoa izan da. ELAk eta LABek etengabe salatu dute EAEko Jaurlaritza —abertzalea izan ala ez— errenten birbanaketan eta enplegu-politiketan politika neoliberalak garatzeagatik, eta gaitzetsi egin dute Nafarroako Gobernuak sindikatu estatalistekin duen jarrera klientelista eta beraiekin duen jarrera baztertzaila.

2007/2008an hasitako mundu-mailako krisi ekonomiko handiaz geroztik, Espainiako gobernu sozialistaren jardun neoliberalak eta ongizatea murrizteko politikak Hego Euskal Herriko bloke sindikalen arteko tirabirak suspertu zituen. ELAk eta LABek greba orokorrak deitu zituzten 2009an eta 2010ean, politika ekonomiko neoliberalak eta soldata-murrizketak salatzeko. 2011ko urtarrilaren 27an, CCOO eta UGTk Espainiako gobernuarekin hitzarmen sozial bat adosten zuten egun berean, ELAk eta LABek pentsio-murrizketen aurkako greba orokorra deitu zuten, STEE-EILAS eta HIRU sindikatu sektorialekin eta EHNE nekazari-erakundearekin batera.

Alderdi Popularra 2011 amaieran gobernura iritsi eta gero, Lan Erreforma onartu zuen 2012ko martxoan. Erreforma horrek muturrera eraman ditu merkatuaren agindua: kanporatze errazago eta merkeagoa, negozioaz kolektiborako eskubide ahulagoak, laneko malgutasun handiagoa, kontratazio prekarioagoa... guztia ere inoiz ezagutu gabeko murrizketez lagunduta aurrekontuetan, ongizatean eta gizarte-zerbitzuetan. Euskal gehiengo sindikalak 2012ko martxoaren 29an Euskal Herri osoa geldiarazi zuen, eta sindikatu ez abertzaleen babesa lortu zuen, ez hemen bakarrik, baizik eta estatu osoan ere.

5.2. Ipar Euskal Herria

Ipar Euskal Herrian diharduten sindikatu frantsesek (CGT, CFDT, CFTC eta CGT-Force Ouvrière, Union Syndicale Solidaires sindikatu alternatiboarekin batera) departamenduan oinarritutako antolakuntza errepublikarra izan ohi dute, baina antolakuntza hori desegokia da Ipar Euskal Herrian ekintza sindikal autonomia garatzeko, Pirinio Atlantikoetako Departamenduaren erdia osatzen duen aldetik. CFDT nolabaiteko salbuespena da: Akitaniako Lanbide arteko Batasun Erregionalak sei lurralde ditu, horietako bat Euskal Herrikoa.

CCOO CGTren homologoa litzateke eta UGT, CFDTrena. «Pays Basque»ko CFDT lokala, ordea, Hegoaldeko UGT baino euskaltzaleagoa da eta behatzaila izan zen Lizarra-Garaziko prozesuan.

Iparraldeko langileen ordezkariak eta enpresa-batzordeak hautatzeko hauteskundeetako emaitzak ez dira ezagutzen. Prud'hommes kontseiluetako hauteskundeetako emaitzak, aldiz, bai. Hona 2002ko abenduako emaitzak: CFDT, % 32,61, 11 ordezkari; CGT, % 27,43, 7 ordezkari; FO, % 16,92, 5 ordezkari; LAB, % 8,53, 1 ordezkari (merkataritzan). 2008an, CGTk 6.308 boto eskuratu zituen, % 28; CFDTk, 5.292 boto, % 24; eta LABek, 2.763 boto, % 13,50.

2000ko apirilean sortu zen LAB Iparraldean, eta berau da euskal sindikalismo abertzalearen ordezkari bakarra. Hasiera batean ez zuen harreman erraza izan

sindikatu frantsesekin. CCOO eta UGTk Espainiako Terrorismoaren aurkako Itunaren edukia esparru sindikalera hedatzeko adierazpen bat sinatzea proposatu zieten CFDT, CGT, FO eta UNAS sindikatuak, 2001ean. Adierazpen horretako 4. puntuak «ETArein eragin-esparruko erakunde sindikal, politiko eta sozialekiko lankidetzak» gaitzesten zuen, LABi erreferentzia zuzena eginez. Horrek barne-gatazkek eragin zituen, eta «gure terrorismoaren gaitzespena mugaz bi aldeetako Euskal Herriko gizon eta emakumeen aldarrikapen identitario eta kulturekin nahasteko» arriskua zegoela salatu zuten CGTko euskal buruzagiek.

Dena den, LABek langileen eta herritarren mobilizazioetan izandako parte-hartzeak eta lortutako ordezkari kopuru gero eta handiagoak normalizatu egin du beste sindikatuarekin duen harremana.

6. EUSKAL NAZIO SOZIALEKO ERAGILEAK (2): NEKAZARI-ERAKUNDEAK

Postfordismoak arrakala sakona ireki du nekazari-erakunde produktibisten eta, Iparraldean nahiz Hegoaldean, komunitate- edo familia-mailako ustiatuek kudeatzen dituzten nekazari txikien erakundeen artean. Azken hamarkadetan, munduko Iparraldeko diru-laguntza oparoez lagundutako elikagaiak esportatzen ari da Hegoaldeko herrialdeetara, elikagaiok ekoizpen-kostutik beherako prezioetan salduz, eta horrek gosea eta miseria eragin die mundu osoko nekazariak. Haziak eta transgenikoak salerosten eta patentatzen dituzten nekazaritzako elikagaien industriako multinazionalak eta zereal-ustiatuegi handiak dira irabazleak borroka honetan. Biek ala biek munduko neoliberalismoa kudeatzen duten erakundeak eta Nekazaritzako Politika Bateratuaren babes osoa dute.

Aldi berean, esportaziora bideratutako politika horrek 200.000 nekazaritza-ustiatuegi txiki itxiazten ditu urtero, ekoizpena gutxi batzuen esku metatzearen ondorioz.

1986an sortutako Coordination Paysanne Européenne-k (CPE) eta 1993an sortutako Vía Campesinak elikadura-burujabetzari buruzko ikuspegi bera dute. Azken erakunde horrek 22 nekazari-erakunde kritiko biltzen ditu, Euskal Herriko bi tartean. Zer eskatzen du elikadura-burujabetzak? Herrialde bakoitzak eskubidea izan dezala bere nekazaritza-politika definitzeko, beren merkatu nazionalak lehenesteko, ura, lurra eta haziak bezalako natur baliabideak eskuratzeko eta haien lortzeko beharrezko kredituak jasotzeko, guztia ere herrialde bakoitzaren kultur ezaugarri bereziekin bat etorritik.

Euskal Herriko bi nekazari-elkarteak, ELB (Euskal Herriko Laborarien Batasuna) Iparraldean eta EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna) Hegoaldean, bat datoz eredu alternatibo horrekin.

6.1. Euskal Herriko Laborarien Batasuna, ELB

Iparraldeko nekazarien mugimendua FNSEArein (Fédération Nationale des Syndicats d'Exploitants Agricoles) barruan trebatu zen. Egitura departamentaleko federazio horrek EBko nekazaritza-politikaren kontzentrazio- eta produktibismo-

printzipioak bereganatu zituen 1960ko eta 1970eko hamarkadetan. ELB 1982an sortu zen, eta honela definitu zituen bere kideen ezaugarriak 1984an: nekazariak, Euskal Herrikoak eta nazioarteko komunitateko kideak.

Nekazaritza-alorreko gaiei buruzko gogoeta izan da ELBren ardatz nagusia, eta horri esker nabarmen handitu du bere ordezkaritza Nekazaritza Ganberan, 1993ko % 29tik % 51,5eraino 2001eko hauteskundeetan.

6.2. Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna, EHNE

EHNE 1980an eratu zen, lau erakunderen konfederazio gisa: EHNE Gipuzkoa, EHNE Bizkaia, UAGA (Unión de Agricultores y Ganaderos de Álava / Arabako Nekazarien Elkarte) eta, 1985etik aurrera, EHNE Nafarroa. ELB ez bezala, Hego Euskal Herriko nekazari-erakunde ia bakarra da EHNE. Gaur egun 6.500 kide inguru ditu.

ELBren eragin handia izan arren, bi erakundeek arazo desberdinak lantzen dituzte. Bi tentsio historiko daude EHNEren barruan: lurraldeari dagokiona eta gizarte-arazoei dagokiena, biak ere nekazaritza-ereduarekin erlazionatuak; izan ere, batasuna bilatu arren, kide guzti-guztiak ez daude eredu produktibistaren aurka.

6.3. Euskal Herriko Laborantza Ganbara: eredu alternatiboa euskal esparruaren barruan

Nekazaritza-ganberak erakunde publikoak dira eta paper garrantzitsua jokatzeko dute Frantziako landa-inguruneko politikan. Sufragio unibertsal bidez aukeratutako profesionalen biltzar batek kudeatzen ditu, eta baliabide publiko ugari dauzkate. Pirinio Atlantikoetako Nekazaritza Ganbera EBko politika produktibisten alde dago, ordea, eta euskal landa-munduari buruz Pauen hartzen diren erabakiek distantzia hirukoitzaren gaitza dute, distantzia geografiko, politiko eta kulturaletik hartuak baitaude.

Hori ikusita, 1995etik aurrera Euskal Herriko Nekazaritza Ganbera propioa eskatzen hasi ziren euskal nekazariak. Frantziak horren aurkako jarrera irmoa hartu zuen, baina ELBk zuhur jokatu zuen babesak eskuratzeko. 2001ean mobilizazio-kanpaina bati ekin zion Ipar Euskal Herri osoan: Iparraldeko alkateen % 70, 113 guztira, eta kontseilari nagusi eta erregionalen erdiak baino gehiagok Ganberaren aldeko mozioa sinatu zuten. Gizarte-mugimendu berri eta zahar askok ere bat egin zuten eskakizun horrekin: sindikatu profesionalak, eragile sozioekonomikoak, kultur erakundeak, kontsumitzaileen aldeko erakundeak, erakunde ekologistek...

Behin eta berriz erakundeek ezezkoa jaso eta gero, euskal ganbera sortzea erabaki zuten 2005eko urtarrilean, baina ez estatuko erakunde bezala, ezinezkoa baitzen, erakunde zibil bezala baizik. Euskal Herriko Laborantza Ganbara izena jarri zioten, frantseserako itzulpenik gabe. Prefetak presioa egin arren, joera guztietako alkateek erakunde horri diru-laguntzak ematearen aldeko botoa eman zuten. Arrazoi asko egon dira horrelako babes zabala lortzeko: baserriarren kasuan, arrazoi profesionalak; ekologistentzat erakunde horrek natura gehiago babestuko duen

eredua bultzatzen du; abertzaleen iritziz, Euskal Herria erakundetzeko lehen urrats bat litzateke ganbera sortzea.

7. EUSKAL NAZIO SOZIALAREN ERAIKUNTZARAKO ALIANTZA ETA ESTRATEGIAK

Euskal nazioaren eraikuntzak itun- edo aliantza-arazoak sortzen dizkie goian azaldutako erakundeei. Ardatz edo pilareen teoriak erakusten digunez, sindikatuek historikoki ez dute inoiz bakarrik jardun. Estatuaren eta patronalaren erasoei aurre egin eta lehia ideologikoa ahalik eta ongien eramatearren beren ardatzak sortu zituzten, kooperatiben, lan-poltsen, masa-erakundeen eta alderdi politikoen arteko elkarren mendekotasunean oinarritutako gizarte-sareak alegia. Alderdien eta sindikatuen arteko botere-harremanak gorabeheratsuak izan ziren.

Alderdien eta ideologiaren artean zeuden bana-lerro ugariaren ondorioz zegoen hainbeste ardatz edo pilare. 1920-1970 bitartean alderdi-sindikatuen arteko lau ardatz-multzo errotu ziren: laborista, sozialdemokrata, komunista eta kristaua. Ardatz edo pilare haiek konplexuak izan zitezkeen. Hego Euskal Herrian, adibidez, PSOE-UGTren pilare sozialistari Sociedad de Obreros Vascos-ek erantzun zion, joera abertzalea eta katolikoa uztartzen zituen eta gerora ELA izango zena, hain zuzen.

1970etik aurrera ardatz horien haustura eragin duten hainbat prozesu izan ditugu Europan: laneko prekarietatea, identitateak maila kolektibotik banakako mailara aldatzeko joera, Elizaren eraginaren atzerakada, ezker historikoko alderdien ahultasun ideologikoa... 1980ko hamarkadan, bai UGTk bai CCOOk hautsi egin zuten PSOErekin eta PCEREkin zeukaten ardatza, hurrenez hurren. ELAk lehenago egin zuen haustura, 1960 eta 1970eko hamarkadetan, bere lotura jeltzale eta katolikotik askatuz.

Ardatz haien hausturak beste mugimendu batzuetara —gizarte-mugimendu berrietara, feminismora, gazte-mugimendura, globalizazio neoliberal ekonomikoaren aurkako mugimenduen mugimendura...— hurbildu ditu sindikatuak, ez arazorik gabe, ordea. Ardatzen urrezko aroan ez bezala, orain ez dago lotura egonkorrik, era askotako lokarri aldakorrek baizik. Baina prozesu ahula da hori eta hastapenetan dago oraindik.

Erregela guztiei dagozkien salbuespenak dauzka, gainera. Zer gertatzen da nazio-identitateari lotutako prozesu sendoak dituzten gizarteetan? Euskal Herrian (eta Galizian eta Korsikan) gertatu dena. 1970eko hamarkadan ardatz berri eta indartsu bat sortu zen, Ezker Abertzalearen ardatza, eta LAB sindikatua ardatz horretan egon zen 1990eko hamarkadara arte. Urte haietan, ELAren eta LABen arteko ekintza-batasunari esker eta sistemari aurre egiteko antolatzen zituzten mobilizazio nazional eta sozialek zuten identitate-eduki handiari esker, Espainiako estatuko borroka sindikalak zituen loturez askatzea lortu zuen euskal langileen ekintzak.

ETAren jardun armatuaren behin betiko etenak euskal nazio soziala behetik eraikitzeke aukera-sorta berria zabaldu du, eta 1990eko espiritura kemenez eta

indarrez itzultzeko aukera ematen du, orduan balio zuena gordez, ordurako arazo zena gaindituz eta artean pentsatu gabeak zeuden eginkizunei ekinez.

Horretarako, gehiengo sindikalak akritikoki bultzatu izan dituen *kontra-boterea* eta *ekintza-batasuna* bezalako kontzeptuak birpentsatu behar dira, ez baita kontzeptu horien inguruan sortutako desadostasunen gaineko gogoeta egokirik egin.

1990eko hamarkadan esaten zenez, botere sindikala eta botere soziala ikuspegi nazionaletik uztartzean oinarritzen zen kontra-boterea, eta horretarako beharrezkoa zen ELA/LABen arteko ekintza-batasuna, autogobernuaren aldeko borrokaren ikuspegitik. Baina ikusmolde horrek lan-munduari eta esparru politikoaren arteko desorekari erantzuten zion: sindikatu abertzaleek beren esparruan gehiengoa osatzen zuten arren, ezkerreko alderdi abertzaleak gutxiengoa ziren politika-arloan.

Gaur egun, esparru politikoaren egoera aldatzen ari da, eta pentsatzekoa da aurrerantzean ere aldaketa sakonagoak etorriko direla. Ezkerreko abertzaletasun politikoa kontra-boterean txertatu beharreko indarra da, kontra-botere horrek autogobernuaren aldeko borrokatik duen neurrian, behintzat. Ezinbestean klasearteko izaera duenez, gehiengo sindikalaren eta nekazari-erakundeen egiteko bat esparru politiko hori modu kritikoan bere helburuekin bat etortzeko moduan bideratzea izango da.

Estatuak gabeko kontra-botere batek ez baitu zentzurik sindikatu bakar baten tresna gisa, alor sindikalera bakarrik mugatutako ekintza-batasunak zentzurik ez duen modu berean, non eta autogobernuaren aldeko borroka nazionalen beharrezkoak diren itun eta aliantzak ezabatu nahi ez diren.

Zentzugabea eta alferrikakoa da antzinako alderdi-sindikatuaren ardatz edo pilarea berpizten saiatzea, eta ez bakarrik gurean hainbat sindikatu eta alderdi daudelako. Dena den, eite berri bateko berrardazte edo birpilarizazioa bultzatu liteke, erdigunerik ez duen eredu batekin bat etorri eta pluralismoa oinarritzat hartuta. Sindikatuaren, nekazari-erakundearen, gizarte-mugimenduaren eta, jakina, autogobernuaren eta sozialismoaren alde borrokatzen diren indar politikoen arteko konglomeratu batean pentsatu genezake, lankidetzak eta gatazka neurri berean biltzen dituen harreman konplexu batekin, koordinatu daitekeena koordinatu eta kritikatu daitekeena kritikatzeko delarik.

Hego Euskal Herrian nahikoa masa kritiko daukagu dagoeneko bat-egite sozial horri ekiteko; hortaz, estuki langile-munduarekin zerikusia ez duten esparruekin bat egiteko errezeloak dituzten sindikatu-munduko jarrera puristak gainditu egin beharko lirateke.

Eragile-sare zabal horrek porotsua izan beharko luke eta nazio-erakuntza gisa ulertu beharko lirateke, erakuntza nazionalista gisa baino gehiago. Ekintza-batasunaren ohiko ikuspegia birpentsatzera garamatza horrek, beraz. Ongietorria eman behar diogu, ondorioz, Espainiako estatuko sindikatuaren euskal atalen eta euskal gehiengo sindikalaren arteko hurbilketari, hurbilketa hori kontsekuentea bada, nahiz eta sindikatu haien jokamoldea laguntza-sindikalismoztat jo izan den historikoki, arrazoiz egin ere. Izan ere, merkatuaren logika infernutarra nazio-estatuak

hustu eta haien aurrean eta haien aurka estatuturik gabeko nazioak besterik uzten ez duenean, ez baitago zer galdua eta, bai, aldiz, zer irabazia hurbilketa horrekin.

Euskal esparruko sindikatuek beren jarreretara erakarri behar dituzte —nahiz eta ez ezinbestean beren egituretara— euskal langile guztiak, haien ikuspegi nazionala edozein dela ere. Gainera, sen oneko jokamoldea da hori. Nahiz eta Hego Euskal Herriko dentsitate sindikala Espainiakoaren bikoitza izan, ez da langileen % 30era iristen, Europako herrialde askoren oso azpitik. Gauzak horrela, mobilizatzeko gaitasun handia izanda ere, zentzuz eta kontuz jokatu beharko luke gehiengo sindikalak. Ekintza-batasuna bai, baina, elkarrekiko errespetutik abiatuta, batasun horrekin bat egin nahi duten guztiei zabaldua.

Klase-etsaien sareetan erortzeko beldurrez, euskal sindikalismoak bere buruari orain arte ukatu dion esparru batean sartzeko garaia heldu da beharbada. Postfordismoaren ezaugarri «bertutetsuek» ahalbidetuko luketen ekonomia suspertzeko proposamenei buruz ari naiz, merkatuek egun duten ekoizpenaren aurkako jarrerak ia derrigorrezko egiten baitituzte proposamenok.

Euskal Herria bailaren konfederazio bat da hein handi batean, eta bailara horiek bat egiten dute eskualdeekin. Eskualde eta bailara horietako bakoitzerako garapen-proposamen zehatzak plazaratzeko eztabaida-gune ireki eta parte-hartzaileak antolatu behar dira, ekimenok eztabaidatu, garatu eta gauzatzeko. Sindikatuek egiteke duten lana da hori, nekazari-erakundeak trebatuago baitaude alor horretan. Lan hori esparru nazionala eta soziala uztartzen dituzten udalekin batera egin behar dute (zorionez halakoak askotxo dira orain), eta aliantza koloreaniztun bat eratu behar dute gizarte-mugimenduekin, herri-erakundeekin, prentsa kritikoarekin... Proposamen horien mintzakideak eta garatu litzaketen bazkideak eskualde bakoitzeko enpresa txiki eta ertainak, I+Gko zentro lokalak, arrisku-kapitaleko erakundeak izan behar dira ezinbestean.

Alor honetan ezin dugu amore eman. Langileek eta nekazariak garapen-gaitan parte hartzearekin batera, ezinbestekoa da kalitatezko lana, lan egonkorra, prekarietaterik ez, soldata homogeneousak... eskatzea. Halako baldintzen eskaerak gatazka pizten du, klase-interes antagonikoen ondorioz, eta gatazka hori gainditzeko denak (inguruko gizartea bereziki) irabazten ateratzen direneko batura positiboa bihurtu behar da lankidetzat. Toki-erakundeek zentzu osoa izango lukete hemen, enpresek eta nekazaritza-ustiatuek beren kasa lortu ezin dituzten inputak jarriko lituzkete-eta, hau da, I+G, merkatuen gaineke ezagutza, teknologia berriak... Lanerako trebakuntza eta industria-lurrak jarrita, lurraldeari lotutako ongizatearen kudeatzaileak izango lirateke, eta kudeaketa hori garraiora, osasunera, hezkuntzara... hedatuko litzateke.

Baina hemen kontuz ibili behar dugu inuzenteak izan gabe, munduan ez baitago bakarrik enpresa txiki eta ertain autonomoek osatutako industria-barrutiak dituen herririk, ezta Euskal Herrian bertan ere. Sindikatuek, nekazari-erakundeek eta gainerako gizarte-eragileek ikerketa-lana egin beharko dute alde aurretik, benetako enpresa ertain eta txikiak eta talde handiagoek urrutitik gidatutako enpresa terminalak bereizteko, eta haien jatorria zein den jakiteko (euskalduna, espainiarra

ala globala), enpresa-taldeentzat egoera okertuz gero edo beste nonbait kokatzeko aukera sortzen zaienean egin litzaketen deslokalizazio-amarruak galarazi ahal izateko.

Euskal nazio-erakuntza Euskal Herriko eskualdeen garapen ekonomiko-sozialen batura baino askoz gehiago da, noski; zer esanik ez estatu-izaera eskuratzeari dagokionez. Baina, testu honetan gai horri zuzenean heldu ez arren, liburu honetako beste kapitulu batzuetan jorratzen baita, nazio-estatuaren bi osagaietako baten erakuntzak, nazio (sozial)aren erakuntzak alegia, asko laguntzen du zeregin horretan. Horregatik iruditzen zait Euskal Herrian oraindik probatu ez dugun bide hau lagungarria izan daitekeela lehenago azaldu dugun helburu zabalagoa bultzatzeko. Arrisku ugari ditu zeregin horrek, eta oso konplexua eta korapilatsua da, inondik ere, baina zein ez?

BIBLIOGRAFIA

- Aurrekoetxea, M. (2003): *De Solidaridad de Obreros Vascos a Euskal Langileen Alkartasuna, 1911-2001. Notas para una crónica de 90 años*, Manu Robles Arangiz Institutua, Bilbo.
- Bengoia, V. (1997): *De SOV a ELA. Historia, organización, representatividad*, apunte argitaragabeak.
- Borja, A. eta Gómez Uranga, M. (2006): "Qué futuro para la economía en Iparralde", in F. Letamendia (koord.), *Acción colectiva Hegoalde-Iparralde*, Editorial Fundamentos, Madril.
- Ibarra, P. (1987): *El movimiento obrero en Vizcaya: 1967-1977. Ideología, organización, conflictividad*, EHUren Argitalpen Zerbitzua, Leioa.
- Kaiero, A. (1999): "Sindicatos y marco vasco de relaciones laborales", in *Revista Internacional de Estudios Vascos*, **44**, 1.
- Köhler, H.D. (2001): *El movimiento sindical en España: Transición democrática, regionalismo, modernización económica*, Editorial Fundamentos, Madril.
- Letamendia, F. (2004): *ELA 1976-2003. Sindicalismo de contrapoder*, Manu Robles Arangiz Institutua, Bilbo.
- , (2006) (koord.): "Sindicatos y organizaciones agrarias: relaciones Hegoalde-Iparralde", in *Acción colectiva Hegoalde-Iparralde*, Editorial Fundamentos, Madril.
- , (2009): *Estructura política del mundo del trabajo: fordismo y posfordismo*, Tecnos, Madril.
- Majuelo, E. (2000): *Historia del sindicato LAB*, Txalaparta, Zangoza.
- Solange, M. (2002): *Ipar, Euskal Herriko egoera ekonomikoa, azken hogeit urten hauetan*, Manu Robles Arangiz Institutua, Bilbo.
- Unanue Letamendi, J.M. (2002): *Las relaciones laborales en Euskal Herria. Apuntes históricos y análisis de su evolución desde la transición política*, Manu Robles Arangiz Institutua, Bilbo.
- Verberckmoes, J. (1996): "The politics of ideological diversity in France", in P. Pasture; J. Verberckmoes eta H. De Witte (arg.), *The lost perspective?* (l. libk.), Avebury, Ashgate Publishing Limited, Aldershot.

8. Klase-interesen azterketa Euskal Estatuaren eraikuntzan

Iñaki Gil de San Vicente Larrañaga, GITE - IPESeko Kidea (Gizarte Ikerterarako Talde Eragilea - Instituto Promoción Estudios Sociales)

XX. mendean, inperialismoak hiru estrategia landu ditu estatu-forma bere hedapen-beharretara egokitzeko. Hirugarrena Washingtongo Kontsentsuarena da. Orain, formalki aske diren herriak ere, nazioartean aitortutako estatuak izan arren, kanpotik menderatu eta administratu daitezke, eta izatez hori gertatzen zaie. Nazio zapalduok, estatu propioa ere ez dugunok, jakin behar dugu zer inplikatzan duen estatua konkistatzeak, alegia: lehenik, inperialismoaren helburuak eta bitartekoak ezagutzea, haren aurkako borroka irabazteko; bigarrenik, gure historiatik eta gure indarretik abiatzea, hau da, gure klase-borrokaren esparru autonomotik; hirugarrenik, gure estatu-eredua aurretik itxuratzea, orain hasita, ahal den neurrian; eta, laugarrenik, estatua gauzatu behar duen subjektu kolektiboa definitzea: herri langilea.

Class interests in the building of a basque state

Imperialism developed three strategies in the twentieth century for adapting the form of the state to its needs for expansion, the third of these being the Washington Consensus. This has reached the point where even formally free countries which have internationally recognised states may be, and indeed are being, dominated and administered from without. Oppressed nations such as ours, which lacks its own state, need to understand that the achievement of one will entail, first of all, a knowledge of the goals and means of imperialism, in order to overcome them; secondly, taking our history and strengths as a starting point, that is, our distinctive framework of class struggle; thirdly, anticipating our own model of a state already in the present, as far as possible; and fourthly, at the same time defining the collective subject that will bring this aspiration to fruition: the working people.

1. MERKATU GEHIAGO, ESTATU GUTXIAGO

Langile-gizateriak azken aldi honetan pairatu dituen porrot handienetako bat izan da onartzea, ia erresistentzia teorikorik gabe, estatuak ez direla gehiago beharrezkoak herrientzat, hau da, ontzat ematea beharrezkoak izateari utzi diotela. Herriei sinetsarazi zitzairen kapitalismoak XX. mendearen bigarren erdian izandako aldaketa handiek zaharkituta utzi zituztela «estatu zaharrak», zeren oztopo bihurtu baitziren «mundu-merkatu» deritzanaren onura zibilizatzaileen hedapen azkarrerako. Esaten zenez, hedapen horri jarritako edozein trabak balaztatzen zuen munduko «gobernantza» demokratikoaren agerpena, hots, «elkarriketa iraunkorrean» oinarritutako administrazio-forma berri baten agerpena; elkarriketa iraunkor hori nazioarteko instituzioen artean gauzatzen da, «agentzia handi»en artean, eta, gehiegi ez luza-zeko, «munduko gizarte zibilaren indar demokratikoen artean».

1990eko hamarkadan, industria politiko-mediatikoak indartu egin zuen «estatu gainditzea»ren ideia, globalizazioaren aurkako mugimenduaren eta mugimendu altermundialistaren zati batek bultzatzen zuen ideologia kosmopolitaren bitartez, hau da, «munduko herritartasuna» aldarrikatzen zuen ideologiaren bitartez. SESB desegin zen, Txinako Herri Errepublikak kapitalismorako bidea hartu zuen, «zibilizazioen gerrak» «Mendebaldea bateratzeko» premia planteatu zuen, «terrorismo islamikoa»ren mehatxupearan zeuden balio demokratikoen jatorri eta bermetzat hartuz; aldi berean, NBEk «interbentzio humanitarioak» legitimatzen zituen, hirugarren herrialdeetako «giza eskubideak» defendatzeko, eta hori ere estatuen agortzearen eta munduko «governantza» ezartzeko premiaren tesia aldezteko argudio bihurtu zen.

Ezkerreko mugimenduaren zati batek ez zuen esplikazio hori guztiz sinetsi, baina bai neurri batean, zeren pentsatu baitzuen «Europar Batasun demokratiko» batek iparramerikarren «gehiegikeriak» orekatuko zituela, giza eskubideak errespetatuko zituen politika bat garatuz. Horrela hedatu zen «supraestatu»ren mitoa: beronek antzinako estatuen tradizioz onenak bereganatuko zituen, eta, aldi berean, «globalizazio finantzarioa»ren arriskuak kontrolatu eta beraren onurak bultzatu ahal izango zituzten tradizio berri batzuk garatuko zituen. Europako estatu ahulenetako erakunde erreformista askok, eta nazio bezala zapalduta zeuden herrietako beste hainbat erakundek ere, justifikazio bat aurkitu zuten hori beren soberania ekonomiko-politikoari gero eta neurri handiagoan uko egiteko —isilpean edo publikoki—, hau da, justifikaziotzat hartu zuten beren independentzia estatal formalaren murrizketa onartzeko; estaturik gabeko nazioen kasuan, independentziarako eskubideari eta estatu propioa izateko eskubideari uko egiten zitzairen, zeren eta, esaten zenez, «europar integrazioak» mini-estatu bat izatea ahalbidetzen baitzuen, gutxiengoak errespetatzen dituen estatu handiago batean txertatuta.

Benetako arazoa askoz ere gogorragoa da, ikuspuntu kualitatibotik begiratuta, hau da, kapitalen perekuazio, zentralizazio eta kontzentrazioaren legeen abiadura kaotikoa, gehiegizko produkzioaren eta mozkinen batez besteko tasaren jaitsieraren krisiaren mende dagoen mundu-testuinguru baten baitan —batez ere ekoizpen-ondasunen sektorean—; horren arrazoiak zen munduko eroste-ahalmenak gero eta gaitasun txikiagoa zuela masiboki ekoiztutako merkantziak absorbitzeko. Kapitalaren

berezko kontraesan horrek presionatuta, merkatuan soberan zegoen kapitalaren kantitate izugarriek betiko bidea hartu zuten, hots, espekulazio finantzaria jo zuten, posibleak ahalik eta arinen eskuratzeko xedez —soberakin handi horiek hainbat jatorri zituzten: petrodolarren masa, herrialde pobretuek ordaindutako zorra, ekonomia ezkutu eta kriminala (gero eta handiagoa baitzen), narkokapitalismoa, eta industria tradizionalen eta haren zerbitzuetan inbertitu nahi ez zuten kapitalak—.

2. DEKALOGO INPERIALISTA

Bide tradizional hori errazteko, estatu inperialistek funtsezko rola jokatu zuten. Hori 1989an landutako eta 1993an egokitutako «Washingtongo Kontsentsua»ren hamar puntuen ezarpenen laburbil dezakegu. Dekalogo horrek ondo baino hobeto funtzionatu zezan, estatu ertain eta txikiek onartu behar zuten, nahitaez, ez zutela gaitasun nahikorik mundu-merkatuan nabigatzeko; beharrezkoa zen, halaber, estatu handiek barneko erreforma sakonak egitea.

Lehenik, aurrekontu publikoen defizita ezabatzea. Estatuak uko egin behar zion ekonomia zuzentzeari, salbu eta posible pribatuarentzat beharrezkoa zen eremuan. Bigarrenik, oinarritzko gizarte-zerbitzuen defizita ezabatu behar da, zerbitzu horiek pribatizatuz. Hirugarrenik, zerga-inboluzioa, burgesiaren mesederako. Laugarrenik, askatasun finantzarioa, interes-tasen gaineko kontrol estatalik gabe. Bosgarrenik, merkatu-askatasuna errazten duen kanbio-tasa bat ezartzea. Seigarrenik, aduana-barrera estatalak murriztea. Zazpigarrenik, atzerriko inbertsioarentzako askatasuna. Zortzigarrenik, estatuaren monopolioa eta enpresa publikoak pribatizatzea. Bederatzigarrenik, merkatuen liberalizazioa. Eta, hamargarrenik, jabetza burgesaren babesa.

Dekalogoaren berezko ondorioa da estatu ahul eta pobretuak inperialisten mende geratzen direla errealtatean, hau da, haien subsuntzio erreala da ondorioa; halaber, estatu ertainek beren soberania politiko-ekonomikoaren zati bat uzten dute estatu handien eskuetan. Gainera, dekalogoak aldaketa sakonak ekartzen ditu XX. mendearen amaierara arte nagusi zen estatu-formaren lau alor klasikotara; bada, aldaketa horiek esplikatzen dute zergatik subsuntzio erreala tesia —ekonomia burgesaren kritika marxistatik hartutako tesia— aplikatu dakiekeen inperialismoak estatu pobretu eta ahulduetan dituen ondorioei —estatu horiek ez diete aurre egin nahi estatu handiei, beren klase menderatzaileek uko egiten diotelako inperialismoaren kontrako erresistentzia-gerrak abiatzeari—. Hona hemen zein diren ondorioak:

Lehenik, estatuaren ardurapean zeuden zerbitzu publikoen amaiera. Orain arte, zerbitzu horiek lan-indarraren erreprodukzioa bermatzen zuten, «burgesia nazionala»ren beharren arabera, eta klase esplotatuak nolabait kontrolatzeko eta integratzeko gaitasuna ematen zuten, haien esplotazioa leuntzearen bidez. Bigarrenik, finantza- eta aurrekontu-soberaniaren amaiera; hori izan zen iraultza burges guztien errebindikazio estrategikoetako bat, eta beren independentzia militarren gako nagusietako bat ere bai. Hirugarrenik, ekoizpen- eta metaketa-esparru estatalean oinarritutako soberania ekonomikoaren amaiera; orain, atzerriko kapitalen sarrera eta irteera libreak eta horrek dakarren arpilatzeak suntsitu egin dute esparru hori. Eta, laugarrenik, estatuaren independentzia espezifikoaren amaiera,

zeren bere bideragarritasun-baliabide propioak pribatizatu behar baititu, hala nola monopolio estatalak eta enpresa publikoak.

Estatu-forma klasikoaren suntsipen laukoitzak badu eragina forma hori histori-koki definitu duten bi osagaietan. Bata: metaketaren esparru estatala segurtatzen duten muga ekonomikoak, eta estatuak jaulkitako moneta nazionala, zeinak kapitalaren eta lurraldearen arteko fusioa adierazten baitu, modu material eta sinbolikoan, klase menderatzailearen nazionalismo burgesaren eta haren sostengu-bloke sozialaren ideologian. Muga ekonomikoak ia erabat desegiten direnez, garrantzi txikiagoko alderdi batzuetan izan ezik, estatu-forma horren zimendu historikoetako bat hondoratzen da, esan dugun bezala. Bestea: lurraldearen independentzia militarra, berau desagertzen baita «armada nazionala» maila goragoko armada inperialista batean sartzean —OTAN—; horri lotuta, estatuen ahalmen industrial-militar autonomoa muturreraino ahultzen da, zerен beren konplexu industrial-militarraren monopolioak pribatizatu behar izan baitituzte. Soberaniaren bi lagapen (galera) horiek independentzia nazionala apurtzen dute beren muin ekonomiko-militar tradizionalean, eta horren truke estatu-forma nagusiago eta indartsuago batean integratzen dira, bere osotasunaren mendeko zati bezala.

3. ESTATU BURGESA INDARTU

«Washingtongo kontsentsuak» iragana eta geroa bereizten ditu «arazo nazional» deritzanean, estatu pobretu eta menderatuen bideragarritasunaren arazoaz gain. Mendebaldeko inperialismoak ez du inoiz ere modu hain labur eta zuzenean adierazi horren inguruan duen politika. Horren bitartez, bere mundu-nagusitasuna fase luze batean finkatu nahi du, II. Mundu Gerra amaitu ondoren Bretton Wooden ezarri zuenarekin gertatu zen bezala, edo, hori baino lehen, W. Wilson presidente yankiaren hamalau puntuekin gertatu zen bezala, 1918an.

Horregatik, gai erabakigarri bat geratzen da, zeinean inperialismoak estatuen eskumenak indartu baititu, «porrot egindako» estatuak izan arren. Dekalogoaren hamargarren puntua da, hain zuzen ere: jabetza pribatua babestea, hau da, estatuaren indarkeria bere forma guztietan areagotzea, alegia, bai indarkeria fisikoa eta bai indarkeria psikologikoa, kulturala, prebentiboa, eta abar. Dekalogo horretan sintetizatzen den estrategia inperialistaren eraginkortasuna hamargarren puntuaren aplikazio egokiaren mende dago, azken batean.

2007ko udaz geroztik —eta agian lehenago ere—, puntu hori politika inperialistaren ardatz bakar bilakatu da, bere jabetza segurtatzeari dagokionez; horren kostuak ordaintzen dituztenak burgesia estatalen talde ahulenak, estatu ahulduenetako burgesiak eta —batez ere— langile-gizateria osoa dira; alde horretatik, gainera, herri zapalduok zigor berezia jaso dugu, hots, estatu propiorik ez dugunok geure burua bestelako politika sozioekonomiko batez defendatzeko.

Dena dela, krisiaren larritasunak bultzatuta, bigarren mailako burgesia estatal batzuk protekzionismora jotzen ari dira, «Washingtongo Kontsentsua»-ri nolabait —neurri batean— kontrajartzen zaizkion formetara joz. Aldi berean, poliki-poliki, beste alternatiba batzuk itxuratzen ari dira nazioarteko harremanen esparruan 1944-

46tik aurrera indarrean dagoenaren aldean —garai horretan ezarri zuten AEBek Bretton Woodeko estrategia—. Gehien handitzen ari diren kontraesanetako bat estatu inperialistak eta herrien dinamika aurrez aurre jartzen dituen da; izan ere, alde batetik, estatu inperialisten exigentzia da estatuak ahultzea eta estatu berrien sorrera eragozte, beraren «estatu instrumental» en kasuan izan ezik; eta, bestetik, herrien dinamika bi zentzutan indartzen ari da, alde batetik, beren estatuak indartu nahi dituzte, beren klase menderatzaileen boterea murriztuz, eta, bestetik, nazio zapalduak ahaleginak egiten ari dira beren estatu propioak azkenez sortzeko.

«Estatu instrumentalak» dira inperialismoak bultzatzen dituenak, kapitalismoaren aurreko taktika zahar bati jarraituz, hots, «tapoi-estatuak» edo «estatu aliatuak» sortzea, base militar aurreratu bezala erabiltzeko, balizko gerrei begira. Estatu menderatuak eta kolonizatuak izaten ziren eta izaten dira, etorkizun-ikuspegiak ez dutenak, beren barnean ez bada sortzen independentzia lortu arte aurrera egiten duen indarrak, inperialismoari eta barneko aliatuei nagusituz. «Estatu instrumentalak» ez zaizkio kontrajartzen «Washingtongo Kontsentsua»-ri; aitzitik, funtzionalak dira harentzat, jabetza burgesaren babesaren aldeko eskualde-errefortzu bezala. Ez da lehenengo aldia, potentzia hegemonikoek herrien unibertso subjektibo eta korapilatsuak manipulatu eta bihurtzen dituztena, estatu artifizialen sorrera behartzeko eta, horren bidez, bloke menderatzailearentzat onargarriak ez diren errebindikazioak desbideratzeko, geldiarazteko eta/edo zapaltzeko. Antropologia oso «zientzia sozial» egokia da maniobra maltzur horiek eta beste hainbat justifikatzeko.

Gure estatuaren eraikuntza debekatuta dugun langile-naziook jakitun egon behar dugu inperialismoak bere boterea indartzeko dituen taktiken balioaniztasunaz eta neurri zabalaz. Askotariko taktika horiek bere boterea indartzeko erabiltzen ditu, eta, behar izanez gero, baita «txotxongilo-estatuak» eratze ere. Dena dela, Euskal Herriaren kasuan, azken aukera horrek erabateko erresistentzia topatuko luke Espainiako eta Frantziako estatuen aldetik, eta horrek kontraesanak sortuko lituzke inperialismoaren barnean —orain ez gara horrekin luzatuko—. Gainera, ezin dugu geldirik itxaron, hori gure arazoen konponbidea izango delakoan, euskal burgesiak frankismoaren garaian izandako pasibotasun kolaborazionista errepikatuz.

4. KLASA-BORROKAREN ESPARRU AUTONOMOA

Kapitalismoaren mundializazioak gero eta erresistentzia nazional gehiago sortu ditu. Horietako askok porrot egin dute, baina estatu ahulek bi aukera baino ez dituzte izan: kapitalen kontzentrazio eta zentralizazioaren exigentziei men egitea, edo horren aurka agertzea, beren soberania berretsiz edo beren independentzia lortzearen alde borrokatuz. Eskubide nazionalen aurkako presioak areagotu direnez, erantzuna planteamenduak erradikalizatzeko joera izan da, eskubide bat exijitzetik behar bat asetzearen aldeko borrokara pasatuz. Eduki soziopolitiko zehazteaz batera, klase-eduki herrikoia eraldatzen zen, independentziaren alde borrokatzen duen subjektu kolektiboarengan; hala, subjektu horren zuzendaritza eskuz aldatu zen, jabeen klasearen frakzio baten eskuetan egotetik herri-sektore handien eskuetara pasatu baitzen; sektore horiek nekazariak izan ziren, eta gero herri-masak, non langile-klaseak gero eta rol handiagoa jokatzen baitzuen.

Beraz, eraldaketa kualitatibo bat gertatu zen: eskubide demokratiko orokor baten alde mobilizatzetik independentziaren beharra asetzearen alde borrokatzera pasatu zen, estatu propio baten konkista bilatuz. Bada, eskubidearen eta beharraren arteko dialektika horrek presio inperialisten igoerari erantzuten dio, eta, halaber, jabeen klaseek errebindikazio nazional kontsekuentea bertan behera utzi izanari. Izan ere, klase horiek inperialismoarekin kolaboratzea aukeratzen dute azkenean, modu batean edo bestean. Eta eskubidetik beharrianera daraman eraldaketa kualitatibo horren hondarrean bada beste faktore bat, alegia, herria konturatzen dela bere borroka «klase-borrokaaren esparru autonomo» gisa definitzen den esparruan gauzatzen dela, hau da, bestelako testuinguru historiko batean, nazio hori zapaltzen duen estatuaren testuingurutik eduki eta forma aldetik bereizten dena.

Kontzientziaratzeko nazionala eta estatu propio baten beharri buruzko ikuspegi teoriko argi hori beste zerbaitean islatzen da, hots, herria konturatzen da borroka hori bestelako testuinguru batean gauzatzen dela, bestelako esparru material eta sinboliko batean, bestelako esparru linguistiko, kultural, politiko eta sozioekonomiko batean, estatu menderatzailearen esparruaren aldean desberdintasun kualitatiboak dituen esparru batean, hain zuzen ere. «Klase-borrokaaren esparru autonomo» gisa definitzen da, gainerako esparruetatik eduki eta forma hauetan bereizten dena:

Lehenik, zapalketa nazionalaren existentzia, eta burgesia nazionalak estatu propioa ez izatea. Hala, burgesia autoktonoak herri langilea esplotatzen du esparru autonomo horretan, eta horretarako okupazio-estatuaz baliatzen da. Estatuaren absentiak eta indar objektibo bezala azaleratzen den kontzientzia nazionalaren existentziak herri hau aztertzen duen edonori ezin ezkuta dakioken errealitate bat sortzen dute.

Bigarrenik, herriak erakusten duen praktika historikoa, bai kanpoko erasoei nazio moduan erantzuteko eta bai baldintza txarrenetan ere bere burua antolatzeke eta erasoei aurre egiteko, batez ere, eta hau oso garrantzitsua da, bere gaitasuna ezerezetik abiatuta benetako estatu operatibo eraginkorrak eratzeke, herriaren gehiengoaren sostengua izan duten eta atzerriko inbasio militarren ostean soilik desagertu diren estatu operatibo eraginkorrak eratzeke, hain zuzen ere. Iragan urrunean, nolabaiteko estatu-forma existitu zen; orain, aldiz, eskubide hori indarrez dago debekatuta, eta bi egoera horien arteko kontrasteak agerian uzten du errealitate historiko bereizi baten existentzia.

Hirugarrenik, hainbat belaunaldik aurrera eramandako borroka erakusten du herri horrek badituela erritmo, forma eta eduki propioak bere autoantolakuntzan eta bere erresistentzian, okupazio-estatuan dauden aldean. Erritmo, forma eta eduki horien euskarria belaunaldiz belaunaldi itxuratutako autoantolakuntzaren oroimen kolektiboa da, eta oroimen kolektibo hori herri-kulturan errotu da eta mailaka formatan islatzen da herriaren bizitza kolektiboan: jaietan, merkatuetan, lanean eta bere eskubideak defendatzeko formetan.

Laugarrenik, gizartearen hainbat sektore eta indar oinarritzko errebindikazio komunenguz inguruan biltzeko gaitasuna, denbora luzez erakutsia. Errebindikazio horiek sentimendu nazionalarekin zerikusia dutenak dira, hala nola hezkuntza eta kultura,

amnistia eta eskubide demokratikoak, feminismoa, ekologia, kirolak, eta abar. Hau da, «herri-mugimendu» deritzenak. Horrek esan nahi du badagoela oinarritzko herri-identitate bat, funtsezko errebindikazio jakin batzuk bereganatzen dituen, gizarte kapitalista orotan dauden desberdintasun sozial, kultural eta politikoak alde batera utzita.

Bosgarrenik, bada langileen gehiengoa biltzen duen mugimendu sindikal bat —gehiengo sindikala—, eskubide nazionalak ekintza sindikalaren eta klase-borrokaren elementu bereizezintzat hartzen dituen. Langile-herriak badu berarentzako kontzientzia bat, zeinean identitate nazionala definizio-osagaia baita, eta kontzientzia hori erabakigarria da klase-borrokaren esparru autonomoaren zimenduetan. Langile-klasearen berezko kontzientziaren existentziak berak ez du balio errealitate hori frogatzeko, zeren «faktore subjektibo» erabakigarria falta baitaio, hau da, independentziaren beharrari teoriarik eta praxiarik eusten dion kontzientzia soziopolitiko eta nazionala.

Eta, seigarrenik, zapalduetako herri hori bestelakoa dela aitortuta egotea nazioartean, hau da, haren diferentzia aitortuta egotea: identitate-zeinu agerikoak, eta kontzientzia propioa, hainbat hamarkadaz —edo mendez ere— autoafirmazioz erakutsia. Nazioarteko komunitateak, batez ere bere elementu kultu, aurrerakoi eta ezkertiarrek, autokontzientzia duen herri baten existentzia aitortzen dute, beraren historia eta beraren orainaldia ezagutzen dituztenean.

Zerrenda ez dago guztiz osatuta, eta azalpenaren ordena ez da zorroztasunez hartu behar, zeren herri konkretu bakoitza aztertu behar baita; dena dela, uste dugu ontzat eman daitekeen gutxieneko ideia orokor bat ematen duela. Sei puntuen fusioa nazio zapalduaren praxi kolektiboan gauzatzen da, eta haren bizitzaren une bakoitzean garrantzi handiagoz agertzen dira batzuk besteak baino, koiunturaren arabera. Nolanahi ere, begirada historikoak funtsezko bi gauza erakusten ditu: herriaren berarentzako kontzientziaren garrantzia, eta kontzientzia horrek botere nazional propioaren beharren errebindikazioarekin beti dituen loturak —botere horren gauzatze koherenteena independentzia estatala da—.

Euskal Estatuaren beharra argudio bikoitz baina unitario baten bidez esplikatzeko da: alde batetik, herri bezala bizirik irauteko eskubide/beharrak bezala, kapitalismoaren oraingo fasean; eta, bestetik, klase-borrokaren esparru autonomoaren barneko logikaren garapen erreala bezala. Argudio bakar bat da, bi arrazoi osagarritan zatituta dagoena, zeren biak elkartzen baitira Euskal Estatuan, herri zapalduaren errealitate berberaren bi esfera desberdinetatik. Nazio bezala Euskal Herriari dagokion eskubide/beharra: behar orokor eta abstraktua, herri zapaldu guztiei dagokiena, erabili nahi duten edo ez alde batera utzita. Eta, beste alde batetik, eskubide/beharrak orokor horren konkrezio sozioekonomikoa, politikoa, kulturala, eta abar, historikoki frogatutako errealitate batean, hots, Euskal Herria askapen nazionalaren aldeko borrokaren testinguru espezifiko bat dela, klase-borrokaren esparru autonomo bat dela.

Autodeterminaziorako eskubide orokorra plano abstraktu batean mugitzen da, baina eduki sozioekonomiko edo politikorik gabe; izan ere, eduki hori herri

langileak berak bere estatua eraikitzeko duen beharretik soilik etor daiteke. Gure erantzuna argudioaren lehenengo zatira soilik mugatzen badugu, zati orokor eta abstraktuan geratzen bagara, ez dugu jakingo proiektu independentista edukiz betetzen, eta, hortaz, ezabatuko dugu argudio konkretu, arrazoitu eta bideragarri bezala, sektore zabalak konbentzitzeko eta beharretik askatasunera doan jauzia egiteko beharrezkoak diren indar demokratiko eta aurrerakoiak batzeko gai den argudio bezala. Bigarrenera mugatzen bagara, baina, ez dugu aktibatuko edozein herriren autodeterminazio eta independentzia nazionalerako eskubideak —herriak askatasunez hala erabakitzen badu— berez duen ahalmen eragile eta legitimatzailea.

5. IRAULTZA ETA/EDO ERREFOMA

Kapitalismo mundializatuan bizirik iraun ahal izateko bere estatu independentea eratu behar duen nazio zapaldu orok estrategia bateratu bat aurkitzen du aurrez aurre, hasteko. Estrategia horrek gero eta erresistentzia handiagoa aurkitzen du, baina horrek ez du ahultzen; aitzitik, indartu eta gogortu egiten du, Europar Batasunean ikus daitekeen bezala, botere ekonomiko-politikoaren zentralizatzeko eta kontzentratzeko prozesu trinkoak erakusten duen moduan. Izan ere, euroaren krisia aitzakiatzat hartuta, dekalogo inperialista aplikatzen ari da, potentzia hegemonikoen baldintzetara egokituta.

Gure testuinguruan eta koiuntura hurbilean kokatuta, espainiar eta europar krisian —lehenik eta behin—, esan behar dugu Euskal Estatua ezin lor daitekeela independentzia fiskalik gabe, bere eskubide, eskumen eta botere ekonomikoak beretzat gorde gabe. «Washingtongo Kontsentsua» behin eta berriz aipatzen badugu, horren arrazoa da berak esaten digula zer ez dugun onartu behar, ezin onar ditzakegun exijentzia inperialistak ezartzen dizkigula; izan ere, hor amore emanaz gero, «interbenitutako estatu» bat izango ginateke, baliabide propio nahikorik gabe politika aurrerakoiak alderdi guztietan garatzeko, batez ere herri langilearen hegemonia indartzera zuzendutako politikak garatzeko.

Edozein kasutan zeri eutsi behar diogun jakinda —zertan ezin dugun amore eman—, hurrengo urratsa da jakitea nola hasi behar dugun estatu-aurreko estrategia bat itxuratzen, une honetatik beretik, oraingo baldintzetan, jakitun egonda krisi sozioekonomikoak okerrera egingo duela, Espainiako estatuak behera egingo duela hierarkia inperialistan, eta dekadentzia hori muturrera joango dela bere nazionalismo zapaltzailea indartuz, bere atzerapena konpentsatzeko; jakitun egonda Frantziako estatuak badituela barne-arazoak, hango krisia Espainiako estatukoa bezain larria ez izan arren, eta, horregatik guztiagatik, bi Estatuak era guztietako baliabideak mobilizatuko dituztela Euskal Herriaren barnean.

Planteatzen duguna da konkista praktiko eta teorikoetan aurrera egitea, esperientzia eta lorpenetan aurrera egitea, horren bidez itxuratzeko, aldeaz aurretik, nolakoa izango litzatekeen gure bizitza Euskal Estatua edukiko bagenu. Oso garbi utzi behar da, hasieratik beretik, lorpen horiek bermatu gabekoak eta zalantzazkoak izaten direla beti, Espainiako estatuaren eta barneko kolaborazionisten erasoan jo-puntuan egoten baitira, setiatuta. Azpimarratu behar da, berriz ere, konkista horien

iraupena borrokaren graduaren mende egongo dela, borroka areagotzearen eta hedatzearen mende egongo dela; azpimarratu behar da konkista horiek ez dutela atsedeen-unerik izango, eta zalantzatan ibili edo beren aurrerapena gelditzen badute, Espainiako estatuaren promesak inoiz sinesten badituzte, orduan hasiko dela haien porrota.

Hemen gogoratu behar da iraultzaren eta erreformen arteko dialektika, eta erreformaren edo iraultzaren arteko antagonismoa. Lehendabizikoak esplikatzen du iraultzaren bidean egiten dugula beti aurrera, sozialismoaren bidean, eta konkistatzen ditugun erreforma txikietan egiten ditugun urratsak bermerik gabeko aurrerapenak direla, eta emantzipazioaren indarrak zabaltzera soilik zuzentzen direla, haien zilegitasuna eta sustraiak sendotzera, adibidearen pedagogiaren bidez, alegia, konkista konkretu horren bidez lortutako hobekuntza material eta moralaren bidez. Iraultzaren eta erreformaren arteko dialektikak erakusten duenez, garrantzitsuena da erreforma apurtzaile eta erradikalak sozialismoaren bizipenean txertatzea, iraultzaren bizipenean. Erreforma erradikala hauxe da: eremu espezifiko batean, bertan pairatzen den zapalketaren edo arazo konkretuaren sustraira iristea ahalbidetzen duen erreforma; eremu hori enpresa bat izan daiteke, edo unibertsitate bat, herri bat, eta abar. Leku horietan, emantzipazioaren indarra areagotu daiteke, konkistatutako espazio legala boterearen kontra zuzentzen jakitearen bidez, era horretan itxaropen berriak irekiz, aurrerapen berriak, baina beti borrokan eta azkeneko garaipenera zuzenduta.

Erreformaren edo iraultzaren arteko antagonismoak, berriz, bestelako esanahi bat du, alegia, esan nahi du erdietsitako lorpenak bertan geratzeko ikuspegiz irabazten direla, ez direla lortzen konkista berrien palanka izan daitezen, erreforma erradikal eta apurtzaileak izateko asmoz; aitzitik, asmoa da erreforma «normalizatzaile» hutsak izatea, hau da, erakutsi nahi dute sistema menderatzailea barnetik erreformatu daitekeela, beraren legeen bitartez, pazientziatz. Era horretan, erreforma borrokaren amaiera bihurtzen da praxian, kontzientziazio-prozesuaren helmuga da. Prozesu horrek ezin jarrai dezake aurrera egiten, mobilizazio ofentsiboa gelditzen duelako bere helburua lortzen duenean, konkistatutakoa defendatzera mugatuz, eta, gainera, botere esplotatzaileak baimentzen dituen legeez soilik baliatuz.

6. EUSKAL ESTATUA AURRETIK ITXURATZEN

Estatuaren forma orain hasi behar da itxuratzen, konkista apurtzaileetan, gutxienez lau alor handiren bitartez: eskubide eta askatasunen berreskurapena; euskal kultura eta identitatea; sozioekonomia; eta hedabideak eta kontzientziazioa. Lau alorrek lotura sinergikoa dute elkarren artean —orain ezin dugu azaldu—.

Eskubide eta askatasun nazional eta demokratikoei dagokienez, konkistatutako botere-espazioek bultzatu eta exijitu behar dute errepresioagatik erbesteratu behar izan duten pertsonak Euskal Herrira itzul daitezela; exijitu behar dute, halaber, aurrera egitea gatazka bortitzaren konponbidean eta askotariko desmilitarizazioan, udaltzaingoena ere barne sartuta, zeren udaltzaingoa kidego zibila izan behar baita,

hitzaren zentzu osoan. Halaber, «segurtasun pribatua»ren industria deritzana ere debekatu behar da, higiene demokratikoagatik. Gisa berean, tortura eta tratu txarrak, «abusuak» eta poliziaren ustelkeria debekatu eta gogor zigortu behar dira. Horrez gain, justizia eta espetxe-sistemari buruzko hausnarketa ere egin behar da, herriak demokratikoki ezeztatu dezakeen justiziaren alde eginez. Politika orokor horrek modu garbian irudikatu behar du nolakoa izango den Euskal Estatuak eskubide demokratikoen alorrean bermatu eta aplikatuko duen politika.

Horrekin batera, botere menderatzaileak murriztutako eskubide eta askatasun guztien berrezarpena exijitu behar da; halaber, Euskal Herrian demokrazia sozialistarantz aurrera egiteko beharrari buruzko eztabaidak eta mobilizazioak antolatu behar dira, eta horri lotuta azpimarratu behar dira demokraziaren eta estatuaren arteko harremanak, herriaren ekintza zuzenaren eta lege sozialistaren artekoak eta mugimendu herritar, sindikal eta sozialen artekoak, horiexek baitira estatuak herriaren borondatea bete eta defendatuko duela kanpotik berma dezaketen masa-indarrak, eta horiexek bermatuko dute, batez ere, estatua ez dela hasiko isolatzen, urruntzen eta burokratizatzen. Premiazkoa da planteatzea estatua «kristalezkoa» izan behar dela, gardena eta merkea izan behar dela alor guztietan, euskal segurtasun nazionalarentzat ezinbestekoak diren gaietan izan ezik —segurtasun hori herriak bermatu behar du, armen bidez—. Eta, zalantzarik gabe, gogoeta kolektibo hauetan, presentzia etengabea izan behar du lehenengo eta azken gaiak, jabetzaren izaerarenak, galdera honi ematen zaion erantzunaren bitartez: norena da Euskal Herria, bere herri langilearena edo inperialismo frantziar eta espainiarrarena?

Etorkizuna aurretik itxuratzen duen politika kultural eta linguistikoari dagokionez, konkistatutako botere-espazioek aurrera egin behar dute «iraultza kultural» euskaldun eta euskaltzalean, oraingo testuinguruak ahalbidetzen duen neurrian: ulertu behar da herri-kultura herriak askatasunez ekoiztiko erabilera-balio material eta sinbolikoen ekoizpena eta administrazioa dela; aurrera egin behar da, arian-arian, haien desmerkantilizazioan eta despatriarkalizazioan; beharrezkoa da lan intelektuala eta esku-lana arian-arian berriro batzea; nabarmentzekoa da oroimen historiko eta militarrek herri-kulturaren osagai aurrerakoietan duen garrantzia; kontuan hartzekoak dira, halaber, «ondasun komun»ekin eta burgesiaren aurreko praktika demokratikoekin zerikusia duen guztiak herri-kulturan dituen tradizio bizidunak, horren forma guztietan: auzolana, batzarra, komuna, kontzejua, elkarrenganako laguntza, lankidetzak, elizatea... oraingo beharren arabera eguneratuta.

Euskal identitate nazional aurrerakoi eta herrikoia oraingo (ber)eraikuntza ezin bereizi daiteke estatuaren aurreitxuraketatik, arrazoi eztaba daezin batengatik: historiak erakusten du identitate nazional guztiak (ber)eraiki edo desagertzen direla bere herriko barne-kontraesanen eraginez eta kanpotik jasotzen dituen presio eta erasoen eraginez; erakusten du, halaber, etengabeko tentsio sortzaile edo suntsitzaile horretan ezinbestekoa dela herriak izatea identitate kolektiboaren (ber)eraikuntza hori bultzatu edo oztopatzen duen estatu-formaren bat; izan ere, identitate hori zatituta egongo da barneko esplotazio soziala dagoen bitartean, eta kanpotik datozen mehatxuen mende egongo da, inperialismo-formaren bat dagoen

bitartean. Botere zentralizaturik eta zentralizatzailek gabeko herriak —hau da, estatutik gabeko herriak— berebiziko zailtasunak ditu bere identitatea aberasteko, batez ere beren aparatu estatualen sostengua duten horien erasoei aurre egiteko.

«Iraultza kulturalak» mota guztietako mugak gainditu behar izango ditu oraingo testuinguruan, eta muga horiek ez dira etorriko Espainiako eta Frantziako estatuetatik eta euskal indar atzerakoi eta kontserbadoreen aldetik soilik, baita herritarren erresistentzia irrazionaletatik eta militante independentista eta sozialista askoren aldetik ere. Gisa berean, iraganarekin lotzen gaituzten «kate autoritario»ek ere nabarmenki balaztatuko dute identitatearen ber(eraikuntza), hots, gure herri-kulturaren osagai aurrerakoien eguneraketan oinarritutako ber(eraikuntza). Haren osagai atzerakoiak, matxistak, sexistak, erlijiosoak, eta abar... eta «iraultza kulturala»ren aurkako erresistentziak modu bakar batez gainditu daitezke: «subertsioaren plazera» deritzanaren bidez, hau da, praxiari eta era guztietako konkistei esker bizitza nola hobetzen den sentitzeak dakarren bizi-sariaren bidez —testuinguruak esplotatzaile eta bidegabea izaten jarraitzen badu ere—.

Gogoan izan behar dugu, betiere, gaurko lorpenak etorkizuneko independentzia estatualaren eta sozialismoaren oinarri txiki baina baliagarriak direla; geroak orainaldian duen presentzia horrek «subertsioaren plazera» biderkatzen du, batez ere konkistatutako boteretatik «alor pribatua politizatzeko» lan pedagogikoa egiten denean. Aurrera egin behar da zapalketa eta ustiapen «ikusezinak» gainditzeko bidean, harreman afektibo, maitasunezko eta/edo sexualetan, lan-harremanetan; bizimodua aldatzen hasteko bitartekoak eskaini behar zaizkie hori nahi dutenei, elkarbizitzarako esparruak, komunak eta patriarkal-burgesak ez diren bestelako familia-harremanak bultzatuz, bestelako sexualitateak sustatuz, sormen artistiko eta intelektuala hirigintza-diseinuaren baitan ere akuilatuz, kolektibotasuna eta pertsonen arteko esparruak errazteko, horretarako gogorik egonez gero, indibidualismo egoista, erreprimetua eta zapaltzailea atzera botaz. «Pribatutasunaren politizazioa» estatu ez-burges bat aurretik itxuratzeke forma onenetako bat da.

Alor sozioekonomikoa aurretik itxuratzeari dagokionez, exijitu behar den lehenengo gauza da oraingo krisiaren arduradun ekonomiko eta politikoak ikertu, auziperatu eta espetxeratuak izan daitezela. Gehiengoak sostengatzen duen errebindikazio horren bidez, etorkizuneko Euskal Estatuaren legeak nolakoak izan behar diren proposatzen ari gara jadanik. Adibide horrek ahalbidetzen digu krisiarekin eta beraren ondorioekin zuzeneko lotura duten beste gai batzuetan aurrera egitea; adibidez: banka eta finantza-ingeniaritza demokratikoki kontrolatzeko legeak; enpresen kontrola langileen eskuetan uzteko legeak; kapitalen ihesa eta ekonomia ezkutu eta kriminala kontrolatzeko legeak, eta abar. Era horretan, pirata burgesek jakingo dute, une honetatik beretik, beren zigorgabetasuna agortzen ari dela.

Nolanahi ere, adibide horiek eta beste hainbatek erreforma erradikalak azkartzen dituzten konkista errealean bermea behar dute, hala nola aurrekontu publikoak erabiltzea honako hauek bultzatzeko: ekoizpen-forma alternatiboak, ekoizpen- eta kontsumo-kooperatibak, lan sozial eta publikoaren haztegiak, lanaldia murriztea guztiok lan egiteko, aldi sabatikoak eta lanaren borondatezko errotazioa, truke eta merkatu justua, denbora- eta lur-bankuak, publikoki abalaturako beste

moneta-forma bat bultzatzea. Asmoa da langabezia-tasa, egonkortasunik eza eta lanaldi esplotatua arin murriztea, horren truke ekintza politiko-kulturalera zuzendu daitekeen aisialdia handitzeko.

Beste alde batetik, abandonatutako edo itxitako enpresa, lokal eta etxebizitzaren berreskurapena bultzatu behar da, etxebizitzaren erreserba publikoak sortuz eta alokairu merkean jarritz, berme instituzionalarekin; halaber, beren jabeek erabilera publikora atera nahi ez dituzten eraikinak eta etxeak desjabetzeko politikak abiatu behar dira, hori guztia lurzorua sozializatzeko estrategia baten barruan, lurzorua gainera jabetza pribatua desagerrarazteko xedez, hori ezinbesteko aurrerapena baita. Neurri horiek eta beste batzuk bultzatzeko, erreforma fiskal aurrerakoi eta zuzenak aplikatu behar dira, osagai hauekin: zerbitzu eta enpresa publikoak areagotzea, aurrekontu ofizialarekin; eskubide sozial eta sindikalak indartu eta burgesenak murrizten dituzten legeak; I+G+b-ra zuzendutako inbertsioak; burgesia txikiarentzako diru-laguntzak, berrikuntzak eta kontratazioak egin ditzan; autozentratutako eta demokratikoki planifikatutako garapena bultzatzea, horren bidez sozialismo ekologiko antiinperialista aurretik itxuratzeko; nazioarteko merkatu alternatiboak bilatzea; elkarrekikotasunean eta deskonexioan oinarritutako nazioarteko harremanak; eta beste asko eta asko.

Eta, bukatzeko, behar dugun estatuaren aurre-itxuraketaren tesitik begirata, komunikazio-politikaren ezaugarri nagusia izan behar da komunikazioari buruzko ideia burgesetik kualitatiboki urruntzea; izan ere, komunikazio burgesak neutral, inpartzial eta objektibo agertu nahi du, baloraziorik egiten ez duela esanez, baina guztiz kontrakoa da errealitatean. Askapen nazionalarentzat, klase-borrokaren esparru autonomoaren baitan, komunikazioak beste elementu batzuk integratu behar ditu: prestakuntza kritikoa, bere testuinguruan kokatutako informazioa, eta herriaren erantzun eta interaktibitateko bitartekoak, bere esperientzia aberasgarri eta erabakigarriak plazaratu ditzan. Horretarako, konkistatutako botere-espazioek eta erreforma erradikalek informazio, prestakuntza eta eztabaidarako sareak eratu behar dituzte, interaktiboak, horizontalak, irekiak.

Sistema honek izan behar duen ezaugarri bat da sarbide librea uztea kontu publikoen benetako egoera ezagutzeko, eta gauza bera banku eta enpresei dagokienez, estatuaren aparatuei dagokienez, eta ekoizpen, gastu publiko, diru-laguntza eta laguntza, finantza-sistema, bizitza politiko eta horrelakoekin zerikusia duten instituzio guztiei dagokienez, instituzio horiek gardentasunez jokatu beharko dute nahitaez. Lortu behar dena da herriak ezagutzea, inolako muga edo tranpa burokratikorik gabe, zein den *res publicaren* benetako egoera. Gardentasun eta ezagutzarako eskubide/beharrak herritarra defendatzea, eta burgesiaren iruzurrerako eskubidea debekatzea, kontabilitate bikoitz edo hirukoitzerako eta sekretu burokratikorako eskubidea debekatzea, funtsezko urratsa da herriari irekitako estaturantz aurrera egiteko.

7. AUTOGESTIO SOZIAL HEDATUA

Esan behar dugu, berriz ere, praktika hauek eta beste batzuk ez direla berez praktika sozialistak, baina horien oinarritzko ezaugarri batzuk itxuratzen dituzte aurretik,

nolabait; dena dela, gai erabakigarriena, jabetzaren izaerarena —kapitalista edo sozialista—, konpondu gabe egongo da oraindik ere, zeren ez baita aurrerapen kualitatiborik egin prozesu iraultzailean. Kontuan hartu behar da, horri dagokionez, lehen aipatutako konkistak menderatze burges eta frantziar-espainiarraren esparruaren baitan lortu behar direla. Horregatik, euskal klase menderatzailearen eta berau babesten duten estatuen kontraofentsiben mende egongo dira beti —kontraofentsiba etsiak edo sendoagoak—.

Horrenbestez, mintzagai duguna da klase-borroka Euskal Herriaren baitan erradikalizatzeko joera, baita bi Estatuena aurka zuzendutako askapen-borroka ere, hau da, mintzagai duguna da klase-borrokaren esparru autonomoaren garrantzi gero eta handiagoa, goitik ikusita, eta, beraz, Euskal Estatuaren errebindikazioaren igoera geldiezina. Herri langileak ikusi eta sentitzen badu bere eguneroko bizimodua hobetu dezakeela, bere kontrabotereko, botere bikoitzeko eta herri-botereko espazioak areagotuz, neurri horretan galdetuko dio bere buruari zergatik ez ote duen gehiago aurreratzen noranzko horretan, zergatik ez ote dituen konkista horiek euskal gizarte osoarengana hedatzen. Eskuratutako esperientziak estatua izateko eskubide/beharraren kontzientzia igoaraziko du, batez ere ezker abertzaleak indar antolatu gisa jarduten badu herriaren baitan, berezko kontzientziaz berarentzako kontzientziara azkar pasatzea ahalbidetuz.

Hemen hiru eztabaida planteatzen dira, estatuaren aurre-itxuraketarekin guztiz lotuta daudenak: subjektu iraultzailearen definizioa, gure kasuan herri langilea; ezker abertzalearekin dituen harremanak, abangoardiako erakunde bezala; eta, hortik, burgesia txikia eta beste sektore batzuk Euskal Estatuaren eraikuntzan sartzeko beharrezkoa den herri-hegemonia. Eztabaida hirukoitz hori XIX. mendearen hasieratik dago abiatuta, eta Euskal Herrian ez du konponbiderik klase-borrokaren esparru autonomoaren teoriatik bereizten bada. Porrot egin dute eztabaida hori kanpoko prozesuetatik mekanikoki inportatutako dogmatismo literala aplikatuz konpondu nahi izan duten ahalegin guztiek, zeren ez baitira saiatu teoria euskal errealitatera modu kritikoan egokitzen. Ezker abertzaleak herri langilearen kontzeptua eguneratu zuen, gure baldintzetara egokituz, beraren funts baliagarriari eutsiz eta beraren forma euskal kapitalismora eta gure askapen-borrokara egokituz.

Herri langilearen kontzeptua «kontzeptu malgu» bezala definitzen da. Haren oinarritzko erdigunean langile-klasea dago, oraingo kapitalismoan existitzen den bezala, bere klase-sentimendu nazionala eta berarentzako kontzientzia handitzeko joera garbiarekin. Gero, bitarteko bigarren esferan, masa esplotatuak aurkitzen ditugu, beren prekarietateaz kontziente direnak, pobretzen ari diren klase ertainak eta talde sozialak, bakoitza bere klase-kontzientzia nazional propioarekin —gradu desberdinak daude hor—, sentimendu independentista, soberanista eta demokratikoekin, eta, krisiak bultzatuta, erradikalizatzeko joerarekin. Bukatzeko, kanpoko azken esferan, herri-sektore zabalak, beren burua esplotatzen dutenak, lanbide liberalak eta proletarizazioetik gertu dagoen burgesia txikia, langile gutxi esplotatu arren kontzientzia nazional interklasista eta ez-atzerakoia duena.

Horixe da, ez besterik, askapen-borrokaren subjektua, plangintzaren eta autogestio sozial hedatuaren oinarritzko metodoak ikasiz doana; beraren ekarpena

izan ezean, ezinezkoa da estatu ez-burges, langile eta herrikoirik sortzea. Eta bere buruaz kontzientzia duen subjektu kolektibo horren baitan, euskal ezker independentista eta sozialistak dihardu garrantzi handiko alderdi bezala; izan ere, subjektu horren barrenetatik sortu da eta hor bizi da. Hemen ere oso erratuta daude klase-borrokaren esparru autonomia ukatzen dutenak, edo formalki onartu arren euskal errealtatetik kanpoko tesi dogmatikoetatik interpretatzen dutenak.

«Hegemonia» kontzeptuak interpretazio bat baino gehiago onartzen ditu, norberaren estrategia politikoaren arabera. Hegemonia indar demokratiko, aurrerakoi eta soberanistak batzeko prozesua da. Gertaeren poderioz, beren borrokan bertan, indar horiek konturatzen dira, gero eta gehiago, herri langilearen independentismoa eta beraren estatu-eredua direla Euskal Herriaren alternatiba bakarra, eta, hortaz, konturatzen dira ezinbestekoa dela bide hori sakontzea eta aberastea, indarrak helburu horri begira bateratzeko. Krisi hondagarri honen eraginez, burgesia txikiak, lanbide liberalek, «klase ertainek» eta gisa berekoek burgesia handiaren neurriek ekarritako eraso sozioekonomikoak pairatzen dituzte. Herri langilearen hegemoniak egin behar duena da toki, eskualde eta nazio mailako integrazioarako alternatibak eskaini, askapen-prozesuaren aurrerapenen arabera, baina betiere demokratikoki planifikatutako sistema baten baitan, hori ezinbestekoa baita sozialismoarentzat.

Aurrekoa garrantzitsua bada ere, estatuantz aurrera egiteko esperientzia horietan benetan erabakigarria dena ikaskuntza kolektiboa da, herri langilearen autogestio sozialean, bere plangintza sozioekonomiko, politiko eta kulturalerako gaitasunaren ikaskuntza praktikoa. Estatuaren sorrerara eta independentismo sozialistaren aurrerapenera orientatutako erreforma txiki eta ertain horietan, erreforma erradikal eta apurtzaile horietan. Autogestio sozial hedatua edo orokorra sozialismoarekin etorriko da, eta estatua modu merke eta eraginkorrean, antiburokratiko eta horizontalean administratzen jakingo duen masa-praktika izango da —geroagoko desagerpen kontzientea prestatuz—. Autogestioa praktikarekin ikasi behar da, ez dago beste aukerarik, eta proposatutako metodo eta konkistak dira existitzen den metodo pedagogiko bakarra, betiere lotuta demokraziaren hedapenaren metodoari eta soldatuko lanaldi esplotatuaren murrizketa erradikalari.

Azterlan honetan jasotako ekarpen teorikoak, interesgarri bezain baliagarriak izango dira euskal Estatuaren aldarrikapena edukiz hornitzeko, eta lagungarriak, halaber, horrelako apustu bat bideratzeko beharrezkoa den oinarri material eta ideologikoa lantzeko. Liburu bilduma honetan agerian geratzen da Estatua dela alternatibarik onena Euskal Herrian bizi eta lan egiten dugun pertsona guztiontzat, eta Euskal Herriak badituela oinarritzko potentzialtasunak, gaur eta orain, europar Estatuaren multzoan Estatu berri bat eraikitzeko.



iparhegoa

IKASKETA
SINDIKALETARAKO
FUNDATZIOA